Dekretua, (...)/(...), (...)aren (...)koa, Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta nerabeei arreta eta babesa emateko udal- eta lurralde-gizarte zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna baloratzeko tresnaren eguneratzea (Balora) onartzen duena

Haur eta nerabeak babestea botere publikoen lehentasunezko erantzukizuna da, eta haien eskubideen erabilera eraginkorra, ongizate integrala eta garapen fisikoa, emozionala, kognitiboa, soziala eta afektibo-sexuala bermatzera bideratuta dago. Agindu hori adingabeak eskubideen titular diren subjektutzat aitortzean eta administrazio publikoek haien babes egokia arriskuan jar dezaketen egoerak prebenitu, detektatu eta artatzeko duten betebeharrean kokatzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoan, erantzukizun hori adingabeen babes juridikoari eta indarkeriaren aurkako babes integralari buruzko Estatuko legeriaren esparruan gauzatzen da, bai eta Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari gizarte-laguntzaren, adingabeen babesaren eta tutoretzaren, haur- eta gazte-politikaren eta komunitate-garapenaren arloan esleitutako eskumenen babesean emandako autonomia-erkidegoko araudiaren esparruan ere. Oinarri horren gainean, haurrei, nerabeei eta gizarte-zerbitzuei buruzko euskal legeriak arreta- eta babes-sistema bat eratzen du. Sistema horretan, udal- eta lurralde-gizarte zerbitzuek kalteberatasun-, arrisku- eta desanparo-egoerak prebenitzeko, detektatzeko, baloratzeko, haietan esku hartzeko eta babesa emateko eginkizunak hartzen dituzte beren gain, honako printzipio hauen arabera: adingabearen interes gorena, jarduketa proportzionatua, erakundeen arteko koordinazioa eta eskubideen bermea.

Babes-esparru horrek bilakaera nabarmena izan du azken urteotan, bai Estatuan, bai autonomia-erkidegoan. Estatuan, bilakaera hori, alde batetik, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren erreformen bidez gertatu da, erreforma horiek adingabeak babesteko sistema indartu baitute; eta, bestetik, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa onartzearen bidez, lege horrek indarkeria mota ororen aurrean ikuspegi integrala, prebentiboa eta detekzio goiztiarrekoa ezartzen baitu. Autonomia-

erkidegoan, Haurren eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legeak modu integralean eguneratu du euskal esparru juridikoa, eta sendotu egin du eskubideetan, adingabearen interes gorenean, kalteberatasun-, arrisku- eta babesgabetasun-egoeren prebentzioan eta detekzio goiztiarrean, eta kasu bakoitzaren banakako balorazioan oinarritutako administrazio-jarduketa arrazoitu eta proportzionatuaren beharrean oinarritutako ikuspegia. Horrek guztiak agertoki juridiko zorrotzagoa eratu du prebentzioari, detekzio goiztiarrari, larritasunaren balorazioari, erakundeen arteko koordinazioari eta administrazio-erabakien motibazioari dagokienez, eta beharrezkoa egiten du udal- eta lurralde-gizarte zerbitzuek erabiltzen dituzten tresna teknikoak egokitzea.

Orain arte, arlo horretan, maiatzaren 9ko 152/2017 Dekretua aplikatu da, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta nerabeei arreta eta babesa emateko udal- eta lurralde-gizarte zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna baloratzeko tresnaren eguneratzea —BALORA— onartu baitzen. Dekretu horrek azaroaren 8ko 230/2011 Dekretuaren bidez hasieran onartutako bertsioa eguneratu eta ordeztu zuen.

Hala ere, gizarte-, familia- eta teknologia-errealitateen bilakaerak, tresna aplikatzean metatutako esperientziak eta Estatuko nahiz autonomia-erkidegoko arau-esparruan izandako aldaketek beharrezko egiten dute BALORA berriz eguneratzea. Eguneratze horren bidez, arrisku- eta babesgabetasun-egoera berriak txertatu, balorazio-adierazleak hobetu, kalteberatasun-egoeren detekzio goiztiarra indartu eta tresnaren aplikazio homogeneoa, objektiboa eta juridikoki arrazoitua bermatu nahi dira.

Tresna eguneratua iritzi profesionalari laguntzeko tresna tekniko gisa eratzen da, haur eta nerabeei eragin diezaieketen babesgabetasun-, arrisku- eta desanparo-egoeren existentzia eta larritasuna baloratzeko. Horretarako, BALORAk honako elementu hauen inguruan egituratzen du balorazioa: oinarrizko beharren estaldura, hazkuntza- eta babes-betebeharren betetzea, benetako edo balizko kaltearen existentzia, kalteberatasun- eta babes-faktoreak, eta dagokion arrisku- edo desanparo-mailaren zehaztapena.

Era berean, BALORAk haur edo nerabe bakoitzaren banakako balorazioa indartzen du, baita familia-nukleo berekoak direnean ere, honako inguruabar hauek kontuan hartuta: adina, heldutasun-maila, egoera pertsonala, desgaitasuna, premia bereziak, bizi-

historia, indarkeriarekiko esposizioa eta garrantzitsuak diren beste faktore batzuk. Banakakotze horri esker, administrazioaren erantzuna adingabe bakoitzaren egoera zehatzera eta haren interes gorenaren printzipiora egokitu daiteke.

Tresnaren eguneratzeak babesgabetasun-tipologiak ere sistematizatzen ditu, eta honako egoera hauen balorazioa txertatu edo indartzen du: tratu txar fisikoa, zabarkeria, sexu-indarkeria, tratu txar psikologikoa, genero-indarkeriarekiko edo familiako bestelako indarkeriekiko esposizioa, abandonua, gurasoek jokabidea arautu eta kontrolatzeko duten ezintasuna, jaio aurreko tratu txarra edo arriskua, ustelkeria, eskaletasuna eta lan-esplotazioa. Era berean, ingurune digitalarekin, indarkeria digitalarekin eta kalteberatasun bereziko egoerekin lotutako errealitate eta arrisku berriei erreparatzen die.

Garrantzi berezia du genero-ikuspegia eta indarkeriaren aurkako babesa txertatzeak. Tresnak haur eta nerabeek genero-indarkeria eta indarkeria bikarioa, sexu-indarkeria eta familiako bestelako indarkeriak pairatzea babesgabetasuna baloratzeko elementu garrantzitsutzat hartzen du, eta esku-hartzea erantzun koordinatu, babesle eta ez-birbiktimizatzailera bideratzen du.

Gainera, BALORA eguneratzeak egoera bakoitzaren larritasunaren arabera dagokion erantzuna argitzen laguntzen du, eta bereizi egiten ditu kalteberatasuna, arrisku arina, arrisku ertaina, arrisku larria, desanparoa eta babes-neurriak, borondatezko zaintza edo behin-behineko zaintza eska dezaketen egoerak. Horren bidez, egindako balorazio teknikoaren eta zerbitzu eskudunek hartu beharreko esku-hartze instituzionalaren arteko koherentzia indartzen da.

Azken batean, dekretu honen bidez BALORA tresnaren eguneratzea onartzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta nerabeei arreta eta babesa emateko udal- eta lurralde-gizarte zerbitzuei tresna erkide, eguneratu eta indarrean dagoen arau-esparruarekin bat datorrena emateko. Tresna horri esker, balorazio profesionalaren kalitatea hobetu, segurtasun juridikoa indartu, administrazioen arteko koordinazioa sustatu eta babes-sistema eraginkorragoa, prebentiboagoa eta bermatzaileagoa sendotu ahal izango dira, betiere haur edo nerabearen interes gorena lehentasunezko irizpide izanik.

Horrenbestez, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak (...) egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta nerabeei arreta eta babesa emateko udal- eta lurralde-gizarte zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna baloratzeko tresnaren eguneratzea (Balora) onartzea

Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta nerabeei arreta eta babesa emateko udal- eta lurralde-gizarte zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna baloratzeko tresnaren eguneratzea (Balora) onartzen da. Tresnaren testua dekretu honen eranskin gisa jasotzen da jarraian, eta nahitaez erabili beharko dute haur eta nerabeei arreta eta babesa emateko aipatutako udal- eta lurralde-gizarte zerbitzuek.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Dekretu hau indarrean jartzen denean, indargabetuta geratuko da maiatzaren 9ko 152/2017 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta nerabeei arreta eta babesa emateko udal- eta lurralde-gizarte zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna baloratzeko tresnaren eguneratzea (Balora) onartzen duena, bai eta, oro har, dekretu honetan ezarritakoaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak ere.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko .....aren ....(e)an.

Lehendakaria,

IMANOL PRADALES GIL

Consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico

NEREA MELGOSA VEGA

(...)/(...) DEKRETUAREN ERANSKINA, (...)AREN (...)KOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAUR ETA NERABEEI ARRETA ETA BABESA EMATEKO UDAL- ETA LURRALDE-GIZARTE ZERBITZUETAN ARRISKU- ETA DESANPARO-EGOEREN LARRITASUNA BALORATZEKO TRESNAREN EGUNERATZEA (BALORA) ONARTZEN DUENA

PROPOSAMENA:
BALORA 3.0 TRESNAREN EGUNERATZEA

ZIRRIBORRA

Aurkibidea

Orrialdea

SARRERA 7

TESTUINGURUA 9

1. **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN HAURRAK ETA NERABEAK ZAINDU ETA BABESTEKO GIZARTE-ZERBITZUEK ESKU HARTZEKO ESPARRUA** 9
   - 1.1. Haur eta nerabeen eskubideak eta oinarrizko premiak
   - 1.2. Haur eta nerabeen eskubideak eta oinarrizko premiak urratzen edo arriskuan jartzen dituzten egoerak: Indarkeria-egoerak, babesgabetasun-egoerak eta babesgabetasunarekiko zaurgarritasun-egoerak
2. **BALORA TRESNAREN HELBURUAK** 13
3. **ARRISKU ARINA, ARRISKU ERTAINA, ARRISKU LARRIA, BABESGABEZIA ETA BESTELAKO BABES-NEURRIAK BEHAR DITUZTEN EGOERAK:DEFINIZIOA ETA ESKU-HARTZEA** 15
   - 3.1. Arriskua
     - 3.1.1. Arrisku arina
     - 3.1.2. Arrisku ertaina
     - 3.1.3. Arrisku larria
   - 3.2. Babesgabezia
   - 3.3. Bestelako babes-neurriak behar dituzten egoerak: Borondatezko zaintza eta behin-behineko zaintza
   - 3.4. Laburpen-taula

BALORA TRESNAREN OINARRIAK: BABESGABETASUNIK DAGOEN ETA HAREN LARRITASUNA ZEIN DEN BALORATZEKO ELEMENTUAK ETA IRIZPIDEAK 23

1. **GURASOEN PORTAERA EBALUATZEA** 24
   - 1.1. Haur edo nerabearen oinarrizko premiak asetzea eta guraso-rola (hazkuntza- eta babes-eginbeharrak) ondo betetzea

1.2. Gizarte Zerbitzuen ikerketa- eta ebaluazio-prozesuetan eta esku-hartzeetan laguntzea

2. HAURRAK EDO NERABEAK JASANDAKO KALTEA EBALUATZEA **30**
2.1. Garapen-arloak eta kaltearen adierazleak
2.2. Kaltea ebaluatzeko parametroak: kalte erreala/potentziala eta kalte esanguratsua/larria
2.2.1. Kalte erreala eta potentziala
2.2.2. Kalte esanguratsua eta larria

3. GURASOEN PORTAERAREN ETA HAURRAK EDO NERABEAK JASANDAKO KALTEAREN ARTEKO LOTURA **39**

4. BABESGABETASUNIK DAGOEN ETA HAREN LARRITASUNA ZEIN DEN BALORATZEKO ORDUAN KONTUAN HARTZEKO BESTE OHAR BATZUK **41**

TRESNA APLIKATZEKO PROZEDURA **43**

1. TRESNA APLIKATZEKO EGOERAK ETA UNEAK ETA ZERBITZU ARDURADUNAK **43**
1.1. Tresna zer egoeratan eta unetan aplikatu behar den
1.2. Tresna zer egoeratan ez den aplikatu behar edo zer egoeratan ez den guztiz aplikatu behar
1.3. Zerbitzu arduradunak
1.4. Laburpen-taula

2. PROZEDURA **50**
2.1. Profesional taldeak
2.2. Bizikidetza-nukleoko haur edo nerabe guztien banakako balorazioa
2.3. Kontuan hartu behar den aldia
2.4. Informazio-bilketa
2.5. Haur edo nerabearengandik informazioa jasotzea eta hari entzutea
2.6. Inguruabar bereziak
2.6.1. Genero-indarkeria jasaten duten familietako haurrak eta nerabeak
2.6.2. Sexu-indarkeriako egoera egiaztatuak edo horren susmoak
2.6.3. Interneterako eta sare sozialetarako sarbidea eta haien erabilera
2.6.4. Banandutako edo dibortziatutako bikoteak
2.6.5. Balio edo ohitura bereziekin lotutako praktikak
2.6.6. Legez emantzipatu gabe bizimodu independentea duten nerabeak

TRESNA APLIKATU OSTEKO ONDORIOAK 68

1. TRESNAREN ONDORIOAK 68
   1.1. Lehenengo urratsa – Babesgabetasunik dagoen eta haren larritasuna zein den zehaztea
   1.2. Bigarren urratsa – Beste informazio garrantzitsuren bat biltzea
   1.3. Hirugarren urratsa – Arrisku-maila edo babesgabezia zehaztea
   1.4. Laburpen-taula: Babesgabetasunaren larritasuna baloratzetik arrisku-maila edo babesgabezia baloratzera
2. TXOSTENA EGITEA ETA LABURPEN-ORRIA BETETZEA 74

KASUAK UDALEKO ETA LURRALDEKO GIZARTE-ZERBITZUEN ARTEAN DERIBATZEA, TRESNA APLIKATU OSTEKO ONDORIOEN ARABERA 76

1. DERIBATZEKO UNEAK 76
2. UDALEKO GIZARTE-ZERBITZUETATIK LURRALDEKOETARA DERIBATZEA 77
3. LURRALDEKO GIZARTE-ZERBITZUETATIK UDALEKOETARA DERIBATZEA 79
4. NOLA JARDUN, BABESGABETASUN-EGOEREN BALORAZIOAN DESADOSTASUNAK DAUDENEAN 80

LEGEZKO BABES-NEURRIAK HARTZEA ETA ARRISKUA DEKLARATZEA 82

1. PRESAZKO BABES-NEURRIAK 82
2. BABESGABEZIA 84
3. BORONDATEZKO ZAINTZA 86
4. ARRISKUA DEKLARATZEA 86

BALORA TRESNA – ESKALAK:BABESGABETASUN MOTAK ETA LARRITASUN-MAILAK 88

LABURPEN-TAULA: BABESGABETASUN-EGOERAK 89

TRATU TXAR FISIKOAK 90
A. Eraso fisikoa

B. Drogak, alkohola edo farmakoak ematea
C. Janaria eta ura nahita kentzea
D. Konfinamendua edo murrizketa fisikoa
E. Boterearen bidezko Munchaüsen-en sindromea (beste bati ezarritako nahasmendu faktizioa) eta eragindako tratu txar medikoak

ZABARKERIA **97**
A. Premia fisikoekiko zabarkeria **97**
Elikadura
Osasun fisikoaren zaintza
Jantziak
Higiene pertsonala
Etxebizitzaren higiene-baldintzak
Etxebizitzaren egonkortasuna
Etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak
B. Segurtasun-premiekiko zabarkeria **106**
Etxebizitzaren segurtasun fisikoa eta arriskuen prebentzioa
Gainbegiratzea
Beste pertsona batzuek ezarritako indarkeriarekiko babesa
C. Premia kognitiboekiko zabarkeria **112**
Estimulazioa
Prestakuntza- eta hezkuntza-premiak.
D. Premia emozionalekiko zabarkeria **116**
Interakzioa, lotura eta afektua
Arazo emozionalei eta arazootara lotutako jokabide-asaldurei eta premia bereziei arreta espezifikoa ematea
Arauak, mugak, errutinak eta balio positiboen transmisioa

SEXU-INDARKERIA **122**
TRATU TXAR PSIKOLOGIKOAK **124**
A. Tratu txar emozionalak
B. Genero-indarkeriarekiko esposizioa
C. Beste indarkeria mota batzuekiko esposizioa familian
D. Inplikazioa, gurasoen arteko edo beste senide garrantzitsu batzuekiko gatazketan
E. Eraso fisikoa egiteko mehatxuak

ABANDONUA **133**
GURASOEN EZINTASUNA HAUR EDO NERABEAREN JOKABIDEA ERREGULATU ETA KONTROLATZEKO **135**
JAIO AURREKO TRATU TXARRAK ETA JAIO AURREKO ARRISKUA **137**
BESTE TIPOLOGIA BATZUK **139**
A. Etxetik botatzea edo etxera sartzen ez uztea
B. Galbideratzea
C. Eskekotasuna

ZIRRIBORRA

D. Lan-esplotazioa

BABESGABEZIAREKIKO ZAURGARRITASUN LARRIA ERAGITEN DUTEN BESTELAKO EGOERAK **144**
A. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek eragindako babesgabetasun larriaren aurrekariak
B. Guraso, tutore edo zaintzaileen zailtasun pertsonal larriak

ERANSKINAK **146**

LABURPEN-ORRIA **147**
GLOSARIOA **151**
HAUR ETA NERABEEN OINARRIZKO PREMIEN TAXONOMIA ETA PREMIA HORIEK EBALUATZEKO ADIERAZLEAK **153**

ZIRRIBORRA

Sarrera

BALORA – Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresnaren lehenengo bertsioa (azaroaren 8ko 230/2011 Dekretuaren bidez onetsia) garatu zen Haurrak eta Nerabeak Zaindu eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen azken xedapenetatik lehenengoari erantzuteko, ezartzen baitzuen Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek "oinarrizko tresna" bat egin eta onetsi behar zutela "babesgabetasun-egoeren larritasuna baloratzeko eta arrisku arin edo ertaineko egoerak, arrisku larriko egoerak edo babesgabezia-egoerak diren zehazteko". Xedapen horrek, halaber, hau ezartzen zuen: "horren osagarri, eskumena duten administrazioek ebazpen-tresna egokiak landuko dituzte esparru horretan, babesgabetasun-egoera jakin batzuen larritasun-maila zehaztearren, baldin eta larritasun hori ezin izan bada zehaztu aurreko lerroaldean aipatzen diren tresna teknikoak erabilita".

Dekretua onetsi eta lau urtez aplikatu ondoren, analisi-prozesu bat burutu zen, tresnaren ezarpen-maila aztertzeko, haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko zerbitzuetako teknikari eta profesional arduradunek tresnaren baliagarritasuna baloratzeko eta tresnan hobetu beharrekoak identifikatzeko. Lehenengo bertsiorako egin moduan, tresna prozesu parte-hartzaile batean berrikusi eta eguneratu zen, erakundearteko lantalde tekniko bat buru zela, zeina osatzen baitzuten Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako, udaletako eta EUDELeko ordezkariek, EHU – Euskal Herriko Unibertsitateko talde batekin batera. Tresna berrikusi eta eguneratzeko lanean, besteak beste, kontuan hartu ziren arloan izandako lege-aldaketak, barruan hartuta uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa, Haurrak eta Nerabeak Besteko Sistema aldatzen duena, eta uztailaren 28ko 26/2015 Legea, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena. Prozesu horren ondoriozko tresna (Balora 2.0) maiatzaren 9ko 152/2017 Dekretuan onetsi zen.

Jarraian aurkeztuko dugun bertsioa (Balora 3.0), bada, aurrekoaren edukia berrikusi eta eguneratu ondoren egin dugu, Haur eta Nerabeen Legearen (2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa) bosgarren xedapen gehigarriari erantzuteko xedez. Hala, azken bertsio honen funtsezko helburuak dira, batetik, arloan izandako lege- eta arau-aldaketekin bat egin eta azken urteetan agertutako errealitate, premia eta gizarte-aldaketa berrietara egokitzea eta, bestetik, irizpideak eguneratu eta haien kalitate teknikoa hobetzea, aldaketak txertatzearekin batera, haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetako profesionalek eta taldeek errazago ulertu eta erabili ditzaten. Hori guzti hori lan-prozedura parte-hartzaile baten bidez gauzatu da, zeina tresnaren lehenengo bertsioa egiteko eta lehen aldiz eguneratzeko erabilitakoaren antzekoa izan baita.

Balora tresnaren eguneratze honek, era berean, aintzat hartu ditu komunitate zientifiko eta profesionalak babesgabetasun-egoerak zehazteko eta haien larritasuna baloratzeko eremuan egindako aurrerapenak eta proposamen berriak, baita azken urteetan tresna hartu duten beste autonomia-erkidego batzuen ekarpenak ere, tresnaren gainean lan egin dutelako eta hobekuntza tekniko garrantzitsuak sartu dituztelako. Horrela, oraingo bertsioak barruan biltzen ditu beste autonomia-erkidego askotako profesionalen eta taldeen ahalegina eta ekarpen kolektiboak; izan ere, asko lagundu dute jarduteko irizpideak eta tresna teknikoak aberasten eta, aldi berean, irizpideok EAEtik harago homogeneizatzen

Hori bereziki garrantzitsua da haurrak eta nerabeak babestearen eremuan. Izan ere, administrazio publikoen esku-hartzea eta, bereziki, haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko gizarte-zerbitzuen esku-hartzea (behin babesgabetasun-egoera posible bat hauteman ondoren) balorazioak egiteko eta

erabakiak hartzeko prozesu jarraitu eta saihetsezin bihurtzen da: erabaki horiek guztiak, agerikoa denez, oso garrantzitsuak dira tartean diren haur eta nerabeen eta haien familien orainerako eta etorkizunerako (adibidez, gizarte-zerbitzuen esku-hartzea hastea, presazko babes-neurriak hartzea, jorratu beharreko helburuak hautatu eta sekuentziatzea, zer baliabide espezifiko erabili erabakitzea, legezko zer neurri hartu erabakitzea, familiek aldatzeko duten gaitasuna baloratzea edo harrerarako egokitasuna zehaztea). Erabaki horietarako guztietarako, oro har, askotariko aldagaiak hartu behar dira kontuan, eta aztertu egin behar dira, informazioa biltzeaz batera (horregatik behar dira diziplina anitzeko taldeak). Aldagaiok, gainera, oso konplexuak izan daitezke, eta ondorioz, beharrezkoa da gaikuntza espezifikoa duten profesionalak eta laguntzeko tresna tekniko sendoak edukitzea.

Baloratzeko eta erabakiak hartzeko prozesu asko-askotan egoten den aldagaietako bat babesgabetasunaren larritasuna da. Oso aldagai garrantzitsua da, eta, erabakiak hartzean, pisu handia dauka; halere, salbuespenak salbuespen (adibidez, esku-hartzea zer zerbitzuk —udaleko gizarte-zerbitzuek edo lurraldekoek— koordinatuko duen erabakitzean), ez da kontuan hartu beharreko bakarra. Hala, Balora tresnaren informazioa eta ondorioak nahitaez integratu beharko dira beste tresna tekniko batzuekin eta beste informazio batekin, balorazio-prozesuak burutzeko eta erabaki egokiak hartu ahal izateko esku-hartzearen une bakoitzean (harrera, lehenengo balorazioa eta hasierako jarduketak; ikerketa; hasierako ebaluazioa; esku hartzeko planaren diseinua; planaren gauzatzea eta berrebaluazioa; esku-hartzearen amaiera). Tresna honen aplikazioa bateragarria da haurren, nerabeen eta familien beste arazo batzuk, premia-egoerak, bazterketa-egoerak, indarguneak, alderdi onak eta babes-elementuak baloratzeko eta esku-hartzea orientatzeko balio duten bestelako erremintekin edo tresnekin; are gehiago, Balora tresna erreminta horiekin osatu behar da. Amaitzeko, eta garrantzitsua da hau ere, Balora tresna, beste tresna tekniko batzuk bezalaxe, trebatutako profesionalek erabili behar dute, ez modu zurrunean, baizik eta profesionalen iritziaren orientabidea, oinarria eta laguntza izateko moduan, eta sekula ez hura ordezteko.

Tresnaren bertsio eguneratuak aurreko bertsioen egitura orokorrari eusten dio. Lehenengo zatian, besteak beste, oinarri kontzeptualak eta aplikazio-prozedura azaltzen dira; bigarren zatian, berriz, eskalak jasotzen dira. Tresnak eranskin osagarriak ere biltzen ditu, eta, horietako batean, laburpen-orria jasotzen da. Garrantzitsua da nabarmentzea ezinbestekoa dela tresnaren lehenengo zatia arretaz irakurtzea eta ulertzea, ondo aplikatu ahal izateko. Lan hori errazte aldera, ideia giltzarriak jasotzen dituzten taula nabarmenduak txertatu ditugu alboetan. Azkenik, tresnak kanpo- eta barne-estekak jasotzen ditu, azkar batean irits gaitezen erreferentziazkoak edo interesgarriak diren lege-testuetara edo testu teknikoetara eta dokumentuaren beste toki batzuetara.

AKRONIMOAK

HN – Haurrak eta nerabeak
UGZ – Udaleko gizarte-zerbitzuak
LGZ – Lurraldeko gizarte-zerbitzuak
HNL – 2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeena.
ABJLO – 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabeen Babes Juridikoari buruzkoa, hein batean Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatu zituena.
HNIOBLO – 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Osorik Babestekoa.

1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN HAURRAK ETA NERABEAK ZAINDU ETA BABESTEKO GIZARTE-ZERBITZUEK ESKU HARTZEKO ESPARRUA

1.1. HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEAK ETA OINARRIZKO PREMIAK

Gaur egun nazioartean, Estatuan eta autonomia-erkidegoan indarrean diren arauek eta legeek **eskubidedun subjektutzat jotzen dituzte adingabeak**, bizitzaren askotariko eremuetan (familian, hezkuntzan, osasunean, gizartean, arlo judizialean eta abarretan), eta ezartzen dute adingabeen guraso-ahala, tutoretza edo zaintza duten pertsonak, haiekin harremana duten pertsonak (zehazki, duten kargua, lanbidea edo eginkizunak, ofizioa edo jarduera direla-eta), administrazio publikoen multzoa eta herritarrak oro har erantzukideak direla eskubide horiek aitortzeko eta errespetatzen direla ziurtatzeko orduan, bai eta eskubideok urratzea saihesteko jarduketak eta, eskubideok baliatzeko aukera urratu denean edo urratu ahal denean, horiek lehengoratzeko jarduketak garatzeko orduan ere.

Adingabeak, eskubidedun subjektu

Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak (Nazio Batuen Batzarrak onetsi zuen 1989ko azaroaren 20an, eta Espainiak 1990eko azaroaren 30ean berretsi zuen) eta Haurren Eskubideen Europako Gutunak (Europako Parlamentuak onetsi zuen, 1992ko uztailaren 8ko Ebazpenean) eskubide horiek zedarritu zituzten, eta, geroago, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian eta araudian txertatu eta zehaztu ziren. EAEn, Haur eta Nerabeen Legeak (2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa) argi eta garbi ezartzen du **haur eta nerabeen banakako nahiz taldeko eskubideak bermatzea dela haur eta nerabeei lotutako sustapen-, prebentzio-, arreta- eta babes-eskumenak dauzkaten administrazio publikoek jarduteko eta erabakiak hartzeko ardatz nagusia** (13.a) artikulua), eta hiru eskubide mota bereizten ditu: a) Eskubide orokorrak, hala nola haien interes gorena gailentzeko eskubidea (24. artikulua), berdintasunerako eta diskriminaziorik ez jasateko eskubidea (25. artikulua), entzuna eta aditua izateko eskubidea (26. artikulua), parte hartzeko eskubidea (28. artikulua), hazkuntzarako, bizikidetzarako eta familia-harremanetarako eskubidea (29. artikulua), osasunerako eskubidea (32. artikulua) edo hezkuntzarako eskubidea (33. artikulua); b) egoera kaltegarrietarako eskubideak, indarkeria- edo babesgabetasun-egoeretara lotuta ez daudenak (hala nola osasun-arreta, gaixotasun edo nahasmendu bat diagnostikatu denean; eskolagabetzeko, absentismoko edo eskola-porroteko egoerak zuzentzera bideratutako hezkuntza-arreta; gizarte-zerbitzuen arreta, familian esku hartzeko neurriak hartzea beharrezkoa denean bizikidetzan laguntzeko beharra dagoelako eta gurasotasuna modu positiboan gauzatzeko, babesgabetasun-egoerarik izan gabe, eta c)

Administrazio publikoek haur eta nerabeen arloan jarduteko mailak:

1. ***Sustapena***
2. ***Prebentzioa***
3. ***Arreta***
4. ***Babesa***

babes-prozeduretan sartuta dauden edo legezko babes-neurri bat aplikatu zaien haur edo nerabeen eskubide espezifikoak (164. artikulua), hala nola babestua izateko eskubidea, baita legezko ordezkariak edo hartzaileak edo zaintzaileak horren aurka daudenean ere, babesa eskatzen duen arrisku- edo babesgabezia-egoera bat egiaztatu bada.

Eskubideok errespetatzeak berekin dakar haur edo nerabe orok nortasuna aske garatzeko eta garapen oso eta harmonikoa eduki ahal izateko asebeteta eduki behar dituen **oinarrizko premiak (fisikoak, emozionalak, kognitiboak, sozialak eta afektibo-sexualak)** asetzea (ikusi dagokion eranskina). Oinarrizko eskubide eta premia horiek **unibertsalak** dira, familiaren talde soziokulturala eta talde horretakoa izateagatik eskuratutako sinesmenak, balioak eta ohiturak gorabehera. Egia bada ere haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko gizarte-zerbitzuek kultura bakoitzaren balioak edo ohiturak kontuan hartu eta guztiz errespetatu behar dituztela, zerbitzu horiek bermatu egin behar dute haur eta nerabe guztien eskubideak eta beharrak asetzen direla —emakumeen eta gizonen berdintasuna barnean hartuta—. Horrela izan ezean, zerbitzu horiek esku hartu behar dute, legez, egoera zuzentzeko.

Haur edo nerabe orok nortasuna aske garatzeko eta arlo fisiko, emozional, kognitibo, sozial eta afektibo-sexualetan garapen oso eta harmonikoa edukitzeko asebeteta eduki behar dituen premia unibertsal eta oinarrizkoak

Haurrei eta nerabeei eskubideak, premien asebetetzea eta babesa bermatu behar zaizkiela adieraztean, barruan sartzen dira kontzebituak ere (hau da, sortze-prozesuan daudenak, artean jaio gabe), eta jaiotakotzat hartuko dira, Kode Zibilean esaten denari jarraituz, mesedegarri izango zaizkien ondorio guztietarako (Haur eta Nerabeen Legearen 2.2.a) artikulua).

Kontzebituak babestea – Jaio aurreko aldia

1.2. HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEAK ETA OINARRIZKO PREMIAK URRATZEN EDO ARRISKUAN JARTZEN DITUZTEN EGOERAK: INDARKERIA, BABESGABETASUNA ETA BABESGABETASUNAREKIKO ZAURGARRITASUNA

Askotarikoak dira haur eta nerabeen eskubideak baliatzea eta oinarrizko premiak asetzea arriskuan jarri eta haien ongizateari eta garapenari kalte esanguratsua eragin diezaieketen egoerak. Kontuan hartuta, (a) egoera horien izaera zein den, (b) haur edo nerabearen zaintza-sare naturalak —hau da, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek, babes-sarearekin batera— egoera horiek saihestu, kontrolatu edo arintzeko duten aukera zein den eta (c) egoera horiek haur edo nerabearengan duten edo izan dezaketen inpaktua zein den, baliteke beste sistema eta agente batzuek (osasunaren arlokoek, hezkuntzaren arlokoek, judizialek, gizarte-zerbitzuek eta abar) esku hartu behar izatea, prebentzio-, arreta- edo babes-jarduketa espezifikoak burutzeko, Haur eta Nerabeen Legeak ezarri moduan.

Askotariko egoerek urra edo arriskuan jar dezakete haur eta nerabeen eskubideak baliatzea eta oinarrizko premiak asetzea, eta prebentzio-, arreta- edo babes-jarduketa espezifikoak behar dituzte

Haurrak eta nerabeak babesteko arloan indarrean den legediaren arabera, zenbait egoerak eskubideak kentzen dizkiete edo ken diezazkiekete haur eta nerabeei, eta haien ongizatea eta garapen fisiko, psikiko edo sozial ordenatua mehatxatzen edo galarazten dituzte; bada, egoera horien artean, **indarkeria-egoerak, babesgabetasun-egoerak, babesgabetasunarekiko zaurgarritasun-egoerak** eta **babesgabeziarekiko zaurgarritasun-egoera larriak** daude:

Indarkeria-egoerak, babesgabetasun-egoerak, babesgabetasunarekiko zaurgarritasun-egoerak eta

- **Indarkeria-egoerak** honela definitzen dira: "*adingabeak beren eskubideez eta ongizateaz gabetzen dituen ekintza, ez-egite edo tratu zabar oro, baldin eta adingabe haien garapen fisiko, psikiko edo sozial ordenatua mehatxatzen edo oztopatzen badu, indarkeria hori gauzatzeko modua eta bitartekoa gorabehera, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez gauzatutakoa ere; bereziki, indarkeria digitala*", eta hor barruan sartzen dira

hauek: "*tratu txar fisikoa edo psikologikoa; zigor fisikoak, umiliagarriak edo laidogarriak; arduragabekeria edo zabarkeriazko tratua; mehatxuak, irainak eta kalumniak; esplotazioa; sexu-indarkeria; sexu-erasoak eta -abusuak; ustelkeria; prostituzioa; sexu-esplotazioa, sexu-jazarpena, eskola-jazarpena eta ziberjazarpena; emakumeen genitalen mutilazioa; gizakien salerosketa, edozein helburutarako izanik ere; haur-ezkontza; haur-pornografia eta onartu edo eskatu gabe pornografia atzitzea; genero-indarkeria; emakumeen kontrako indarkeria matxista; gorroto-delituak; sexu-estortsioa; datu pribatuak jendaurrean zabaltzea, sexu-indarkeriako datuak barne; bai eta haien familia-eremuan indarkeriazko edozein portaera izatea ere*" (Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Osorik Babesteko Legearen 1.2 artikulua eta Haur eta Nerabeen Legearen 11.2 artikulua).

Indarkeria noizbehinka, eskuarki nahiz modu jarraituan erabil daiteke, **haur edo nerabearen edozein eremutan**: **eskolan, komunitate-mailan, kirol-arloan, familian eta bestelakoetan** (Haur eta Nerabeen Legearen 11.2 artikulua). **Haur edo nerabearen gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek zuzenean erabiltzen dutenean, baita beste pertsona batzuek erabiltzen dutenean ere —familia-ingurunean nahiz kanpoan, haien ezagutza, baimen edo onarpenarekin—, babesgabetasuna** sortzen da.

Haur eta nerabeen aurkako indarkeria askotariko eremuetan erabil daiteke: eskolan, komunitate-mailan, familian eta abarretan.

Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek erabili, baimendu edo sustatu dutenean, babesgabetasuna gertatzen da.

Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Osorik Babesteko Lege Organikoak (8/2021 Legea, ekainaren 4koa) ezartzen du askotariko administrazio publikoek zer jarduketa-printzipiori jarraitu behar dioten, zer betebehar dauzkaten eta zer esku-hartze egin behar dituzten egoera mota horiek prebenitzeko eta jorratzeko. Arreta berezia jarri behar zaie **biktimizazioarekiko zaurgarriagoak diren haur eta nerabe taldeei**, hala nola desgaitasuna edo neurogarapenaren nahasmenduak dauzkatenei, arraza-, etnia- edo nazio-jatorri anitza dutenei, gizarte-bazterketan eta desabantaila ekonomikoan daudenei, bakarrik dauden migratzaileei, LGTBI kolektibokoei edo gutxiengoen sexu-joerak nahiz genero-identitateak dauzkatenei.

Haur eta nerabe zaurgarrienak.

Halaber, ezinbestekoa da **genero-ikuspegia** edukitzea eta, beraz, aintzat hartzea ebidentzia enpiriko sendoa dagoela, esaten duena neskatoak eta neska nerabeak zaurgarriagoak direla indarkeria molde jakin batzuekiko, hala nola sexu-indarkeriarekiko —familiaren barruan nahiz kanpoan— edo nerabezaroko bikote-harremanetako indarkeriarekiko. Alde horretatik, garrantzitsua da gogoan izatea haur eta nerabeen aurkako indarkeria ez dela neutroa generoaren ikuspuntutik. Biktimizazio-esperientziek, arrisku-faktoreek, ondorioek eta babes-premiek desberdintasun handiak dauzkate mutikoa ala neskatoa izan; hein handi batean, generoaren araberako rolen, estereotipoen eta egiturazko desberdinkerien eraginez. Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria estrukturalek eragina dute, baita ere, haur eta nerabeengan; haien aurkako indarkeriak, hortaz, errealitate hori kontuan hartuko duten erantzunak behar ditu legeetan/epaitegietan, hezkuntzan eta gizartean.

Genero-ikuspegia – Neskatoak eta neska nerabeak zaurgarriagoak dira indarkeria mota jakin batzuekiko

- **Babesgabetasun-egoerak** sortzen dira "*legezko ordezkariek, harreragileek*[1] *edo zaintzaileek dagozkien hazkuntza-eginbeharrak ez betetzeagatik edo behar bezala ez betetzeagatik edo bete ezin izateagatik*", eta honelakoetan gerta daitezke (Haur eta Nerabeen Legearen 158.1 eta 158.2 artikuluak):

[1] Hazkuntza- eta babes-eginbeharrak: Barruan sartzen da haur edo nerabeez arduratzea, haiekin egotea, elikatzea, heztea eta prestakuntza osoa ahalbidetzea eta, guraso-ahala edo tutoretza dutenek, haien ordezkariak izatea eta haien ondasunak administratzea.

a) (I) haur edo nerabearen gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek indarkeria zuzenean erabiltzen dutenean edo (2) beste pertsona batzuek —familia-ingurunean nahiz kanpoan— haien ezagutza, baimen edo onarpenarekin erabiltzen dutenean (ikusi babesgabetasun motak), edo

b) indarkeriaz bestelako egoeretan, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek hazkuntza- eta babes-eginbeharrak aldi batez edo behin betiko bete ezin dituztenean (barruan sartuta borondatezko zaintzarako babes-neurria behar duten egoerak), indarkeriarik eragiten ez dutenak.

Babesgabetasuna beti gertatzen da gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek dagozkien hazkuntza- eta babes-eginbeharrak ez betetzeagatik edo behar bezala ez betetzeagatik edo bete ezin izateagatik.

Larritasunaren eta beste inguruabar batzuen arabera, arriskua edo babesgabezia ekar dezake.

Larritasunaren arabera, beste inguruabar batzuekin batera, babesgabetasunak **arriskua** —arina, ertaina edo larria— (Haur eta Nerabeen Legearen 176. eta 177. artikuluak) edo **babesgabezia** (Haur eta Nerabeen Legearen 187. eta 188. artikuluak) sorraraz ditzake (ikusi deskribapen xeheagoa).

Nabarmendu beharra dago, **nahiz eta babesgabezia-egoerak bakar-bakarrik eratorri gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek hazkuntza-eginbeharrak ez betetzetik, ondo ez betetzetik edo bete ezin izatetik eta nahiz eta egoera horiekin soilik lotu**, **arrisku-egoerak beste inguruabar mota batzuen ondorioz ere sor daitezkeela**, alegia, haur edo nerabeen eskubideetarako, ongizaterako eta garapenerako kaltegarriak diren inguruabar pertsonal, familiar, sozial edo hezkuntza-arlokoen ondorioz (adibidez, eskola-jazarpena, gizarte-bazterketa...); bada, eskudun erakundeek arreta eman behar diete inguruabar horiei ere, egokitzen diren balorazio-erremintekin eta jarduketa-prozedurekin.

- **Babesgabetasunarekiko zaurgarritasun-egoeretan**, "*gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek adingabearen beharrizanei arreta egokia ematen dieten arren edo haren beharrei arreta desegokia ematen ez dieten arren, badira zailtasun pertsonal, familiar edo sozial batzuk egoera horrekiko zaurgarritasuna dakartenak; ondorioz, **babesgabetasuna etorkizunean ager liteke**"* (Haur eta Nerabeen Legearen 158.3 artikulua). Hor barruan sartzen dira, esate baterako, familia estres-maila handiko egoeran egotea, gurasoak nerabeak edo gazteak izatea, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek guraso-trebetasunetan gabeziak edukitzea, laguntza-sarerik ez egotea edo nahikoa ez izatea, arazo fisiko, mental edo psikologiko esanguratsuak —nahiz eta ezgaitzaileak izan ez— edukitzea, drogen edo alkoholaren kontsumo ez-ezgaitzailea egitea edo beste haur edo nerabe batzuen hazkuntzan zailtasun-aurrekariak edukitzea.

Babesgabetasunarekiko zaurgarritasuna – Etorkizunean babesgabetasuna ager liteke. Udaleko gizarte-zerbitzuen eta zerbitzu komunitarioen prebentziozko esku-hartzea.

Babesgabetasunarekiko zaurgarritasun-egoeretan, **lehentasunez eman behar da arreta, babesgabetasun posiblea goiz detektatzeko eta prebentzioz esku hartzeko.** Haur eta Nerabeen Legearen 162.1 artikuluak hala jasotzen du, eta adierazten "*lehentasuna emango zaiela prebentzio-ekintzari eta pertsona adingabearen bizitzako edozein eremutan haren garapen pertsonalari kalte egin diezaioketen egoera guztien detekzio goiztiarrari*", administrazioak jarduteko irizpide gisa. Eta, babesgabetasunarekiko zaurgarritasun-egoeretarako zehazki, Haur eta Nerabeen Legearen 166.2 artikuluak xedatzen du derrigorrez egin beharko direla "*a) babesgabetasunarekiko zaurgarritasun-egoeran dauden familiei eta, familia horietan integratuta egonik, arrisku-faktoreetarako adin bereko pertsonen batezbestekoak baino esposizio handiagoa duten pertsona adingabeei berariaz zuzendutako prebentzio-jarduketak eta b) banaka babesgabetasunarekiko zaurgarritasun handiagoko egoeran dauden pertsona gisa identifikatzen dituen baldintza jakin bat duten*

Babesgabetasunarekiko zaurgarritasun-egoeretan, detekzio goiztiarra —jaio aurreko aldia barne hartuta— eta prebentziozko esku-hartzea oso garrantzitsuak dira, babesgabetasuna dagoeneko agertu den

pertsona adingabeei berariaz zuzendutako prebentzio-jarduketak". Jarduketa mota horiek barruan bildu behar dute jaio aurreko aldia, eta, hor, Osakidetza – Euskal osasun zerbitzuak garrantzi bereziko eginkizuna betetzen du (Haur eta Nerabeen Legearen 105.3 eta 105.4 artikuluak).

Horrelakoetan, udaleko gizarte-zerbitzuek familia bakoitzaren eta haur edo nerabe bakoitzaren premiak ebaluatu beharko dituzte, egokitzen den prebentziozko esku-hartze plana diseinatzeko eta, gero, zerbitzu komunitarioen sarearekin lankidetzan, plana martxan jartzeko, kasu bakoitzak behar dituen eduki, intentsitate eta iraupenarekin.

- Azkenik, Balora tresnan "**babesgabeziarekiko zaurgarritasun larri**" gisa jasotzen diren egoeretan, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek zenbait ezaugarri edo mugaketa dauzkate, galarazi egiten dietenak hazkuntza- eta babes-eginbeharrak ondo betetzea; egoera horiek, bada, pentsarazten dute **haur edo nerabearen bizitza edo oinarrizko osotasuna arrisku larrian egon daitekeela eta familia-ingurunean ez dagoela kontrol-elementurik**, gabezia horiek ordezkatu edo konpentsatzeaz gainera, haurrari edo nerabeari gutxieneko arreta egokia bermatuko dionik (ikusi eskala).

  Babesgabeziarekiko zaurgarritasun larria – Lurraldeko gizarte-zerbitzuen esku-hartzea.

  Inguruabarren arabera, arrisku larritzat edo babesgabeziatzat joko dira, edo bestelako babes-neurri bat beharko dute.

  Egoera horiek **arrisku larritzat edo babesgabeziatzat** (hazkuntza- eta babes-eginbeharrak aldi batez ezin bete izateagatik) joko dira, edo bestelako neurriren bat beharko dute, hala nola **borondatezko zaintza** edo **presazko jarduketa eta babes-neurri** bat, kasuaren inguruabar zehatz eta behar bezala arrazoituen arabera. **Lurraldeko gizarte-zerbitzuei egokituko zaie arreta hori ematea**.

2. BALORA TRESNAREN HELBURUAK

Balora tresnak irizpide teknikoak ematen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoan haur eta nerabeak zaindu eta babesteko **udaleko gizarte-zerbitzuetako (UGZ) eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetako (LGZ)** profesionalei laguntzeko (1) **babesgabetasunik dagoen baloratzen eta haren larritasuna zehazten** eta (2), ondoren, **babesgabetasun hori arrisku-egoeratzat (arina, ertaina edo larria) edo babesgabeziatzat** jotzen:

Balora tresnak irizpide teknikoak ematen ditu (1) babesgabetasunik dagoen eta haren larritasuna baloratzeko eta (2) egoerak arriskua (arina/ertaina/larria) edo babesgabezia dakarren

Haur eta Nerabeen Legearen 172.3 artikulua: "*Babesgabetasunik dagoen zehazteko eta hura arrisku- edo desanparo-egoera gisa identifikatzeko, Eusko Jaurlaritzak lege hau garatuz onetsiko duen eta horretarako baliozkotuko den tresna teknikoa aplikatuko da Euskal Autonomia Erkidegoan. Horren bitartez, babesgabetasun-egoeren larritasuna baloratuko da eta arriskua arin, neurritsu, larri edo desanparo gisa kalifikatu*".

Zehazki, tresna UGZek nahiz LGZek aplikatzeko diseinatu da, Haur eta Nerabeen Legearen 172. artikuluak babesgabetasun-egoerak ikertu eta baloratzeko ezartzen dituen eskumenak balia ditzaten.

Hazkuntza- eta babes-eginbeharren ebaluazio osoa egiteko erabiliko da tresna, eta kontuan hartuko dira hala alderdi onak eta indarguneak, nola alderdi txarrak eta arriskuak.

Tresna hau, beste tresna tekniko batzuk bezala, **trebatutako profesionalek erabili behar dute, ez modu zurrunean, baizik eta profesionalen iritziaren orientabidea, oinarria eta laguntza izateko, sekula ez haiek ordezteko.**

Horretarako, tresnak **hiru urratseko** prozesu batean orientatzen ditu UGZetako eta LGZetako profesionalak:


Hiru urratseko prozesua: Babesgabetasunaren larritasuna baloratzeak ez darama, automatikoki, arrisku-maila edo babesgabezia zehaztera kasu guztietan; ondoz ondoko urratsak ..

1°. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek hazkuntza- eta babes-eginbeharrak nola betetzen dituzten eta haur edo nerabearen oinarrizko premiak asebeteta dauden jakiteko **ebaluazio osoa** egitea eta **hauek identifikatzea: (1) zaintza egokia den eta premiak asebeteta dauden arloak eta (2) zaintza desegokia den eta premiak arriskuan edo asebete gabe dauden arloak**. **Babesgabetasunik dagoen eta haren larritasun-maila zehaztea.**

2°. Babesgabetasuna egiaztatzen den egoeretan, **beste informazio garrantzitsu bat biltzea** (adibidez, guraso, tutore edo zaintzaileen lankidetza-maila, zaurgarritasun- edo babes-elementuak maila indibidual, familiar eta sozialean).

3°. **Egoerak arriskua** (**arina, ertaina edo larria**) **edo babesgabezia dakarren zehaztea**.

Hiru urrats tresna aplikatzeko



3. ARRISKU ARINA, ARRISKU ERTAINA, ARRISKU LARRIA, BABESGABEZIA ETA BESTELAKO BABES-NEURRIAK BEHAR DITUZTEN EGOERAK: DEFINIZIOA ETA ESKU-HARTZEA

Larritasunaren eta beste inguruabar batzuen arabera, babesgabetasun-egoerek hauek ekar ditzakete:

1. Arriskua
   1.1. Arrisku arina
   1.2. Arrisku ertaina
   1.3. Arrisku larria
2. Babesgabezia
3. Edo beste babes-neurri batzuk eska ditzakete

ZIRRIDAIA

Oro har, EAEn **UGZei dagokie** babesgabetasun-egoera posibleei buruzko komunikazioak eta jakinarazpenak hartu, lehenbizi ikertu eta hasierako balorazioa egitea (LGZei dagozkien salbuespenetan izan ezik), baita arreta ematea eta esku-hartzea koordinatzea ere, arrisku arin eta ertaineko egoera egiaztatuetan. Bestalde, **LGZei dagokie** arreta ematea eta esku-hartzea koordinatzea arrisku larriko egoera eta babesgabezia-egoera egiaztatuetan edo borondatezko zaintzarako babes-neurria behar duten egoeretan (Haur eta Nerabeen Legearen 172. artikulua).

Bat etorrita urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan (gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoan) xedatutakoarekin, udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuek baliabide nahikoak, malguak eta dibertsifikatuak izan beharko dituzte, haur edo nerabe bakoitzak eta haren familiak behar dituzten zerbitzuak jaso ahal ditzaten, behar duten unean eta behar duten intentsitatearekin. Alde horretatik, arrisku ertaineko kasuetarako babes-baliabideen hornidura arrisku larriko edo babesgabeziako kasuetarako hornidura bezain garrantzitsua da, eta antzeko konplexutasun- eta zailtasun-maila izan dezake. Arrisku ertaineko kalifikazioak ez du esan nahi berehalako esku-hartze konpontzaile bat garatzeari edo esku-hartzea gauzatzeko profesional espezializatuak izateari garrantzi txikiagoa eman behar zaionik.

Inguruabar horietan guztietan, UGZek eta LGZek koordinatuta egingo dute lan; halaber, zerbitzu komunitarioak eta administrazio publikoaren beste sektore batzuk (sanitarioak, hezkuntzakoak, judizialak eta abar) inplikatzea eta koordinatzea sustatuko dute, eta azken horiek martxan eta eskueran jarri beharko dituzte beren mendeko baliabideak eta zerbitzuak, kasuan-kasuan behar direnak.

3.1. ARRISKUA

Oro har, *"arrisku-egoeratzat jotzen da egoera bat zeinean, familia-, gizarte- edo hezkuntza-eremuko inguruabar, gabetasun edo gatazkak tarteko, pertsona adingabea bere garapen pertsonal, familiar, sozial edo hezkuntzakoan, bere ongizatean edo eskubideetan kaltetuta ateratzen baita, eta desanparo-egoeraren deklarazioaren eta lege-aginduz tutoretza hartzeko oinarri izango liratekeen garrantzi, intentsitate eta iraunkortasuna ez duen arren, beharrezko egingo duena eskumena duen administrazio publikoak esku hartzea, haurrari edo nerabeari eragiten dioten zailtasunak edo egokitu ezina kendu, murriztu edo konpentsatzeko eta desanparoa eta gizarte-bazterketa saihesteko, familia-ingurunetik banatu behar izan gabe. Duen larritasun-mailaren arabera, arriskua arin, neurritsu edo larri gisa kalifikatu ahal izango da"* (urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 17.1 artikulua, uztailaren 28ko 26/2015 Legeak emandako testuan; Haur eta Nerabeen Legearen 176.1 eta 176.2 artikuluak).

Balora tresnak **arreta jartzen die** gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **hazkuntza- eta babes-eginbeharrak betetzearekin lotutako arrisku-egoerei.** Hainbat dira urtarrilaren 15eko 1/1996 Legean (17.2 artikulua) eta Haur eta Nerabeen Legean (177. artikulua) jasotzen diren arrisku-adierazle posibleak. Horien artean, adierazle berri gisara, hau dago: "*pertsona adingabeak iritzi publikoan gehiegi azaltzea, haien irudia modu orokorrean hedatuz edo haiei buruzko informazio pertsonala emanez*" (Haur eta Nerabeen Legearen 177.2.p) artikulua).

Balora tresnak arreta jartzen die gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek hazkuntza- eta babes-eginbeharrak betetzearekin lotutako arrisku-egoerei

Badira arrisku-egoera batzuk, Balora tresnaren arreta-xede izan ez arren gizarte-zerbitzuek baloratu behar dituztenak eta, egokitzen bada, esku hartu, hazkuntza- eta babes-eginbeharrekin harremanik ez dutenak edo eginbehar horien ondoriozkoak ez direnak (nahiz eta lotura egon daitekeen); adibidez, kasuon artean daude droga toxikoen edo alkoholdun edarien ohiko kontsumoa, haurdunaldi goiztiarrak (Haur eta Nerabeen

Legearen 177.2 artikulua) edo zailtasun sozialeko bestelako egoerak (Haur eta Nerabeen Legearen 177.3 artikulua), gizarte-bazterketa barne hartuta.

3.1.1. Arrisku arina

Definizioa

Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek edo familiarekin bizi diren beste heldu batzuek **egokiak ez** diren gidalerroak erabiltzen dituzte haurra edo nerabea hezteko, hazteko, tratatzeko, zaintzeko eta harekin harremana izateko. Egoera horrek **ez dio kalte esanguratsurik eragin haurrari edo nerabeari** (maila fisikoan, emozionalean, sozialean, kognitiboan edo afektibo-sexualean), eta ez du ematen eragingo dionik, baina, jokabidea aldatuz gero, gurasotasuna positiboagoa izango da. Portaera horiek intentsitatea edo maiztasuna areagotuko balute, baina, babesgabetasun ertaina edo handiagoa sor lezakete.

Arrisku arina – Gurasoen portaera ezegokiak, haurrari edo nerabeari kalterik eragin gabe. UGZen esku-hartzea: prebentzioa eta gurasotasun positiboaren

Udaleko gizarte-zerbitzuek familia bakoitzaren eta haur edo nerabe bakoitzaren premiak ebaluatu beharko dituzte, banakako ebaluazio oso batean, egokitzen den prebentziozko esku-hartze plana diseinatzeko, kasu bakoitzak behar dituen eduki, intentsitate eta iraupenarekin.

Esku-hartzea

UGZei dagokie egoera horietan dauden haurrei eta nerabeei arreta ematea, **zerbitzu komunitarioen sarearekin lankidetzan**. **Prebentziozko** esku-hartzea garatuko dute, **gurasotasun positiboa** sustatzeko programak barne hartuta, haurra edo nerabea hezteko, hazteko, tratatzeko, zaintzeko eta harekin harremana izateko gidalerroak aldatu eta alternatiba egokiagoak barneratu ditzaten.

3.1.2. Arrisku ertaina

Definizioa

Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ez dituzte ondo bete** haur edo nerabe bat hazi eta babesteko eginbeharrak, eta, ondorioz, haur edo nerabe horren oinarrizko premiak ez daude asebeteta, edo haren oinarrizko eskubideak urratu dira; horrek **kalte esanguratsua** eragin dio haur edo nerabearen ongizateari edo garapenari (maila fisikoan, emozionalean, kognitiboan, sozialean edo afektibo-sexualean), edo kalte hori **pairatzeko arriskua** sortu du.

Arrisku ertaina – Gurasoen jokabideek (eginbeharrak ondo ez betetzeak) kalte esanguratsua eragin diote edo eragin diezaiokete HNari. UGZen esku-hartzea: familia babesteko programak.

(Balora tresnaren arabera) larritasun ertaineko edozein babesgabetasun mota dagoenean gertatzen da (ikusi salbuespenak).

Esku-hartzea

UGZei dagokie egoera horietan dauden haurrei eta nerabeei arreta ematea, **zerbitzu komunitarioen sarearekin lankidetzan**. Garatuko den esku-hartzea errehabilitaziokoa izango da, familia babesteko programen bidez.

ZIRRIBORRA

Arrisku ertaineko kasuek haur edo nerabeei kalte txikiagoa eragiten badiete ere arrisku handiko edo babesgabeziako kasuek baino, kezkagarriak dira baita ere, eta besteek adina **premia eta konplexutasun** dauzkate esku-hartzerako. Are gehiago, esku-hartzea ezinbestekoa da, haur edo nerabearen ongizatea eta oinarrizko premiak lehengoratu eta ziurtatzeaz gainera, **egoera larriagotzea saihesteko**.

Arrisku ertaineko kasuetan, esku-hartzea larritasun handiagoko kasuetan bezain beharrezkoa da, eta esku-hartzeen

3.1.3. Arrisku larria

Definizioa

a) Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ez dituzte ondo bete** haur edo nerabe bat hazi eta babesteko eginbeharrak, eta, ondorioz, haur edo nerabe horren oinarrizko premiak ez daude asebeteta, edo haren oinarrizko eskubideak urratu dira; horrek **kalte larria** eragin dio haur edo nerabearen ongizateari edo garapenari (maila fisikoan, emozionalean, kognitiboan, sozialean edo afektibo-sexualean), edo kalte hori **pairatzeko arriskua** sortu du, **babesgabezia eragin gabe**. Honelakoetan gertatzen da:

- (Balora tresnaren arabera) larritasun handiko edo oso handiko edozein babesgabetasun mota.
- (Balora tresnaren arabera) larritik hurbil dagoen larritasun ertaineko edozein babesgabetasun mota, egoerak arrisku larritzat jotzeko baldintzak betetzen dituenean.

b) Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek hazkuntza- eta babes-eginbeharrak **ondo ez betetzeko arrisku handiko** egoerak, Balora tresnak **"Babesgabeziarekiko zaurgarritasun larri"** gisa kalifikatu dituenean (ikusi eskala), baldin eta babesgabezia ez badakarte eta bestelako babes-neurririk eskatzen ez badute.

Arrisku larria – Gurasoen jokabideek (eginbeharrak ondo ez betetzeak edo ondo ez betetzeko arrisku handia egoteak) kalte larria eragin diote edo eragin diezaiokete HNari. LGZen esku-hartzea: familia babesteko programa espezializatuak.

Esku-hartzea

LGZei dagokie egoera horietan dauden haurrei eta nerabeei arreta ematea, **zerbitzu komunitarioen sarearekin lankidetzan eta UGZekin koordinatuta**. Garatuko den esku-hartzea errehabilitaziokoa izango da, familia babesteko programa espezializatuen bidez.

3.2. BABESGABEZIA

Definizioa

Legeak adingabeak zaintzeko ezarrita dituen babes-eginbeharrak ez betetzeagatik, behar bezala ez betetzeagatik edo bete ezin izateagatik sortutako egitezko egoera da, adingabeak **beharrezko laguntza moral edo materialik jasotzen ez duenean** (Kode Zibilaren 172.1 artikulua eta Haur eta Nerabeen Legearen 187.1 artikulua) eta horrek haur edo nerabearen ongizateari edo garapenari (maila fisikoan, emozionalean, kognitiboan, sozialean edo afektibo-sexualean) **kalte larria** eragin dionean edo kalte hori pairatzeko arriskua sortu duenean; horrelakoetan, **ezinbestekoa da adingabea bizikidetza-ingurunetik banantzea, bere osotasuna eta ongizatea ziurtatzeko**. Babesgabeziarako arrazoiak (ikusi adierazleak: Haur eta Nerabeen Legearen 188. artikulua):

Babesgabezia – Gurasoen jokabideek (eginbeharrak ondo ez betetzeak, ondo ez betetzeko arrisku handia egoteak, ez betetzeak edo bete ez izateko aukera egoteak) kalte larria eragin diote edo eragin diezaiokete haurrari edo nerabeari, eta, ondorioz, bizikidetza-ingurunetik banandu behar da. LGZen esku-hartzea: familia berrelkartzeko programa espezializatuak, bizikidetza-baliabide alternatiboak eta haurrari edo nerabeari laguntzeko baliabideak.

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek hazkuntza- eta babes-eginbeharrak **behar bezala ez betetzea**: (Balora tresnaren arabera) larritasun handiko edo oso handiko edozein babesgabetasun mota.

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek hazkuntza- eta babes-eginbeharrak **ez betetzea**: Oso larritasun handiko abandonua. Barruan sartzen dira bakarrik dauden migratzaile adingabeak.

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek hazkuntza- eta babes-eginbeharrak **aldi batez bete ezin izatea**, borondatezko zaintzarako babes-neurria hartzeko betekizunak bete gabe. Barruan sartzen dira, baita ere, zigor-arloko kautelazko babes-neurrien ondoriozko egoerak, zaintza-jarduera (gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak) mugatzea dakarten neurri zibilen ondoriozko egoerak, guraso-ahala aldi baterako gabetzearen ondoriozko egoerak edo antzeko egoerak.

  Halaber, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek hazkuntza- eta babes-eginbeharrak aldi batez bete ezin izateak babesgabezia sor dezake, Balora tresnak "**Babesgabeziarekiko zaurgarritasun larri**" gisa kalifikatutako egoeretan (ikusi eskala).

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek hazkuntza- eta babes-eginbeharrak **behin betiko bete ezin izatea**, hiltzeagatik, guraso-ahalaz behin betiko gabetzeagatik edo maila absolutu eta konponezinean ezgaitzen duen antzeko beste inguruabar batean egoteagatik, eta haur edo nerabearen tutoretza har dezakeen heldurik ez egotea. Hemen sartzen dira adopzioan borondatez utzitako jaioberriak.

Jaio aurretik babesgabezia deklaratzea

Salbuespen gisa, betiere behar bezala justifikatutako kausak egonik, **kontzebitua babesgabezia-egoeran dagoela deklaratu ahalko da**. Kasu horietan, jaiotegunera arte atzeratuko dira babesgabezia deklaratzeko eta tutoretzaren ardura emateko ebazpenaren ondoreak, eta ebazpenak une horretatik aurrera izango ditu ondoreak (Haur eta Nerabeen Legearen 193.4 eta 170.5 artikuluak).

Babesgabezia-egoera deklaratuko da, **ebazpen judizial baten bidez haur edo nerabe baten zaintza beren gain hartu ondoren** eta beharrezkotzat jotzen den informazioa jaso eta kasuan kasuko inguruabar bereziak aztertu ondoren, LGZek balioesten dutenean tutoretza beren gain hartu behar dutela (Haur eta Nerabeen Legearen 206.3 artikulua).

Presazko egoeretan, LGZek **babesgabezia deklaratu ahalko dute, prebentzioz**, edo adingabearen **behin-behineko zaintza** hartu, kasuaren inguruabarren arabera eta legez horretarako ezarrita dauden prozedurei jarraikiz.

Esku-hartzea

LGZei dagokie egoera horietan dauden haur eta nerabeen babesgabezia-egoera deklaratzea eta arreta ematea, **zerbitzu komunitarioen sarearekin lankidetzan eta UGZekin koordinatuta**. LGZek haur edo nerabearen babesgabezia-egoera deklaratuko dute; haren tutoretza beren gain hartuko dute, lege-aginduz, eta egokitzen diren babes-neurriak martxan jarriko dituzte. Garatuko den esku-hartzearen barruan, ordezko bizikidetza-ingurune bat emango zaio adingabeari, aldi baterako edo behin betiko, egokitzen denaren arabera (harrera-familia, egoitza-baliabidea, adopzioa); era berean, errehabilitatzeko esku-hartzeak egingo dira haur edo nerabearekin eta haren familiarekin, haur eta nerabeei laguntzeko eta familia berrelkartzeko programa espezializatuen bidez.

3.3. BESTELAKO BABES-NEURRIAK BEHAR DITUZTEN EGOERAK: BORONDATEZKO ZAINTZA ETA BEHIN-BEHINEKO ZAINTZA

BORONDATEZKO ZAINTZA

Definizioa

Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek, **ondo egiaztatutako inguruabar larri, iragankor eta konpongarriengatik**, **aldi batez ezin dituzte bete** hazkuntza- eta babes-eginbeharrak, inguruabar horiek galarazi egiten dietelako eginbeharrok betetzea; egoera horrek beharrezko laguntza moral edo materialaz gabetu dezake haur edo nerabea. Hemen barruan sartzen da ezinbesteko kausengatik (adibidez, gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak gaixorik egoteagatik, espetxera sartzeagatik edo bestelako inguruabar larri batzuengatik) etxean aldi batez ez egotea **eta** haur edo nerabearen zaintza daukan heldurik edo haren zaintza bere gain har dezakeen seniderik edo hurbilekorik ez egotea.

Borondatezko zaintza – Hazkuntza- eta babes-eginbeharrak aldi batez bete ezin izatea, LGZen esku-hartzean laguntzeko konpromisoarekin, babesgabetasun handiko edo oso handiko inguruabar bereziak daudenean.

Horrelakoetan, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek borondatezko zaintzaren eskabidea aurkeztuko diete LGZei. Borondatezko zaintza beren gain hartzeko, LGZek aurretik **baztertu beharko dute babesgabezia eragin duen babesgabetasun handia edo oso handia dagoenik**; hala izan ezean, babesgabezia deklaratuko dute, eta lege-aginduz hartuko dute haur edo nerabearen tutoretza, automatikoki (Haur eta Nerabeen Legearen 203.1 artikulua). Dena dela, **salbuespenez**, **babesgabezia deklaratzea eta haur edo nerabearen tutoretza hartzea ekar lezaketen inguruabar batzuk egon arren, borondatezko zaintzara jo ahalko da, baldin eta gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak laguntzaile agertzen badira gizarte-zerbitzuek proposatutako esku hartzeko planarekin eta, halaber, baloratzen bada zaintza-neurria onuragarriagoa izango dela haur edo nerabearentzat eta esku-hartzerako.**.

Haur edo nerabearen legezko ordezkariak bi direnean, biek egin beharko dute eskaera. Ordezkari bakarrak egiten badu, Haur eta Nerabeen Legearen 202.3 artikuluan ezarri moduan jardungo da.

Borondatezko zaintzak **bi urte iraungo ditu gehienez** —beste urtebetez luzatu ahalko da gehienez—, eta **konpromisoa beharko da** hazkuntza- eta babes-eginbeharrak aldi batez ezin betetzea eragin zuten inguruabarrak konpontze aldera eta familia berrelkartze aldera **lurraldeko gizarte-zerbitzuek abiatutako esku-hartze profesionalarekin lankidetzan aritzeko** (1/1996 Lege Organikoaren 19. artikulua eta hurrengoak eta Haur eta Nerabeen Legearen 202. artikulua eta hurrengoak). Neurriaren gehieneko iraupena edo, hala egokituz gero, luzapen-aldi gehigarria igarotakoan, haurra edo nerabea jatorrizko familiarengana itzuliko da. Hori egiteko inguruabar egokirik ez badago, LGZek haur edo nerabearen babesgabezia-egoera deklaratuko dute, eta egokitzen diren babes-neurriak hartu (Haur eta Nerabeen Legearen 204.b) artikulua).

Esku-hartzea

UGZei dagokie gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek borondatezko zaintza eskatzeko aurkeztutako eskabideen **hasierako balorazioa** egitea. **Hortik kanpo geratzen dira LGZek hartu eta ikertu behar dituzten kasuak**.

LGZei dagokie egoera horietan dauden haur eta nerabeen borondatezko zaintza hartzea eta haiei arreta ematea, **zerbitzu komunitarioen sarearekin lankidetzan eta UGZekin koordinatuta**. LGZek garatuko duten esku-hartzearen barruan, ordezko bizikidetza-ingurune bat emango zaio adingabeari, aldi baterako (harrera-familia edo egoitza-baliabidea); era berean, errehabilitatzeko esku-hartzeak egingo dira haur edo nerabearekin eta haren familiarekin, haur eta nerabeei laguntzeko (eskatzen denean) eta, dagokionean, familia berrelkartzeko programa espezializatuen bidez.

BEHIN-BEHINEKO ZAINTZA

Definizioa eta esku-hartzea

LGZek beren gain hartu ahalko dute haur edo nerabe baten behin-behineko zaintza, administrazio-ebazpen baten bidez, berehalako arreta behar duenean (Haur eta Nerabeen Legearen 170. artikulua) —zehazki, haren bizitzarako, osotasunerako, osasunerako edo segurtasunerako berehalako arrisku larria dagoelako zantzuak daudenean—, eta hura identifikatu ahalko dute, haren inguruabarrak ikertu ahalko dituzte, eta, hala badagokio, benetan babesgabezia-egoeran dagoela egiaztatu ahalko dute (Haur eta Nerabeen Legearen 171. artikulua).

3.4. LABURPEN-TAULA

Jarraian aurkezten den taulan, modu eskematikoan eta continuum baten parte gisa jasotzen dira haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko gizarte-zerbitzuen arreta behar duten askotariko egoerak (presazko jarduketak izan ezik):

TRATU ONA	BABESGABETASUNAREKIKO ZAURGARRITASUNA	BABESGABETASUNA			
		ARRISKUA			BABESGABEZIA
		ARINA	ERTAINA	LARRIA	
Haur edo nerabearen eskubideak errespetatzen dira, eta haren oinarrizko premiekiko arreta egokia da. **Esku-hartzea** Haur eta nerabeen eskubideak eta ongizatea sustatzeko programa komunitarioak eta prebentzio unibertsaleko programak (adibidez, gurasotasun positiboa, osasunaren jarraipena, familientzako laguntza, kontziliazioa) **Erakunde eskuduna** Udaleko gizarte-zerbitzuak eta zerbitzu komunitarioen sarea	Ez da gabeziarik egon haur edo nerabearen oinarrizko premiak asetzean, edo premia horiekiko arreta ez da desegokia, baina babesgabetasunarekiko zaurgarritasuna dakarten zailtasun pertsonal, familiar eta sozialak daude. Etorkizunean babesgabetasuna ager daiteke. **Esku-hartzea** Prebentzio-programak eta haur eta nerabeei eta familiei laguntzeko baliabideak. Prebentzio-programa espezifikoak, haurdunaldian jaio aurreko arrisku-egoerak daudenerako. Esku-hartzearen intentsitatea eta esku-hartze mota, zaurgarritasun-mailaren arabera. **Erakunde eskuduna** Udaleko gizarte-zerbitzuak eta zerbitzu komunitarioen sarea.	Arretak gabeziak dauzka hazkuntza- eta babes-eginbeharrak betetzean. Portaera batzuk ez dira egokiak haur edo nerabearen eskubideekiko eta premiekiko, baina ez diote kalte esanguratsu edo larria eragin, eta ez du ematen eragingo diotenik ere. **Esku-hartzea** Haur eta nerabeen eskubideak eta ongizatea sustatzeko programa komunitarioak eta prebentzio-programak (adibidez, gurasotasun positiboa, osasunaren jarraipena, familientzako laguntza, kontziliazioa). **Erakunde eskuduna** Udaleko gizarte-zerbitzuak eta zerbitzu komunitarioen sarea.	✓ Adingabeak zaintzeko ezarritako hazkuntza- eta babes-eginbeharrak gaizki betetzea: Babesgabetasun ertaina edozein tipologiatan, salbuespenak kenduta. **Esku-hartzea** ✓ Familia babesteko programak ✓ Arrisku-egoeraren administrazio-adierazpena, hala badagokio **Erakunde eskuduna** Udaleko gizarte-zerbitzuak, zerbitzu komunitarioen sarearekin lankidetzan.	✓ Adingabeak zaintzeko ezarritako hazkuntza- eta babes-eginbeharrak gaizki betetzea, babesgabezia eragin gabe: Babesgabetasun handia edo oso handia edozein tipologiatan, eta babesgabetasun ertaineko kasu zehatzak. ✓ "Babesgabeziarekiko zaurgarritasun larria". **Esku-hartzea** ✓ Egoera familian arindu daitekeenean: Familia babesteko programa espezializatuak. ✓ Arrisku-egoeraren administrazio-adierazpena, hala badagokio **Erakunde eskuduna** Lurraldeko gizarte-zerbitzuak, udaleko gizarte-zerbitzuekin eta zerbitzu komunitarioen sarearekin lankidetzan.	Haurra edo nerabea beharrezko laguntza moral edo materialik gabe geratu da, honen ondorioz (Kode Zibilaren 172. artikulua eta hurrengoak, 1/1996 Lege Organikoaren 18. artikulua eta Haur eta Nerabeen Legearen 187. artikulua eta hurrengoak): ✓ Adingabeak zaintzeko ezarritako hazkuntza- eta babes-eginbeharrak: ez betetzea edo ✓ Hazkuntza- eta babes-eginbeharrak aldi batez edo behin betiko ezin betetzea edo ✓ Hazkuntza- eta babes-eginbeharrak gaizki betetzea: Babesgabetasun handia edo oso handia, edozein tipologiatan. **Esku-hartzea** ✓ Babesgabezia-egoera deklaratzea eta haur edo nerabearen tutoretza hartzea. ✓ Aldi baterako banantzea: Familia berrelkartzeko programak eta aldi baterako harrera-baliabideak (egoitza- edo familia-harrera). ✓ Banantze iraunkorra edo behin betikoa: Harrera iraunkorrerako edo behin betiko harrerarako baliabideak (egoitza-harrera, familia-harrera, adopzioa) eta haurrari edo nerabeari laguntza-zerbitzuak. Hala badagokio, jatorrizko familiarekiko lotura lantzea. **Erakunde eskuduna** Lurraldeko gizarte-zerbitzuak, udaleko gizarte-zerbitzuekin eta zerbitzu komunitarioen sarearekin lankidetzan.

BORONDATEZKO ZAINTZA BEHAR DUTEN EGOERAK
Haurra edo nerabea beharrezko laguntza moral edo materialik gabe gera liteke, honen ondorioz (1/1996 Lege Organikoaren 19. artikulua eta hurrengoak eta Haur eta Nerabeen Legearen 202. artikulua eta hurrengoak): ✓ Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek hazkuntza- eta babes-eginbeharrak aldi batez bete ezin izatea, ondo egiaztatutako inguruabar larri, iragankor eta konpongarriengatik. **Esku-hartzea:** ✓ Haur edo nerabearen zaintza hartzea, bi urtez gehienez ere, baldin eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek konpromisoa hartu badute lurraldeko gizarte-zerbitzuen esku-hartzean laguntzeko. ✓ Aldi baterako banantzea: Familia berrelkartzeko programak eta aldi baterako harrera-baliabideak (egoitza-harrera edo familia-harrera). **Erakunde eskuduna:** Lurraldeko gizarte-zerbitzuak, udaleko gizarte-zerbitzuekin eta zerbitzu komunitarioen sarearekin lankidetzan.

Balora tresnaren oinarriak: babesgabetasunik dagoen eta haren larritasuna zein den baloratzeko elementuak eta irizpideak

ZIRRIBORRA

Babesgabetasun-egoeretan, hiru baldintza biltzen dira:

1. gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haur edo nerabe batekiko **hazkuntza- eta babes-eginbeharrak ez betetzea, gaizki betetzea edo ezin bete izatea** —nahita zein nahi gabe—,
2. egora horren ondorioz, zuzenean nahiz zeharka, **ingurunean konpentsazio-elementurik ez egoteagatik**, haur edo nerabearen **oinarrizko premiak ez asetzea** edo haren **oinarrizko eskubideak urratzea**,
3. haur edo nerabearen **ongizateari edo garapenari kaltea** eragitea edo kalte hori **pairatzeko arriskua** sortzea.

Hortaz, babesgabetasunik dagoen eta haren larritasuna ebaluatzeko, bi elementu hartu behar dira kontuan: (l) gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haur edo nerabearekin daukaten portaera eta (2) portaera horrek harengan eragin duen edo eragin dezakeen kaltea. Babesgabetasuna dagoela ondorioztatzeko, funtsezkoa izango da, baita ere, nahikoa arrazoitzea bien artean lotura dagoela (gurasoen portaera – haurrak edo nerabeak daukan kaltea).

1. *Gurasoen portaera*
2. *Haurrari edo nerabeari eragin zaion edo eragin dakiokeen kaltea*
3. *Bien arteko harremana*

Oro har, **gurasoen portaera eragiten duten edo portaera horrekin lotuta dauden inguruabarrak edo faktoreak** ez dira erabakigarriak izango portaera hori egokia den, babesgabetasuna ekarri duen eta haren larritasun-maila baloratzeko, baina erabakigarria izango da geroago, hala badagokio, UGZek/LGZek jarraituko duten esku-hartzea diseinatzeko orduan. Gehienetan, baita kasurik larrienetan ere, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez dute izaten haurrari edo nerabeari kalte egiteko asmorik. Oro har, zenbait inguruabarren eraginpean egoten dira (adibidez, adikzioak, ondoez edo nahasmendu psikologikoak, hezteko trebetasunen gabezia, haur edo nerabeen premiak ez ezagutzea edota haurrak edo nerabeak jokabide oso disruptibo edo zaila edukitzea), eta horrek galarazi egiten die zaintza-eginbeharrak ondo betetzea.

Gurasoen portaera eragiten duten edo portaera horrekin lotuta dauden inguruabarrak edo faktoreak ez dira erabakigarriak izango portaera hori egokia den ala ez eta, hala badagokio,

1. GURASOEN PORTAERA EBALUATZEA

Gurasoen portaera ebaluatzeko, bi osagai hartu behar dira kontuan: (a) haur edo nerabearen oinarrizko premiak asebeteta dauden eta guraso-rola ondo betetzen den eta (b) gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek UGZetako/LGZetako profesionalekin erakusten duten lankidetza-maila.

1.1. HAUR EDO NERABEAREN OINARRIZKO PREMIAK ASETZEA ETA GURASO-ROLA (HAZKUNTZA- ETA BABES-EGINBEHARRAK) ONDO BETETZEA

Balora tresna bat dator emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean den legediarekin, eta bere egiten du gizarteko eta etxeko erantzukidetasunaren eta etxeko lanen eta zaintza-lanen banaketa orekatuaren printzipioarekin. Haurrak eta nerabeak hazi eta babesteko eginbeharrak nola betetzen diren baloratzeko, emakumeak eta gizonak berdin hartu behar dira kontuan, zaintzen desberdinkeriazko banaketa eta, ondorioz, genero-desberdinkeria legitimatzen dituzten alborapenak eta praktikak saihestuz. **Seme-alaben hazkuntzan, zaintzan eta garapen integralean erantzukidetasuna** egotea, emakumeen eskubidea ez ezik, haur eta nerabeen ongizatea eta garapen osoa bermatzeko funtsezko elementua ere bada.

Berdintasuna eta genero-ikuspegia – Emakumeen eta gizonen erantzukidetasuna seme-alaben hazkuntza- eta zaintza-eginkizunetan

Aurrekoa kontuan hartuta, haur edo nerabearen oinarrizko premiak asebeteta dauden eta guraso-rola egokia den ebaluatzeko unean, informazioa bilduko da, eta, gabezia-arloez gainera, aintzat hartuko dira zaintza egokia den arloak ere. Garrantzitsua da arreta gabeziei soilik ez jartzea: **guraso-rolaren alderdi onak ere baloratu behar dira**.

Guraso-rola nola betetzen den jakiteko ebaluazio orokorra egitea, alderdi onak eta indarguneak eta alderdi txarrak eta arriskuak ere

Gurasoen portaera ebaluatzeko, elkarren osagarri diren hiru ikuspegi erabili ahalko dira; lehenengo biak orokorragoak dira, hautazkoak, kasurako egokiak direnean erabiltzekoak, eta hirugarrena espezifikoagoa da, tresnan nahitaez aplikatu beharrekoa:

a) Berrikustea **haur edo nerabearen premia fisiko, emozional, sozial, kognitibo edo afektibo-sexualei zer arreta-maila ematen zaien eta premia horiek zenbateraino asebeteta dauden**; horretarako, dagokion eranskinean jasotzen den premien taxonomia erabiliko da.

b) Berrikustea **guraso-rolak dakartzan eginkizunak ondo betetzen diren** (UK Department of Health, 2000):

- **Oinarrizko zaintzak** – Haur edo nerabearen premia fisikoak asebetetzea eta mediku- eta hortz-arreta egokiak ematea dakar. Barruan sartzen da janaria, edaria, beroa, aterpea, arropa garbi eta egokia eta higiene pertsonal egokia ahalbidetzea.
- **Segurtasuna** – Haurra edo nerabea edozein arriskutatik ondo babestuta egon dadin bermatzea dakar. Barruan sartzen da kalte edo arrisku esanguratsuetatik eta seguruak ez diren heldu, haur edo nerabeekiko harremanetatik babestea, baita haurrak edo nerabeak bere buruari eragin diezaiokeen kaltetik babestea ere. Etxean nahiz beste toki batzuetan arriskuak atzemateko gaitasuna izatea eskatzen du.
- **Berotasun afektiboa** – Haur edo nerabearen premia emozionalak asetzea dakar, pertsona bereziki baloratua dela sentiaraziz eta bere buruarekiko, etniarekiko eta kulturarekiko identitate positiboa transmitituz. Hemen barruan, bermatu egin behar da haurrak edo nerabeak heldu esanguratsuekin harreman seguru, egonkor eta txeratsuak edukitzea eta heldu horiek haren premiei sentikortasunez eta ondo erantzutea (erantzun afektiboa). Halaber, berekin dakar berotasun emozionala, errefortzua eta estimulua eragingo dituzten adierazpen fisikoak, kontsolamendua eta kontaktu fisiko egokia edukitzea.

> ***Guraso-rolaren eginkizun nagusiak:***
> - ***Oinarrizko zaintza fisikoak***
> - ***Segurtasuna***
> - ***Berotasun afektiboa***
> - ***Estimulazioa***
> - ***Orientazioa eta mugak***

- **Estimulazioa** – Haur edo nerabearen ikaskuntza eta garapen intelektuala sustatzea dakar, ezagutza estimulatuz eta gizarte-interakziorako aukerak sustatuz. Hemen barruan, haren garapen kognitibo eta potentziala erraztu behar da, harekin elkarreraginean arituz, komunikatuz, hitz eginez eta haren interakzio-egitasmoei nahiz galderei erantzunez; horretarako, haren jolasean parte hartu behar da, eta heziketa-aukerak sustatu. Era berean, berekin dakar haurrak edo nerabeak arrakasta bizi dezan erraztea, hezteko eta prestatzeko aukerak ematea eta bizitzako erronkei aurre egiten laguntzea.
- **Orientazioa eta mugak** – Haurrak edo nerabeak bere emozioak eta jokabideak erregulatzen ikasi eta erregulatzeko bidea jartzea da. Guraso-figuren zeregin giltzarriak dira portaera egokia erakutsi eta moldatzea, emozioak eta gainerakoekiko interakzioak kontrolatzen laguntzea, orientazioa ematea eta mugak ezartzea, haurrak edo nerabeak balio moralak eta portaera-arau egokiak barneratu ahal izan ditzan. Helburua da haurra edo nerabea heldu autonomo bihurtzea, balio propioduna eta gai izango dena besteekin ondo jokatzeko, kanpoko arauen mende egon gabe. Horretarako, haurrak edo nerabeak ez dira gehiegi babestu behar esplorazio- eta ikaskuntza-esperientzietatik; lagundu egin behar zaie gizarte-harremanetan sortzen diren arazoak konpontzeko, hira maneiatzeko eta besteak aintzat hartzeko trebetasunak ikasten, eta estrategia egokiak erabili behar dira diziplina ezarri nahiz portaera zuzentzeko.
- **Egonkortasuna** – Berekin dakar familia-ingurune nahikoa egonkorra sortzea, haurrak edo nerabeak atxikimendu-harreman seguruak garatu eta eduki ditzan guraso-figurekin. Horri begira, bermatu egin behar da atxikimendu-loturak ez etetea eta zaintza afektibo egonkorra, errutinak eta erantzunean sendotasuna ematea. Halaber, gurasoen erantzunak haur edo nerabearen garapenera egokitu behar dira, eta familiako kide garrantzitsuekin eta beste pertsona esanguratsu batzuekin harremana izatea ziurtatu.

c) Berrikustea **zein diren guraso-eginkizunak betetzeko erabiltzen diren portaerak**, identifikatuz bai (1) **eginkizun horiek ondo betetzea dakarten portaerak**, bai (2) **—ekitez edo omisioz, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek zuzenean eginda nahiz beste batzuek haien ezagutzarekin, baimenarekin edo onarpenarekin eginda— haur edo nerabearen oinarrizko premia bat edo batzuk gaizki artatzea edo ez artatzea dakarten eta, ondorioz, haren ongizaterako eta garapenerako kaltegarriak izan daitezkeen portaerak**. Azken kasu horretan, tresnak hainbat irizpide ematen ditu portaera horien larritasuna baloratzeko. Taula honetan jasotzen dira haur edo nerabeentzat kaltegarriak izan daitezkeen eta, zehatzak izate aldera, tresnak barruan biltzen dituen guraso-portaerak (edo babesgabetasun motak):

Haurrari edo nerabeari kalte esanguratsu edo larria eragin diezaioketen guraso-portaerak: Babesgabetasun motak

1. Tratu txar fisikoak.
   1.1. Eraso fisikoa.
   1.2. Drogak, alkohola edo farmakoak ematea.
   1.3. Janaria eta ura nahita kentzea.
   1.4. Konfinamendua edo murrizketa fisikoa.
   1.5. Boterearen bidezko Munchaüsen-en sindromea (beste bati ezarritako nahasmendu faktizioa) eta eragindako tratu txar medikoak.
2. Zabarkeria.
   2.1. Premia fisikoekiko zabarkeria: Elikadura, jantziak, higiene pertsonala, osasun fisikoaren zaintza; etxebizitzaren higiene-baldintzak, etxebizitzaren egonkortasuna, etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak.
   2.2. Segurtasun-premiekiko zabarkeria: Etxebizitzaren segurtasun fisikoa eta arriskuen prebentzioa; gainbegiratzea; beste pertsona batzuek ezarritako indarkeriarekiko babesa.
   2.3. Premia kognitiboekiko zabarkeria: Estimulazioa; prestakuntza- eta hezkuntza-premiak.
   2.4. Premia emozionalekiko zabarkeria: Interakzioa, lotura eta afektua; arazo emozionalei eta arazootara lotutako jokabide-asaldurei eta premia bereziei arreta espezifikoa ematea; arauak, mugak, errutinak eta balio positiboen transmisioa.
3. Sexu-indarkeria.
4. Tratu txar psikologikoak.
   4.1. Tratu txar emozionalak.
   4.2. Genero-indarkeriarekiko esposizioa.
   4.3. Beste indarkeria mota batzuekiko esposizioa familian.
   4.4. Inplikazioa gurasoen arteko edo beste senide garrantzitsu batzuekiko gatazketan.
   4.5. Eraso fisikoa egiteko mehatxuak.
5. Abandonua.
6. Gurasoen ezintasuna haur edo nerabearen jokabidea erregulatu eta kontrolatzeko.
7. Jaio aurreko tratu txarrak eta jaio aurreko arriskua.
8. Beste tipologia batzuk.
   8.1. Etxetik botatzea edo etxera sartzen ez uztea.
   8.2. Galbideratzea.
   8.3. Eskekotasuna.
   8.4. Lan-esplotazioa.

Garrantzitsua da kontuan hartzea izaera fisikoko babesgabetasun-kasu gehienetan erasoarekin edo zabarkeria fisikoarekin batera egon ohi den oinarri emozional negatiboa dela haur edo nerabearentzat benetan kaltegarria. Muturreko kasuetan izan ezik, ondorio fisikoak intentsitate baxukoak izaten dira, edo azkar sendatzen dira; ondorio psikologikoek iraun egiten dute. Izaera fisikoko babesgabetasun-egoeren balorazioan, beti jarriko zaio arreta gurasoen portaeraren osagai emozionalari.

1.2. GIZARTE ZERBITZUEN IKERKETA- ETA EBALUAZIO-PROZESUETAN ETA ESKU-HARTZEETAN LAGUNTZEA

Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko gizarte-zerbitzuetako profesionalekin agertzen duten lankidetza-maila ez da aldagai adierazgarria babesgabetasunik dagoen ala ez eta haren larritasun-maila zehazteko; halere, **kasu jakin batzuetan, esanguratsua izan daiteke arrisku-maila** ezartzeko, et eta, kasuaren balorazio orokorra egiteko. Lankidetza-maila hori, gainera, erabakigarria izango da **arriskua deklaratzeko**. Era berean, kontuan hartu ahalko da familiak zenbateraino laguntzen duen beste zerbitzu batzuekin (esate baterako, sanitarioekin edo soziosanitarioekin nahiz hezkuntzakoekin), baina, **arriskua deklaratzeko, haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko gizarte-zerbitzuen ikerketa- eta ebaluazio-prozesuetan zein esku-hartzean ez laguntzea izango da erabakigarria.** Familiak laguntzen ez duela ondorioztatuko da, **bakar-bakarrik, gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak gai izan daitezkeenean gizarte-zerbitzuek eskatu edo proposatutakoa egiteko**.

Lankidetza-mailak ez du eraginik babesgabetasunik dagoen eta haren larritasuna zein den zehazteko orduan; bai, ordea, gero arrisku-maila zehaztean.

Arriskua deklaratzea – Ikerketa- eta ebaluazio-prozesuetan nahiz esku-hartzean benetan ez laguntzeagatik gerta daiteke

a) **Ikerketa- eta ebaluazio-prozesuetan benetan laguntzen ez dutela** ondorioztatzeko, behar bezala egiaztatu eta dokumentatu beharko dira hauek:

- gurasoei, tutoreei edo zaintzaileei prozedura ireki dela jakinarazteko komunikazioan **ikerketarako edo ebaluaziorako jarduketa-plan bat** sartu dela, prozesu horietarako aurreikusitako **helburuak, epeak eta prozedura zehazten dituena**, eta
- gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **komunikazio hori jaso dutela edo horren berri izan dutela**, ez dela lortu haiek benetan laguntzea — **lankidetza falta hori zertan datzan zehaztuta**— eta egoera horrek galarazi egiten duela baloratzea haurrari edo nerabeari eragiten ari zaion babesgabetasun-egoerarik dagoen.

Garrantzitsua da ondo egiaztatu eta dokumentatzea familiarekin zer jarduketa burutu diren eta zergatik ondorioztatu den nahikoa eta benetan laguntzen ez dutela

b) **Esku-hartzean benetan laguntzen ez dutela** ondorioztatzeko, behar bezala egiaztatu eta dokumentatu beharko dira hauek:

- zer jarduketa profesional burutu diren lankidetza hori lortzeko (adibidez, eskainitako baliabideak, baliabideak eskaintzeko uneak, esku hartu duten profesionalak),
- jarduketa profesional horiek modu jarraituan eta jarrera proaktiboarekin burutu direla **sei hilabetez gutxienez** edo denbora-tarte txikiagoan, hala egokitzen dela balioesten bada babesgabetasun-adierazleen larritasunaren, lankidetza-mailaren eta haur edo nerabearen zaurgarritasun-mailaren arabera, eta
- gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **esku-hartze horiek jaso dituztela edo horien berri izan dutela**, ez dela lortu haiek benetan laguntzea —**lankidetza falta hori zertan datzan zehaztuta**— eta egoera horrek galarazi egiten duela baloratzea haurrari edo nerabeari eragiten ari zaion babesgabetasun-egoerarik dagoen**.**

Hori betetzeko, haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko gizarte-zerbitzuek erakutsi egin behar dute eginahalak egin dituztela, denboran eta moduetan egoki jardunez, zertarako-eta (1) haur edo nerabearen egoera baloratzeko edo (2) familiaren arazoak konpontzera bideratutako esku hartzeko plan bat egin eta martxan jartzeko, eta bi kasuetan sustatu dutela gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek parte hartzea, baina, hala ere, haiek uko egin diotela ikerketarako edo ebaluaziorako edo esku-hartzerako aurreikusitako jarduketa-planean benetan laguntzeari edo hura sinatzeari. Ikerketan edo ebaluazioan benetan ez laguntzea arrisku-adierazletzat joko da, esku-hartzean ez laguntzea bezain garrantzitsua.

Horretarako, haur edo nerabearen espedientean idatziz jaso beharko dira burututako jarduketa guztiak, zehaztuta zer hitzordu edo bisitatan ezin izan den

guraso, tutore edo zaintzaileengana iritsi (tartean izandako profesionalak, eguna, aurreikusitako jarduketak, egindako jarduketak eta emaitza sartuta).

Haur eta nerabeak zaindu eta babesteko gizarte-zerbitzuetako profesionalek askotariko estrategiak erabili ahalko dituzte gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek eta haurrek edo nerabeek ikerketa- eta ebaluazio-prozesuetan eta esku-hartzean laguntzea sustatzeko. Bereziki baliagarri gerta daiteke motibatzeko teknikak erabiltzea, jarrera begirunetsu, zintzo eta positiboa erakustea edo familiarengandik hurbil dauden pertsonek edo profesionalek parte hartzea.

Guraso, tutore edo zaintzaileen lankidetza-maila baloratzeko irizpideak

Irizpide hauen arabera baloratuko da guraso, tutore edo zaintzaileen lankidetza-maila:

GURASOEK, TUTOREEK EDO ZAINTZAILEEK GIZARTE-ZERBITZUETAKO PROFESIONALEKIN ERAKUSTEN DUTEN LANKIDETZA-MAILA	
Arazoaren gaineko kontzientzia-maila, laguntza-eskaera eta ikerketarekiko/ebaluazioarekiko edo esku-hartzearekiko lankidetza	
Egokia	• Ikerketa- edo ebaluazio-prozesuetan eskatzen zaien informazioa ematen dute; zintzotasuna erakusten dute, eta gizarte-zerbitzuetako profesionalei modua ematen diete haurra edo nerabea ezagutzeko, beharrezkoa bada ebaluatzeko eta familiarekin loturaren bat duten zerbitzu edo pertsonekin harremanetan jartzeko. • Haur edo nerabearekiko harremanetan edo hura zaintzeko eginkizunetan dituzten zailtasunak, zailtasun horien kausak eta egoera horrek haur edo nerabearengan eragiten dituen ondorio negatiboak onartzen dituzte. • Arazoak konpontzeko gogoa adierazten dute. • Gizarte-zerbitzuen laguntza eskatzen edo onartzen dute. • Gizarte-zerbitzuetako profesionalekin ados daude, familian aldatu behar diren inguruabarrei dagokienez. • Esku hartzeko plana sinatzen dute; helburu horrekin eskainitako baliabideak onartzen dituzte, eta inplikatzeko eta modu aktiboan laguntzeko asmoa erakusten dute. • Ez dago haien konpromisoa fidagarria ez denik pentsarazteko moduko informaziorik.
Nahikoa	• Ikerketa- edo ebaluazio-prozesuetan eskatzen zaien informazioa ematen dute; oro har, zintzotasuna erakusten dute, eta gizarte-zerbitzuetako profesionalei modua ematen diete haurra edo nerabea ezagutzeko, beharrezkoa bada ebaluatzeko eta familiarekin loturaren bat duten zerbitzu edo pertsonekin harremanetan jartzeko; halere, errezeloak dauzkate alderdi batzuetan. • Haur edo nerabearekiko harremanetan edo hura zaintzeko eginkizunetan dituzten zailtasun nagusietako batzuk, zailtasun horien kausak eta egoera horrek haur edo nerabearengan eragiten dituen ondorio negatiboak onartzen dituzte. • Zailtasunak dituzte beste arazo batzuk aitortzeko. Zailtasunen errua haurrari edo nerabeari, beste pertsona batzuei edo kanpo-inguruabarrei egozten badiete ere, aitortzen dute berei dagokiela erantzukizunaren zati handi bat. • Arazoak konpontzeko gogoa adierazten dute. • Gizarte-zerbitzuen laguntza eskatzen edo onartzen dute. • Gizarte-zerbitzuetako profesionalekin ados daude, familian aldatu behar diren inguruabarrei dagokienez.

	• Esku hartzeko plana sinatzen dute; horretarako eskaintzen zaizkien baliabideak onartzen dituzte, eta inplikatzeko eta lankidetza aktiboa izateko asmoa dutela adierazten dute, baina nolabaiteko erresistentzia eta zailtasunak izan ditzakete balorazioetako eta proposamenetako batzuk ulertu eta onartzeko. • Esku-hartzearen planifikazioarekiko erakusten duten inplikazio-maila nahikoa da, baina ez da maila egokira iristen. Esku-hartzearen helburu gehienak onartzen dituzte, baina baliteke emandako edo gomendatutako zerbitzuak egoki ez erabiltzea. • Ez dago esku-hartzearekiko duten konpromisoa fidagarria ez denik pentsarazteko moduko informaziorik.
Eskasa	• Uzkur agertzen dira, edo zailtasunak erakusten dituzte, ikerketa- edo ebaluazio-prozesuetan eskatzen zaien informazioa emateko; informazioren bat ezkutatzen dute, edo ez dute ematen, eta errezeloak dauzkate gizarte-zerbitzuetako profesionalek haurra edo nerabea ezagutzeko, beharrezkoa bada ebaluatzeko eta familiarekin loturaren bat duten zerbitzu edo pertsonekin harremanetan jartzeko. • Haur edo nerabea zaintzeko eginkizunetan dituzten zailtasunetako batzuk eta egoera horrek haur edo nerabearengan eragiten dituen ondorio negatibo batzuk onartzen dituzte. • Zailtasunak dituzte haiei eta familiari eragiten dieten arazo garrantzitsu batzuk aitortzeko. Zailtasunen errua haurrari edo nerabeari, beste pertsona batzuei edo kanpo-inguruabarrei egozteko joera dute. • Baliteke arazoak konpontzeko gogoa adierazi eta gizarte-zerbitzuei laguntza eskatzea, baina ez daude ados gizarte-zerbitzuetako profesionalek egindako diagnostikoarekin, aldatu behar diren familia-inguruabarrei dagokienez. • Esku-hartzea onar dezakete, baldin eta zuzenean inplikatu behar ez badute. • Erresistentzia edo zailtasunak dituzte gizarte-zerbitzuen balorazioak eta proposamenak ulertu eta onartzeko. • Badaude esku-hartzearekiko duten konpromisoa fidagarria ez dela pentsarazteko moduko aurrekariak edo informazioa. • Hitzez, ikerketa/ebaluazioa edo esku hartzeko zerbitzuak onartzen dituzte, baina ez dute lagundu nahi (modu aktibo nahiz pasiboan). Gutxienekoan inplikatzen dira. • Profesionalek etengabe eta zuzenean gainbegiratzen eta kontrolatzen dituztenean soilik eusten diete beren inplikazioari eta parte-hartzeari. Profesionalak manipulatzen eta haien kontrola eragozten saiatzen dira. • Erabateko zurikeriaz edo etsaitasunez jarduten dute. • Esku-hartzearekin agertzen duten inplikazioa hori lortzeko ezarritako kanpo-presioaren emaitza baino ez da.
Ezdeusa	• Erresistentzia aktiboa edo pasiboa erakusten dute gizarte-zerbitzuekin inolako harremanik edo inplikaziorik izatearekiko. Ikerketa/ebaluazioa edo esku-hartzea boikotatzen dute. • Iheskorrak dira, hitzezko etsaitasunez jarduten dute, edo profesionalei eraso fisikoak edo eraso fisikoen mehatxuak egiten dizkiete. Zailtasun handiak daude haiekin harremanetan jartzeko edo harremanari eusteko. Zabal-zabal egiten diote uko balorazio-prozesuan parte hartzeari edo proposatutako esku-hartzeari jarraitzeari. • Ukatu egiten dute zailtasunik dutenik haurra edo nerabea zaintzeko, baita egoera horrek haur edo nerabearengan ondorio negatiborik duenik ere. • Ez dituzte aitortzen haiek eta familiak babesgabetasun-egoera dela-eta dituzten arazoak. • Zailtasunen errua haurrari edo nerabeari, beste pertsona batzuei edo kanpo-inguruabarrei egozteko joera dute. • Ez dute beren arazoak konpontzeko gogorik adierazten, ezta gizarte-zerbitzuen laguntza jasotzekorik ere. • Erresistentzia handiz jokatzen dute gizarte-zerbitzuen balorazioak eta proposamenak ulertu eta onartzeko. • Argi eta garbi egiten diote uko esku-hartzea planifikatzen edo garatzen laguntzeari.

2. HAURRAK EDO NERABEAK JASANDAKO KALTEA EBALUATZEA

2.1. GARAPEN-ARLOAK ETA KALTEAREN ADIERAZLEAK

Garapen-arloak: fisikoa, emozionala, soziala, kognitiboa eta afektibo-sexuala

Guraso, tutore edo zaintzaileen portaerak haur edo nerabearengan daukan inpaktuak askotariko **garapen-arloei** (fisikoa, emozionala, soziala, kognitiboa eta afektibo-sexuala) eragin diezaieke, baina arlook elkarri estu lotuta daude. Hori dela-eta, arlo batean kaltea detektatzen denean, funtsezkoa da beste arloak sakon ebaluatzea; izan ere, **zenbat eta kalte handiagoa jaso, orduan eta arlo gehiago kaltetzen dira aldi berean**.

Arlo pertsonal, familiar, sozial eta hezkuntzakoan/presta kuntzakoan eragindako inpaktua

Arlo horietan pairatutako kalteak zaildu egin diezaioke haurrari edo nerabeari bere adin eta hazkuntza-prozesurako espero izatekoak diren **eboluzio-mugarriak** lortzea, baita egoten den askotariko **eremuetara egokitzea** ere (**familia, gizartea eta hezkuntza/prestakuntza**).

Oro har, kalte fisikoa eta haren larritasun-maila errazago detektatzen eta ebaluatzen dira, gainerako arloak baino. Kaltearen sintomak modu askotan ager daitezke, haur edo nerabearen eboluzio-mailaren arabera, besteak beste. **Ez dago patroi homogeneo edo berezkorik**.

Genero-ikuspegia – Babesgabetasunak inpaktu bereizgarria du mutilengan eta neskengan. Genero alboratzeak

Generoari buruz, ebidentziak erakusten du indarkeriak —eta babesgabetasunak, zehazki— desberdin eragiten diela mutikoei eta neskatoei, generora lotutako faktore biologiko, psikologiko, sozial eta kulturalak direla-eta. Batetik, neskak zaurgarriagoak dira indarkeria molde jakin batzuekiko (adibidez, sexu-indarkeriarekiko), eta joera handiagoa dute sintoma barneratzaileak garatzeko, zeinak ez baitira asko nabarmentzen, hala nola antsietatea, depresioa, isolamendua, arazo somatikoak, erruduntasun-sentimenduak edo traumaren osteko estresa. Bestetik, mutilak gehiago egoten dira zuzeneko indarkeria fisikoaren eraginpean, eta joera handiagoa dute sintoma kanporatzaileak izateko (hala nola jokabide erasokorrak edo antisozialak eta inpultsibotasuna), zeinak "jokabide-arazotzat" jo baitaitezke gehiago, babesgabetasun-adierazle posibletzat baino. Horretaz gainera, generoaren araberako sozializazio-prozesuek asko eragiten dute jasandako kaltea adierazi, komunikatu eta kalte horri aurre egiteko moduan, eta horrek indarkeria bera detektatzea nahiz babes- eta laguntza-mekanismoak eskuratzea baldintzatzen du. Hala, ikusi denez, mutilek zailtasun handiagoa izaten dute biktimizazioa adierazi eta komunikatzeko eta laguntza bilatzeko, eta sendotasun- eta erresistentzia-espektatibak izaten dituzte beren buruarekiko. Haurren inguruan egoten diren pertsonek "sendoagotzat" edo egoera gogorrekiko "ez hain zaurgarritzat" jotzen dituzte mutilak, baina horrek erabateko lotura dauka genero-estereotipoekin, lotzen dutelako maskulinitatea sendotasun emozionalarekin, autokontrolarekin eta ondoezaren adierazkortasun txikiagoarekin. Horren ondorioz, mutilen sufrimendua gutxiets daiteke, edo hain larria ez dela pentsatu, zantzu argirik ez dagoenean bereziki. Dinamika bereizgarri horiek agerian jartzen dute halabeharrezkoa dela babesgabetasun-egoeren ebaluazioan eta esku-hartzean genero-ikuspegia txertatzea, indarkeriaren inpaktu espezifikoak ondo identifikatu eta haurren premia zehatzetara egokitutako erantzunak berma daitezen.

Taula honetan, babesgabetasuna pairatzen duten haur edo nerabeek maiz izaten dituzten adierazleetako batzuk jasotzen dira:

Kaltearen askotariko agerpenak, oro har zehaztugabeak

ZIRRIBORRA

Garapen-arloak	Kaltearen adierazle posibleak
Fisikoa: Aldaketak gorputzean: pisua, neurria, zentzumenak, garapen fisikoa; motrizitate larria (lokomozioa eta jarreraren garapena) eta fina (atzipena)	Lesioak edo gaixotasun fisikoak Garaiera- eta pisu-atzerapena Atzerapena hazkuntzan, jatorria organikoa izan gabe Sintoma psikosomatikoak Atzeratasun psikomotorra Lo egiteko edo jateko arazoak
Emozionala: Identitatearen eraikuntza; autoestimua; norbere buruarekiko eta inguratzen duen munduarekiko segurtasuna eta konfiantza; emozioen identifikazioa, maneiua, adierazpena eta kontrola; autonomia.	Atxikimenduaren eta lotura afektiboaren nahasmenduak Trauma konplexua, garapenaren nahasmendu traumatikoa Trauma osteko estresaren nahasmendua edo sintomak Depresioaren edo antsietatearen nahasmendua edo sintomak Beste nahasmendu psikopatologiko batzuk Autoestimu baxua Beste pertsonekiko gehiegizko mendekotasuna, autonomiarik eza Ezegonkortasuna, labilitate emozionalaren nahasmendua Gehiegizko alerta, gehiegizko erreaktibotasuna Bulkaden, hiraren eta agresibitatearen kontrolik eza eta frustrazioarekiko tolerantzia baxua Adikzioak edo kontsumoak Jokabide erregresiboa Bat-bateko portaera-aldaketak Jokabide autolesiboa Portaerari dagozkion beste agerpen batzuk
Soziala: Elkarreraginean aritzeko eta pertsonen arteko harreman positibo eta osasuntsuak ezartzeko gaitasuna; beste pertsona batzuen seinale sozialak interpretatzeko gaitasuna; ohiko inguruneetan eta erreferentziazko taldeetan rol desberdinak izatea.	Uzkurtasuna, bakartze soziala, pasibotasuna Jokabide antisoziala edo delituzkoa Jokabide erasokorra beste pertsonekiko Gizartean, familian eta eskolan egokitzeko zailtasunak Beste pertsonekiko mesfidantza orokortua Bestelako portaera-arazoak
Kognitiboa[2]**:** Inguruan gertatzen dena ulertzeko, ikasteko, buruz ikasteko, arrazoitzeko, ideiak antolatzeko eta arazoak ebazteko gaitasuna; komunikatzeko gaitasuna: hizkuntza ulertu eta erabiltzea, hitzik gabeko komunikazioa erabiltzea.	Atzerapen orokorra garapenean Hizkuntzaren nahasmendua edo atzeratasuna Arretari eusteko gaitasun txikia Ikasteko zailtasunak, eskola-errendimendu baxua
Afektibo-sexuala: Sexu-identitatearen eta -joeraren eraikuntza; sexualitatearen adierazpena eta sexu-portaera.	Jokabide hipersexualizatua, promiskuitatea Sexu-jokabide arriskutsuak Beste pertsonentzat intrusiboak diren sexu-jokabideak Norberaren sexu-joera edo -identitatea arbuiatzea Intimitate-egoerak arbuiatu edo saihestea

[2]Garapen kognitiboa eta aprobetxamendu akademikoa ez dira gauza bera. Gaitasun kognitiboak garatzeak eragin handia du eskolako errendimenduan, baina faktore askok eragin dezakete errendimendua baxua izatea, eta horrek ez du ezinbestean esan nahi atzerapen edo kalte kognitibo esanguratsua dagoenik.

	Beste sexu-jokabide arazotsu batzuk

Aurreko ataletan esan bezala, gure testuinguruan oso gutxi dira babesgabetasun-egoera baten ondorioz haurrak edo nerabeak ondorio fisiko esanguratsuak pairatzen dituen edo paira ditzakeen kasuak (muturreko kasuak dira, edo adin txikiko haurrei eragiten diete). **Gehienetan, arlo emozional, sozial, kognitibo edo afektibo-sexualean eragindako inpaktuak zehazten du babesgabetasunaren larritasuna**.

Arlo emozional, sozial, kognitibo eta afektibo-sexualean pairatutako kaltea da askotariko babesgabetasun moten osagai nagusia eta oinarri komuna

Arlo horietako bakoitzean **kalterik dagoen eta haren larritasuna** zehazteko eskatzen den informazio-bilketan, hainbat profesionalek hartu ahalko dute parte, kasuaren eta informazio motaren arabera. Garapen-arloren batean **kaltea egiaztatzen denean edo kalte esanguratsua edo larria dagoela susmatzen denean**, **gaikuntza espezifikoa** duten **profesionalek** zehaztu beharko dute **kalte horren larritasuna**:

- **Arlo fisikoan**, medikuek egingo dute —balorazio espezializaturik behar ez den lesioetarako izan ezik—.
- **Arlo emozionalean eta afektibo-sexualean**, psikologoei eta psikiatrei egokituko zaie.
- **Arlo sozial eta kognitiboan**, psikologoek, medikuntzako espezialista egokiek (adibidez, psikiatrek, neurologoek...), gizarte-langileek, gizarte-hezitzaileek eta hezitzaileek egingo dute.

Haurrak edo nerabeak jasandako kaltearen larritasuna zehazteko gaikuntza profesionala eta

Kaltearen larritasuna zehazteko, egokitzen diren diziplina profesionalek emandako ezagutza, metodologiak eta tresnak erabiliko dira[3], eta hor barruan sar daitezke kasuaren aurretiko historiaren azterketa, behaketa, elkarrizketa, beste iturri batzuetarako irispidea, proba klinikoak edo tresna estandarizatuen aplikazioa. **Tresna estandarizatuak erabiltzen direnean, fidagarritasuna eta balioa frogatuta dauzkatenak aukeratuko dira beti**.

Gaikuntza espezifikoa duen profesionalik ez egoteagatik edo bestelako edozein arrazoirengatik ezin bada egin arlo zehatz batean edo batzuetan kalte esanguratsu edo larria dagoen zehazteko ebaluazio espezializaturik, behatutako adierazle edo sintoma guztiak bilduko dira. **Informazio hori baliozkoa izango da, baita ere, babesgabetasunaren larritasuna baloratzeko.**

2.2. KALTEA EBALUATZEKO PARAMETROAK: KALTE ERREALA/POTENTZIALA ETA KALTE ESANGURATSUA/LARRIA

Babesgabetasunik dagoen eta haren larritasuna zein den baloratzean, kontuan hartu behar da **haurrak edo nerabeak daukan kaltearen intentsitatea**.

Baloratzeko orduan, bi parametro hartuko dira aintzat, elkarrekin konbinatuta:

a) Kalte erreala eta potentziala
b) Kalte esanguratsua eta larria

Haurrak edo nerabeak jasandako kaltea ebaluatzeko osagaiak:
- ***Kalte erreala eta potentziala***
- ***Larritasuna: Kalte esanguratsua eta kalte larria***

[3]Adin txikiko haurrak edo dibertsitate funtzionala nahiz premia bereziak dauzkaten haurrak ebaluatzeko, horretarako dauden irizpide, metodologia eta teknika espezifikoak erabiliko dira.

2.2.1. Kalte erreala eta potentziala

Kalte errealak eta kalte potentzialak pisu bera dute babesgabetasuna dagoen ala ez eta haren larritasuna zehazteko

Biek **pisu bera izango dute babesgabetasuna dagoen ala ez eta haren larritasuna zehazteko** orduan.

- **Kalte erreala**, funtsean, haurrak edo nerabeak balorazioaren unean dauzkan edo ikusgai dituen sintomen edo ondoez-zantzuen bidez zehaztuko da, eta sintoma edo zantzu horiek garapen-arlo bati edo batzuei eragin diezaiekete. Kalte errealaren ebaluazioan, bi egoera gerta daitezke:

  a) Kaltearen sintomak zuzenean ikusten dira balorazioaren unean, eta neurgarriak dira. Adibidez, lesio fisikoak (erredurak, hematomak, pixoihalen eritema eta abar), atzerapena hazkuntzan, atzerapena hizkuntzaren garapenean edo depresio- zein antsietate-sintomak.

  b) Kaltearen sintomak ezin dira zuzenean ikusi, ezta, beraz, neurtu ere, balorazioaren unean, baina kaltea badela eta gertatzen ari dela baiezta daiteke, eskuragarri dugun ebidentzia enpiriko eta klinikoan oinarrituta. Adibidez, honelakoetan:

  Kalte erreala – Dagoeneko eragin den kaltea

  Batzuetan, sintomak ezin dira zuzenean ikusi eta

  - Sexu-indarkeriaren biktima diren edo oso egoera traumatikoen lekukoak diren haur eta nerabeak (adibidez, guraso-figura batek jokabide suizida izatea), kaltearen ageriko sintomarik gabeak. Baliteke haur eta nerabe horiek ondo egokituta daudela ematea eta ondoezaren ageriko sintomarik ez izatea, ez maila pertsonalean, ez besteekiko harremanetan. Alabaina, ebidentzia enpiriko eta sendoa dago adierazten duena egoera mota horiek, berez, oso kaltegarriak eta traumatikoak direla eta kalte larria eragiten dietela haur edo nerabe biktimei.
  - Kognizioa estimulatzeko, elkarreraginean aritzeko eta afektua jasotzeko premiak beti zabarkeria handiz tratatzen zaizkien edo tratu txar emozional jarraitu eta latzak jasotzen dituzten sei urtetik beherako haurrak.
  - Nahitaezko eskolatze-adinean egon arren eskolatuta ez dauden eta beren hezkuntza-premiei erantzuten dien banakako hezkuntza-programarik jasotzen ez duten edo eskola-absentismo handia duten haurrak eta nerabeak.
  - Guraso-figurengandik muturreko arbuioa jasotzen duten haurrak eta nerabeak, haiek zaintzeari uko egiten dioten gurasodunak barne hartuta (hortik kanpo geratzen dira borondatez adopzioan emandako jaioberriak).

  Inguruabar horietan, kaltea gertatu egin dela balioetsi behar da; hau da, kalte "erreal" bat dago, intentsitate handiagokoa edo txikiagokoa, nahiz eta une horretan ezkutuan egon (batzuetan, esaterako, disoziaziozko mekanismoen bidez), agertu ez ("ondorio lokartua" deiturikoa sortzen da; hots, kaltea gertatu da, baina beranduago agertuko da) edo hautemanezina izan, horretarako tresna nahikoa zehatzik ez egoteagatik. Kasuok baloratzea bereziki zaila da, eta eskuragarri daukagun ezagutza zientifikoan eta kasuaren inguruabar berezietan oinarrituta arrazoitu behar da kalte "erreala" badela.

- **Kalte potentziala** dagoela zehaztuko da, honako hau baloratzen denean, eskuragarri daukagun ezagutza zientifikoan eta kasuaren inguruabar berezietan oinarrituta, *kalte erreala egon zein ez egon*:

a) guraso, tutore edo zaintzaileen portaerak kalte bat jasateko ageriko arrisku-egoeran jarri du haurra edo nerabea, nahiz eta kaltea gertatu ez. Esate baterako, hori gertatuko litzateke gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek adin txikiko bi haur gauez bost orduz etxean bakarrik utziko balituzte. Baliteke ezer ez gertatzea eta etxera itzultzean haurrek lo jarraitzea, esnatu gabe; hala ere, ageriko arrisku-egoera batean jarriko lituzkete, argi eta garbi. Haurren adina eta ikuskapenik gabe igarotako denbora kontuan hartuta, ondorioztatu beharra dugu haur horiek kalte "potentzialeko" egoera larri batean egongo liratekeela.
edo

Kalte potentziala – Etorkizunean gerta daitekeen kaltea.

b) guraso, tutore edo zaintzaileen portaera zuzentzen ez bada eta bere horretan jarraitzen badu, baliteke etorkizunean kaltea larriagoa izatea, oraingo kaltea edo kalte erreala baino. Adibidez, horixe litzateke estimulazio nahikorik jasotzen ez duen haurtxo baten kasua, edo adin txikia nahiz premia bereziak dituen haur batena. Balorazioaren unean kaltearen sintomak ikusi zein ez ikusi, aintzat harturik haurren garapena prozesu bat dela eta aurretik finkatutako trebetasunetan oinarrituta eskuratzen direla trebetasun berriak, ondorioztatu behar dugu ez dela haurraren oraingo garapena soilik estutasunean dagoena, baita etorkizuneko garapena edo garapen "potentziala" ere.

2.2.2. Kalte esanguratsua eta larria

Haur edo nerabe batek guraso, tutore edo zaintzaileen portaeraren ondorioz askotariko garapen-arloetan jasan dezakeen kaltea continuum batean sartuta dago. **Babesgabetasun ertaina, handia edo oso handia dagoela zehaztuko da, kalte erreal edo potentziala maila "esanguratsuan" edo "larrian" dagoenean**:

Babesgabetasun ertaina – Kalte esanguratsua
Babesgabetasun handia edo oso handia – Kalte larria

a) **babesgabetasun ertaina kalte esanguratsu** erreal edo potentzialarekin lotuta dago
b) **babesgabetasun handia edo oso handia kalte larri** erreal edo potentzialarekin lotuta dago

Irizpide hauek erabiliko dira haurrak edo nerabeak jasandako kaltea baloratzeko:

ZIRIBORRA

KALTE ESANGURATSUA

Haur edo nerabe batek guraso, tutore edo zaintzaileen portaeraren ondorioz pairatzen duen kaltea **kalte esanguratsutzat** jotzeko, **inguruabar hauetako batek edo batzuek** gertatu beharko dute:

Arlo fisikoa

1. **Kalte fisiko edo lesio esanguratsua / Osasunerako arrisku esanguratsuko egoera**: Haurrak edo nerabeak kalte fisiko bat pairatu du, edo lesio, arazo fisiko edo gaixotasun bat dauka, zeinak, nahiz eta bizitza edo funtzio organikoren bat modu iraunkorrean arriskuan jarri ez, konplikatzeko arriskua baitauka, gorputzaren funtzio edo egituraren bat aldi batez mugatu baitu edo mugatu baitezake, jarduerarik gabeko denboraldi bat ekarri baitu edo tratamendu mediko zehatz bat behar baitu.

Arlo emozional, sozial, kognitibo eta afektibo-sexuala:

1. Haurrak edo nerabeak **oso funtzionamendu mugatu edo eroa** dauka bere adinaren edo kondizioaren arabera espero denerako, **garapen-arlo batean gutxienez**, **orain dagoen eboluzio-unean**.
2. Haurrak edo nerabeak bere adin eta kondiziorako **espero ez diren funtzionamendu-zailtasunak edo ondoeza** dauzka **garapen-arlo batean gutxienez**, eta **hainbat eboluzio-etapatan ez dute alde egin**.
3. Haurrak edo nerabeak bere adin eta kondiziorako **espero ez diren funtzionamendu-zailtasunak edo ondoeza** dauzka **bi garapen-arlotan gutxienez**, **orain dagoen eboluzio-unean**.

Zailtasunek ez dituzte betetzen "kalte larriaren" irizpideak.

ZIRRIBORRA

KALTE LARRIA

Haur edo nerabe batek guraso, tutore edo zaintzaileen portaeraren ondorioz pairatzen duen kaltea **kalte larritzat** jotzeko, **inguruabar hauetako batek edo batzuek** gertatu beharko dute:

Arlo fisikoa (mediku-txostena beharko da haur edo nerabearengan eragindako kalte fisiko larriak justifikatzeko):

1. **Kalte fisiko edo lesio larria / Osasunerako arrisku-egoera larria:** Haurrak edo nerabeak kalte fisiko bat pairatu du, edo lesio, arazo fisiko edo gaixotasun bat dauka, zeinak inpaktu handia baitauka edo izan baitezake bere bizi-kalitatean, epe luzerako, edo gorputzaren funtzio nahiz egitura zehatz batean galera edo kalte iraunkor bat ekarri baitu edo ekar baitezake, desgaitasuna ekarri baitu edo ekar baitezake; muturreko kasuetan, bizitza arriskuan jartzen du; ospitaleratzea, tratamendu mediko intentsiboa edo berehalako ebakuntza behar ditu, desgaitasun iraunkorra edo heriotza saihesteko.

2. **Sei urtetik beherako edo desgaitasunen bat edo premia bereziak dituen urte gehiagoko haurra, lesio fisikoak dituena ezinbesteko gorputz ataletan** (aurpegia, burua, barnealdeko lesioak, uzkia, genitalak, abdomena).

Arlo emozional, sozial, kognitibo eta afektibo-sexuala:

1. **Nahasmendu psikopatologiko diagnostikatua.**
   Gaitutako psikiatrek edo psikologoek baloratua,
   edo
2. **Atxikimenduaren edo lotura afektiboaren nahasmenduaren, trauma konplexuaren edo garapenaren nahasmendu traumatikoaren diagnostikoa**, edo **antsietate- nahiz depresio-sintomak**, uzkurtasuna edo jokabide baztertzailea, jokabide erasokorrak edo autosuntsitzaileak edo enpirikoki baloratutako tresnen edo irizpideen arabera **"maila klinikoan"** dauden garapen-atzerapenak.
   Gaitutako profesionalek (gizarte-zerbitzuetakoek edo beste zerbitzu publiko zein pribatu batzuetakoek; adibidez, hezkuntzakoek edo osasun-arlokoek) baloratua, fidagarritasun- eta baliozkotasun-indize egokiak dauzkaten ebaluazio-tresnak aplikatuta nahitaez,
   edo
3. Haur edo nerabearen garapeneko eta egokitzapen pertsonal eta sozialeko prozesua larriki eragozten duten eta berehalako tratamendu espezializatua behar duten **portaera-arazo eta ondoez-sintoma larriak**.
   Gizarte-zerbitzuetako profesional gaituek baloratua, **bost irizpide hauek aldi berean agertzen direnean**:
   1. Haur edo nerabearen sintomak argi eta garbi hautematen dira gutxienez bi garapen-arlotan, eta ez dira noizean behingo kontuak, baizik eta iraunkorrak —gerta liteke hasieran arinak izatea eta gero eta intentsitate handiagoa hartzen joatea—.
   2. Arazoak edo sintomak agerikoak dira haur edo nerabearen bizitzako esparruetako batean gutxienez (familia, hezkuntza/prestakuntza, gizartea).

3. Arazoak edo sintomak oztopo edo muga larriak dira haurrarentzat edo nerabearentzat inguruabar hauetako batean edo batzuetan:
   - berdinkideekin eta pertsona helduekin harreman positiboak eta eraikitzaileak izateko,
   - eboluzio-mugarriak lortzeko, autonomia-mailak erdiesteko, erantzukizunak bere gain hartzeko edo bere adinean espero daitezkeen jarduerak egiteko,
   - bere segurtasuna eta osotasuna edo beste pertsona batzuena babesteko,
   - bere osasun fisikoa babesteko edo oinarrizko behar fisikoen arloan bere adinean espero daitekeen autozaintza egiteko (esaterako, atsedena, elikadura, jarduera-maila, osasuna),
   - gizarte-arauak errespetatzeko (hau da, gizartearen aurkako jokabideak eragiten dituzte).
4. Haur edo nerabearen portaera mota edo horren intentsitatea ez dator bat bere adinerako, generorako eta kulturarako espero daitekeenarekin.
5. Berehalako esku-hartze terapeutikoa egin behar da haur edo nerabearen arazoak edo sintomak egonkortzeko edo zuzentzeko. Esku-hartze terapeutikoak errehabilitazioko esku-hartzea esan nahi du; horren barruan sartzen dira bai arreta psikoterapeutikoa edo farmakologikoa, bai esku-hartze lagungarri eta psikohezitzaileak, aholkularitza psikologikoa, estimulazioa eta abar. Ez du zertan ekarri profesionalak haur edo nerabearekin zuzenean aritzea (adibidez, esku-hartze familiar eta psikohezitzaileak egin daitezke guraso, tutore edo zaintzaileekin, haur edo nerabearekin harremanak edukitzeko eta hura zaintzeko patroiak alda ditzaten).

Haurrak edo nerabeak jasandako kaltea ebaluatzeko, hauek jaso beharko dira:

- **Kalteak HNarengan eragindako sintomen zerrenda**
- **Hasiera-unea eta bilakaera**
- **Egunerako bizitzan duen eragina**

a) Haurrak edo nerabeak garapen-arlo guztietan (fisikoa, emozionala, kognitiboa, soziala eta afektibo-sexuala) agertzen dituen portaera-arazoen edo ondoez emozionaleko sintomen **zerrenda osoa**. Halaber, iraganeko eta gaur egungo arazoak eta sintomak sartuko dira, hauteman direnak eta garrantzitsuak izan daitezkeenak, larriak izan ez badira ere.

b) Arazoen edo sintoma nagusien **hasiera-unea eta bilakaera**, azken sei hilabeteetako egoerari arreta berezia emanda. Haur edo nerabearen oraingo egoerari buruzko informazioaz gainera, **sintomak noiz hasi ziren eta denboran (sei hilabetetik harago) zer bilakaera izan duten** ere jaso behar da: hobera egin duten, txarrera egin duten, egonkor dauden edo beste bilakaeraren bat izan duten. Informazio hori giltzarria da tipologia batzuen larritasuna zehazteko. Sintoma nabarietan, garrantzitsua da haien intentsitatea zehaztu eta xehetasunak ematea.

c) Arazo edo sintoma horiek balorazioa egiteko unean haur edo nerabearen **eguneroko bizitzan duten eraginaren** deskribapena.

3. GURASOEN PORTAERAREN ETA HAURRAK EDO NERABEAK JASANDAKO KALTEAREN ARTEKO LOTURA

Oso zaila da **kausa-efektua ezartzea haur edo nerabe batek pairatzen duen kaltearen eta bere gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ematen dioten tratuaren artean**; batez ere, fisikoak ez diren sintomen kasuan. Askotan, gainera, ez da babesgabetasun mota bakarra agertzen, aldibereko zenbait baizik. Tipologiak fisikoak direnean, errazagoa izan daiteke batzuen eta besteen ondorioak bereiztea. Psikologikoak direnean, ordea, zaila edo ezinezkoa izaten da ondorioak bereiztea. Izan ere, **haurrak edo nerabeak daukan kaltea tipologia guztien baterako ondorio interaktibo eta metagarriaren emaitza da. Horrek, baina, ez du esan nahi ezin daitezkeenik identifikatu haurrak edo nerabeak daukan kaltean pisu handiena duten guraso-portaerak, eta oso garrantzitsua da haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko gizarte-zerbitzuetako profesionalek balorazio integral eta orokorra egitea, baita gurasoen portaera —edo babesgabetasun mota— gailenak edo erabakigarrienak identifikatzea ere, balorazioan nabarmentzeko.**

Zaila da gurasoen portaeraren eta haurrak edo nerabeak jasandako kaltearen arteko lotura ezartzea. Oro har, ondorioztatu ahalko da ea gurasoen portaerak asko lagundu duen kaltea (1) agertzen, (2) mantentzen edo (3) larriagotzen.

Askotan, gainera, guraso, tutore edo zaintzaileen portaera, nahiz eta oso garrantzitsua izan, ez da izaten haurrak edo nerabeak kaltea izateko arrazoi bakarra, elkarrekin jarduten duten kausa ugarietako bat baizik. Hala, **zentzu hertsian, bakar-bakarrik ondorioztatu eta baieztatu ahalko da, orokorrean, portaera horrek eragin handia izan duela haur edo nerabearen kaltea (1) agertu, (2) mantendu edo (3) larriagotzeko unean**.

Kasurik gehienetan, guraso, tutore edo zaintzaileen portaeraren eta haurrak edo nerabeak daukan kaltearen arteko lotura **hipotesi moduan edo probabilitate-zenbatespen gisa** soilik ezarri ahalko da (nekez ziurtasun absolutu gisa), besteak beste, arrazoi honegatik: **haur edo nerabe baten egoera faktore ugariren araberakoa da**: **iragandako eta oraingo faktoreak, familiari dagozkion faktoreak eta testuinguruaren araberako faktoreak**. Hortaz, **haurrak edo nerabeak oraingo eta aurreko bizi-esperientzietan izandako historia ezagututa (iraganean jasandako esperientzia gogorrak eta indarkeria- edo babesgabetasun-egoerak barne hartuta) eta haren garapen-prozesuaren eta kaltearen sintomen berri izanda, hipotesi edo zenbatespen sendoagoak egin ahalko ditugu kaltearen eta guraso-portaeraren arteko loturaren inguruan**.

Haur edo nerabearen historia eta aurreko nahiz oraingo bizi-esperientziak garrantzitsuak dira kaltea azaltzeko orduan. Balorazio integral eta orokorra.

Horrelakorik egiten denean, **behar bezala arrazoitu** beharko dira **hipotesi edo zenbatespen** horiek, eta babesgabetasun-egoerek haur eta nerabeen garapenean dituzten ondorioei buruz egun eskuragarri dagoen ezagutzan oinarritu beharko dira. Irizpide berberak aplikatu beharko dira, egoera jakin batek etorkizunean eragin dezakeen kalteari buruzko iragarpenak egiten direnean.

Amaitzeko, garrantzitsua da kontuan izatea **haur edo nerabearen kalte erreal edo potentziala baloratzean aintzat hartzen direla**, baita ere, haur edo nerabearen eta haren ingurunearen **beste zaurgarritasun- eta babes-faktore batzuk**[4], modu inplizituan. Horregatik, guraso-portaera

[4] Zaurgarritasun- eta arrisku-faktoreek areagotu egiten dute nahi ez den zerbait gertatzeko aukera; faktore bat egoteak berak, berez, ez dakar gauza hori gertatzea, baina bai gertatzeko aukera handitzea. Hala, haurren babesgabetasunaren eremuan, bereizi egiten dira nahi ez diren askotariko gertaera motei lotutako zaurgarritasun- eta arrisku-faktoreak (nahi ez diren gertaera horien artean daude, esate baterako, babesgabetasuna agertzea —babesgabetasunarekiko zaurgarritasuna—, babesgabetasuna

berberak inpaktu kaltegarriagoa izan dezake haur edo nerabe batengan, beste batengan baino, eta, beraz, portaera horren larritasun-maila ere aldatu egingo da.

a) Ebidentzia enpirikoak dio **zaurgarritasun-faktore** batzuek **areagotu egiten dutela gurasoen portaeraren ondorio txar potentziala gauzatzeko aukera**; bada, faktore horien artean, hauek daude:

- Adin txikikoa izatea (barruan sartuta jaio aurreko aldia, jaioberriak eta sei urtetik beherako haurrak).
- Desgaitasuna edo premia bereziak edukitzea.
- Aurretik esperientzia gogorrak bizitzea (adibidez, guraso-figurek adikzioak edo osasun mentaleko arazo handiak izatea, atxikimendu-figura garrantzitsuak galtzea, afekturik ez jasotzea, ingurunean indarkeria egotea edo bestelako gertaera traumatikoak bizitzea).
- Aurretik babesgabetasuna bizitzea edo familiatik kanpo indarkeria egotea.
- Polibiktimizazioa.
- Babesgabetasuna kroniko egitea.
- Atxikimendu-lotura segurua ezartzeko heldu egonkorrik ez egotea.
- Gizarte-zaurgarritasun metatu edo kronifikatua[5].

Kalte erreal edo potentziala baloratzean, haur edo nerabearen edo haren ingurunearen beste zaurgarritasun- eta babes-faktore batzuen ondorioa ere aztertzen da, inplizituki; faktore horiek areagotu egin dezakete, edo, kontrara, arindu, gurasoen portaeraren ondorio txar negatiboa.

HNaren kalte erreala azaltzeko eta kalte potentziala zenbatesteko, ezinbestekoa da, zaurgarritasun-faktoreak ez ezik, babes-faktoreak ere kontuan hartzea.

b) Ebidentzia enpirikoak dio **babes-faktore** batzuek **arindu edo ahuldu egiten dutela babesgabetasunak edo familiako beste inguruabar kaltegarri batzuek haur edo nerabearengan** izan dezaketen ondorio txar potentziala; bada, faktore horien artean, hauek daude:

Haur edo nerabearen ezaugarri indibidualak	Inguruneko pertsonekiko harremana	Inguruneko ezaugarriak

errepikatzea —berriro agertu edo hastea—, haur edo nerabearengan ondorio larriak agertzea, familia-harrera haustea, familia berrelkartzeko prozesu batek porrot egitea...). Elementu batzuk zaurgarritasun- edo arrisku-faktoreak izan daitezke nahi ez diren gertaera batzuetarako, eta beste batzuek gertaera jakin baten inguruan soilik jardun dezakete. Babes-faktoreak, bestalde, gai dira zaurgarritasun- edo arrisku-faktore baten edo batzuen ondorio txarrak neutralizatu edo arintzeko edo, bestela, nahi ez den gertaera agertzeko aukera saihestu edo murrizteko. Zaurgarritasun- eta arrisku-faktoreen kasuan bezalaxe, babes-faktoreak espezifikoak dira nahi ez den gertaera bakoitzerako; halere, haietako batzuk babesleak izan daitezke hainbat gertaeratan.

Era berean, kontuan hartu behar da zaurgarritasun- eta arriskuk-faktoreak eta babes-faktoreak ez direla zertan elkarren aurkakoak izan. Batzuetan, hala izaten da; adibidez, ebidentzia sendoa dago, esaten duena babes-sarerik ez izatea zaurgarritasun- edo arrisku-faktorea dela babesgabetasuna agertzeko, eta alderantziz: babes-sarea edukitzea babes-faktorea dela zaurgarritasun- edo arrisku-faktoreak dituzten familietan. Beste batzuetan, berriz, zaurgarritasun- edo arrisku-faktorea eta babes-faktorea ez dira elkarren aurkakoak; esate baterako, ebidentzia solidoa dago esaten duena prekaritate ekonomikoa zaurgarritasun- edo arrisku-faktorea dela babesgabetasuna agertzeko, baina baliabide ekonomiko edo material nahikoak edukitzea ez da babes-faktore bat.

[5] Egoera hauetan, zaurgarritasuna, prekaritatea, desberdinkeria edo gizarte-bazterketa luzaroan bizitzen dira, edo luzaroan ez da laguntza egokirik jasotzen; bada, egoerok inpaktu metagarria eragiten dute haur eta nerabeen eta haien familien ongizatean, ibilbide pertsonalean eta egoerei aurre egiteko gaitasunean.

• Autoefikazia-sentimendua, inguruan gertatzen dena kontrolatzeko gai izatearena. • Moldatze-trebetasunak: komunikatzeko, erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko gaitasuna, trebetasun sozialak eta nork bere burua zaintzeko eta ikasteko trebetasunak. • Autorregulazio emozional eta kognitiborako gaitasuna. • Autoestimua. • Egonkortasun emozionala. • Jarduera positiboekiko inplikazioa (adibidez, ikastetxean, kiroletan...). • Jainkozaletasuna, espiritualtasuna.	• Haurrak atxikimendu segurua ezarri ahal izateko moduko guraso, tutore edo zaintzaile bat gutxienez. • Guraso-gaitasun egokiak dituen guraso, tutore edo zaintzaile bat gutxienez. • Ongizate psikologiko egokia eta babes-sarea dituen guraso, tutore edo zaintzaile bat gutxienez. • Ingurune hurbilean lotura positiboak dauzkaten figura helduak. • Berdinekiko harreman positiboa.	• Bizikidetza-ingurune egonkorra. • Ingurune eta giro onak eskolan edo hezkuntzan. • Eskolaz kanpoko aisialdi- eta kirol-jarduerekiko inplikazioa. • Komunitate-ingurune (auzo) kohesionatua. • Komunitateko baliabide eta zerbitzuen eskuragarritasuna.

Faktore horien konbinazioak eta interakzioak mesede egingo diote haur edo nerabearen **erresilientziari**, hau da, egoera gogor esanguratsuak bizi arren moldatzeko funtzionamendu positiboa edukitzeko gaitasunari. Erresilientzia, beraz, ez da definitzen haur edo nerabearen berezko ezaugarri indibidual eta aldaezin gisa, babes-faktoreen ondorioaren emaitza gisa baizik. Ezinbestekoa da faktore horiek kontuan hartzea, haurrak edo nerabeak daukan kaltearen sintomak ulertu eta azaltzeko, baita jasan dezakeen kalte potentziala zenbatesteko ere.

4. BABESGABETASUNIK DAGOEN ETA HAREN LARRITASUNA ZEIN DEN BALORATZEKO ORDUAN KONTUAN HARTZEKO BESTE OHAR BATZUK

Lehen adierazi bezala, oro har, **babesgabetasuna eragin dezaketen edo babesgabetasunera lotuta dauden inguruabarrak edo faktoreak** ez dira erabakigarriak babesgabetasunik dagoen eta haren larritasun-maila zein den baloratzeko orduan, ezta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko gizarte-zerbitzuekin agertzen duten **lankidetza-maila** ere —halere, lankidetza-maila garrantzitsua izan daiteke arrisku-maila edo babesgabezia zehazteko—. **Guraso-portaeraren nahitasuna** ere ez da erabakigarria izango, gehien-gehienetan gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez dutelako izaten haurrari edo nerabeari kalte egiteko asmo kontziente eta bideraturik. Asko-askotan, hazkuntza- eta babes-eginbeharrak ondo betetzea galarazten dieten inguruabarren eraginpean egoten dira (adibidez, adikzioak, nahasmendu psikologikoak, heziketa-trebezien gabeziak edota haur edo nerabearen premien gaineko ezjakintasuna).

Bestetik, babesgabetasunaren larritasuna ez da izaten **familiako arazoen kopuruaren edo larritasunaren** sinonimoa, ezta **arazook jorratzeko zailtasunaren** sinonimoa ere, nahiz eta egia izan haien artean badagoela loturarik (kasurik larrienetan, aldibereko arazo gehiago eta larriagoak egoten

dira). Babesgabetasunaren larritasuna, funtsean, guraso, tutore edo zaintzaileen portaerak haur edo nerabearengan daukan edo eduki dezakeen eraginaren arabera ebaluatzen da, ez familiaren barruan eragina duten arazoen kopuruaren edo larritasunaren arabera.

Adierazitako alderdiak garrantzitsuak eta erabakigarriak dira haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko gizarte-zerbitzuek gero egingo dituzten balorazio-prozesuetan eta hartuko dituzten erabakietan; esate baterako, **guraso-trebetasunak iragartzeko edo esku hartzeko plana diseinatzeko orduan.**

Babesgabetasunaren larritasuna, funtsean, guraso, tutore edo zaintzaileen portaerak HNarengan daukan edo eduki dezakeen eraginaren arabera ebaluatzen da, ez familiaren barruan eragina duten arazoen kopuruaren edo larritasunaren arabera edo guraso-portaeraren nahitasunaren arabera

ZIRRIBORROA

Tresna aplikatzeko prozedura

1. TRESNA APLIKATZEKO EGOERAK ETA UNEAK ETA ZERBITZU ARDURADUNAK

1.1. TRESNA ZER EGOERATAN ETA UNETAN APLIKATU BEHAR DEN

Haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko gizarte-zerbitzuek babesgabetasun-egoeretan esku hartzeko prozedura jakin batean aplikatzen da Balora tresna; prozedura hori **bereizitako eta sekuentziatutako zenbait fasetan** egituratuta dago (harrera, ikerketa, ebaluazioa, esku hartzeko planaren diseinua eta exekuzioa, planaren etengabeko berrebaluazioa, esku-hartzearen amaiera), eta fase bakoitzak bere helburuak, metodologia eta denbora-epeak ditu. Hala ere, faseen bereizketa eta sekuentziazio horrek ez du zurruna edo estatikoa izan behar, eta ez da jarri behar profesionalaren iritziaren gainetik; izan ere, errealitatean, fase horiek aldi berean gertatzen dira, ezinbestean, elkarrekin nahasita. Hala, esate baterako, ikerketa- eta ebaluazio-jarduerak aldi berean egiten dira askotan, eta ez dira esku hartzeko planaren diseinuaren edo exekuzioaren aurretik soilik egiten[6], planaren exekuzioaren fasean ere egiten baitira, lortu den informazio berria dela-eta kasuaren ikerketa edo ebaluazioa berriz egitea komeni dela pentsatzen bada. Are gehiago, esku hartzeko plana betetzeari lotuta doa, ezinbestean, kasua etengabe ikertzea eta berrebaluatzea. Era berean, askotan egokia edo beharrezkoa izaten da haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko gizarte-zerbitzuek zuzenean esku hartzea familiarekin, ikerketa- edo ebaluazio-prozesuan bertan, eta, horrez gain, aintzat hartu behar da ikerketa eta ebaluazioa ere esku-hartzeak direla berez. Gauza bera aplika daiteke "esku-hartzearen barruko balorazioa" egitera bideratutako kasuetan. Haietan, ebaluazioa eta esku-hartzea aldi berean egiten dira, argi eta garbi interkonektatuta. Faseen helburua,

[6] ***Esku hartzeko plana***: Dokumentu honetan, *esku hartzeko plana* terminoa erabili dugu, oro har hitz egiteko "familiarekin hezkuntza- eta gizarte-arloan esku hartzeko proiektuaz" —arrisku-egoeretarako diseinatutako esku hartzeko plana— (urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 17.4 artikulua; Haur eta Nerabeen Legearen 181. artikulua) eta "*banakako babes-planaz*" —tutoretza- edo zaintza-neurria aplikatuta duten haur eta nerabeentzat diseinatutako esku hartzeko plana— (urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 19 bis I. artikulua eta Haur eta Nerabeen Legearen 213. artikulua).

beraz, haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko gizarte-zerbitzuen esku hartzeko prozesua antolatzea da, eta, horretarako, prozesu horretako une bakoitzeko ekintza nagusia edo lehentasunezkoa —baina ez bakarra— zein den adierazten da.

Tresna, horrenbestez, ez da mugatzen babesgabetasun-egoeretan esku hartzeko prozesuaren une bakarrera, une eta kasuistika hauetan aplikatu ahalko baita:

1. Haur edo nerabe bati buruzko **jakinarazpena detektatu edo jaso ondoren**. Une horretan, UGZek edo LGZek, eskumen-banaketaren arabera, lehenbiziko balorazioa egin behar dute, azkarra, babesgabetasunik dagoen hautemateko; emaitza baiezkoa bada, babesgabetasunaren itxurazko larritasuna baloratu behar dute, beharrezkoa izanez gero presazko jarduketa bat martxan jartzeko. Tresna ez da zertan osorik aplikatu une horretan, baina **lehenbiziko baheketa** egiteko eta prozesuko fase horri dagozkion erabakiak hartzeko **gida** modura erabiliko dira bertan jasotzen diren irizpideak.

2. **Babesgabetasun ertaina, handia edo oso handia dagoelako susmoa[7] edo zantzuak daudenean, ikerketa-fasean**, non jakinarazpena detektatzean edo jasotzean eskuratutako informazioa biltzen eta osatzen baita, besteak beste, helburu hauekin: (1) kasuan dagoen edo dauden babesgabetasun mota edo motak identifikatzea eta (2) haien larritasuna baloratzea. Oro har, UGZek egiten dute ikerketa-lana, LGZei dagozkien kasuetan izan ezik (ikusi). Fase honetan, tresna osorik aplikatuko da.

   Tresna **osorik aplikatuko da**, aurrerago azalduko dugun **prozedurari** jarraikiz. Gero adieraziko ditugun kasuistika zehatzak kanpoan geratzen dira (ikusi). Kasu guztietan, baina, laburpen-orria bete beharko da.

3. **Arrisku ertain edo larriko edo babesgabeziako kasuen ebaluazio-fasean**, ikerketan bildutako informazioa osatu behar denean.

4. **Arrisku ertain edo larriko nahiz babesgabeziako kasuetan esku hartzeko prozesuan**; egokitzen denean, tresna osorik aplikatu beharko da, eta, familia babesteko edo berrelkartzeko lanean ari bagara, aldizka aplikatuko da, baloratzeko ea haurrak edo nerabeak zer-nolako zaintza eta tratua jasotzen dituen familian, babesgabetasunaren larritasun-maila aldatu den edota babesgabetasuna desagertu den edo berriro agertu ez den. Tresna beharrezkoa den aldiro aplikatuko da, bai esku hartzeko plana berrebaluatzen denean, bai beharrezkotzat jotzen den edozein unetan. UGZetako edo LGZetako talde teknikoek aplikatuko dute, eskumen-banaketaren arabera.

Tresna aplikatzeko uneak:

- ***Jakinarazpen bat detektatu edo jaso ondoren.***
- ***Ikerketa- eta ebaluazio-faseetan.***
- ***Esku hartzeko prozesuan zehar, familia babesteko edo berrelkartzeko.***

1.2. TRESNA ZER EGOERATAN EZ DEN APLIKATU BEHAR EDO ZER EGOERATAN EZ DEN GUZTIZ APLIKATU BEHAR[8]

Tresna zer egoeratan ez den aplikatu behar

[7] "Susmotzat" jotzen dugu uste izatea edo suposatzea zerbait gertatzen ari dela, seinale edo zantzu objektibo oso zehatzak daudelako edo aldibereko, elkarren segidako edo elkarri lotutako hainbat zantzu iradokitzaile daudelako, froga seguru edo behin betikorik eduki gabe.

[8] Tresna *osorik* aplikatzen denean, hurrengo atalean azaltzen den prozedurari jarraituko zaio.

1. Babesgabetasunarekiko zaurgarritasuna.

2. LGZek artatu behar dituzten babesgabetasun-egoera jakin batzuk:
   - Bakarrik dauden haur eta nerabe migratzaileak.
   - Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek hazkuntza- eta babes-eginbeharrak behin betiko bete ezin izatea (hiltzeagatik, guraso-ahalaz behin betiko gabetzeagatik edo maila absolutu eta konponezinean ezgaitzen duen antzeko beste inguruabar batean egoteagatik, haur edo nerabearen tutoretza har dezakeen heldurik **ez dagoenean**. Hemen sartzen dira adopzioan borondatez utzitako jaioberriak).
   - Borondatezko zaintzarako eskaerak, hazkuntza- eta babes-eginbeharrak gaizki betetzen direlako susmorik ez badago.

Tresna zer egoeratan ez den aplikatu behar

3. Haur eta nerabeen aurkako beste indarkeria-egoera batzuk, indarkeria hori guraso, tutore edo zaintzaileez bestelako pertsonek ezarri dutenean, guraso-figuren ezagutza, baimen edo onarpenik gabe, baldin eta, gertaeren berri izandakoan, babesle aritu badira.

Zer egoeratan ez den eskatzen tresna osorik aplikatzea

Kasua hartzean **arrisku arineko adierazleak edo susmoak** badaude, larritasun handiagoko zantzurik gabe, tresna **erreferentzia-dokumentu** gisa erabiliko da, eta ez da osorik aplikatzea eskatuko, salbu eta inguruabar jakin batzuetan, baldin eta profesionalaren ustez hala egitea komeni bada edo UGZek hala egitea erabaki eta agindu badute. Larritasun handiagoko susmorik edo adierazlerik ondorioztatzen ez bada, dagokion txosten teknikoa idatziko da, edo kasuaren historian edo espedientean jasoko da, adierazita zer arlo esploratu diren, zer arlotan hauteman diren gabeziak eta esku-hartzea nola bideratu den, laburpen-orria bete beharrik gabe.

Tresna zer egoeratan ez den osorik aplikatu behar:

- ***Arrisku arineko adierazleak edo susmoak daudenean, larritasun handiagoko zantzurik gabe***

1.3. ZERBITZU ARDURADUNAK

Tresna **udaleko gizarte-zerbitzuek** aplikatuko dute, arlo hauetan legez esleitutako eskumenak baliatzeko:

- Haur edo nerabeen beraien, partikularren, profesionalen edo zerbitzuen komunikazioak jaso eta ikertzea, haien eskumeneko lurralde-eremuan dauden haur edo nerabeei buruzkoak direnean eta babesgabetasunarekiko zaurgarritasun-egoera eta babesgabetasun-egoera *posibleak* azaltzen dituztenean, LGZek jaso behar dituzten komunikazioak izan ezik[9]. Jaio aurreko aldian detektatutako arrisku-egoerak ere sartzen dira (Haur eta Nerabeen Legearen 178.3 artikulua).
- Lehen adierazitako egoerak ikertzea, UGZek zuzenean detektatu badituzte.

Tresna zer egoeratan aplikatu behar den udaleko gizarte-zerbitzuetan

[9]UGZak lankidetzan arituko dira LGZek ikertu behar dituzten kasu ezagunetan:
a) tartean diren pertsonei edo familiei buruz daukaten informazioa emanez,
b) LGZetako profesionalei kasuarekin zerikusia daukaten pertsonekin, familiekin edo beste profesional edo zerbitzu batzuekin harremanetan jartzen lagunduz, eta,
c) kasu berezietan, beharrezkotzat jotzen bada eta inguruabarrek aukera ematen badute, zuzeneko informazio-bilketan LGZetako profesionalekin lankidetzan arituz.

- *UGZek, egindako balorazioaren esparruan edo balorazio-prozesuan bertan ikusten badute arrisku larriko zantzuak daudela edo babesgabezia-egoera posible bat dagoela eta, beraz, presaz babes-neurri bat hartu behar dela (hau da, haur edo nerabearen bizitzarako, osotasunerako, osasunerako edo segurtasunerako berehalako arrisku larria dagoelako zantzuak daudenean; Haur eta Nerabeen Legearen 170.3 artikulua), kasua LGZei deribatu beharko diete, eta haiek, kasua hartzeaz gainera, ikerketa eta balorazio osagarria egin beharko dituzte, larritasuna zehazteko helburuz (Haur eta Nerabeen Legearen 172.5 artikulua).*

  UGZek egoera bati buruzko jakinarazpena detektatzen edo jasotzen badute, non, eskuragarri dagoen informazioaren arabera, beharrezkoa izan baitaiteke presazko babes-neurri bat hartzea, baldin eta zerbitzuan aurretik kasu horren berri izan ez bada:

  a) Jakinarazpena haurrek edo nerabeek zuzenean egin badute, berehala emango zaie horren berri LGZei.
  b) Jakinarazpena profesionalak ez diren beste iturri batzuek egin badute, informatzailea bideratuko da segurtasun-indar eta -kidegoekin zuzenean harremanetan jartzera, harremanetan jartzeko behar diren datuak dauzkala ziurtatuta. UGZek egindako jarduketei buruzko informazioa emango diete LGZei.
  c) Jakinarazpena profesionalak diren beste iturri batzuek egin badute (adibidez, segurtasun-indar eta -kidegoek, ospitaleak edo ikastetxeak), informatzailea bideratuko da LGZekin zuzenean harremanetan jartzera, harremanetan jartzeko behar diren datuak dauzkala ziurtatuta.

- Zigor-arloko legearekin gatazkan dauden 14 urtetik beherako adingabeen egoera ikertzea (eta ebaluatzea), Ministerio Fiskalak igorritako lekukotzen arabera babesgabetasuna egon badaiteke —LGZek ikertu (eta ebaluatu) behar dituzten kasuak kenduta—, Haur eta Nerabeen Legearen 147. artikuluan jaso moduan.

- Hasierako ebaluazioa egin eta esku hartzeko plana diseinatu eta gauzatzea, arrisku ertaineko egoera egiaztatuetan.

Tresna **lurraldeko gizarte-zerbitzuek** aplikatuko dute, legez esleitutako eskumenak baliatzeko, kasu hauetan[10]:

- Haurrek edo nerabeek beraiek, partikularrek, profesionalek edo zerbitzuek egoera hauei buruz idatzitako komunikazioak eta jakinarazpenak jaso eta ikertzea :

  a) eskuragarri dagoen informazioaren arabera, presazko babes-neurri bat hartzea eska dezaketen egoerak (Haur eta Nerabeen Legearen 170.3 artikulua) eta
  b) UGZez bestelako iturriek LGZei zuzenean egindako komunikazioak, azaltzen dituzten gertaerak oso larriak direnean eta, beraz, arrisku larriko edo babesgabeziako egoera baten susmoa pizten denean (Haur eta Nerabeen Legearen 172.2 artikulua).

  Hemen barruan sartzen dira gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek gauzatutako, sustatutako edo baimendutako sexu-indarkeriaren adierazle oso espezifikoetan oinarritutako susmoak.

Tresna zer egoeratan aplikatu behar den lurraldeko gizarte-zerbitzuetan

- Larrialdi-zerbitzuek, segurtasun-indar eta -kidegoek edo epaitegiek aginduta LGZen mendeko presazko arreta-baliabide espezifikoetan (presazko harrera-familia, egoitza-baliabidea) barneratzeagatik banantze-neurria aplikatuta duten presazko egoerak eta zaintza judizialeko beste egoera batzuk ikertzea.

[10] LGZetan jasotako komunikazio eta jakinarazpen batzuetan, ez da egokituko Balora tresna aplikatzea, dagokion atalean adierazi moduan: bakarrik dauden haur edo nerabe migratzaileak direnean, adopzioan borondatez emandako jaioberriak direnean, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek babes-eginbeharrak behin betiko bete ezin dituztenean eta borondatezko zaintzarako babes-neurria eskatzen duten egoerak direnean, baldin eta babesgabetasun moten susmorik ez badago.

- Zigor-arloko legearekin gatazkan dauden 14 urtetik beherako adingabeen egoera ikertzea (eta ebaluatzea), Ministerio Fiskalak igorritako lekukotzen arabera (Haur eta Nerabeen Legearen 147.3 artikulua):

  a) Ministerio Fiskalak bidaltzen duen egitateen lekukotzatik larritasun handiko edo babesgabeziako adierazleak ondorioztatzen badira,
  b) arrisku larriko edo babesgabeziako adierazlerik egon ez arren, sexu-izaerako indarkeria-ekintzak egin badituzte eta sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delitutzat jo badaitezke, edo genero-indarkeria dakarten indarkeria-ekintzak egin badituzte[11].


- Hasierako ebaluazioa egin eta esku hartzeko plana diseinatu eta gauzatzea, arrisku larriko edo babesgabeziako egoera egiaztatuetan.

1.4. LABURPEN-TAULA

Hurrengo orrialdeetan aurkezten diren tauletan, modu eskematikoan jasotzen da EAEko haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuek zer prozedurari jarraitu behar dioten babesgabetasun-egoeretan esku hartzeko, eta adierazten da Balora tresna erabakiak hartzeko zein unetan den erabilgarria.

ZIRRIBORROA

[11] Kasu hauetan, era berean, LGZei dagokie barruan genero-berdintasunari buruzko prestakuntza-modulu bat hartuko duen jarraipen-plan bat diseinatu eta egitea, jarrera ez-sexistak, errespetuzko ohiturak eta balio demokratikoak eskuratzen laguntzeko eta beste jokabide erasotzailerik edo berrerorlerik ez gertatzeko (Haur eta Nerabeen Legearen 147.4 artikulua). Halaber, gertaerak ingurune digitalean gertatu badira, jarraipen-planak, aldi berean, segurtasun digitalaren arloko berariazko prestakuntza-modulu bat jaso beharko du, honako gai hauei buruzko sentsibilizazioa eta gaikuntza emateko: a) bereziki Interneten eta sare sozialen eta, oro har, harremanaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologien segurtasuna eta erabilera segurua eta arduratsua eta, b) sexu-indarkeriaren fenomenoak sor ditzaketen erabilera desegokiaren ondoriozko arriskuak, hala nola ziberjazarpena, groominga, genero-ziberrindarkeria edo sextinga (Haur eta Nerabeen Legearen 147.5 artikulua).


BABESGABETASUN-EGOERETAN ESKU HARTZEKO PROZEDURA
BABESGABETASUN-EGOERAN EGON DAITEZKEEN HAURREI ETA NERABEEI BURUZKO INFORMAZIOA DETEKTATU EDO JASOTZEA
Partikularrek edo zerbitzuek eginak (ikastetxea, osasun-zentroa, segurtasun-indar eta -kidegoak, epaitegia, Fiskaltza eta abar)
UDALEKO GIZARTE-ZERBITZUAK — UGZ
(komunikazioak jasotzeko bide arrunta eta nagusia; sarritan, detekzio-lana ere egiten dute)
LURRALDEKO GIZARTE-ZERBITZUAK — LGZ
(komunikazio jakin batzuk jasotzea)
KOMUNIKAZIOA JASO ETA LEHENENGO BALORAZIOA EGITEA: BALIOESTEA BABESGABETASUNIK DAGOEN ETA ZENBATEKO PRESAREKIN
Babesgabetasunagatiko edo babesgabeziagatiko arriskurik ez / Babesgabetasunarekiko zaurgarritasuna (ez larria) dago, edo
UGZek detektatu edo jasotako kasua – Babesgabetasuna dago, edo egon daiteke, baina ez du presazko kasua ematen
Eskuratutako informazioaren arabera, presazko babes-neurria behar liteke, edo argi dago arrisku larria edo babesgabezia dagoela, edo bestelako inguruabar bereziak
HNaren eta familiaren premien araberako jarduketa:
✓ UGZen esku-hartzea edo jarraipena
✓ Beste zerbitzu batzuetara deribatzea
UGZen ikerketa
LGZen ikerketa
(informazioa osatu behar bada)
BABESGABETASUNAREN LARRITASUNA ETA ARRISKU-MAILA EDO BABESGABEZIA ZEHAZTEA
Babesgabetasunagatiko edo babesgabeziagatiko arriskurik ez / Babesgabetasunarekiko zaurgarritasuna dago, edo babesgabetasunaz bestelako
Babesgabetasuna ez da egiaztatu, baina susmoek jarraitzen dute
UGZen jarraipena.
Osteko jarduna, susmoak egiaztatzen diren edo ez kontuan hartuta.
Arrisku arina
Arrisku ertaina
UGZen esku-hartzea:
✓ Kasua ebaluatu eta orientatzea
✓ Prestakuntza-plana diseinatzea
✓ Plana gauzatzea eta etengabe berrebaluatzea
✓ Arriskuaren administrazio-adierazpena, hala badagokio
✓ LGZetara deribatzea, larritasun-maila areagotzen denean eta LGZen esku-hartzea eskatzen denean
✓ Espedientea ixtea
Arrisku larria
Babesgabezia
LGZen esku-hartzea:
✓ Kasua ebaluatu eta orientatzea
✓ Arrisku edo babesgabeziaren administrazio-adierazpena —ohiko edo presazko bidean—, hala badagokio.
✓ Esku hartzeko plana diseinatzea
✓ Plana gauzatzea eta etengabe berrebaluatzea
✓ UGZetara deribatzea, larritasun-maila murrizten denean eta UGZen esku-hartzea eskatzen denean
✓ Espedientea ixtea

ERABAKIAK HARTZEKO UNEAK ETA TRESNA APLIKATZEA

1. *JAKINARAZPENA JASO ETA LEHENENGO BALORAZIOA EGITEA*

a. Egoera horren ardura gizarte-zerbitzuen eskumenekoa da, edo izan daiteke?
b. Arrisku- edo babesgabezia-egoera bat da, edo izan daiteke?
c. Erantzuna baiezkoa bada, zein zerbitzuri dagokio (UGZ edo LGZ) jakinarazpenari hasierako arreta ema
d. Zer lehentasuna-mailatan jardun behar da?

Ez da arrisku- edo babesgabezia-egoera bat *Hala badagokio, beste zerbitzu batzuetara deribatzea*	Babesgabetasunaz bestelako arrazoi batengatiko arrisku-egoera dago *UGZen esku-hartzea*	***Babesgabetasun-egoera bat da, edo horren susmoa dago***

TRESNA APLIKATZEA (1)

- ✓ *Harreran jasotako informazioan oinarrituta, lehen balioespena* egin behar da —azkarra— arrisku- edo babesgabezia-egoerarik *dagoen edo egon daitekeen* zehazteko, eta, hala bada, egoeraren ageriko larritasuna zehaztu behar da, presaz jarduteko, beharrezkoa bada.
- ✓ Horretarako, besteren artean, Balora tresna erabiliko da, lehenbiziko baheketa egiteko gida gisa (ez da laburpen-orria bete behar).
- ✓ Salbuespenetan izan ezik, UGZei dagokie kasua hartu eta lehenengo balorazioa egitea.

2. *IKERKETA*

a. Babesgabetasuna dago?
b. Baiezkoa bada, zer larritasun-maila du?
c. Haurra edo nerabea arriskuan dago?
Presazko babes-jarduketa abiatu behar da?

TRESNA APLIKATZEA (2)

- ✓ *Beharrezkoa bada, harreran jasotako informazioa osatuko da ikerketa-fasean,* argi eta garbi zehazteko ea babesgabetasun-egoerarik dagoen eta haren larritasun-maila zein den.
- ✓ Ikerketa UGZek edo LGZek egingo dute, eginkizun-banaketaren arabera.

- ✓ ***Eginkizun horiek udaleko edo lurraldeko gizarte-zerbitzuek egingo dituzte, haur edo nerabearen egoeraren larritasun-mailaren arabera.***
- ✓ ***Larritasun-maila aldatzen bada, kasuak deribatu egingo dira, udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuen artean, eta, beraz, eginkizun horiek betetzeko ardura duen zerbitzua ere aldatu egingo da.***

LARRITASUN ERTAINEKO, HANDIKO EDO OSO HANDIKO BABESGABETASUNA EDO BABESGABEZIAREKIKO ZAURGARRITASUN HANDIA EGIAZTATZEN BADA[12]:

3. *HASIERAKO EBALUAZIOA*

a. Haur edo nerabearen egoera? Familian jasotzen dituen zaintzaren eta tr
Oinarrizko premiak asebeteta? (Alderdi positiboak eta gabeziak)
b. Harremana duten kausak edo faktoreak?
c. HNak, familiak eta inguruneak baliabide propioak eta babes-faktorea
d. Laguntza- eta tratamendu-beharrak?
e. Familiak eta haurrak edo nerabeak esku-hartzea onartu dute? Pronostiko

TRESNA APLIKATZEA (3)

- ✓ *Ebaluazio-fasean, beharrezkoa bada, ikerketa-fasean babesgabetasunari eta haren larritasunari buruz jasotako informazioa edo egindako balorazioa osatuko da; horretarako, HNak familian jasotako zaintzen eta tratuaren eta oinarrizko premien asetze-mailaren ebaluazio oso eta historikoa egingo da, alderdi positiboak nahiz zailtasunak sartuta.*
- ✓ UGZei dagokie arrisku ertaineko kasuak ebaluatzea, eta LGZei, berriz, arrisku larriko eta babesgabeziako kasuak ebaluatzea.

4. *ESKU HARTZEKO PLANAREN DISEINUA*

a. Esku-hartzearen helburua?
b. Babes-neurririk?
c. Jorratu beharreko arazorik? Helburuak? Sekuentziazioa? Baliabideak?
d. Denborak?
e. Erreferentziazko zerbitzua eta profesionala?

5. *PLANA MARTXAN JARTZEA ETA ETENGABE BERREBALUATZEA*

Gehienez ere sei hilez behin; hiru hilez behin, hiru urtez azpiko haurrekin, iraunkorra ez den babes-neurria badute edo adopzio-helburuko zaintzan badaude
a. Ezarritako helburuen betetze-maila?
b. Haur edo nerabearen egoera?
c. Aldaketak planean?

6. *ESKU-HARTZEA AMAITZEA ETA ESPEDIENTEA IXTEA*

Hala badagokio, beste zerbitzu batzuetara deribatzea

TRESNA APLIKATZEA (4)

- ✓ *Esku hartzeko plana martxan jartzean, etengabe berrebaluatu* behar da haur edo nerabearen egoera, familian jasotzen dituen zaintzetan eta tratuan eta babesgabetasunaren larritasunean aldaketarik egon den baloratzeko. Horrelakoetan, *esku hartzeko plana* aldatuko da, eta, beharrezkoa bada, kasua beste zerbitzu batzuetara deribatu.
- ✓ UGZei dagokie arrisku ertaineko kasuetan esku hartzea, eta LGZei, berriz, arrisku larriko eta babesgabeziako kasuetan esku hartzea.

Larritasun ertaineko, handiko edo oso handiko babesgabetasun-zantzuak daudenean, Balora tresna aplikatu behar da, osorik, hurrengo ataletan ezarritako prozedurari jarraikiz, eta haur edo nerabe bakoitzaren banakako laburpen-orria bete.

Arrisku arineko eta babesgabetasunarekiko zaurgarritasuneko kasuek beste protokolo bati jarraituko diote ebaluazioari eta esku-hartzeari dagokienez, UGZetan.

[12]UGZek edo LGZek esku hartzea eskatzen duen beste egoerarik egiaztatzen bada, egokitzen den prozedura zehatzari jarraituko zaio.

2. PROZEDURA[13]

2.1. Profesional taldeak

Tresna gizarte-zerbitzuetako taldeek edo kontratatutako, itundutako edo hitzarmenpeko taldeek aplikatu ahal izango dute, egokiagotzat jotzen denaren arabera, bat etorrita lurralde, mankomunitate edo udalerri bakoitzak dituen baliabideekin. Hala ere, zuzeneko kudeaketa publikoko profesionalek berretsiko dute azken balorazioa, eta haiexek erabakiko dute zer jarduketa egin, horretarako ezarritako prozeduren bitartez.

UGZetan nahiz LGZetan Balora tresna aplikatzen duten taldeek:

- **Diziplina anitzekoak** izan beharko dute —gutxienez, gizarte-langileak eta psikologoak eduki beharko dituzte—, eta haur eta nerabeen babesaren arloko **prestakuntza espezifikoa** duten profesionalez osatuta egon beharko dute.
- Balorazio-prozesuan, **aztergai diren kasuetan esku hartzen ari diren gizarte-zerbitzuetako beste profesional batzuk sartuko** dituzte; bereziki, gizarte-hezitzaileak (familiekin esku hartzeko taldeetakoak, egoitza-zentroetakoak eta kalekoak), familian esku hartzeko taldeak edo familia-harreren jarraipenerako eta babeserako taldeak.
- Haur edo nerabearekin eta haren familiarekin harremanetan dauden **zerbitzu komunitarioen sarea balorazio-prozesuan inplikatzea eta sare horren lankidetza aktiboa** bilatzea.
- Balorazio-prozesua arin betetzea, lurralde historiko bakoitzeko jardun-protokoloetan horretarako ezarritako **epeetan**.

Prestakuntza espezializatua duten profesionalez osatutako taldeek aplikatuko dute tresna, diziplina anitzeko

Garrantzitsua da kontuan hartzea tresna aplikatzeko, lehenik eta behin, informazioa bildu behar dela eta, bigarrenik, informazio hori aztertu eta baloratu behar dela. Informazioa biltzeko ardura profesional zehatz bati esleitu ahal bazaio ere —beharrezkoa denean, bere taldeko beste profesional batzuen laguntza jaso ahalko du—, informazioa **taldean** aztertu eta baloratu beharko da, **diziplina anitzeko ikuspegiarekin**; bereziki, kasu konplexuetan. Dena dela, txosten kualifikatuak daudenean (eskolakoak, poliziarenak...), nahikoa izan ahalko da informazioa profesional bakar batek aztertu eta baloratzea.

Era berean, ziurtatu egin beharko da **genero-ikuspegia** erabiliko dela, zeharka, tresna aplikatzeko eta informazioa aztertu eta baloratzeko, alborapenik, estereotiporik eta praktika diskriminatzailerik gabe. Tresna aplikatzean, halaber, aztergai diren egoerak testuinguruaren arabera interpretatzea sustatuko da, kontuan hartuta desberdinkeria estruktural, sozial eta kulturalek desberdin eragiten dietela neskei eta mutilei.

Diziplina anitzeko ikuspegia eta genero-

2.2. Bizikidetza-nukleoko haur edo nerabe guztien banakako balorazioa

[13] Atal honetan, tresna **osorik aplikatzeko** prozedura jasotzen da.

Oro har, babesgabetasun-egoera baten susmoa jasotzen duen jakinarazpen bat iristen denean gizarte-zerbitzuetara, jakinarazpen horrek barruan bildu ohi du haur edo nerabearen arreta-arlo bat edo batzuk kaltetuta egon daitezkeela iradokitzen duen informazioa (adibidez, premia medikoei buruzkoa, elikadura-premiei buruzkoa, adingabea gainbegiratu edo kontrolatzeko premiei buruzkoa edota jokabidea orientatzekoei buruzkoa). **Babesgabetasun ertain, handi edo oso handia dagoelako susmoa** dagoenean, **haur edo nerabearen oinarrizko premiei ematen zaien arreta aztertu** beharko da beti, **analisi orokor batean, guraso, tutore edo zaintzaileengandik jasotzen dituen zaintza eta tratua** (guraso-portaera) goitik behera aztertuz. Hori dela-eta, balorazioa hasteko arrazoia edozein dela ere, **zabarkeria** (premia fisikoekiko, segurtasun-premiekiko, premia kognitiboekiko eta premia psikologikoekiko zabarkeria-eskalak) **eta tratu txar emozionalak dauden aztertuko da**. Gainerako tipologiak (adibidez, tratu txar fisikoak, sexu-abusua, eskekotasuna, lan-esplotazioa), berriz, horrelakorik dagoela pentsarazteko moduko aztarnarik dagoenean baino ez dira aztertuko. Kontuan hartu behar da ezen, babesgabetasuna dagoen kasurik gehienetan, egoera horrek haur edo nerabearen hainbat zaintza-arlori eragiten diela, baina ez larritasun-maila berarekin nahitaez.

Babesgabetasun ertaina, handia edo oso handia dagoela susmatzen bada, ez zaio jakinarazpenaren arrazoiari soilik begiratu behar

Halaber, **bizikidetza-nukleoko haur edo nerabe guztiei** hedatuko zaie balorazioa, bazter batera utzita balorazio hori haietako bati buruzko jakinarazpenagatik hasi den, anai-arrebak diren ala ez edota nukleo horretan aldi baterako edo modu iraunkorrean dauden. Tresna osorik aplikatuko da, eta haur edo nerabe bakoitzaren egoera baloratuko, banaka. Hor, kontuan hartu behar da familia-talde berekoak izateak ez duela esan nahi gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek zaintza edo tratu berberak ematen dizkietenik, eta gogoan izan behar dugu, orobat, tratu edo zaintza bera jasotzeak ez duela zertan inpaktu berdin-berdina eragin haur edo nerabe guztiengan. Aurreko ataletan adierazi bezala, babesgabetasunak haur edo nerabe batengan uzten dituen ondorioak ez dira izaten guraso-portaeraren araberakoak soilik, beste faktore batzuek ere zeresana izaten baitute, hala nola oraingo adinak, babesgabetasuna hasi zeneko adinak, aurretiko bizi-esperientziek edo egon daitezkeen bestelako babes- edo zaurgarritasun-faktoreek.

Bizikidetza-nukleoko haur edo nerabe bakoitzaren banakako balorazioa

Definizioz, haurtzaroa eta nerabezaroa zaurgarritasun-etapak dira, eta babes berezia behar dute; balorazioan, halere, **arreta berezia jarriko zaie adin txikiko haur eta nerabeei eta desgaitasunak edo premia bereziak dauzkatenei,** aukera handiagoa dutelako babesgabetasuna pairatzeko, horren ondorioz sekuela negatiboak jasateko eta sekuela horiek larriagoak izateko. Haien egoera baloratzean, sentikortasun eta zehaztasun handiagoz jokatu beharko da, bai kaltearen sintomei dagokionez —gerta liteke ezkutatuta egotea edo hain begi bistakoak ez izatea—, bai kalte hori gertatzeko eta larria izateko arrisku handiagoa egoteari dagokionez. Era berean, arreta berezia jarriko zaie zaurgarritasun bereziko egoeran dauden beste haur eta nerabe batzuei; adibidez, **egoera gogor eta traumatikoak bizi izan dituztenei edo aurretik nahiz aldi berean bestelako biktimizazioak** jasan dituztenei (batez ere, denboran jarraituak izan badira).

Haurrari edo nerabeari eragin zaion kalte erreal edo potentziala baloratzeko, aurreko ataletan adierazitako irizpideei jarraituko zaie.

Tresna aplikatzeko prozesuan, zerbitzu arduradunak (UGZek edo LGZek) behar diren jarduera guztiak egingo ditu haur edo nerabearen babesa eta ongizatea ziurtatzeko, eta, hala badagokio, laguntza emango die familiako kideei.

Balorazio-prozesuan haur edo nerabeen babesa ziurtatzea eta familiari laguntza ematea, beharrezkoa bada

2.3. Kontuan hartu behar den aldia

Haur edo nerabe batek familian jasotzen dituen zaintzak eta tratua baloratzeko aplika daiteke tresna, baita babesgabetasunik dagoen eta haren larritasuna zehazteko ere, **haren bizi-ibilbidearen edozein unetan**, hots, **balorazioa egiten den une zehatzean —halakotzat joz azkenengo sei hilabeteak— nahiz aurretik**. **"Oraingo" babesgabetasuna dagoela balioetsiko da, aurreko sei hilabeteetan gertatu denean,** eta laburpen-orrian zein deskribapen-txostenean jasoko da. **Babesgabetasuna azkenengo sei hilabeteetan gertatzen ari ez bada baina iraganean gertatu bazen**, laburpen-orriko Oharrak atalean jasoko da, eta deskribapen-txostenean xehetasunak emango dira.

Azkenengo sei hilabeteetako egoera joko da "oraingokotzat". Halere, garrantzitsua da familian jasotako zaintzen eta tratuaren aurretiko historiari eta iraganean gertatu edo hasitako babesgabetasun-egoera posibleei buruzko informazioa ere biltzea.

Kasuaren **lehenengo balorazioa egin aurreko sei hilabeteetan** (hau da, haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko zerbitzuek kasuaren berri izatean) **babesgabetasunik ez egoteak** ez du esan nahi adingabeak esku-hartzerik behar ez duenik. Aurretik babesgabetasuna egon bada, baliteke gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek nahiz haurrek edo nerabeek laguntza behar izatea egoera horretara lotutako edo egoera horretatik eratorritako zailtasunak edo ondorioak —oraindik ere irauten dutenak— konpontzeko. "Babesgabeziarekiko zaurgarritasun larria" eragiten duten salbuespen ondo arrazoituetan izan ezik, udaleko gizarte-zerbitzuek koordinatuko dute esku-hartzea kasu horietan, halakorik behar izanez gero.

Iraganean babesgabetasuna egon arren "orain" ez egoteak ez du zertan esan nahi haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko gizarte-zerbitzuen esku-hartzerik behar ez denik

Hasierako ebaluazioaren fasean, jakina, haur edo nerabearen —familiaren eta ingurunearen— bizi-ibilbide osoari buruzko informazioa bildu beharko da, ahalik eta denbora-tarte handiena hartuz. **Iraganean babesgabetasun-egoerak edo indarkeria-egoerak edo bizipen gogorrak egon zirela detektatzen bada, kontuan hartu beharko dira.** Zentzu askotan da garrantzitsua haur edo nerabearen eta familian jasotako zaintza eta tratuaren aurretiko historia ezagutzea —haren arazoen edo zailtasunen jatorria ulertzeko, laguntza-premiak zehazteko, gurasoak trebatzeko aukerei buruzko iragarpena egiteko...—, eta, garrantzitsua bada, ebaluazio-txostenean jaso beharko da, historia horrek haur edo nerabearen gaur egungo egoeran daukan eragina zehaztuz. Hala ere, zirkunstantzia horrek ez du eraginik izan behar babesgabetasun-egoera baden ala ez den eta haren larritasuna baloratzeko orduan.

2.4. Informazio-bilketa

Informazio oso, eguneratu eta kontrastatua

Informazio oso, eguneratu eta kontrastatua

Babesgabetasun-egoerarik dagoen eta zer larritasun-mailatakoa den zehazteko balorazioa egiteko erabiltzen den informazioak osoa, eguneratua eta behar bezala egiaztatua izan beharko du. Ez da inoiz babesgabetasun-egoera bat dagoela egiaztatutzat edo frogatutzat hartuko, baldintza horiek betetzen ez dituen informazioan oinarrituta. Hala ere, **batzuetan ezinezkoa izango da informazio osoa biltzea**; esate baterako, familiak informazioa emateari uko egiteagatik, okerra izan daitekeen iturri bakar bat erabil daitekeelako eta beste iturri batzuk baliatzea ezinezkoa delako; familiaren etxebizitza bisitatzea edo familiako kideren batekin zuzenean hitz egitea ezinezkoa izan delako, hori ezinbestekoa izanik informazio jakin batzuk lortu edo egiaztatzeko; zeharkako iturrietako informazioa soilik baliatu ahal izan delako; edo informazio jakin bat eman duten profesionalak ez direlako arlo honetako espezialistak eta, gainera, ezinezkoa izan delako beharrezkoak izango liratekeen espezialistekin aritzea. Horrelakoetan, arreta eta zuhurtzia bereziz jokatuko da balorazioaren ondorioak ateratzean, dagokion **txostenean argi eta garbi adierazita "susmoak" direla, "behar bezala egiaztatu ez den informazioa" dela edota "behar beste informaziorik gabe" edo "informaziorik gabe" egin dela.**

Pertsona heldu edo adingabe batek nahasmendu psikopatologiko bat edo arazo emozionalak dituela susmatzen bada, eta psikologiako edo psikiatriako profesionalek ezin badute horren balorazioa edo hori egiaztatzeko diagnostikoa behar den sakontasunarekin egin —esate baterako, guraso, tutore edo zaintzaileen lankidetza ez izateagatik—, "susmoak" daudela ondorioztatu ahal izango da soilik, eta hori adieraziko da dagokion txostenean. Gomendagarria den arren, ez da beharrezkoa osasun mentaleko sare publikoko profesionalen txosten idatzi bat izatea inguruabar horietako bat edo batzuk egiaztatutzat hartzeko. UGZetan eta LGZetan eta horientzat lan egiten duten psikologoen balorazioa nahikoa da, baldin eta behar bezalako sakontasunarekin eta teknika egokiekin egiten bada eta detektatzen dituzten sintomak xehatzen badituzte.

Informazio-iturriak

Askotarikoak dira Balora tresnak eskatzen duen informazioa eman dezaketen iturriak, hala nola jakinarazpena edo detekzioa egin duen iturria, beste UGZ edo LGZ batzuk, gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak, haurrak edo nerabeak, familiako beste kide batzuk eta gaur egun edo iraganean familiarekin harremanetan dauden edo egon diren entitateak, profesionalak edo pertsonak.

Larritasunak hala eskatzen duenean, gizarte-zerbitzuetako edo segurtasun-indar eta -kidegoetako profesionalek osasun-zentro batera lagundu ahalko diote adingabeari, behar duen arreta jaso dezan; horrelakoetan, horren berri eman beharko diete haren guraso, tutore, zaintzaile edo harreragileei, indarkeria haiek ezarri dutelako susmoa dagoenean izan ezik. Kasu horretan, Ministerio Fiskalari emango diote egoeraren berri (Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Osorik Babesteko Lege Organikoaren 41.3 artikulua).

Lehenengo balorazioa bada eta balorazioa egiten ari diren udal- edo lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek kasua ezagutzen ez badute, informazioa eskatuko zaie familia aurretik bizi izan den tokiko UGZei edo LGZei, kasuan espedienterik edo esku-hartzerik egin zen jakiteko eta, halaber, egiaztatu ezin izan ziren babesgabetasun-susmoei buruzko informazioa jasotzeko. Txostenak idatziz eskatuko dira beti, aurretik telefonoz deitzeko aukera badago ere. Nolanahi ere, arin erantzun beharko da; batez ere, presazko egoeretan, informazioa berehala eman beharko baita, eta txostena lehenbailehen bidali.

Komeni ez denean edo posible ez denean salbu, hobe da lehendabizi guraso, tutore edo zaintzaileengana jotzea. Lehenengo hartu-eman horretan, argi eta garbi adieraziko zaie zein diren harremanetan jartzeko arrazoia eta helburuak, UGZek eta LGZek legezko betebeharra dutela haur edo nerabearen egoera baloratzeko, zer informazio dagoen eskuragarri eta zer prozesu ari den burutzen; zuzeneko informazioa bilduko da haiengandik, eta zer urrats ematea aurreikusi den esango zaie. Kasuaren ezaugarrien arabera egokientzat jotzen den tokian egingo da lehenengo elkarrizketa hori; hala ere, oro har, UGZ/LGZetan egingo da, hori galarazten duten presazko kasuetan izan ezik. Bi guraso dauzkaten familietan, bi figurei egingo zaie elkarrizketa, baita bananduta edo dibortziatuta badaude ere. Elkarrizketaz gainera, informazioa biltzeko beste metodo batzuk erabili ahalko dira; esaterako, behaketa erdi-egituratua (gurasoen eta seme-alaben arteko interakzioaren behaketa barne hartuta) edo alderdi espezifikoak esploratzeko tresna estandarizatuak. Ahal dela, etxera bisita bat egingo da gutxienez; bereziki, zabarkeriaren susmoak badaude. Komunikatzeko edo hizkuntza ulertzeko zailtasunak dauzkaten familietan, inola ere ez dira haurrak edo nerabeak erabiliko guraso, tutore edo zaintzaileekin edo beste senide batzuekin interprete-lanak egiteko.

Guraso, tutore edo zaintzaileengandik informazioa biltzea

Sexu-indarkeriaren susmoa dagoenean, prestakuntza espezializatua duten profesionalek **bildu beharko dute informazioa beti**, instantzia judizialekin koordinatuta (esku hartzen ari badira), gaiaren inguruan indarrean diren protokoloei jarraikiz.

Guraso, tutore edo zaintzaileei informazioa emango zaie beste zerbitzu batzuekin egitea aurreikusi diren kudeaketei eta kontaktuei buruz. Haien lankidetza lortzen saiatuko gara, baina kudeaketa eta kontaktu horiei uko egiteak ez du aurrera egitea galaraziko.

Guraso, tutore edo zaintzaileekiko hasierako harremanari beti eutsiko zaio, kasu hauetan izan ezik:

- aurkitzeko moduan ez daudenean,
- elkarrizketetara nahita agertzen ez direnean edo
- arrazoizko zantzuak daudenean balioesteko balorazioaren hasierako informazioak:
  - haur edo nerabearen segurtasun eta osotasun fisikoak arriskuan jar ditzakeela edo
  - guraso, tutore edo zaintzaileek haurra edo nerabea hertsatzea eragin dezakeela, harengana jotzean informazioa ezkutatu dezan, edo
  - familiak bizilekua uztea eragin dezakeela.

Egoera horiek ondo egiaztatu beharko dira.

Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak aurkitzeko moduan ez daudenean edo elkarrizketa nahita saihesten dutenean, informazioa zeharkako iturrien bidez biltzen jarraituko dugu, balitekeelako haurrak edo nerabeak babesgabe egotea.

Entitate publiko edo pribatuek eta profesionalek informazioa emateari buruz, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 22 quater artikuluak (uztailaren 28ko 26/2015 Legeak emandako testuan) eta Haur eta Nerabeen Legearen 18. artikuluak ezartzen dute haiek eta, oro har, edozein pertsonak **nahitaez** eman behar dietela haur eta nerabeei buruzko eta haien guraso, tutore edo zaintzaileei buruzko informazioa eskudun administrazio publikoei, haur edo nerabearen benetako egoera baloratzeko eskatzen zaiena, **eragindakoaren baimenik behar izan gabe**. Artikulu horiek arrisku- eta babesgabezia-egoera posibleen balorazioari buruzkoak direnez, UGZei nahiz LGZei dagokie horiek aplikatzea, bi egoera motetan eskumenak dauzkaten administrazio publikoak direlako. Zerbitzu horietako profesional batek bilduko du informazioa beti, bere burua ondo identifikatuta eta

Profesionalek eta entitate publiko eta pribatuek legezko betebeharra dute gizarte-zerbitzuei informazioa emateko, gurasoen eta eragindakoaren baimenik behar izan gabe

informazio hori biltzeko eskumena daukala justifikatuta. *Informazioa edo datuak haurrari edo nerabeari zein guraso, tutore edo zaintzaileei buruzkoak izan daitezke, eta, nolanahi ere, modu fokalizatuan eskatu beharko dira, berariaz zehaztuta eskatutako informazio mota eta haren izaera, bai eta hura eskatzeko helburuak ere. Orobat, emandako informazioak edo datuek egindako eskaerarekin bat etorri beharko dute, egokiak izan beharko dute, eta ez gehiegizkoak, eskatzen direneko xedeari dagokionez* (Haur eta Nerabeen Legearen 18.2 artikulua). Zehazki, UGZetako, LGZetako, osasun- eta hezkuntza-sistemetako, Ertzaintzako, Udaltzaingoko eta entitate pribatuetako profesionalek nahitaez eman beharko dute eskatu zaien informazioa (Haur eta Nerabeen Legearen 18.3 artikulua).

Haurrari edo nerabeari arreta ematen dieten osasun- eta hezkuntza-eremuetako profesionalekin harremanetan jarriko gara beti, baita haur edo nerabearekin edo familiarekin esku hartzen ari diren beste zerbitzu garrantzitsu batzuetako profesionalekin ere. Ahal dela, elkarrizketa baten bidez bilduko da informazioa iturri profesionaletatik; halere, txosten osagarriak idatzi ahalko dira, zeinak, nolanahi ere, gomendagarriak baitira eta, are, funtsezkoak ere izan baitaitezke. Elkarrizketak aurrez aurre, online edo telefonoz egin daitezke, kasuaren ezaugarriak eta presa zein diren kontuan hartuta.

Edozelan ere, **haur eta nerabeen eta haien familien intimitatean premiarik gabe sartzea saihestuko da**.

Datu pertsonalen tratamendua

Datu pertsonalak tratatzeko orduan, bat egin beharko da urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 22 quarter artikuluan (uztailaren 28ko 26/2015 Legean emandako testuan) eta Haur eta Nerabeen Legearen 18.4 eta 18.5 artikuluetan ezarritakoarekin.

2.5. Haur edo nerabearengandik informazioa jasotzea eta hari entzutea

Haur eta Nerabeen Legearen 26. artikuluak hau ezartzen du: "*pertsona adingabe orok eskubidea izango du entzuna izateko eta aditua izateko, berme guztiekin eta inolako diskriminaziorik ez mugarik jasan gabe, adina barne, eragiten dioten prozedura eta erabaki guztietan. Era berean, pertsona adingabeak eskubidea du haren iritziak behar bezala kontuan har daitezen, haren adin eta heldutasunari egokituta*" (26.1 artikulua). Adingabe orok entzuna eta aditua izateko daukan eskubidea "*bere interes gorenaren aurkakoa bada bakarrik mugatu ahal izango da, arrazoituta*" (26.7 artikulua).

Posible ez denean edo haren intereserako komeni ez denean salbu, haurrari edo nerabeari elkarrizketa egingo zaio, edo zuzeneko hartu-emana edukiko da harekin

Beraz, nahikoa heldua denean eta, nolanahi ere, hamabi urte baino gehiago dituenean saiatuko gara haurrari edo nerabeari elkarrizketa egiten edo harekin zuzeneko hartu-emana edukitzen, salbu eta posible ez denean edo bere intereserako komeni ez denean; azken kasu horretan, idatziz arrazoitu beharko da. Elkarrizketa hori bereziki garrantzitsua izan daiteke zeharkako iturrien bidez (gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak, beste senide batzuk, profesionalak, lekukoak...) zehaztu ezin izan denean ea babesgabetasunik dagoen eta haren larritasuna zein den eta haurrak edo nerabeak emandako informazioa helburu horretarako ezinbestekoa denean. Balorazioa egiten ari diren gizarte-zerbitzuetako profesionalak egongo dira harremanetan haur edo nerabearekin, zuzenean; dena dela, harekin lotura positiboa daukaten beste pertsona edo profesional batzuk bitartekari aritu ahalko dira, eta lagundu.

Alde horretatik, garrantzitsua da gogoraraztea LGZek, babesgabezia-prozedura hasten dutenean, "*pertsona adingabeari entzun eta aditu beharko diotela, Haur eta Nerabeen Legearen 26. artikuluan aurreikusitako moduan, salbu eta ez bada posible edo ez bada haren interesaren aldekoa; kasu horretan, haren iritzia jakin ahal izango da lanbideagatik eta harekiko aparteko* konfiantzagatik hura objektiboki helaraz dezaketen pertsonen bidez" (Haur eta Nerabeen Legearen 190.3.b) artikulua)

Haur eta Nerabeen Legeak 146.4.a) artikuluan xedatzen duena hori bezain garrantzitsua da, honako hau adierazten baitu gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haur edo nerabearekin elkarrizketa egiteko baimena emateari buruz: "*Haurren edo nerabeen aurkako indarkeria-egoeretan beren eginkizunak betetzeko, beren lanbide-jarduera gizarte-zerbitzuetan egiten duten funtzionarioak agintaritza-agente izango dira, eta Ertzaintzaren, Foru-polizien, Udaltzaingoen, Ministerio Fiskalaren, osasun-zerbitzuen, ikastetxeen eta beharrezkotzat jotzen duten edozein zerbitzu publikoren laguntza eskatu ahal izango dute, adingabea edozein testuingurutan elkarrizketatu ahal izateko, eta haren gurasoen, legezko ordezkarien edo harreragileen eta zaintzaileen baimenik behar izan gabe*".

Indarkeria-egoeren aurrean beren eginkizunak betetzeko, gizarte-zerbitzuetako funtzionarioak agintaritza-agente izango dira, eta ez dute guraso, tutore edo zaintzaileen baimenik beharko haurrari edo nerabeari elkarrizketa egiteko (Haur eta Nerabeen Legearen 146.6.a) artikulua)

Haur edo nerabeekin egiten diren elkarrizketa edo hartu-emanetan, haien eskubideak errespetatuko dira, eta arreta jarriko zaio honi:

- Gaikuntza espezifikoa duten profesionalak edukitzea, zailtasun bereziko kasuetarako batez ere (hala nola adin txikiko haurrak, desgaitasuna edo premia bereziak dauzkaten haurrak, oso erasanda dauden haurrak, komunikatzeko zailtasunak dauzkaten haurrak, traumaren osteko estresaren sintomak dauzkaten haurrak eta osasun mentaleko nahasmenduak dauzkaten haurrak), eta miaketa-elkarrizketak egitea sexu-indarkeriaren susmoak daudenean.
- Haurrak eta nerabeak prestatzea, harremana erosoa izateko behar diren lekua, harreman-testuingurua eta denbora emanez, komunikazioari bide egiteko.
- Elkarrizketa ingurune seguru eta babesle batean egitea.
- Informazioa hizkera argi eta errazean ematea, uler dezaketen eta ulerterraza zaien hizkuntza batean, eta beren inguruabar pertsonaletara egokitutako formatu irisgarrian.
- Haur edo nerabearen informazioa hitzez hitz jasotzea.
- Bere kontakizuna ez sugestionatzea edo kutsatzea.
- Bere iritziak eta nahiak entzutea.
- Bete ezin den promesik ez egitea.

Komunikatzeko gaitasunari eragiten dion desgaitasunen bat duten haur eta nerabeei eskueran jarriko zaizkie laguntza-tresnak edo -produktuak edo komunikazio-sistema handigarri eta alternatiboak, Haur eta Nerabeen Legearen 13.b) artikuluan adierazten direnak, iritzia eman eta ondo ulertu ahal izatea bermatzeko (sistema handigarri eta alternatiboak, braillea, irispide errazeko multimedia-gailuak, ahozko komunikaziorako eta zeinu-hizkuntzarako laguntza-sistemak, ukipenezko komunikazio-sistemak eta komunikazioa ahalbidetzen duten beste gailu batzuk). Era berean, delako hizkuntza hitz egin ez edo ulertu ezin duen pertsona adingabeak, eskubide hori bere kabuz egikaritu ahal izatea bermatzeko, interpreteen laguntza izango du, hala badagokio (Haur eta Nerabeen Legearen 26.6 artikulua). Behar bezala baloratu eta arrazoitutako kasuetan izan ezik, ez dira gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak edo beste senide batzuk erabiliko interprete-lanak egiteko.

Komunikatzeko gaitasunari eragiten dion desgaitasunen bat duten eta hizkuntza ez dakiten haur eta nerabeentzako laguntza espezifikoak

Haurra edo nerabea familiatik **presaz banandu** behar izan denean eta aurretik harekin harremanik eduki ezin izan denean edo, neurria hartu aurretik, haren egoera osorik baloratu ezin izan denean, kasuan esku hartzen ari diren profesional taldeak eta pertsonak (presazko harrera-familiak, egoitza-baliabideak, familian esku hartzeko taldeak) modu aktiboan arituko dira elkarlanean UGZekin eta LGZekin, balorazioa bukatzeko.

2.6. Inguruabar bereziak

ZIRRIBORRA

2.6.1. Genero-indarkeria jasaten duten familietako haurrak eta nerabeak

Genero-indarkeriari eta haur eta nerabeen babesari buruzko legedian, arreta berezia jartzen zaio genero-indarkeria jasaten duten familia-inguruneetan bizi diren haur eta nerabeen babesari, genero-indarkeriatzat hartuta erroak emakumeen eta gizonen egiturazko desberdinkerian dauzkan indarkeria matxistaren adierazpena. Hala, batetik, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak (genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoak) genero-indarkeriaren zuzeneko biktimatzat jotzen ditu emakumeak nahiz haien seme-alabak eta haien tutoretzapean, zaintzapean edo jagoletzapean dauden adingabeak. Eta, bestetik, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Osorik Babesteko Lege Organikoaren 29. artikuluak eta Haur eta Nerabeen Legearen 130. artikuluak ezartzen dute administrazio publikoek (haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko gizarte-zerbitzuak eta emakumeentzako zerbitzuak barne) modu koordinatu, integral eta espezializatuan jardun behar dutela haur eta nerabeei eta haien amei suspertzen laguntzeko orduan. Halaber, bi lege horiek ezartzen dute halabeharrezkoa dela behar besteko laguntza bermatzea haurrek eta nerabeek, adina edozein dela ere, emakumearekin jarrai dezaten, hori haien interes gorenaren aurkakoa bada izan ezik; horrelakoetan, ondo arrazoitu beharko da hala dela:

> ***Haur eta Nerabeen Legearen 130. artikulua. Indarkeriarik gabeko familia-ingurune egokian egoteko lehentasun-printzipioa.***
>
> *1. Indarkeria familia-eremuan gertatzen bada, eta pertsona adingabearen interes gorenerako komeni bada, indarkeriarik gabeko familia-ingurune egoki batean egoteko eta erasotzailearengandik urruntzeko aukera ematen duten babes-neurri administratibo edo judizialak lehenetsi beharko dira.*
> *2. Helburu horrekin, legitimatutako pertsonek edo foru-aldundiek hala eskatuta, Kode Zibilaren 158. artikuluan aurreikusitako neurrietatik beharrezkoak direnak hartu ahal izango ditu agintaritza judizialak.*
> *3. Berariaz, pertsona adingabeak genero-indarkeriaren biktima baten guraso-ahalaren, tutoretzaren edo zaintzaren mendean badaude, euskal administrazio publikoen jarduketak bideratuko dira haurra edo nerabea harekin gelditzea ziurtatzeko behar den laguntza bermatzera, edozein dela ere haurraren edo nerabearen adina, baita hura babestera, hari arreta espezializatua ematera eta birgaitzera ere. Hala eta guztiz ere, pertsona adingabea ez da geldituko genero-indarkeriaren biktima izan den pertsonetako batekin baldin eta ez bada komenigarria pertsona adingabearen interes gorenerako, eta, kasu horretan, behar bezala arrazoitu beharko da inguruabar hori.*
> *4. Nolanahi ere, euskal administrazio publikoen jarduketak modu integralean egin behar dira, eta, aldi berean, kontuan hartu behar da pertsona adingabea eta ama osatzea, biak genero-indarkeriaren biktima diren neurrian. Horretarako, eskumena duten gizarte-zerbitzuek honako hauek ziurtatuko dituzte:*
> *a) Genero-indarkeriako egoerak detektatzea eta haiei erantzun espezifikoa ematea.*
> *b) Genero-indarkeriaren biktima diren pertsona adingabeak arreta espezializatuko zerbitzuetara bideratzea eta haiekin koordinatzea.*
> *c) Osasun-, polizia-, hezkuntza-, justizia- eta berdintasun-arloko agintariek genero-indarkeriaren arloan ezarritako protokoloetan xedatutako jarduketa-jarraibideak eta neurriak betetzea.*

Genero-indarkeriarekiko esposizioa babesgabetasun mota bat da

Familia-ingurunean **indarkeriaren** eta, zehazki, **genero-indarkeriaren eraginpean** egotea **babesgabetasun mota bat da Balora tresnaren arabera**, ebidentzia enpiriko zabal eta sendoa baitago esaten duena inpaktu negatiboa eragiten duela haur eta nerabeen segurtasun, ongizate eta garapenean. Inpaktu hori askotariko moduetara ager daiteke, faktore ugariren arabera; besteak beste, indarkeria mota eta haren maiztasuna eta intentsitatea daude, edota haur edo nerabe bakoitzaren banakako eta testuinguruaren araberako baldintzak. Hori dela-eta, babesgabetasun-egoera posible guztietan bezalaxe, **kasu bakoitzaren banakako ebaluazioa egin behar da, testuinguruan kokatua**.

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak jasotzen duen moduan, genero-indarkeria **haurrak eta nerabeak erabiliz** ere ezartzen da. Egoera horiek **indarkeria bikarioa** eragiten dute, hau da, emakumeari kaltea, mina edo sufrimendua eragiteko edo hura kontrolatzeko helburuz haur edo nerabeen aurka ezartzen den indarkeria. Indarkeria bikarioa, hortaz, **genero-indarkeriaren adierazpen** bat da, eta modu askotara gauzatu daiteke; adibidez, haur edo nerabeei zuzeneko kaltea eraginez (esaterako, tratu txar fisikoak emanez —muturreko kasuetan, hilketara iristen da— edo tratamendu medikoak etenez), emakumearengandik eta haren familiarengandik urruntzeko manipulatuz edo haurrak edo nerabeak hiltzearekin edo, besteren artean, zaintza eta jagoletza kentzearekin mehatxatuz.

Indarkeria bikarioa

Genero-indarkeria, berez, zaurgarritasun larriko egoera da emakumeentzat eta haien seme-alabentzat. Alabaina, **haur eta nerabe guztiengan ez da beti azaltzen ebaluatu daitezkeen babesgabetasun-adierazleetan**, eta, beraz, **oso sakon aztertu behar dira bai indarkeriaren ezaugarriak, bai esposizio moldeak —zuzenekoa edo zeharkakoa— eta haur edo nerabe bakoitzarengan eragin duen edo eragin dezakeen inpaktua, betiere indarkeria horren ondorioak txikiagotzea saihestuta.**

Kasu bakoitzaren banakako eta testuinguruaren araberako ebaluazioa – Garrantzitsua da sakon aztertzea bai indarkeriaren ezaugarriak, bai esposizio moldeak —zuzenekoa edo zeharkakoa— eta haur edo nerabe bakoitzarengan eragin duen edo eragin dezakeen inpaktua

Testuinguru horietan, bereziki garrantzitsua da **beste babesgabetasun mota batzuk** ere ba ote dauden aztertzea, genero-indarkeriaren kausek nahiz ondorioek guraso-trebetasunei eragin diezaieketelako. Emakumeengan, beldurra, kontrola, isolamendua edo mendekotasuna luzaroan bizitzen dituztenean gerta daiteke hori. Hori aintzat hartuta, ezinbestekoa da analisia egitean **errua ez egoztea, inola ere, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei, eta hori bezain garrantzitsua da berriro ez biktimizatzea.**

Genero-indarkeria jasaten duten emakumeak erruduntzat jotzea eta berriro biktimizatzea saihestu

Babesgabetasuna baloratzearen helburua da **ikusgai egitea indarkeriak zer-nolako inpaktua daukan haur eta nerabeengan, baita haien babesa bermatzea ere**; aldi berean, ordea, **guraso-jokabidea segurtasun-baldintzetan berreskuratu eta indartzeko prozesuak** sustatu behar dira. Hala, funtsezkoa da guraso-figurei ulertaraztea indarkeriak eragina daukala haien seme-alabengan, betiere argi eta garbi bereizita indarkeriaren erantzukizuna (erasotzaileari dagokio) eta biktimizazio-egoeraren ondoriozko egoerak. Esku-hartzeek une oro lehenetsi beharko dute haur eta nerabeen eta haien amen segurtasuna eta ongizatea ziurtatzea. Horrela, gizon erasotzaileekin egiten den jarduketa bideratu beharko da erantzukizuna beren gain hartzera, jokabide erasokorra etetera eta berrerortzea prebenitzera, ebidentzian oinarritutako programa espezifikoen bidez. Emakume biktimei zuzendutako esku-hartzeek, berriz, helburu izango dute haiek babestu, suspertu eta ahalduntzea.

Bestalde, esku-hartzeek sektorearteko ikuspegia eduki beharko dute, eta kontuan hartu indarkeriaren esperientzian eta baliabideak eta laguntzak jasotzeko aukeretan eragin dezaketen zaurgarritasun-faktore erantsiak egon daitezkeela, hala nola desgaitasuna, jatorri migratzailea, administrazio-egoera, prekaritate ekonomikoa edo bestelako inguruabarrak.

Prestakuntza espezializatua duten profesional taldeek garatu beharko dituzte esku-hartze guztiak, ebidentzian oinarritutako metodologiak erabiliz eta haurrek eta nerabeek beren adinaren eta garapen-mailaren arabera parte hartuko dutela bermatuz, betiere hori haien segurtasunarekin eta interes gorenarekin bateragarria bada.

2.6.2. Sexu-indarkeriako egoera egiaztatuak edo horren susmoak

Balora tresnaren irizpideen arabera zehaztuko da **babesgabetasuna eragin duten sexu-indarkeriako egoeren larritasuna** —hau da, indarkeria gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ezarri, sustatu edo baimendu dutenean— (ikusi eskala).

Gizarte-zerbitzuei horrelako egoera baten jakinarazpena iristen bazaie eta, bertan, **oso adierazle espezifikoetan oinarritutako susmoak** jasotzen badira, lurraldeko gizarte-zerbitzuek hartuko dute kasua. Susmoak **sexu-indarkeria probablearen adierazleetan** oinarritzen direnean, berriz, **lurralde historiko bakoitzean horrelako kasuetarako ezarrita dagoen jarduketa-prozedurari** jarraituko zaio.

Sexu-indarkeriaren susmoak daudenean jardutea, indarkeria hori:

- ***gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ezarri, baimendu edo sustatu dutenean (babesgabetasuna)***
- ***beste senide batzuek ezarri dutenean***
- ***hurbilekoek ezarri dutenean***
- ***ezezagunek ezarri dutenean***

Prozedurak, era berean, zehaztu egin beharko du zer jarduketa garatu beharko den **beste pertsona batzuek** —beste senide batzuek, hurbilekoek edo haur edo nerabearen ingurunekoak ez diren pertsonek— **ezarritako sexu-indarkeria egiaztatu edo susmatuari buruzko jakinarazpenen** aurrean. Zehazki, **beste senide batzuek ezarritako sexu-indarkeriako egoerak** baloratzean eta horietan esku hartzean, kontuan hartuko da indarkeria horren sorreran eta iraunkortasunean inplikatutako harreman-dinamiken konplexutasuna, baita indarkeriaren ondorioen larritasuna ere.

Familia barruko sexu-

Nolanahi ere, jarduketa-prozedurak zehaztu egin beharko ditu haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko gizarte-zerbitzuetako eta tartean egon daitezkeen gainerako zerbitzuetako profesionalen eta taldeen eginkizunak (azken horien artean sartzen dira, adibidez, epaitegietako, poliziako, osasuneko eta hezkuntzako profesionalak), baita **sexu-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei laguntza oso eta espezializatua emateko zerbitzuarenak** ere. Bat etorrita Haur eta Nerabeen Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, zerbitzu hori ingurune seguru modura eratuko da, sexu-indarkeriaren biktima diren adingabeak eta haien familiak hartu eta baloratzeko, izan ditzaketen laguntza-, babes- eta suspertze-premiei arreta espezializatua emateko eta kasuan-kasuan martxan jarri behar diren prozesu asistentzial eta judizialak koordinatuta bideratzeko, betiere haur eta nerabeen premiak eta interes gorena lehenetsiz jarduketan, eta berriro biktimizatu gabe. Zerbitzuak sexu-izaerako indarkeria-egoera guztiak artatuko ditu, babesgabetasuna eragin zein ez.

ZIRIBORRA

Sexu-indarkeriako adierazle oso espezifikoak *Adierazle mota hauek egoteak sexu-indarkeria gertatu izateko aukera handia dagoela adierazten du; halere, adierazleok ez egoteak ez du indarkeria hori gertatu izateko aukera baztertzen.*	**Sexu-indarkeria probablearen adierazleak** *Adierazle hauek guztiak bateragarriak dira sexu-indarkeriazko ekintza, portaera edo egitateekin, baina ez dute modu unibokoan adierazten indarkeria hori gertatu denik. Ondorioz, adingabearen adina, eboluzio- eta heldutasun-mailak eta testuinguruaren araberako beste elementu batzuk kontuan hartuta baloratu eta haztatu behar dira.*
A. Adierazle fisikoak: 1. Txosten mediko batek sexu-indarkeria egon dela baieztatzen du, edo gertatzen ari delako susmo handiak daudela. 2. Adingabeak adierazle hauetakoren bat dauka: ▪ Lesioak genitaletan, uzkian, uzki inguruan edo bularretan (urradurak, ubelak, ubeldurak), azalpenik gabe edo azalpen ezegokiarekin. ▪ Mina, odoljarioa edo isuria genitaletan edo uzkian, azalpen medikorik gabe. ▪ Ekimosia (*txupetoiak*) lepoan edo bularretan. ▪ Ibiltzeko eta esertzeko zailtasunak, azalpen medikorik gabe. ▪ Genitaletako infekzioak edo sexu-transmisiozkoak. ▪ Semena edo pubiseko ilea ahoan, uzkian, genitaletan edo arropan. ▪ Haurdunaldia. **B. Beste adierazle batzuk:** 1. Gurasoek, zaintzaileek edo beste batzuek adingabearekin sexu-jokabide argi eta garbi desegokiak dauzkatelako edo adingabeak jokabide horiek ikusten dituelako informazio fidagarria dago. 2. Adingabeak sexu-indarkeria pairatu duela adierazi du.	1. Adingabearen guraso edo zaintzaileetako batek edo beste senide batek adierazi du sexu-indarkeria gertatzen ari delako susmoa daukala. 2. Adingabeak bere adinerako jokabide hipersexualizatu edo autoerotiko ezohikoak edukitzea. 3. Adingabeak ezohiko sexu-ezagutzak edukitzea bere adinerako. 4. Nerabeengan, sexu-promiskuitatea edo gehiegizko sexu-inhibizioa edukitzea. Sexu-harreman arriskutsuak edukitzea. 5. Adingabearekin bizi diren edo harekin harremana daukaten helduek egokitasunari dagokionez sexu-jokabide «zalantzagarriak» dauzkatelako informazioa edo susmoa egotea. 6. Disoziaziozko fenomenoak/nahasmenduak edukitzea. 7. Adingabeak beste adingabe batzuk atzematea sexu-esplotaziorako. 8. Adingabeak prostituziotik hurbil dauden pertsona eta lekuekin harremana edukitzea. 9. Adingabeak diru, objektu material edo kontsumo-objektu gehiegi edukitzea, benetako posibilitateen gainetik, jatorriaren azalpen sendorik gabe. 10. Internet bidez ezagututako norbaitekin aurrez aurreko hitzordu bat edukitzea. 11. Lurraldeko gizarte-zerbitzuen tutoretzapeko adingabe bat egoitzan askotan falta izatea, horretarako baimenik izan gabe. 12. Pornografia-kontsumo arazotsua edukitzea. 13. Lineako sexu-indarkeria posiblearen alerta-zeinuak: ▪ Adingabeak ohikoa baino askoz ere denbora gehiago edo gutxiago igarotzea linean, mezuak idazten edo sare sozialak erabiltzen. Edo lehen beste jarduera batzuk egiten zituen ordutegian egitea, ohiturak aldatuta. ▪ Internet erabili edo txateatu ondoren urrun, haserre edo gogaituta agertzea. ▪ Norekin ari den edo linean edo mugikorrean zertan ari den ezkutatzea. Gailuak erabiltzean bat-bateko pribatutasun-premia agertzea. Mezu edo dei bat jasotzean beste logela batera joatea, telefonoa begiratzen duenean urduri egotea eta norbaitek mugikorra begiratu nahi dionean antsietatez edo oldarkor jokatzea. ▪ Mugikorrean, tabletean edo ordenagailuan telefono-zenbaki, mezu edo helbide elektroniko berri asko edukitzea. ▪ Lagunekin harremana galtzea edo lagunak zein erreferentziazko figurak bat-batean aldatzea.

2.6.3. Interneterako eta sare sozialetarako sarbidea eta haien erabilera

Gaur egun, Internet eta sare sozialak elementu protagonistak dira haur eta nerabeen sozializazio-, ikaskuntza- eta garapen-prozesuetan. Ebidentzia enpirikoak adierazten duenez, teknologia horietara ondo lagunduta, arlo digitalean alfabetatuta eta ekitatez sartzeak **onura** handiak sor ditzake garapenaren dimentsio ugaritan:

- Hezkuntza- eta prestakuntza-arloan, nabarmen areagotzen ditu ikasteko aukerak, berehalako sarbidea ematen dutelako askotariko hezkuntza-baliabideetara, prestakuntza-plataformetara, liburutegi digitaletara eta eduki interaktiboetara. Ingurune horrek mesede egiten die ikaskuntza autonomoari eta konpetentzia digital oinarrizko zein aurreratuen garapenari, eta zeharkako trebetasunak eskuratzen nahiz ikaskuntza formal eta informala garatzen laguntzen dute, haur eta nerabeei bidea jartzen baitiete eskolako ohiko curriculumetik haragoko ezagutzak lortzeko.
- Sare sozialetarako sarbideak komunikazioa eta sozializazioa garatzen laguntzen du, haur eta nerabeei modua ematen dielako berdinekin harremanak izaten; bereziki, distantzia fisikoa dagoenean, mugitzeko arazoak daudenean edo isolatuta daudenean. Alderdi hori bereziki interesgarria izan daiteke integratzeko zailtasunak edo hezkuntza-premia bereziak dauzkaten haur eta nerabeentzat, plataforma digitalek elkarreraginean aritzeko eta talde bateko partaide sentitzeko gune alternatiboak eskaintzen dituztelako.
- Interneterako sarbideak gizalegez parte hartzen eta informazio publikoa eskuratzen laguntzen du, eta haur eta nerabeei aukera ematen die gai sozial, kultural eta politikoei buruzko informazioa lortzeko edota egitasmo komunitario zein solidarioetan parte hartzeko. Horrek herritar informatuagoak eta aktiboagoak garatzen laguntzen du, txiki-txikitatik gainera, eta, ondorioz, parte-hartze demokratikoko edota gizarte-erantzukizuneko balioak sustatzen ditu.
- Nerabeen artean, Interneterako eta sare sozialetarako sarbideak inpaktu positiboa izan dezake identitatearen garapenean eta adierazpen pertsonalean, interesak miatzeko, norbere narratibak sortzeko eta antzeko kezkak partekatzen dituzten komunitateetan parte hartzeko guneak eskaintzen dizkielako. Prozesu horrek ekarpena egin diezaieke identitatearen eraikuntzari, sormenari eta adierazpen-gaitasunari, baldin eta ingurune seguruetan eta ondo lagunduta egiten bada.
- Amaitzeko, garrantzitsua da adieraztea teknologia horietarako sarbideak konpetentzia digitalak garatzen eta etorkizunean lan egiteko prestatzen lagundu dezakeela. Teknologia digitalak ohikotasunez erabiltzeak modua ematen die haur eta nerabeei gaur egungo gizartean gero eta gehiago eskatzen diren trebetasunak (hala nola informazioaren kudeaketa, komunikazio digitala, oinarrizko programazioa edo elkarlaneko erreminten erabilera) eskuratzeko. Konpetentzia horiek funtsezkoak izango dira etorkizunean hezkuntza- eta lanbide-arloetan moldatzeko.

Internet eta sare sozialetarako sarbideak onura potentzial handiak izan ditzake haur eta nerabeen garapen integralerako. Onura horiek sortzeko, hein handi batean, hauek behar dira: ingurune digital seguruak, helduen bitartekaritza eta erabilera gogoetatsu, arduratsu eta orekatua egiteko modua ematen duten konpetentzia digital kritikoetan oinarritutako hezkuntza.

Ikusirik teknologia digitalek aukera zabalak eskaintzen dituztela haur eta nerabeen garapen osorako, nazioarteko zenbait antolakundek, hala nola Nazio Batuek (2021) eta Europar Batasunak (2018, 2025, 2026), haurrek eta nerabeek teknologia horietarako sarbidea edukitzea sustatzeaz gainera, **eskubide gisa aitortu dute** sarbide hori; hortaz, bermatu egin behar da **adingabe guzti-guztiek, inor diskriminatu gabe, ingurune digitalerako sarbide ekitatibo, inklusibo eta eraginkorra edukitzea**.

Ingurune digitalerako sarbide ekitatibo, inklusibo eta eraginkorra, haur eta nerabeen eskubide

Alabaina, teknologia digitalek **arriskuen eta kalte potentzialen** eraginpean jartzen dituzte haurrak eta nerabeak. Haurrei teknologia digitaletarako sarbidea goizegi emanez gero, progresio bati jarraitu gabe edo ondo gainbegiratu eta orientatu gabe, **garapen kognitibo eta emozionala** oztopa daiteke, eta, ikusi denez, teknologia horiek **gehiegi edo gaizki erabiltzeak osasun mentaleko** arazoak agerraraz ditzake. Eremu honetan egindako ikerketa oraindik orain mugatua bada ere, eskuragarri dagoen ebidentziak dio asoziazioa dagoela Interneten eta sare sozialen erabilera intentsiboaren eta neurogarapenaren asaldura jakin batzuen, autoestimu-arazoen, antsietatea eta depresioa edukitzeko arrisku handiagoaren eta ikaskuntza- eta sozializazio-zailtasunen artean, nerabezaroan bereziki. Halaber, gehiegizko erabilera horrek **osasun fisikoan** ere ondorio kaltegarriak izan ditzakeela ikusi da, bizi molde sedentarioen, elikadura-ohitura ez oso osasungarrien, obesitatearen, loaren nahasmenduen eta ikusmen-nekearen ondorioz. Bestetik, ebidentziaren arabera, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek gailu digitalak gehiegi erabiltzearen ondorioz, **familiako zuzeneko interakzioak murrizten dira, haurrekikoak eta nerabeekikoak gehienbat** (Europar Batasuna, 2025, 2026).

Haurrak eta nerabeak, ingurune digitaleko arriskuekiko eta kalte potentzialekiko zaurgarritasun bereziko talde gisa

Eskuragarri dagoen ebidentzia zientifikoak adierazten du ezen **teknologia digitaletara lotutako arriskuak ez direla erabilera-denboraren araberakoak soilik (ezta nagusiki ere): erabakigarriak dira, era berean, teknologia horien bidez lortzen diren edukien nolakotasunak eta elkarreraginean aritzeko ingurune digitalen ezaugarriak** (UNICEF, 2025). Lehenik eta behin, eduki jakin batzuk kaltegarriak izan daitezke, baita adinerako egokiak direnean ere, edukiok aurkezteko moduagatik edo plataforma digitaletan sartutako diseinu-elementu jakin batzuengatik. Diseinu egoki batek irisgarritasuna, segurtasuna eta pribatutasunaren babesa hobetzen lagundu ahal duen arren, praktika zehatz batzuk kaltegarriak izan daitezke, hala nola algoritmo-burbuilak, interfaze engainagarriak eta diseinu limurtzailea duten mekanismoak, erabiltzaileak bultzatzen baitituzte denbora gehiagoz geratzera eta elkarreraginean gehiago aritzera (adibidez, edukien erreprodukzio automatikoa, desplazamendu mugagabea, segidak, jakinarazpen etengabeak, sari-kutxak edo esperientzia zein aukera jakin batzuk galtzeko beldurrean oinarritutako estrategiak). Bigarrenik, teknologia digitalek eduki ezegoki edo kaltegarrietarako irispidea erraztu dezakete, hala nola eduki hauetarakoa: eduki biolentoak, pornografia, informazio okerra eta desinformazioa —adimen artifizialaren bidez sortutako irudiak, bideoak, audioak edo edukiak barne hartuta—, zorizko jokoak, gorroto-diskurtsoak edo elikagai eta edari ez oso osasungarriak, tabakoa, alkohola edo legez kanpoko drogak kontsumitzea sustatzen duten edukiak. Gainera, haurrak eta nerabeak sexu-esplotaziorako atzeman ditzakete linean. Neskak bereziki zaurgarriak dira generoko ziberrindarkeriaren aurrean (ziberjazarpena barne); desgaitasunen bat duten edo gutxiengo sexualetakoak diren haur eta nerabeak, berriz, jazarpenaren eta indarkeriaren eraginpean egoten dira ingurune horietan.

Haurrek eta nerabeek arrisku horiekiko kolektibo bereziki zaurgarriak osatzen dituztenez, gero eta adostasun handiagoa dago adieraztean **babes indartua bermatu behar zaiela eta prebentzio-neurriak hartu behar direla, teknologia digitalek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzeaz batera haien ondorio kaltegarri posibleak txikiagotzeko**. Testuinguru horretan, gobernu ugari lege-egitasmo arautzaileak sustatzen ari dira ingurune digitalean diharduten enpresei, zeinak zuzentzen baitzaizkie gizarteari oro har, guraso, tutore eta zaintzaileei eta haur eta nerabeekin lan egiten duten profesionalei nahiz haur eta nerabeei. Jarduketa horiek gainbegiratze-neurriak, sarbide-murrizketak eta konpetentzia digitalei buruzko prestakuntza-programak konbinatzen dituzte, erabilera seguru, kritiko eta arduratsua sustatzeko helburuz.

Adinaren araberako gomendioak, eskuragarri dagoen ebidentzia zientifikoa oinarri

Gure testuinguruan, hainbat antolakunde zientifiko eta profesional duela urte batzuetatik ohartarazten ari dira arriskutsua dela haurrek eta nerabeek gailu digitalak eta sare sozialak txiki-txikitatik, gehiegi eta gainbegiradarik gabe erabiltzea. Antolakunde horiek askotariko egitasmoak sustatu dituzte adinaren araberako erabilera gomendatzeko, eskuragarri dagoen ebidentzia zientifikoan oinarrituta (besteak beste, Beriain et al., 2025; Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza; Infancia Digital; Plan Digital Familiar). Guztiek proposatzen dituzte, besteak beste, honako hauek:

a) sei urtetik beherako haurrek ez dezatela gailu digitalik erabili, senideekin edo hurbilekoekin hitz egiteko bideo-dei laburretarako denean izan ezik,
b) sei eta hamabi urte bitarteko haurrak gailu digitalen erabileran heztea, lor ditzaketen edukiak zuzenean berrikustea eta gailuen erabilera egunean ordubetera mugatzea, eta
c) hamahiru eta hamasei urte bitarteko nerabeekin, guraso-kontrola ezartzeko eta pribatutasuna babesteko erremintak instalatzea, Interneterako konexiodun lehenengo mugikorra ahalik eta gehien atzeratzea eta mugikorraren erabilera egunean bi ordura mugatzea.

EAEn, haurrak eta nerabeak babesteko legediak (Haur eta Nerabeen Legea) haur eta nerabeen eskubidetzat jotzen du teknologia digitalak haien garapen ebolutiboarekin bat etorriz erabiltzea, baita alfabetatze digital eta mediatikoa jasotzea ere, modu seguru, kritiko eta arduratsuan moldatu ahal izan daitezen; horretarako, gailuen erabilerarekin lotutako arrisku-egoerak identifikatu eta prebenitzeko behar diren konpetentziak eman behar zaizkie (41.2 eta 42.3 artikuluak). Era berean, Haur eta Nerabeen Legeak ezartzen du Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek elkarlanean jardun behar dutela eta jarduketak koordinatu behar dituztela teknologia digitaletara lotutako adikzioak prebenitzeko (112.4.a) artikulua), eta gizarteari oro har, guraso, tutore eta zaintzaileei eta haur eta nerabeekin lan egiten duten profesionalei nahiz haurrei eta nerabeei zuzendutako neurriak garatu behar dituztela, indarkeria digitala prebenitzeko (139. artikulua; 157. artikulua; 311.2.f) artikulua). Azken gai horrekin lotuta eta bat etorriz Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Osorik Babesteko Lege Organikoarekin, Haur eta Nerabeen Legeak indarkeriaren definizioan argi eta garbi jasotzen du eremu digitalean ezarritakoa (11. artikulua), eta ezartzen du herritarrek komunikatzeko betebeharra dutela, berdin-berdin, sare sozialetan edo Interneten indarkeriazkoak izan daitezkeen edukiak ikusten dituztenean (16.2 artikulua).

Teknologia digitaletarako sarbidea eta haien erabilera, Haur eta Nerabeen Legean (2/2024, otsailaren 15ekoa)

Balora tresnaren eguneratze honetan, haurrek eta nerabeek Internet eta sare sozialak nola erabili beharko lituzketen jorratzen da, gaurko erregulazio-esparrutik eta aurreko paragrafoetan adierazitakotik abiatuta, **gogoeta berezi** hauei jarraikiz:

Teknologia digitaletarako sarbidea eta haien erabilera, Balora tresnaren eguneratzean

1. **Gizarte osoaren erantzukizun partekatua da haurrek eta nerabeek teknologia digitaletarako duten sarbidean eta teknologia horien erabileran laguntzea eta heztea, baita sarbide eta erabilera horiek gainbegiratzea ere.** Erantzukizun horrek barruan biltzen ditu, ezinbestean, **gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak**, zeinek, guraso-eginkizunak betetzeko orduan, parez pare baitute erronka berri bat, ezagutza eta konpetentzia berriekin jorratu beharreko desafio bat. Ezagutza eta konpetentzia horiek eskuratzeko eta baliatzeko, baina, administrazio publikoen laguntza behar dute.

2. Nerabeek Internet eta sare sozialak nola erabiltzen dituzten baloratzean, garrantzitsua da ***erabilera intentsiboa*, *erabilera arazotsua* eta *adikzioa*** bereiztea:

   a) **Erabilera intentsiboan**, erabilera handia da maiztasunari edo iraupenari dagokionez, baina pertsonari ez dio zertan sufrimendurik edo kalterik eragin, ezta kontrola galarazi ere (jardueraren hasiera edo amaiera, maiztasuna, intentsitatea edo iraupena kontrolatzeko ezintasuna). Hala, nerabe batek denbora nahikotxo igaro dezake Interneten edo sare sozialetan, sozializatu eta informatu egiten delako, jolastu egiten duelako, musika entzuten duelako edo berdinkideen taldearekin harremanetan egoten delako, baina horrek, berez, ez dio zertan arazorik edo adikziorik ekarri. Denbora garrantzitsua da, baina irizpide kliniko gisa ez da nahikoa. Alerta-seinalea izan daiteke, baina erabilera handi oro ez da arazotsua.

Erabilera handia / Erabilera arazotsua / Adikzioa

b) **Erabilera arazotsua** patroi bat da, non hainbat elementu agertzen baitira, hala nola Interneten eta sare sozialen erabilera ezin kontrolatu izatea, bizitzako beste arlo batzuk eragoztea, familian edo eskolan gatazkak sortzea, erabilera horri lotutako ondoeza sentitzea, jarduera garrantzitsuak uztea edo, ondorio negatiboak pairatu arren, erabiltzen jarraitzea.

c) Azkenik, **adikzioak** dakartzan egoeretan, narriadura funtzionala handia izaten da; portaera ez da eteten, kaltea jasan arren; erabileraren gaineko kontrola galtzen da, eta gero eta lehentasun handiagoa ematen zaio, beste jarduera batzuen kalterako. Gaur egun, nahasmendu mentalen sailkapen diagnostikoek (DSM-5-TR eta CIE-11) ez dute sartzen Internet edo sare sozialekiko adikzioa. *Bideojokoekiko adikzioa edo haien ondoriozko nahasmendua* baino ez dago aitortuta, eta, OMEren Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenean (CIE-11) (2022), honela definitzen da: "jokabide iraunkor edo errepikakor bat da, gutxienez hamabi hilabete irauten dituena —sintomak larriak badira, aldia laburragoa izan daiteke— eta hiru zantzu giltzarritan agertzen dena: 1) kontrol falta —jokoaren gaineko kontrola narriatu egiten da; hau da, pertsona ez da gai partidaren edo apustuaren hasiera, maiztasuna, intentsitatea, iraupena edo amaiera kontrolatzeko—; 2) lehentasun gero eta handiagoa —jokoa gailendu egiten zaie nahitaezko beste interes batzuei eta egunerokotasuneko jarduerei—, eta 3) ondorio negatiboak —pertsonak jokatzen jarraitzen du, edo gero eta gehiago jokatzen du, nahiz eta arlo pertsonal, familiar eta sozialean edota hezkuntza- edo lanbide-arloan ondorio kaltegarriak agertu".

3. **Balora tresnaren bertsio eguneratuak babesgabetasuntzat jotzen ditu zenbait guraso-portaera**, oro har hartuta, banakako balorazio baten ondotik beti, kalte esanguratsu edo larri erreal edo potentziala dakarkietelako haur eta nerabeei; bada, guraso-portaera horien artean, hauek daude:

Babesgabetasuna eragin dezaketen guraso-portaerak

- Haurra edo nerabea ez gainbegiratzea edo nahikoa ez gainbegiratzea bere adinerako baimenduta ez dauden sare arriskutsuetara sartzen denean, ebidentzia edo susmo sendoak daudenean pentsatzeko gutxienez zenbait aldiz egin duela hori: Dark weba (erregulatu gabeko gune bat da, non legez kanpoko jarduerak eta eduki oso kaltegarriak gailentzen baitira), sexu-edukia duten webguneak, kontaktu eta hitzorduetarako sareak eta edukia neurtzen ez duten sare sozialak, txat anonimoak, lineako apustuak eta jokabide autolesiboak, legez kanpokoak, arriskutsuak edo bortitzak sustatzen dituzten sareak edo antzekoak (ikusi "*Segurtasun-premiekiko zabarkeria – Gainbegiratzea*" eskala).
- Haurra edo nerabea ez babestea beste pertsona batzuek ezarritako indarkeria digitaleko egoeretatik (ikusi "*Segurtasun-premiekiko zabarkeria – Beste pertsona batzuek ezarritako indarkeriarekiko babesa*" eskala).
- Haurrari edo nerabeari gailu elektronikoak (mugikorra, tableta) ohikotasunez ematea, bakarka erabil ditzan entretenitzeko, distraitzeko eta estimulatzeko, zaintza-, estimulazio- edo gainbegiratze-eginkizunetatik libratu eta eginkizunon ardura gailu horiei emateko helburuz (ikusi "*Premia kognitiboekiko zabarkeria: Estimulazioa*" eskala).
- Arretarik ez ematea haurrak edo nerabeak bideojokoekiko adikzioa edukitzeagatik edo mugikorraren, sare sozialen, bideojokoen nahiz Interneten erabilera arazotsua egiteagatik profesional espezialistek agindutako tratamendu psikologiko edo psikiatrikoa edo arreta espezializatua jasotzeko daukan premiari (ikusi "*Zabarkeria emozionala – Arazo emozionalei eta arazootara lotutako jokabide-asaldurei eta premia bereziei arreta espezifikoa ematea*" eskala).
- Ez izatea gai haurrak bideojokoekiko adikzioa edukitzeagatik edo mugikorraren, sare sozialen, bideojokoen nahiz Interneten erabilera arazotsua egiteagatik dauzkan arazoak kontrolatzeko (ikusi "*Gurasoen ezintasuna haur edo nerabearen jokabidea erregulatu eta kontrolatzeko*" eskala).

Ziurtasun osoz esan dezakegu datozen urteetan aldaketa handiak egingo direla haurrek eta nerabeek teknologia digitalerako sarbidea edukitzeari eta teknologia horiek erabiltzeari buruzko legedian eta erregulazio-esparruetan. Teknologia ziztu bizian ari da aurrera egiten, eta, ondorioz, gizartean eta erakundeetan gero eta kezka handiagoa dago adingabeak ingurune digitalean

Berrikusi egin beharko da

babestearekiko. Hala, erreminta horiei lotutako arriskuen inguruko ezagutza zientifikoa handitzen ari denez, kolektibo horren segurtasuna, pribatutasuna eta ongizatea gehiago bermatzera bideratutako arau-egitasmo berriak sustatzen ari dira. Hortaz, **bilakaera etengabean dagoen eremu bat** dugu parez pare: etengabeko jarraipena egin beharko diegu etorkizunean egiten diren arau-erreformei eta aldaketa horiek administrazio publikoei —haur eta nerabeak zaindu eta babesteko zerbitzuak barne—, agente sozialei eta familiei ekarriko dizkien inplikazio praktikoei.

2.6.4. Banandutako edo dibortziatutako bikoteak[14]

- **Babesgabetasunik dagoen eta haren larritasuna zein den zehazteko balorazioak xedetzat baldin baditu denboraldi nahiko luzeak eta erregularrak bizikidetza-unitate desberdinetan igarotzen dituzten haurrak edo nerabeak** —horixe da bikote banandu edo dibortziatuen seme-alaben kasua—, babesgabetasun-arrastoak identifikatu diren bizikidetza-nukleoan soilik egingo da balorazioa, edo susmoak piztu dituen horretan.

  Hala ere, banandutako edo dibortziatutako bikoteen kasuetan, UGZek edo LGZek guraso baten bitartez izan badute egoera horren berri (zaintza duen gurasoa izan zein ez), hark esan dielako beste bizikidetza-nukleoan babesgabetasun-aztarnak daudela, erabaki egin beharko da, kasuaren inguruabarren arabera, aztarna horien ikerketa hasiko den edo, prozesu hori abiarazita zein abiarazi gabe, egokia den egoeraren berri eman duen gurasoa dagozkion instantzia judizialetara bideratzea (penala, deliturik egon daitekeela jakinarazi badu, edo zibila), instantzia horietan eska ditzan haurra edo nerabea babesteko neurriak (larrialdiko egoeretan, egoeraren berri eman duen gurasoari esan dakioke kautela-neurriak eska ditzakeela)[15].

  Banandutako edo dibortziatutako bikoteen kasuetan, bi bizikidetza-nukleoetan babesgabetasun-aztarnak daudela susmatzen edo detektatzen bada, haurrak edo nerabeak **bizikidetza-nukleo bakoitzean**[16] zer tratu eta zaintza jasotzen dituen baloratuko dute UGZek edo LGZek, egokitzen denaren arabera. Hala ere, **haur edo nerabearen babesgabetasun-egoeraren eta haren larritasun-mailaren azken balorazioa bakarra izango da**. Horrek ez du kentzen, lehen aipatu bezala, bizikidetza-nukleo bakoitzean babesgabetasuna sor dezaketen portaerak bereizi behar izatea (hau da, haurrak edo nerabeak nukleo bakoitzean jasotzen dituen tratua eta zaintzak), azterketa horretatik sortuko baita kasuarekin esku hartzeko proposamena. Egokia bada, proposatu ahalko da, adibidez, gurasoetako bat dagozkion instantzia judizialetara bideratzea, aurreko paragrafoan adierazitako helburuetarako.

  Aurreko paragrafoetan deskribatutako inguruabarrak gertatzen direnean, kasua udal-mailako gizarte-zerbitzuen esku badago, zerbitzu horiek eskatuko diote dagokion gurasoari instantzia judizialetara jotzeko, uste badute esku-hartze horrekin eta epaitegiak hartuko dituen neurriekin egoera azkar konpon daitekeela eta babesgabetasun-egoeraren larritasuna desagerraraztea edo murriztea lortuko dela. Hori lortzen bada, kasua ez da LGZetara deribatuko, eta UGZen esku jarraituko du, arrisku arineko edo ertaineko egoera bada edo babesgabetasunarekiko zaurgarritasuneko egoera bada. Aldiz, larritasun-maila handiko edo oso handiko egoera zuzentzen ez bada, kasua LGZetara deribatuko da. Epaitegiak jardute-ezagatik erantzuten ez badu (hau da, epaitegiaren inolako irizpenik ez badago) kasuaren inguruabarren arabera erabakiko den denbora-epe jakin baten ondoren, haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko gizarte-zerbitzuek egin beharreko esku-hartzeari ekingo diote, ohiko prozeduraren bidez (UGZek egingo dute, arrisku arineko edo ertaineko kasua bada, eta LGZek, berriz, arrisku larrikoa bada edo babesgabezia-egoera izan badaiteke edo zaintza-neurria behar bada).

[14]Egitezko banantzeak eta banantze judizialak sartzen dira hemen. Banantzeetan nahiz dibortzioetan, garrantzitsua da jakitea guraso-ahalak, zaintzak eta jagoletzak zer lege-erregimen duten balorazioaren unean.

[15]Azken kasu horretan, instantzia judizialek baloratuko dituzte haur edo nerabearen egoera eta hark gurasoengandik jasotzen dituen tratua eta zaintzak. Horretarako, UGZen edo LGZen lankidetza eska dezakete, egokia dela uste badute. Halaber, egokitzat jotzen dituzten neurriak hartu ondoren, instantzia judizialek eskatu ahal izango dute gizarte-zerbitzuek gero esku hartzea, familiarentzako laguntza- edo errehabilitazio-zerbitzuak emateko edo kasuaren jarraipena egiteko.

[16]Balorazio hori zenbait profesionalek edo udalerri desberdinetako profesionalek egiten badute, koordinatuta egin beharko dute.

Bizikidetza-nukleoak udalerri desberdinetan baldin badaude eta balorazioa UGZei badagokie, haurra edo nerabea zer udalerritan erroldatuta dagoen, hortxe burutuko da, oro har. Dena dela, bi udalerrietako UGZek lankidetzan eta koordinatuta egingo dute lan, informazioa biltzeko prozesuetan nahiz geroko esku-hartzean.

- **Nola jokatu haurraren zaintza ez duen gurasoak haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko zerbitzuen balorazioaren eta esku-hartzearen aurka egiten duenean**

2.6.5. Balio edo ohitura bereziekin lotutako praktikak

Dokumentu honetako aurreko ataletan adierazi den moduan, tresna honek oinarritzat hartzen du zenbait eskubide eta oinarrizko premia batzuk daudela adingabe guztiek bermatuta eta aseta izan behar dituztenak haien garapen integrala sustatze aldera, edozein izanik ere adingabe horien talde soziokulturala edo adingabeon gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek talde horretan egoteagatik hartu dituzten balioak eta ohiturak. Egia bada ere haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko gizarte-zerbitzuek kultura bakoitzaren balioak edo ohiturak kontuan hartu eta guztiz errespetatu behar dituztela, era berean bermatu behar dute haur eta nerabe guztien eskubideak eta oinarrizko premiak asetzen direla. Hala izan ezean, zigor-arloko sistema judizialak —gertaerak delituzkoak direnean— eta haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko gizarte-zerbitzuek legez hartu behar dute esku, egoera zuzentzeko.

Praktika jakin batzuek —talde soziokultural, **etniko edo erlijioso jakin batzuetako praktika berezi batzuek edo talde horietan ohikoagoak diren praktika batzuek—, zalantzarik gabe, haur edo nerabeen funtsezko eskubideak urratzen dituzte; hala, egoera horiek larritasun ertaineko, handiko edo oso handiko babesgabetasun-egoera gisa jasota daude tresnan**. Praktika horien adibide batzuk dira honako hauek: emakumezkoen genitalak mutilatzea edo hori egiteko asmoa adieraztea —biak Zigor Kodean jasota daude—, haurrak edo nerabeak eskean aritzeko erabiltzea, lanean esplotatzea edo 16 urte bete aurretik eskola utzaraztea bestelako zeregin batzuetan aritzeko —hori ere Zigor Kodean jasota dago—. Alabaina, **beste egoera batzuek banakako balorazioa eskatzen dute**. Balorazio horretarako, honako hauek hartu behar dira kontuan:

1. haurrak edo nerabeak zer neurritan jasotzen duen tratu egokia, haren eskubideak zenbateraino errespetatzen diren eta oinarrizko eskubideak zenbateraino asebetetzen, tresna honetan jasotako babesgabetasun-egoerarik egon gabe,
2. gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak egiten ari direnaren ondorioz haurrak edo nerabeak beste batzuek ezarritako indarkeriaren xede izateko arriskua egotea,
3. haur edo nerabearen heldutasun-maila eta egoeraren onarpena, eta
4. haurrak edo nerabeak kalte- edo ondoez-sintomak edukitzea.

Arlo horietako batean edo gehiagotan zailtasunak identifikatzen direnean, egokia izango da haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko zerbitzuek esku hartzea.

2.6.6. Legez emantzipatu gabe bizimodu independentea duten nerabeak

16 urte edo gehiago dituen nerabe bat legez emantzipatuta egon ez arren guraso, tutore edo zaintzaileekin ez bizitzeak (bakarrik, heldu batekin edo beste nerabe batzuekin bizi daiteke, adibidez), berez, ez dakar babesgabetasun-egoeran egotea. Halakoetan, aurreko atalean adierazitako irizpideak aplikatuko dira.

ZIRRIBORRA

Tresna aplikatu osteko ondorioak

1. TRESNAREN ONDORIOAK

1.1. LEHENENGO URRATSA – BABESGABETASUNIK DAGOEN ETA HAREN LARRITASUNA ZEIN DEN ZEHAZTEA

Balora tresnak babesgabetasun moten zerrenda bat jasotzen du, haurrari edo nerabeari kalte egin diezaioketen askotariko guraso-portaerak biltzeko (ekitez edo omisioz sortutakoak, fisikoak, psikologikoak zein sexualak). Babesgabetasun mota bakoitzerako, honako hauek deskribatzen ditu tresnak:

1. **Haurrari edo nerabeari kalte erreal edo potentzial handia dakarkioten egoerak**: larritasun ertain, handi edo oso handiko babesgabetasuna eragiten dute (nahiz eta, batzuetan, larritasun mailaren bat jaso ez), eta (a) babesgabetasun ertaina kalte esanguratsura eta (b) babesgabetasun handia edo oso handia kalte larrira lotuta daude.
2. Haurrari edo nerabeari kalte esanguratsu edo larririk ez dakarkioten egoerak: **guraso-portaera ez da egokiena izaten**, eta, hortaz, guraso-rolak gabeziak izaten ditu.
3. **Guraso-portaera egokia** den egoerak: inpaktu positiboa eragiten dute haur edo nerabearen ongizatean eta garapenean.

Babesgabetasun moten deskribapena eta mota bakoitzaren larritasun-adierazleak edo -deskriptoreak

Tipologien zerrenda zehatza da, baina baliteke jaso ez diren egoerak ere egotea; horrelakoetan, ondo deskribatu beharko dira, eta haien larritasuna baloratu, bat etorrita (1) tresnaren eraikuntzaren oinarrian dauden elementu eta irizpide orokorrekin eta (2) aztergai den egoerara gehien hurbiltzen den tipologian edo eskalan erabilitako irizpide zehatzekin.

Lehen adierazi moduan, babesgabetasunaren larritasuna zehazten da, oro har, (a) guraso, tutore edo zaintzaileen portaeraren ezaugarrien arabera (mota, intentsitatea, maiztasuna) eta, batez ere, (b) portaera horrek haur edo nerabearen ongizate eta garapenean daukan edo eduki dezakeen inpaktuaren arabera. Hori dela-eta,

gehien-gehienetan, **babesgabetasun moten larritasun-mailen deskriptoreek eskatzen dute bi osagaiei buruzko informazioa biltzea (hau da, guraso-portaerari buruzkoa eta haur edo nerabearen kalte erreal edo potentzialari buruzkoa) eta bi osagaien arteko harremana zenbatestea**. Kasu jakin batzuetan, larritasun-mailek esplizituki aipatzen dute **haur edo nerabearen desgaitasunen edo premia berezien presentzia** edo haren **adin kronologikoa**; azken kasu horretan, **tarteak** ezartzen dira, eboluzio-etapen bereizketa generiko honen arabera: (1) sei urtetik behera, (2) sei urtetik hamabi urtera bitartean eta (3) hamahiru urte edo hortik gora (nerabea). Larritasun-maila kalifikatzeko, tarte horiek errespetatu behar dira.

Beste batzuetan, ordea, **tresnak ez du bigarren osagaiari buruzko informaziorik eskatzen**, hau da, guraso-portaerak haur edo nerabearengan daukan inpaktuari buruzkoa (adibidez, sexu-indarkeriako egoera askotan, trauma eragiteko ahal handia daukaten beste egoera batzuetan, sei urtetik beherako haurrekiko zabarkeria-maila handia dagoenean); horrelakoetan, **ez da esplizituki justifikatu behar aztergai den haur edo nerabe zehatzaren kalte erreal edo potentziala, ezta kalte horrek guraso-portaerarekin daukan lotura ere, larritasuna kalifikatzeko**. Izan ere, eskuragarri dagoen ebidentzia enpiriko eta klinikoak argi eta garbi adierazten du egoera batzuetan kalte hori gertatzen ari dela, eta, beraz, kasu zehatz horretan, ez da kalte hori justifikatu behar.

Tresnak **larritasun-maila bakoitzaren adierazleak edo deskriptoreak ematen ditu tipologia bakoitzean**. Ezinezkoa denez gerta daitezkeen inguruabar guztien kasuistika islatzea, **larritasun-maila batean ere deskribatzen ez diren egoerak edo adierazleak mailarik antzekoenean sailkatu beharko dira.**

Tresnan berariaz jasota ez dauden kasuistikak baloratzea

Larritasun-maila bakoitzean bildutako adierazleak edo deskriptoreak paragrafo batean jasotzen dira. Paragrafo hori **hainbat esaldik osatzen dute, eta esaldi multzoak egoera edo familia-harreman jakin bat deskribatzen du**.

Larritasun-maila bat kalifikatzeko, **ez da beharrezkoa izango paragrafo horietan jasotako esaldi guzti-guztietan adierazitakoa hitzez hitz gertatzea**; nahikoa izango da esaldi horietan adierazitako funtsezko zati bat gertatzea eta paragrafoan deskribatutako egoera motak ebaluatutako kasuan gertatzen dena islatzea, horrekin bat etortzea edo horren antzekoa izatea. Eskala batzuetan, tresnak "**ETA**" hitzaren bitartez (letra larriz eta azpimarratuta) seinalatzen du zein egoeratan eskatzen den adierazle batzuk batera gertatzea larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko.

Larritasun-mailen adierazleak edo deskriptoreak interpretatzea

Jokabide edo egoera bat hainbat tipologia edo eskalatan sar daitekeenean, **bakar batean kalifikatuko da**; hain zuzen ere, **larritasun-maila handiagoa daukan edo aztergai den kasuan gertatzen ari diren oinarrizko alderdiak ondoen islatzen dituen** horretan. Eskala desberdinek larritasun-maila berbera azaltzen badute, **adierazle garrantzitsuenak** biltzen dituen eskalan kalifikatuko da.

Guraso-portaera edo egoera berbera ez da hainbat eskalatan kalifikatu behar

Bestalde, **oso garrantzitsua** da kontuan hartzea **larritasun-maila bakoitza continuum bat dela eta egoera desberdinak hartzen dituela, zeinak gehiago edo gutxiago hurbiltzen baitira mailaren mutur batera edo bestera**. Horrek esan nahi du, adibidez, larritasun-maila ertainean sartzen diren kasu batzuk gertuago daudela "gabezietatik", eta beste batzuk, berriz, gertuago daudela "arrisku handitik". Gauza bera gertatzen da gainerako mailetan.

Larritasun-maila bakoitza continuum bat da, eta askotariko egoera desberdinak hartzen ditu, zeinak gehiago edo gutxiago hurbiltzen baitira mailaren mutur batera edo bestera

GZEek, balorazio-prozesu batean, babesgabetasun handia edo oso handia adierazten duten adierazleak detektatzen badituzte eta esku hartzen ari den profesionalaren edo taldearen iritziz azkar zuzendu ahal badira, jarduketa zehatz bat abiatuta, hori egingo dute. UGZek ez dute balorazioa bukatutzat joko, harik eta egiaztatu arte egoera leheneratu ahal izan den eta, horrela, egoera ondo baloratu ahal izan arte.

Tresnak "**Babesgabeziarekiko zaurgarritasun larri**" gisa kalifikatutako egoera berezietan (ikusi eskala), zeinak babesgabetasun tipologietatik aparte aurkezten baitira, larritasuna ez da kalifikatzen, guztiak direlako kalte larriaren mehatxua haur edo nerabearentzat. Geroago, beste informazio batean oinarrituta erabakiko da arrisku larria eragiten duten edo babes-neurririk behar duten.

"Babesgabeziarekiko zaurgarritasun larriko" egoerek ez dute larritasun-maila kalifikatzea eskatzen

Babesgabetasunaren larritasun-maila kalifikatzeko faseak:

Informazioa bildu ostean, bi fasetan zehaztuko da guraso-portaera egokia den ala ez eta, hortaz, babesgabetasunik dagoen eta haren larritasuna zein den:

1º. **Tipologia bakoitzaren** balorazioa eta kalifikazioa: Ez dago / zaintza egokia, Gabeziak, Babesgabetasun ertaina, Babesgabetasun handia, Babesgabetasun oso handia.

2º. Guraso-portaeraren egokitasunaren balorazioa eta kalifikazio **orokorra**, eta, hala badagokio, babesgabetasunaren larritasun-mailarena: Zaintza egokia, Gabeziak, Babesgabetasun ertaina, Babesgabetasun handia, Babesgabetasun oso handia. Hori bi parametroren arabera egingo da:

1. **Edozein tipologiatan identifikatutako larritasun-maila gorena**. Ondo argudiatutako salbuespenetan izan ezik, hainbat tipologiatan larritasun-maila berbera egoteak ez du larritasun-maila orokorra areagotuko.

2. **Salbuespen gisa,** kasu zehatzean dauden **zaurgarritasun-** eta **babes-faktoreek edo beste inguruabar berezi batzuek**, oro har hartuta, aurreko parametroaren ondoriozko balorazioa aldatzea aholka dezakete. Zaurgarritasun- eta babes-faktoreak kontuan hartu behar izan direnez kalte potentziala baloratzean —eta, beraz, kasuan dauden tipologien larritasun-maila zehaztean—, doikuntza edo aldaketa hori ezohikoa izango da, profesionalaren judizioak hala egitea gomendatzen duenean, eta behar bezala arrazoitu beharko da dagokion txostenean. Zaurgarritasun- edo babes-faktore bat kontuan hartu bada dagoeneko tipologia bakoitzaren banakako balorazioa egiteko, ezingo da berriro ere baldintza beretan eta argudio berarekin kontuan hartu babesgabetasunaren balorazio orokorrerako.

1º. Tipologia bakoitzaren balorazioa
2º. Balorazio orokorra, edozein tipologiatan identifikatutako larritasun-maila gorenaren araberakoa. Salbuespenez, hori doitu ahalko da, ondo arrazoituta.

1.2. BIGARREN URRATSA – BESTE INFORMAZIO GARRANTZITSUREN BAT BILTZEA

Babesgabetasunaren larritasuna oso aldagai garrantzitsua da, zehazteko ea egoerak arriskua —eta zer arrisku-maila— edo babesgabezia dakarren, baina ez da beti bakarra izaten. Hala, **(1) larritik hurbil dagoen babesgabetasun ertaineko, (2) babesgabetasun handiko eta (3) babesgabetasun oso handiko egoeretan, arrisku-maila edo babesgabezia kalifikatu aurretik, informazio hau bildu beharko da**:

Babesgabetasunaren larritasuna oso aldagai garrantzitsua da, zehazteko ea egoerak arriskua —eta zer arrisku-maila— edo babesgabezia dakarren, baina ez da beti bakarra izaten.

Hala, (1) larritik hurbil dagoen babesgabetasun ertaineko, (2) babesgabetasun handiko eta (3) babesgabetasun oso handiko egoeretan, arrisku-maila edo babesgabezia kalifikatu aurretik, informazio jakin bat bildu beharko da.

Arrisku-maila edo babesgabezia kalifikatu aurretik bildu behar den beste informazio garrantzitsu bat
Larritik hurbil dagoen babesgabetasun ertaineko, babesgabetasun handiko eta babesgabetasun oso handiko egoerak
o Haur edo nerabearen ingurunean elementurik dagoen, pentsarazten duena babesgabetasuna larritasun-maila berarekin edo handiagorekin errepikatuko dela berehala edo epe laburrean, arrisku argia ekarriz haur edo nerabearen oinarrizko osasunerako edo segurtasunerako, edo kalte larria eraginez adingabeari, edo kalte larria pairatzeko arriskuan jarriz.
o Haur edo nerabearen ingurunean babes-elementurik dagoen, arrisku hori berez arindu ahal duena.
o Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek UGZen balorazio-prozesuan edo esku-hartzean erakusten duten lankidetza-maila. Arriskua deklaratu bada, horren ondorioz lankidetza aktibo nahikoa lortu den.
o Haurrak edo nerabeak ezaugarririk daukan, zaurgarritasun bereziko egoeran kokatzen duena (adibidez, adin txikia, desgaitasuna edo premia bereziak, bere buruari ezarritako arrisku handiko jokabideak edo jokabide autolesiboak).
o Babesgabetasuna agertzea edo mantentzea eragiten duten familia-inguruabarrak epe labur edo ertainean aldatzeari buruzko iragarpen justifikatua.
o Aurreikuspenen arabera haurrak edo nerabeak izango duen bilakaera, oraingo baldintzetan familia-ingurunean jarraituz gero.
Babesgabetasun handiko eta oso handiko egoeretan, babesgabezia egon daitekeela baloratzen bada, baita hauek ere:
○ Haurra edo nerabea familiarengandik banantzeko neurria ezartzearen onurak eta arriskuak / ondorio negatibo posibleak.
o Nerabeen kasuan, neurri horrekiko jarrera eta onarpena.

1.3. HIRUGARREN URRATSA – ARRISKU-MAILA EDO BABESGABEZIA ZEHAZTEA

Aurreko urratsak burututakoan, egoerak arriskua —arina, ertaina edo larria— edo babesgabezia dakarren zehaztuko da. Horretarako, irizpide hauei jarraituko zaie:

1. **Arrisku arina** – "Arrisku arina" dagoela ondorioztatuko da, babesgabetasunaren larritasun-maila orokorra "Gabeziak" gisa kalifikatu bada.

2. **Arrisku ertaina** – "Arrisku ertaina" dagoela ondorioztatuko da, babesgabetasunaren larritasun-maila orokorra "Babesgabetasun ertaina" gisa kalifikatu bada.

   Kasu hauek **salbuesten dira**: (1) babesgabetasun-adierazleak larritasun ertainaren eta handiaren arteko mugan daude, **eta** (2) gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez dute lankidetza aktibo nahikorik erakusten UGZen balorazio-prozesuan edo esku-hartzean, eta arriskua deklaratu izanak, halakorik egonez gero, ez du lankidetza areagotzea lortu, **eta** (3) UGZetako eta LGZetako talde teknikoak ados jarri dira kasua **Arrisku larri** gisa kalifikatu ahal izateko.


3. **Arrisku larria** – "Arrisku larria" dagoela ondorioztatuko da, babesgabetasunaren larritasun-maila orokorra "Babesgabetasun handia" edo "Babesgabetasun oso handia" gisa kalifikatu bada eta haurra edo nerabea familiarengandik banandu behar ez bada, legezko babes-neurri gisa, haren oinarrizko osasuna eta osotasuna babesteko.

4. **Babesgabezia** – "Babesgabezia" dagoela ondorioztatuko da, babesgabetasunaren larritasun-maila orokorra "Babesgabetasun handia" edo "Babesgabetasun oso handia" gisa kalifikatu bada eta haurra edo nerabea familiarengandik banandu behar bada, legezko babes-neurri gisa, haren oinarrizko osasuna eta osotasuna babesteko.

LGZei dagokie erabakitzea, ez UGZei, larritasun handi edo oso handiko babesgabetasun-egoeran dagoen haur edo nerabe bat arrisku larrian edo babesgabezian dagoen edo, salbuespenez, borondatezko zaintzarako neurria eska daitekeen. Hortaz, **UGZek ez dute zertan horri buruzko proposamenik egin**, esplizituki jaso nahi dutenean salbu; horrelakoetan, **irizpide orokor modura, kasua "Arrisku larri" gisa kalifikatu ahalko dute**, eta haien orientazioa edo garrantzitsutzat jotzen dituzten elementuak jaso, LGZetara bidaliko duten txosten teknikoan edo laburpen-orriko atal egokian, LGZek erabaki hori har dezaten.

Lurraldeko gizarte-zerbitzuei dagokie zehaztea larritasun handiko edo oso handiko babesgabetasun-kasu batek arrisku larria edo babesgabezia dakarren edo beste babes-neurriren bat behar duen

1.4. LABURPEN-TAULA: BABESGABETASUNAREN LARRITASUNA BALORATZETIK ARRISKU-MAILA EDO BABESGABEZIA BALORATZERA



2. TXOSTENA EGITEA ETA LABURPEN-ORRIA BETETZEA

Balorazio-prozesua egin eta tresna aplikatu ondoren, **dagokion txosten teknikoa idatziko da**, eta kasuaren espedientean edo historian txertatuko da. Tresna haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko gizarte-zerbitzuen esku-hartzearen une desberdinetan aplika daitekeenez (ikerketa, hasierako ebaluazioa, esku hartzeko planaren exekuzioa, UGZen eta LGZen arteko deribazioa), unearen arabera idazten den txosten-ereduan txertatuko da eskuratutako informazioa, betiere helmuga kontuan hartuta (esaterako, espediente/historia propioa, epaitegia, Fiskaltza, beste zerbitzu baterako deribazioa...). Nolanahi ere, txostenak —ez da kasuaren plana— barruan bildu beharko ditu tresna aplikatzetik ateratako ondorioak eta profesionalaren iritzia.

Esku-hartzearen uneari dagokion txosten teknikoan jasoko dira bildutako informazioa eta ondorioak

Tresna aplikatu osteko ondorioak

1. Babesgabetasunik dagoen eta haren larritasuna baloratzea
   - Haurrari edo nerabeari arreta egokia ematen dioten arloak
   - Arreta egokia ez den arloak: babesgabetasun motak eta larritasuna
2. Beste informazio garrantzitsuren bat
   - Haur edo nerabearen bizitzari, osotasunari, osasunari edo segurtasunari berehalako arrisku larria ekar diezaioketen inguruabarrak
   - Guraso, tutore edo zaintzaileen lankidetza-maila eta, hala badagokio, arazoaren gaineko kontzientzia eta aldatzeko motibazioa
   - Zaurgarritasun-faktoreak
   - Babes-faktoreak
   - Babesgabetasuna agertzea edo mantentzea eragiten duten familia-inguruabarrak epe labur edo ertainean aldatzeari buruzko iragarpen justifikatua.
   - Aurreikuspenen arabera haurrak edo nerabeak izango duen bilakaera, oraingo baldintzetan familia-ingurunean jarraituz gero.
   - Babesgabezia egon daitekeela baloratuz gero:
     - Haurra edo nerabea familiarengandik banantzeko neurria ezartzearen onurak eta arriskuak / ondorio negatibo posibleak.
     - Nerabeen kasuan, neurri horrekiko jarrera eta onarpena.
   - Interesgarria izan daitekeen beste edozein informazio
3. Arrisku-mailaren edo babesgabeziaren balorazio orokorra eta orientazio teknikoa

ZIRRIBORRA

Tresna osorik aplikatu behar den kasu guztietan idatziko da txostena, **ondorioak gorabehera** (arriskua edo babesgabezia egiaztatu zein ez), eta **haur edo nerabe bakoitzari buruzko banakako laburpen-orria erantsi** beharko zaio.

Laburpen-orri bat haur edo nerabe bakoitzarentzat

Lehen adierazi bezala, txostenean aztertu egin behar da gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek zenbateraino artatzen eta asebetetzen dituzten haur edo nerabearen oinarrizko premia fisiko, emozional, kognitibo, sozial eta afektibo-sexualak. **Babesgabetasun ertain, handi edo oso handiko egoerak identifikatzen direnean, txostenaren deskribapen-atalean xehetasunez azalduko dira egoera horiek.** Tipologia batzuk ez badira aztertu, tipologia jakin bat ager zitekeenik pentsarazteko moduko adierazle edo daturik ez zegoelako, ez da beharrezkoa izango horri buruzko aipamenik egitea (hots, ez da beharrezkoa izango "ez dago sexu-indarkeriarik", "ez dago eskekotasunik", "ez dago …" eta abar aipatzea), baina tresnaren laburpen-orrian adierazi beharko da, "Ez dago" edo "Ez dago zantzurik" laukian.

Txostenak argiak eta zehatzak izango dira. Testua idaztean, pertsonenganako errespetua lehenetsiko da; bildutako informazioak mugak izan ditzakeela onartuko da (adibidez, informazioaren baliozkotasuna berori jaso den unera mugatzen da), eta ez da etiketa gutxiesle eta diskriminatzailerik erabiliko, ezta beste testuinguru batzuetan desegoki erabil daitezkeen terminologia edo adierazpideak ere. Halaber, ziurtatu egin beharko da bildutako informazioa zeharkako **genero-ikuspegiarekin** baloratzen dela, alborapenik, estereotiporik eta praktika diskriminatzailerik gabe garatzea bermatuz eta aztertutako egoerak testuinguruaren arabera interpretatzea sustatuz, aitortuta egiturazko desberdinkeria sozial eta kulturalek ez dietela berdin eragiten emakumeei eta gizonei, neskatoei eta mutikoei.

Hizkera eta genero-ikuspegia

ZIRRIBORRA

Kasuak udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuen artean deribatzea, tresna aplikatu osteko ondorioen arabera

1. DERIBATZEKO UNEAK

Kasuak **esku hartzeko prozesuaren zenbait unetan** deribatu daitezke udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuen artean:

- *Kasua jaso ondoren*, lehenengo informazioek larritasun- eta presa-mailari buruzko behar adina datu ematen dituztenean eta esku-hartzea beste zerbitzu bati dagokiola balioestera bultzatzen dutenean.
- *Ikerketaren ondoren*, kasuaren larritasun-maila egiaztatzen denean.
- *Ebaluazioan edo ebaluazioaren ondoren*, lortutako datu berrien ondorioz haurren edo nerabeen egoeraren larritasun-maila birkalifikatu behar bada.
- *Esku hartzeko prozesuan zehar*, kasuaren larritasunean aldaketak gertatzen direnean (larritasun-maila igo edo jaitsi delako) edo haurren edo nerabeen egoerari buruzko datu berriak lortzen direnean eta haien ondorioz larritasun-maila birkalifikatu behar denean.

Adierazitako inguruabar horietan guztietan eta, bereziki, azken puntuan adierazitakoetan, kontuan hartu behar da deribazioa ez dela berehala egiten den administrazio-egintza hutsa**, baizik eta prozesu oso bat. Prozesu horren hasierako fasea oso garrantzitsua da, koordinazioa eta baterako analisia egiten direlako, UGZak eta LGZak ados jartzen direlako eta familiak prestatzen direlako. Fase horrek arina izan behar du, baina kontu handiz planifikatu eta gauzatu behar da.** Era horretan soilik bermatu ahalko da esku-hartzeak jarraitzea, deribazioa arrakastatsua izatea eta jarduketa efikaz bat lortzea.

Garrantzitsua da zerbitzuen arteko deribazioa eta trantsizioa ondo planifikatzea

Lurralde historiko bakoitzean, udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuek bete beharreko prozedura tekniko bat ezarriko da, **familia berean haur batzuk arrisku arineko edo ertaineko egoeran eta beste batzuk arrisku larriko edo babesgabeziako egoeran daudenerako**. Prozedura tekniko horrek esku-hartze koherentea, koordinatua eta integrala bermatu beharko du. Lurraldeko gizarte-zerbitzuek koordinatuko dituzte familiaren etxean garatuko diren esku-hartze psiko-soziohezitzaileak, eta, kasurako komenigarriagoa izateagatik, udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuek bestelakorik erabakitzen dutenean izan ezik, familiari eusteko edo familia berrelkartzeko behar diren baliabide espezifikoak eman eta koordinatuko dituzte.

Zer zerbitzuk koordinatuko duen kasua, familia bereko HNek arrisku-maila edo babesgabezia desberdinak badauzkate

Gomendio gisara, oro har:

- Familia bateko haur edo nerabe bat edo batzuk arrisku larriko edo babesgabeziako egoeran badaude, LGZen esku-hartzearen xedea familia babestea edo berrelkartzea bada eta jatorrizko bizikidetza-unitateko beste haur edo nerabe batzuk arrisku arin edo ertainean badaude, ondo justifikatutako salbuespenetan izan ezik, LGZek koordinatuko dute familiako haur edo nerabe guztiekiko esku-hartzea.

- LGZek jatorrizko familiara itzultzeko aurreikuspenik gabeko behin betiko banantze-neurria ezartzen dutenean familia bateko haur edo nerabe batekin edo gehiagorekin eta arrisku arineko edo ertaineko egoeran dauden beste anai-arreba batzuk daudenean, azken horiekin egingo den esku-hartzea —beharrezkoa bada— UGZek koordinatuko dute, eta behin betiko banantze-neurria duten anai-arreben gaineko esku-hartzea, aldiz, LGZek koordinatuko dute. Bi zerbitzuek eutsi beharko diote kasuan beharrezkoa den koordinazio-mailari.

2. UDALEKO GIZARTE-ZERBITZUETATIK LURRALDEKOETARA DERIBATZEA

Aurreko ataletan adierazi dugun moduan, kasu gehienetan UGZei dagokie babesgabetasunik dagoen eta haren larritasun-maila baloratzea, eta haiek egin beharko dute; halere, arrisku larria edo babesgabezia dagoela ondorioztatzen badute, LGZetara deribatuko dute kasua.

Oro har, **presazkoak ez diren egoeretan**, udaleko gizarte-zerbitzuek lurraldekoetara deribatuko dute kasua, babesgabetasunik dagoen eta haren larritasun-maila baloratzeko prozesuaren ondoren edo udalak esku hartu bitartean baloratzen badute arriskua edo babesgabezia dagoela. Honako hau izango da jarraitu beharreko prozesua:

- Deribazioa txosten tekniko baten bitartez egingo da beti, non xehetasunez azalduko baitira kasuari buruz jasotako informazio zehatza eta ondorioak. Txostenarekin batera, tresnaren laburpen-orria aurkeztuko da.
- UGZak informazio-bilketa osoa egiten eta eskura duten informazio guztia ematen saiatuko dira; dena dela, horrek ez du beti esan nahi Balora tresnaren eskala guztiei buruzko informazioa lortu ahal izan denik. Halere, arrisku larriaren edo babesgabeziaren zantzu argiak egiaztatzen badira, LGZetarako deribazioa ez da gehiegi atzeratu beharko, txosten berriak edo informazio gehigarria eskuratu zain. Horrelakoetan, deribazioa egin ahalko da, eta txosten edo informazio horiek beranduago bidali. Deribazioan, UGZek kasuari buruz daukaten informazio guztia emango dute. LGZek jasotako txostenak aztertu ondoren eta, hala erabakiz gero, haien gain hartzen badute esku-hartzea koordinatzeko lana, egokitzen diren jarduketekin jarraituko dute, bildutako informazioa osatzeko edo egokitzat jotzen dituzten bestelako ekintzak egiteko aukerarekin.

Presazkoak ez diren arrisku larriko edo babesgabeziako egoerak deribatzeko prozedura eta LGZen erantzuna

- Beharrezkoa denean edo edozein erakundek proposatzen duenean, bilera bat egingo da txostena igorri aurretik edo ondoren; bilera horretan, txostenean jasotzen diren informazioa eta balorazioa azaldu eta zabalduko dira, eta kasua elkarrekin aztertuko da.
- LGZek hilabeteko gehieneko epean erabakiko dute kasuaren esku-hartzea onartzen duten ala ez, eta UGZei erabakiaren berri emango diete, idatziz. Kasua haien eskumenekoa ez dela uste badute, erabakia argudiatuko dute —erabakia ez da inoiz oinarrituko baliabide nahikorik ez edukitzean—, eta bilera bat egitea eskaini ahalko dute argudio horiek azaltzeko, desadostasunen ebazpenerako edozein jarduketa abiatu aurretik, halakorik beharko balitz.
- LGZek ondorioztatzen badute kasua haien eskumenekoa dela, beste hilabete edukiko dute familiarekin lehenengo elkarrizketa egiteko eta esku-hartze formala hasteko. Denbora horretan, LGZek izango dute kasuaren gaineko erantzukizun nagusia; UGZek, berriz, familiari jarraipena egiteko, laguntzeko edo eusteko eta esku-hartzearekin jarraitzeko behar diren baliabideak mantenduko dituzte.

Arrisku ertaina soilik egiaztatu ahal izan bada baina larritasun handiagoa dagoelako susmoak badaude, salbuespenak kenduta, UGZek jarraituko dute kasuari arreta ematen eta jarraipena

Arrisku ertaina soilik egiaztatu ahal izan bada, baina larritasun-maila handiagoko babesgabetasuna dagoelako susmoak baldin badaude, kasua udaleko gizarte-zerbitzuen ardurapean geratuko da, susmo horiek egiaztatzen diren arte. Salbuetsita daude **familia barruko sexu-indarkeriaren susmoak; izan ere, kasu horietan, lurralde historiko bakoitzean ezarritako prozeduren arabera jardungo da.** Era berean, modu berezian jokatuko da arrisku larriaren susmo sendoak egon arren egoera hori baliozkotzeko zailtasunak daudenean ETA egoera larriagotu daitekeelako susmoak daudenean, baliozkotze-prozesuan aurrera egin ezin bada. Horrelakoetan, kasua beste zerbitzu batera deribatzen duen zerbitzuak egoera berezi hori justifikatuko du deribazio-txostenean. Ondoren, kasua deribatzen duen zerbitzuak eta kasua hartzen duenak balorazioa eta esku-hartzea egiten jarraitzeko estrategia adostuko dute.

Arrisku-deklarazioa etetea

UGZetan arrisku-deklarazioa jaso duen kasu bat LGZetara deribatzen bada, kasua LGZek beren gain hartzen dutenean, **UGZek neurria etengo dute, eta LGZek baloratuko dute ea beste arrisku-deklarazio bat egitea komeni den ala ez**.

Presazko egoerak deribatzeko prozedura eta LGZen erantzuna

Hala ere, **UGZen balorazio-prozesuan edo esku-hartzean** identifikatzen bada **presazko babes-neurri bat behar dela**, kasua berehala deribatuko zaie LGZei, jaso den informazioarekin. Horretarako, LGZetara telefonoz deituko da informazio horren berri emateko, nahiz eta kasuaren balorazioa bukatu ez. Aldi berean, jakinarazpena egingo dute, presazko txostenaren bidez, kasuari buruzko informazio garrantzitsuena jasota. Une horretan bidaltzen den txostena gero osatu ahalko da, txosten xeheagoekin edo beste iturri batzuen txostenekin (adibidez, medikuaren, eskolaren edo poliziaren txostenekin).

LGZek berehala onartuko dituzte UGZek presaz egindako deribazio guztiak, eta haien talde teknikoek joan beharko dute, beharrezkoa bada, haurra edo nerabea eta familia dauden tokira. Hala ere, LGZek kasua beren gain hartu arte, UGZak prest egongo dira haur edo nerabearen segurtasuna bermatzeko behar diren jarduketak burutzeko. Beharrezkoa bada, LGZek bildu beharko dute informazio gehigarria, eta, hala egokituz gero, haiek hartuko dituzte Haur eta Nerabeen Legearen 195. eta 207. artikuluetan ezarritakoaren arabera behar diren babes-neurriak. UGZek kasuan-kasuan egokitzen den laguntza emango diete LGZei. Bi zerbitzuek erabakiko dute, gero, zer estrategia garatu esku-hartzearekin jarraitzeko eta balorazio-prozesua osatzeko, eta prozesua LGZen esku geratuko da.

3. LURRALDEKO GIZARTE-ZERBITZUETATIK UDALEKOETARA DERIBATZEA

Lurraldeko gizarte-zerbitzuetan jorratutako kasu baten arriskuaren larritasun-maila maila arinera edo ertainera jaitsi dela jotzeko eta kasua udaleko gizarte-zerbitzuetara deribatzeko, honako **baldintza** hauek bete beharko dira (Haur eta Nerabeen Legearen 221.2 artikulua):

1. Lurraldeko gizarte-zerbitzuek gutxienez hamabi hilabetez hartu dute esku edo egin dute jarraipena, familiarekin modu aktiboan lanean hasi zirenetik zenbatzen hasita.

   Ulertzen da puntu honetan eta hurrengoan esku-hartzerako edo jarraipenerako adierazitako epeak beti bete behar direla, baldin eta familia-egituran funtsezko aldaketarik ez badago. Aldaketa horiek gertatuz gero (esaterako, haur edo nerabearen zaintza- eta jagoletza-erregimena aldatzea eta hura guraso babesle batekin bizitzera joatea), babesgabetasun-egoeraren eta haren larritasun-mailaren beste balorazio bat egin beharko da. Balorazio horretan ateratako ondorioen arabera (arrisku larriko edo babesgabeziako kalifikazioari eustea, arrisku arineko edo ertaineko kalifikaziora jaistea, babesgabetasun-egoerako kalifikazioa kentzea), LGZek beren esku-hartzea egiten jarraitu beharko dute, edo hura amaitu, eta kasua UGZetara bideratuko dute, edo egoera-aldaketaren berri eman beharko diete, hurrengo paragrafoetan jasotakoaren arabera.

   Familia berriz elkartzearen ondorengo LGZen esku-hartzea ez da nahitaezkoa izango, berriz elkartzea behin-behineko zaintza amaitu delako gertatzen denean, kasuaren inguruabar bereziak baloratu ondoren eskumena duen foru-aldundiak ez badu beharrezkotzat jotzen tutoretza bere gain hartzea, eta, horrekin bat etorriz, desanparo-egoera deklaratu ez bada, eta ez bada egiaztatu babes-neurri bat hartzea justifikatzen duen beste edozein arrazoi (Haur eta Nerabeen Legearen 221.4 artikulua).

2. Larritasun-mailaren jaitsierak eta haur edo nerabearen arretari dagokionez familian lortu diren aldaketek sendo eta egonkor iraun dute lau hilabeteko epean gutxienez (lau hilabete horiek esku-hartzearen gutxieneko hamabi hilabeteen barruan egon daitezke).

   Kasua LGZetatik UGZetara deribatzeko baldintzak, larritasun-maila jaitsi denean

3. Aldi baterako banantze baten ondoren familia berrelkartzen den kasuetan (LGZek nahiz epaitegiek erabakita), lurraldeko gizarte-zerbitzuek gutxienez sei hilabetez egin behar izan diote jarraipena haur edo nerabearen egoerari, familiaren etxebizitzan; aldi horretan, egiaztatu egin da babesgabezia-egoera ekarri zuten inguruabarrak desagertu egin direla eta ez direla berriro agertu, arrisku larriko adierazlerik ez dagoela eta familia-ingurunean lortutako aldaketak sendo eta egonkor daudela.

Inguruabar horiek gertatzen direnean eta familiak udaleko gizarte-zerbitzuen esku-hartzea behar duela baloratzen denean, lurraldeko gizarte-zerbitzuek kasua deribatuko dute, honela:

- Deribazioa txosten tekniko baten bitartez egingo da beti, eta, bertan, honako hauek laburbilduko dira: burututako esku-hartzea, familiaren eta haur edo nerabearen oraingo egoera eta esleitutako larritasun-mailaren justifikazioa. Txostenari tresnaren laburpen-orria erantsiko zaio, baita familiak deribazioa onartzen duela jasotzen duen idatzizko konpromisoa ere.
- Beharrezkoa denean edo edozein erakundek proposatzen duenean, bilera bat egingo da txostena igorri aurretik edo ondoren; bilera horretan, txostenean jasotzen diren informazioa eta balorazioa azaldu eta zabalduko dira, eta kasua elkarrekin aztertuko da.

- LGZek lan egingo dute familiak UGZen esku-hartzea onar dezan —eta, ahal bada, konpromisoa idatziz jaso dadin—, kasua deribatu aurretik. Familiak deribazioa onartzen ez badu, LGZek eta UGZek elkarrekin aztertuko dituzte beste aukera batzuk. Kontu horiek konpondu artean, LGZek bere horretan edukiko dituzte familiari jarraipena egiteko, laguntzeko edo eusteko eta esku-hartzearekin jarraitzeko behar diren baliabideak.

Balorazioaren arabera UGZen esku-hartzeak jarraitzea behar duten egoerak deribatzea

- Kasua deribatu ondoren, UGZek hilabeteko gehieneko epean erabakiko dute kasuaren esku-hartzea onartzen duten ala ez, eta LGZei erabakiaren berri emango diete, idatziz. Kasua haien eskumenekoa ez dela uste badute, erabakia argudiatuko dute —erabakia ez da inoiz oinarrituko baliabide nahikorik ez edukitzean—, eta bilera bat egitea eskaini ahalko dute argudio horiek azaltzeko, desadostasunak ebazteko edozein jarduketa abiatu aurretik, halakorik beharko balitz.
- UGZek ondorioztatzen badute kasua haien eskumenekoa dela, beste hilabete edukiko dute familiarekin lehenengo elkarrizketa egiteko eta esku-hartze formala hasteko. Denbora horretan, UGZek izango dute kasuaren gaineko erantzukizun nagusia; LGZek, berriz, familiari jarraipena egiteko, laguntzeko edo eusteko eta esku-hartzearekin jarraitzeko behar diren baliabideak mantenduko dituzte.

Arrisku larriko edo babesgabeziako kasu batean larritasuna gutxitu egin dela irizten zaionean, eta **familiak ez dituela udal-eskumeneko laguntza-zerbitzuak behar, baina jarraipen gehigarria bai,** kasua udaleko gizarte-zerbitzuetara deribatuko da, dagokion txosten teknikoaren bitartez; bertan, gutxienez, honako hauek jaso beharko dira (Haur eta Nerabeen Legearen 221.3 artikulua).

UGZen jarraipena behar duten egoerak deribatzea

a) Egindako jarraipena eta esku-hartzea, hala badagokio, eman zaizkion laguntza-zerbitzuak zehaztuta.
b) Familiaren eta haur edo nerabearen oraingo egoera.
c) Esleitutako larritasun-mailaren justifikazioa.

Beharrezko ikusten bada, bi zerbitzuek bilera bat egingo dute kasua deribatu aurretik edo ondoren, zer jarduketari jarraitu adostu eta koordinatzeko.

Lurraldeko gizarte-zerbitzuek balioesten badute **familiak udaleko gizarte-zerbitzuen laguntzarik nahiz jarraipenik behar ez duela**, esku-hartzea amaitu dela jakinaraziko diete, soilik familia udaleko gizarte-zerbitzuetatik deribatua izan bazen edo zerbitzu horietan espediente irekia baldin badu edo duela gutxi izan badu. Hala ez bada, ez da zertan komunikaziorik bidali.

Nola jardun, baloratzen bada egoerak ez duela UGZen arretarik eta jarraipenik behar

4. NOLA JARDUN, BABESGABETASUN-EGOEREN BALORAZIOAN DESADOSTASUNAK DAUDENEAN

UGZen eta LGZen artean desadostasunik egon ez dadin babesgabetasunaren balorazioari buruz eta, ondorioz, kasuan esku-hartzearen ardura nagusia hartu behar duen zerbitzuari buruz, edo, desadostasunak badaude, horiek konpontzeko helburuz, honela jardungo da:

1°. Lehenik eta behin, aurreko ataletan adierazi bezala, beharrezkoa denean edo edozein erakundek proposatzen duenean, UGZen eta LGZen arteko deribazioaren unean bilera bat egingo da deribazio-txostena igorri aurretik edo ondoren; bilera horretan, kasua deribatzen duen zerbitzuak txostenean jasotzen diren informazioa eta balorazioa azaldu eta zabalduko ditu, eta kasua elkarrekin aztertuko dute.

2°. Hori egin ezean edo ados jartzen ez badira, batzorde tekniko misto baten ardurapean utzi beharko da desadostasuna (batzorde horrek ordezkaritza paritarioa izango du, eta bi arreta-mailetako profesionalez osatuta egongo da —zuzenean inplikatuta dauden profesionalez gainera, beste teknikariren bat egongo da—), kasua xehe aztertzeko eta jarraitu beharreko esku-hartzearen gainean ados jartzeko. Behar beste bilera egingo dira, ados jarri arte (Haur eta Nerabeen Legearen 180.1 eta 180.2 artikuluak).

3°. Hainbat bilera egin arren ezin izan bada akordiorik lortu, bi zerbitzuek adostu ahal izango dute bileretan parte har dezatela Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuen mendeko udaletako eta lurraldeetako gizarte-zerbitzuetako profesionalek, baldin eta adingabeekiko arretaren eta esku-hartzearen eremuan betetzen badituzte beren eginkizunak. Kasu horretan, azken horien erabakiak lotesleak izango dira tartean diren udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetarako (Haur eta Nerabeen Legearen 180.3 artikulua).

Desadostasunak konpontzeko prozesua ezingo da luzatu hiru hilabetez baino gehiagoz. Horri begira, ados jarri beharko dute epea amaitu aurretik, zeina hasiko baita kasua deribatzen den egunean (Haur eta Nerabeen Legearen 180.4 artikulua).

ZIRRIBORROA

Legezko babes-neurriak hartzea eta arriskua deklaratzea

1. PRESAZKO BABES-NEURRIAK (BEHIN-BEHINEKO ZAINTZA HARTZEA ETA PRESAZKO PROZEDURAREN BIDEZ BABESGABEZIA DEKLARATZEA, PREBENTZIOZ)

Legezko babes-neurri bat hartu beharko da, presaz, inguruabar hauetan:

1	- Haurrari edo nerabeari eragin dion babesgabetasunaren larritasuna handia edo oso handia denean edo, larritasun hori egiaztatu ezin izan bada, babesgabetasun hori gertatu delako susmo sendoak daudenean, eta haur edo nerabearen ingurunean elementuak daudenean, pentsarazten dutenak babesgabetasuna larritasun-maila berarekin edo handiagorekin errepikatuko dela berehala edo epe laburrean, arrisku argia ekarriz haur edo nerabearen oinarrizko osasunerako edo segurtasunerako, edo kalte larria eraginez adingabeari, edo kalte larria pairatzeko arriskuan jarriz. EDO - Larritasun handiko edo oso handiko babesgabetasun-egoerarik gertatu ez arren, haur edo nerabearen ingurunean elementuak daudenean, pentsarazten dutenak balitekeela egoera hori berehala edo epe laburrean gertatzea, arrisku argia ekarriz haur edo nerabearen oinarrizko osasunerako edo segurtasunerako (babesgabeziarekiko zaurgarritasun larria)
2	ETA haur edo nerabearen ingurunean babes-elementurik ez dagoenean, arrisku hori berez arindu dezakeenik.
3	ETA haur edo nerabearen oinarrizko osasuna eta segurtasuna ziurtatzeko modu bakarra denean presazko babes-neurri bat hartzea.

ZIRRIBORRA

Larritasunak hala eskatzen duenean, gizarte-zerbitzuetako edo segurtasun-indar eta -kidegoetako profesionalek osasun-zentro batera lagundu ahalko diote adingabeari, behar duen arreta jaso dezan; horrelakoetan, horren berri eman beharko diete haren guraso, tutore, zaintzaile edo harreragileei, indarkeria haiek ezarri dutelako susmoa dagoenean izan ezik. Kasu horretan, Ministerio Fiskalari emango diote egoeraren berri (Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Osorik Babesteko Lege Organikoaren 41.3 artikulua).

Haur edo nerabe bat familia-ingurunetik ateratzeko aukera bakar-bakarrik planteatu behar da haur edo nerabearen bizitzarako edo oinarrizko osotasunerako, osasunerako edo segurtasunerako berehalako arrisku larria dagoelako zantzuak edo ebidentziak daudenean eta **beste neurri batzuen bidez egoera horren arrisku-maila murriztu ezin denean**. Presazko banantze-neurria inguruabar hauetan saihestu liteke:

- Arriskua eragiten duen pertsona etxetik urrundu dute, eta erabat galarazita dauka haur edo nerabearengana hurbiltzea, edo, harenganako irispide mugatua badauka, bermatuta dago haurra edo nerabea une oro egongo dela bera babesteko gai izango den heldu baten zaintzapean.
- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek babes- edo euste-zerbitzu nahikoak onartzen dituzte, adingabea seguru egotea bermatzeko.
- Senide batek edo hurbileko batek konpromisoa hartu du etxean modu egonkorrean egoteko, eta berme nahikoak daude balioesteko haur edo nerabearen oinarrizko osasuna eta osotasuna ziurta ditzakeela.

Haur edo nerabe baten babesgabezia edo zaintza proposatu aurretik, LGZek **ziurtatu eta justifikatu egin beharko dute ezin dela hautatu familia banantzea saihestuko duen** eta adingabearen oinarrizko osasuna eta osotasuna bermatuko dituen **beste aukerarik**.

Presazko babes-neurria hartu behar denean, LGZek:

a) **Beren gain hartu ahalko dute haur edo nerabearen behin-behineko zaintza**, Haur eta Nerabeen Legearen 171.1 artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz, adingabeari berehalako arreta eman behar zaionean, haren inguruabarrak aztertu, hala badagokio ikertu eta babesgabezia-egoeran dagoen egiaztatu bitartean. Inguruabar horietan, **nahitaez** hartu beharko da behin-behineko zaintza, Haur eta Nerabeen Legearen 171.4 artikuluak dioen moduan: "*4. Urgentziazko arrazoiak badaude, foru-aldundien jarduketa berehalakoa izango da, eta barne hartuko du behin-behineko zaintza nahitaez beren gain hartzea, baita pertsona adingabearen eskubideak zaintzeko beharrezkoa den beste edozein neurri hartzea ere. Urgentziazko arrazoiak daudela joko da pertsona adingabe baten bizitza, osotasun, osasun edo segurtasunerako arrisku larri eta berehalakoaren zantzuak badaude*".

   Eginbide horiek ahalik eta epe laburrenean eta, edozein kasutan, gehienez ere hiru hilabeteko epean gauzatuko dira, luzatzeko aukerarik gabe, bat etorrita Haur eta Nerabeen Legearen 207.4 artikuluarekin. Epe hori igarotakoan, hala badagokio, babesgabezia-egoera deklaratuko da, eta, ondorioz, tutoretza hartu edo dagokion babes-neurria proposatu beharko da.

b) **Babesgabezia prebentzioz deklaratzea**, Haur eta Nerabeen Legearen 195. artikuluan ezarritako **presazko prozedurari jarraikiz**. Prozedura horrek salbuetsi egiten du babesgabezia-deklarazioaren prozedura arrunterako aurreikusitako izapideak egitetik, haurrari eta nerabeari entzun eta kasu egiteko izapidetik izan ezik; dena dela, izapide hori ez egiteko aukera egongo da, haren interes gorenari kalte egin diezaiokeela ondorioztatzen bada.

   Aipatutako artikuluaren arabera (195.1 artikulua), LGZek babesgabezia prebentzioz deklaratu ahal izango dute, presazko prozedurari jarraituz, honako kasu hauetan:

a) Familian babesgabetasun-egoera larrien aurrekariak badaude edo pertsona adingabearen osotasun fisiko edo psikikorako berehalako arrisku larriaren beste zantzu batzuk badaude.
b) Familiak ihes egin edo adingabea ezkutatzeko arriskua badago edo zantzu horiek instrukzio-fasean egiaztatu badira eta haren interes gorena bermatzeko berehala eta atzerapenik gabe esku hartzea ezinbestekoa bada.
c) Presazko esku-hartzea eskatzen duen eta familia-nukleotik bereizi beharra dakarren beste edozein arrazoi gertatzen bada.
d) Hala aholkatzen eta justifikatzen duten aparteko eta ustekabeko zirkunstantziak azaltzen badira, larritasun handikoak eta behar bezala egiaztatuak, ezinbesteko kasuak barne.

Babesgabezia deklaratzeko prozedura arruntean bezala, LGZetan kasua hartu eta **sei hilabeteko epean** —salbuespenez, bederatzi hilabeteko epean— (Haur eta Nerabeen Legearen 193.6 artikulua), eskudun organoak administrazio-ebazpena emango du, babesgabezia-egoera berresteko edo, bestela, deklaratzeko hasieran eratutako tutoretza deuseztatzea, hartu diren behin-behineko neurriak bertan behera uztea eta espedientea artxibatzea.

Bat etorrita Haur eta Nerabeen Legearen 171.6 artikuluarekin, haur edo nerabe bat lehen harrerarako baliabide batean barneratzen denean, berehalako arreta osoa emango zaio, haren premietarako egokia, eta saihestu egingo da behin-behineko neurriak eta lehen harrerarako baliabideetako egonaldia luzatzea.

LGZek, kasua ikertu ondoren, ondorioztatzen badute ez dagokiela haurra edo nerabea artatzea, arrisku larririk edo babesgabeziarik ez dagoelako edo zaintza-neurririk behar ez delako:

a) Haurrak edo nerabeak eta haren familiak UGZen esku-hartzea edo laguntza-zerbitzuak behar badituzte, dagokion UGZera deribatuko dute kasua. LGZek deribazio-txostena bidaliko diete UGZei, identifikatutako indarkeria-egoerei, babesgabeziarekiko zaurgarritasunari, arrisku arinari edo babesgabetasun ertainari buruzko informazioa sartuta, halakorik balego. Horrelakoetan, ez da eskatuko LGZen esku-hartzeak gutxieneko denbora bat iraun izana.

b) Haurrak edo nerabeak eta haren familiak UGZen esku-hartzerik edo laguntza-zerbitzurik behar ez badute, LGZek idatziz emango diete ikerketaren emaitzen berri dagokien UGZei.

2. BABESGABEZIA

Haur edo nerabe baten babesgabezia deklaratu behar den baloratzeko (Haur eta Nerabeen Legearen 187. eta 188. artikuluak) eta, halaber, haren tutoretza automatikoki hartzeko, kontuan hartu beharko dira inguruabar hauek:

Babesgabezia deklaratu aurretik kontuan hartu behar diren inguruabarrak
• Babesgabetasun oso handiaren eta bereziki handiaren adierazleak egotea. • Haurrak edo nerabeak ezaugarriak edukitzea, zaurgarritasun bereziko egoeran kokatzen dutenak (adibidez, adin txikia, desgaitasuna edo premia bereziak, bere buruari ezarritako arrisku handiko jokabideak edo jokabide autolesiboak). • Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek gizarte-zerbitzuekin lankidetza aktibo nahikorik ez edo batere ez erakustea. • Guraso-trebetasunak epe labur edo ertainean eskuratzeko edo babesgabetasuna agertu zein mantentzearekin lotutako familia-inguruabarrak aldatzeko iragarpena txarra izatea. • Borondatezko zaintza-neurri batekin guraso-trebetasunak lantzeko aukerarik ez egotea edo horretarako baldintza egokirik ez egotea. • Neurriak haur edo nerabearen egoeran eragingo dituen ondorioen balantzea positiboa izatea (onurak vs arriskuak/kalteak). • Nerabeen kasuan, haiek neurria onartzea.

Kasu hauetan, egokia izango da haur edo nerabe baten babesgabezia deklaratzea:

a) Haurra edo nerabea babesgabetasun oso handiko egoeran dago, larritasuna ere handia izaki, eta eskuragarri dauden laguntza-baliabide teknikoak ez dira nahikoak bermatzeko, familian jarraitzen badu, bere bizitza eta oinarrizko osasuna, osotasun fisikoa eta segurtasuna arriskuan egongo ez direnik, edo haurra edo nerabea babesgabetasun oso handiko edo handiko egoeran dago, edo administrazioak arriskua deklaratu du, eta, UGZek edo LGZek esku-hartze proaktibo, jarraitu eta nahikoa trinkoa egin ondoren, ez da babesgabetasunaren larritasuna murriztu; hau da, guraso-portaera ez da aldatu, eta haur edo nerabearen kalteak bere horretan jarraitzen du, edo gora egin du, eta ez dago familia babestera bideratutako laguntza teknikoko beste baliabiderik, aurreikuspenen arabera familiaren egoera aldatuko duenik.
b) Aurreikuspenen arabera, haurrak edo nerabeak bilakaera txarra izango du, oraingo baldintzetan familia-ingurunean jarraituz gero.
c) Legezko babes-neurria da esku-hartze bakarra modua ematen duena haur edo nerabearen ongizatea bermatzeko.
d) Ez da posible edo ez da egokitzat jotzen gurasoak borondatezko zaintza-neurri batekin trebatzeko lan egitea, kasu zehatzaren inguruabarrak kontuan hartuta.
e) Baldintza hauetan legezko babes-neurria hartzen bada, neurriak haur edo nerabearengan izan ditzakeen arriskuak edo kalteak txikiagotu edo kontrolatu egingo dira, eta onurak askoz ere handiagoak izango dira, arrisku edo kalte posible horiek baino.
f) Nerabeen kasuan, larritasuna sekulakoa denean, neurria onar dezaten egin da lan haiekin.

Indarreko legedian ezarritakoaren arabera, ezinezkoa denean izan ezik, LGZetako profesionalek, babes-neurria proposatu eta hartu aurretik, **entzunaldia egingo diete guraso, tutore edo zaintzaileei eta haurrari edo nerabeari berari**, eragiten dieten prozedura administratibo eta judizialetan informazioa jasotzeko, entzunak izateko eta parte hartzeko dituzten eskubideak errespetatuz (urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 9. artikulua; Haur eta Nerabeen Legearen 26. artikulua eta 191. artikulua).

Babesgabezia-egoera deklaratuko duen administrazio-ebazpena emateko gehieneko epea sei hilekoa izango da, LGZek kasua hartzen dutenetik kontatzen hasita, edo, hala badagokio, babesgabezia deklaratzeko kausa izan daitezkeen inguruabarren berri edukitzen denetik kontatzen hasita; epe hori gehienez beste hiru hilabetez luzatzeko aukera egongo da, ezaugarri bereziak izateagatik legez ezarritako epearen barruan ebaztea ezinezkoa den kasuetan (Haur eta Nerabeen Legearen 193.6 artikulua).

Babesgabezia-egoera deklaratzen duen administrazio-ebazpen irmoa jakinarazi eta bi urtera, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek galdu egingo dute deklarazioa baliogabetzea eskatzeko eskubidea, babesgabezia eragin zuten inguruabarrak aldatzeagatik uste badute haur edo nerabearen guraso-ahala edo tutoretza berriro

hartzeko baldintzetan daudela. Halaber, LGZek haurra edo nerabea babeste aldera hartzen dituzten erabakiei edo neurriei aurka egiteko eskubidea ere indargabetu egingo da. Ministerio Fiskalak soilik dauka legitimitatea LGZen ebazpenari aurka egiteko. Bi urteko epe horretan, LGZek, egoera aztertu eta Ministerio Fiskalari haren berri eman ondoren, edozein babes-neurri hartu ahal izango dute haurra edo nerabea babesteko, baita adopzioa proposatu ere, jatorrizko familiara bueltatzeko behin betiko ezintasunean oinarritutako pronostikoa dagoenean (Haur eta Nerabeen Legearen 194. artikulua).

LGZek babesgabezia-egoera deklaratu ahalko dute, eta haur edo nerabearen tutoretza beren gain hartu, baldin eta haren zaintza esleitzeko ebazpen judizial bat bete, egokitzat jotako informazioa bildu eta kasuko inguruabar bereziak baloratu ondoren, hala egin behar dela balioesten badute. Babesgabezia-egoera deklaratzen duen administrazio-ebazpena garaiz eta dagokion moduan jakinarazi behar zaie eragindako adingabearen legezko ordezkariei eta, nahikoa heldua bada edo, nolanahi ere, hamabi urte baino gehiago badauzka, adingabeari berari, baita agintaritza judizialari eta Ministerio Fiskalari ere, eta zaintza judiziala etetea ekarriko du (Haur eta Nerabeen Legearen 206. artikulua).

3. BORONDATEZKO ZAINTZA

Inguruabar hauek egonez gero, komenigarria izango da borondatezko zaintza proposatzea:

a) Ondo egiaztatutako inguruabar larri eta iragankor batzuek galarazi egiten diete guraso, tutore edo zaintzaileei beren hazkuntza- eta babes-eginbeharrak betetzea.
b) Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak lankidetzan aritzen dira gizarte-zerbitzuek proposatutako esku hartzeko planarekin.
c) Guraso-trebetasunak lantzeko aukera dago, argi eta garbi zehaztutako eta guraso, tutore eta zaintzaileekin adostutako helburuekin, legean ezarritako epean eta haur edo nerabearen premiekin bat (adibidez, adina).
d) Babesgabetasuna agertzea edo mantentzea eragiten duten familia-inguruabarrak aldatzeari edo gurasoak trebatzeari buruzko iragarpena ona da.
e) Salbuespenez, babesgabezia deklaratzea eta haur edo nerabearen tutoretza hartzea ekar lezaketen inguruabar batzuk egon arren, gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak laguntzaile agertzen dira gizarte-zerbitzuek proposatutako esku hartzeko planarekin, eta baloratzen da zaintza-neurria onuragarriagoa izango dela haur edo nerabearentzat eta esku-hartzerako.

Borondatezko zaintzak, gehienez ere, bi urte iraungo ditu (urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 19.2 artikulua; Haur eta Nerabeen Legearen 204.1 artikulua). Aldi hori, salbuespenez, gehienez ere beste urtebetez luzatu ahalko da, babestuaren interesak hala aholkatzen badu eta epe horretan familia berrelkartzea aurreikusten bada (Haur eta Nerabeen Legearen 204.1 artikulua).

Borondatezko zaintzarako neurriaren gehieneko iraupena edo, hala badagokio, aurreikusitako urtebeteko luzapena igaro ondoren, haurra edo nerabea legezko ordezkariengana itzuli beharko da; halere, horretarako baldintza egokirik ez badago, LGZek haur edo nerabearen babesgabezia-egoera deklaratuko dute, eta haren tutoretza beren gain hartuko, lege-aginduz, egokitzen diren babes-neurriak hartzearekin batera (Haur eta Nerabeen Legearen 204.2 artikulua).

4. ARRISKUA DEKLARATZEA

Egiaztatutako babesgabetasun-kasuetan, **arriskua ertaina edo larria** bada eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **benetako lankidetzarik** erakusten ez badute UGZekin edo LGZekin adostutako balorazio-prozesuan eta esku-hartzean onartutako konpromisoekin edo betebeharrekin, bat etorrita urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 17.5 artikuluan (uztailaren 28ko 26/2015 Legeak emandako testuan) eta Haur eta Nerabeen Legearen 184. artikuluan xedatzen denarekin, haur edo nerabearen **arrisku-egoera deklaratuko da, administrazio-ebazpenaren bidez**, zertarako-eta guraso, tutore edo zaintzaileei bermatzeko informazioa

emango zaiela jakin dezaten nola jardun behar duten **larritasun-maila areagotzea edo babesgabezia deklaratzea saihesteko**; izan ere, azken buruan, arrisku-egoeraren deklarazioa **neurri bat** da, eta **behar den eta eskatzen den lankidetza hori sustatzea** du helburu.

Era berean, Haur eta Nerabeen Legearen 184.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, LGZek arriskua deklaratu beharko dute, baita ere, **jaio aurreko arrisku-egoera** batean esku hartu eta gero (Haur eta Nerabeen Legearen 176.2 artikulua; ikusi eskala) egiaztatzen bada, haurra jaio ondoren, egoera hura ekarri zuten inguruabarrek hor jarraitzen dutela edo aitaren edo amaren jarrera edo jokabide batzuek arrisku handian jartzen dituztela jaioberriaren oinarrizko osotasun fisikoa, osasuna, segurtasuna edo premiak, baldin eta egoeraren baloraziotik ondorioztatzen ez bada haurra babesgabezia-egoeran dagoela.

Arrisku-egoeraren deklarazioak, berez, **ez dakar inola ere babesgabetasunaren larritasun-maila handitzea**.

Arrisku-deklarazioaren administrazio-ebazpena (Haur eta Nerabeen Legearen 185. artikulua) **UGZek idatziko dute arriskua ertaina denean, eta LGZek arriskua larria denean**, **guraso, tutore edo zaintzaileei eta**, nahikoa heldua bada edo, nolanahi ere, hamabi urte baino gehiago badauzka, **haurrari edo nerabeari berari entzun ondoren.** Ebazpena behar adina arrazoitu beharko da, eta, esku hartzeko planean, haur edo nerabearen arrisku-egoera zuzentzeko neurriak jaso beharko ditu, guraso, tutore edo zaintzaileen eginbeharrei dagozkienak barne. Plana ezartzeko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, hargatik eragotzi gabe proiektua ondoz ondoko sei hilabeteko aldietan luzatzeko aukera, baldin eta luzapen horrek haur edo nerabearen interes gorenari erantzuten badio, gehienez ere bi luzapeneko mugarekin. Arrisku-egoeraren deklarazioa indargabetu egingo da, hura ekarri zuten kausak desagertzen direnean.

UGZetan arrisku-egoera deklaratu ostean larriagotu egiten badira hura ekarri zuten inguruabarrak eta, ondorioz, kasua LGZetara deribatzen bada eta haiek kasua hartzen badute, UGZek neurria etengo dute. LGZek, berriz, arriskua berriro deklaratzea komeni den ala ez erabakiko dute; arriskua deklaratzeko, baina, arrisku larria dagoela eta indarreko legedian ezarritako inguruabarrak betetzen direla baloratu beharko dute.

Haur edo nerabearen arrisku-egoera deklaratzen duen administrazio-ebazpenaren aurka, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean (39/2015, urriaren 1ekoa) azalduta dauden administrazio-errekurtso egokiak jarri ahal izango da. Halaber, hala badagokio, ebazpenaren aurka egin ahal izango da jurisdikzio zibilean, Prozedura Zibilaren Legean (1/2000, urtarrilaren 7koa) ezarritakoaren arabera.

Arriskuaren administrazio-deklarazioa baliogabetu egingo da, baldin eta (1) egiaztatzen bada hura ekarri zuten inguruabarrak aldatu egin direla edo (2) familiarekin gizarte- eta hezkuntza-arloetan esku hartzeko proiektuan jasotako neurriak betetzen badira, bertan jasotako helburuak lortu direlako eta babestutako pertsona arrisku-egoeran dagoela balioesteko oinarririk ez dagoelako (Haur eta Nerabeen Legearen 185.6 artikulua). Era berean, automatikoki baliogabetuko da, deklarazioa ekarri zuten inguruabarrak desagertzearen ondorioz administrazio-ebazpena ematen bada, haurra edo nerabea adin nagusitasunera iristen bada edo emantzipatzen bada edo, besteak beste, LGZek haren zaintza edo tutoretza hartzen badute (Haur eta Nerabeen Legearen 185.8 artikulua).

Balora tresna – Eskalak: Babesgabetasun motak eta larritasun-mailak

ZIRRIBORRA

LABURPEN-TAULA: BABESGABETASUN-EGOERAK

I. BABESGABETASUN MOTAK[17]

GARRANTZITSUA
Haurrak edo nerabeak kalterik pairatzen duen jakiteko adierazle posibleen deskribapena eta kalte esanguratsua edo kalte larria baloratzeko irizpideak ikusteko, jo tresnaren lehenengo zatira

TRATU TXAR FISIKOAK
- A. Eraso fisikoa
- B. Drogak, alkohola edo farmakoak ematea
- C. Janaria eta ura nahita kentzea
- D. Konfinamendua edo murrizketa fisikoa
- E. Boterearen bidezko Munchaüsen-en sindromea (beste bati ezarritako nahasmendu faktizioa) eta eragindako tratu txar medikoak

ZABARKERIA
- A. Premia fisikoekiko zabarkeria (honako hauek barnean hartuta: elikadura; osasun fisikoaren zaintza; jantziak; higiene pertsonala; etxebizitzaren higiene-baldintzak; etxebizitzaren egonkortasuna; etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak)
- B. Segurtasun-premiekiko zabarkeria (honako hauek barnean hartuta: etxebizitzaren segurtasun fisikoa eta arriskuen prebentzioa; gainbegiratzea; beste pertsona batzuek eragindako indarkeriaren aurkako babesa)
- C. Premia kognitiboekiko zabarkeria: (honako hauek barnean hartuta: estimulazioa; prestakuntza- eta hezkuntza-premiak)
- D. Premia emozionalekiko zabarkeria (honako hauek barnean hartuta: interakzioa, lotura eta afektua; arazo emozionalei eta arazootara lotutako jokabide-asaldurei eta premia bereziei arreta espezifikoa ematea; arauak, mugak, errutinak eta balio positiboen transmisioa)

SEXU-INDARKERIA

TRATU TXAR PSIKOLOGIKOAK
- E. Tratu txar emozionalak
- F. Genero-indarkeriarekiko esposizioa
- G. Beste indarkeria mota batzuekiko esposizioa familian
- H. Inplikazioa, gurasoen arteko edo beste senide garrantzitsu batzuekiko gatazketan
- I. Eraso fisikoa egiteko mehatxuak

ABANDONUA

GURASOEN EZINTASUNA HAUR EDO NERABEAREN JOKABIDEA ERREGULATU ETA KONTROLATZEKO

JAIO AURREKO TRATU TXARRAK ETA JAIO AURREKO ARRISKUA

BESTE TIPOLOGIA BATZUK
- A. Etxetik botatzea edo etxera sartzen ez uztea
- B. Galbideratzea
- C. Eskekotasuna
- D. Lan-esplotazioa

II. BABESGABEZIAREKIKO ZAURGARRITASUN LARRIA ERAGITEN DUTEN BESTELAKO EGOERAK

A. GURASOEK, TUTOREEK EDO ZAINTZAILEEK ERAGINDAKO BABESGABETASUN LARRIAREN AURREKARIAK

[17] *Babesgabetasun mota bakoitzerako*, honako hauek deskribatzen ditu tresnak: **1.** Larritasun ertain, handi eta oso handiko mailak (larritasun-mailarik jasotzen ez duten salbuespenak kenduta) eta **2.**zaintza-jardunean **gabeziak** dauzkaten eta, beraz, "arrisku arina" dakarten egoerak.

B. GURASO, TUTORE EDO ZAINTZAILEEN ZAILTASUN PERTSONAL LARRIAK

TRATU TXAR FISIKOAK

Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek nahita egindako edozein ekintza, zuzeneko ondorio duena haurrari edo nerabeari kalte fisikoa edo gaixotasuna eragitea edo haurra edo adingabea horiek pairatzeko arrisku larrian jartzea. Era berean, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek beste pertsona batzuk bultzatzen dituztenean horrelako ekintzak egitera edo baimena ematen dietenean horrelakoak egiteko, tratu txar fisikoez hitz egin behar da.

Tipologia honek, batez ere, alderdi fisikoa hartzen du barruan, bai guraso, tutore edo zaintzaileen portaerari dagokionez, bai haur edo nerabearengan dituen ondorioei dagokienez. Kontuan hartuta haurrek edo nerabeek jasotzen duten inpakturik kaltegarri eta iraunkorrena psikologikoa izaten dela gehienetan, beti ebaluatu beharko da beste babesgabetasun mota batzuk ere ba ote dauden; bereziki, tratu txar emozionalak. Dena dela, inoiz ere ez da onargarria izango haur edo nerabeen aurka indarkeria fisikoa erabiltzea, zigor fisikoa barne hartuta, indarkeriaren inpaktu fisikoa edozein dela ere.

⇒ **Definizioa**

Tratu txar fisikoek lau egoera mota biltzen dituzte, eta bakoitza eskala batean jasota dago:

- HNari ***eraso fisikoa*** egitea. Hala nola kolpeak (eskuarekin, ukabilarekin, zaplaztekoak, ipurdikoak, ostikoak, gauzekin...), bultzadak, gorputza gehiegi estutzea, erredurak (zigarroekin, puruekin edo beste gauza batzuekin, likido berotan sartzea, substantzia kimikoak...), hozkadak, ebakiak, ziztadak, astinduak eta abar.
- HNari min ematen dioten, kalte egiten dioten edo haren osasun fisikoa arriskuan jartzen duten edota estres handia eragin diezaioketen beste jokabide fisiko aktibo batzuk[18]: ***Janaria eta ura nahita kentzea***, ***Konfinamendua edo murrizketa fisikoa***.
- ***Haurrari edo nerabeari drogak, alkohola edo farmakoak ematea*** (azken horiek, arriskutsuak izan badaitezke eta medikuak agindu edo gomendatu ez baditu), molestatu ez dezan, lo egon dadin edo antzekoetarako.
- ***Boterearen bidezko Munchaüsen-en sindromea (beste bati ezarritako nahasmendu faktizioa) eta eragindako tratu txar medikoak***:
  - ***Boterearen bidezko Munchaüsen-en sindromea (beste bati ezarritako nahasmendu faktizioa):*** Haurra edo nerabea hainbatetan ospitaleratzea, hainbat mediku-azterketa egin behar izatea edo, are, tratamendu medikoak ematea eragiten dute gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek, asmatutako sintoma fisiko patologikoak alegatuz edo sintoma horiek beraiek modu aktiboan sorraraziz (substantziak emanez, adibidez), beste bati ezarritako nahasmendu faktizioaren diagnostiko mediko-psikiatrikoa egonik (DSM-5-TR).
  - ***Eragindako tratu txar medikoak***: Portaera-patroi errepikatu honetan, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek osasun-langileak engainatzen edo presionatzen dituzte, HNari behar ez duen arreta medikoa eman diezaioten, edota arrazoi nahikorik izan gabe behin eta berriro eramaten dute HNa medikuarengana, espezialistengana edo larrialdietara, eta, ondorioz, behar ez dituen esku-hartze medikoak egiten dizkiote HNari, edo alferrikako tratamendu medikoak ematen dizkiote; gainera, baliteke horren ondorioz prestakuntza-, gizarte- edo aisialdi-jardueretara hainbatetan joaterik ez edukitzea[19]. Ez dago beste bati ezarritako nahasmendu faktizioaren diagnostikorik.

Gainerako babesgabetasun motetan bezalaxe, hemen barruan sartzen dira, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek zuzenean ezarritako tratu txar fisikoez gainera, beste batzuek

[18]Tresnak ikaragarri ezegokiak diren bi jokabide fisiko soilik deskribatzen ditu, baina mota horretako egoera gehiago gerta daitezke (adibidez, haurra edo nerabea oso eguraldi txarraren eraginpean jartzea luzaroan). Hori gertatuz gero, tratu txar fisikoen atalean kasu zehatzerako egokiena den eskalako irizpideekin kalifikatuko da larritasuna.

[19] Ikusi Pérez Candá, J.L. eta Grupo de Trabajo de Pediatría Social y Comunitaria AEPap (2023). Maltrato infantil médico inducido por la persona cuidadora (MIMiC). *Formación Activa en Pediatría de Atención Primaria, 16*(1), 96-97. https://fapap.es/articulo/695/maltrato-infantil-medico-inducido-por-la-persona-cuidadora-mimic

ezarritakoak, gurasoek sustatu edo baimendu badituzte. Ez da barruan sartzen, ordea, beste pertsona batzuek ekimen propioz ezarritako indarkeria fisikoa; horrelakoetan, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek egoerari emandako erantzuna baloratuko da, eta "*Beste pertsona batzuek ezarritako indarkeriarekiko babesa*" eskalan kalifikatuko.

Tratu txar fisikoak **zeremonien edo errituzko ekitaldien** parte izan daitezke. Esanahi erlijioso, magiko edo naturaz gaindikoa duten ekintza antolatuak izaten dira, errepikakorrak eta ankerrak, eta, askotan, hainbat pertsonak ezartzen dute indarkeria. Egoera horiek arreta handiz baloratu beharko dira, oso arriskutsuak izan daitezkeelako, eta, halaber, tratu txar psikologikoak edo sexu-indarkeria dauden ere aztertu beharko da.

⇒ **Zigor fisikoa baloratzea**

- Gorputzean ezarritako zigorra edo zigor fisikoa honela definitzen da: "indar fisikoa erabiltzen den edozein zigor da, eta helburu du nolabaiteko mina edo ondoeza eragitea, nahiz eta arina izan", eta "zigortzeko xedez indarra nahita erabiltzea da, eta helburu du nolabaiteko mina, ondoeza edo umiliazioa eragitea" (8. Ohar Orokorra (2006), Haurren Eskubideen aldeko Nazio Batuen Batzordea).
- Bereizi egin behar da indarra zigortzeko ala, zigor-asmorik gabe, haurra edo nerabea edo beste pertsona batzuk babesteko erabiltzen den. Bigarren kasu horretan, beti aplikatu behar da behar-beharrezkoa den gutxieneko indar hori ahalik eta denbora laburrenean erabiltzeko printzipioa, eta ziurtatu egoerarako proportzionatuak diren metodoak erabiltzen direla, bestea kontrolatzeko xedez min emateko asmo deliberaturik izan gabe (8. Ohar Orokorra, Haurren Eskubideen aldeko Batzordea).
- Ebidentzia enpiriko sendoak dio haur eta nerabeen aurkako zigor fisikoa, eragingabea izateaz gainera, lotuta dagoela epe labur eta luzean arazoak agertzeko arrisku handiagoarekin, hala nola arazo fisikoak eta mentalak, garapen kognitibo, sozial eta emozionalaren nahiz jokabidearen asaldurak, emozioak erregulatzeko arazoak, jokabide erasokor, bortitz, antisozial eta delituzkoa eta gatazkak konpontzeko teknika ezegokien ikaskuntza (APA, 2019; OME, 2025).

ZIRRIBORRA

A. ERASO FISIKOA

⇒ HNaren heriotza eragitera bideratutako edozein portaera, emaitza edozein izanik ere, larritasun oso handikotzat joko da.

⇒ Larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko, nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).

⇒ Eraso fisikoaren larritasun-mailaren kalifikazioa, batez ere, lesioen eta kalte fisikoen larritasunean oinarritzen da, baina baita guraso, tutore edo zaintzaileen portaerak HNaren osasun fisikoan eragin dituen, eragin ahal izan dituen edo etorkizunean eragin ahalko dituen ondorioetan ere, kontuan hartuta, bereziki, HNaren zaurgarritasun-faktore batzuk, hala nola adina edo desgaitasuna edo premia bereziak. Hala ere, beti izango da onartezina HNaren aurka indarkeria fisikoa erabiltzea, indar-maila eta inpaktu fisiko erreal edo potentziala edozein izanda ere, eta, beraz, larritasunaren kalifikazioa erdi-mailatik goi-mailara artekoa da, "gabeziatzat" jotako inguruabar puntual eta oso intentsitate baxukoetan izan ezik.

⇒ Eraso fisikoaren larritasuna ez da aldatzen guraso, tutore edo zaintzaileen asmoaren arabera. Halere, nahitasuna garrantzitsua izango da esku hartzeko plana diseinatzeko orduan. Ohikoa izaten da erasoak HNaren portaera gaitzestea edo kontrolatzea izatea helburu, bai eta oso errotutako balioetan, sinesmenetan eta arau kulturaletan oinarrituta erabiltzea ere. Beste batzuetan, emozio-deskargarako erabiltzen da.

⇒ Beti ebaluatu beharko da erasora lotutako beste babesgabetasun motarik dagoen; bereziki, tratu txar emozionalak.

1. Oso larritasun handia

- HNaren **heriotza eragitera bideratutako** nahitako erasoa.
- **Erabilitako indar fisikoak kalte fisiko edo lesio larria** eragin dio HNari, edo horiek pairatzeko arrisku handia eragin diote (esaterako, hezur luzeen haustura, barrualdeko lesioak, hematoma subdurala, astindutako haurraren sindromea —24 hilabete baino gutxiagoko haurretan—, hirugarren graduko erredurak, begietako lesioak).
- **Erriztuzko ekintzen** ondoriozko edozein eraso fisiko.
- **Sei urtetik beherako haur batek lesioak edo eraso fisikoaren markak**[20] dauzka ezinbesteko gorputz ataletan: aurpegian, buruan (erauzitako ile sortak barne), sudurrean, genitaletan, bularrean edo abdomenean.
- **Desgaitasuna edo premia bereziak dauzkan sei urtetik gorako haur batek lesioak edo eraso fisikoaren markak** dauzka ezinbesteko gorputz ataletan: aurpegian, buruan (erauzitako ile sortak barne), sudurrean, genitaletan, bularrean edo abdomenean.

2. Larritasun handia

- **Erabilitako indar fisikoak kalte fisiko edo lesio esanguratsua** eragin dio HNari, edo horiek pairatzeko arrisku handia eragin diote (esaterako, bihurdurak, kommozio arinak, hautsitako hortzak, lehenengo eta bigarren graduko erredurak, josi beharra duten ebakiak, hezur txikien hausturak eta abar).
- **Sei urtetik beherako haur** batekin indar fisikoa erabili da, eta **lesioren bat edo eraso fisikoaren markaren bat** eragin dio horrek ezinbestekoa ez den gorputz atal batean.
- **Desgaitasuna edo premia bereziak dauzkan sei urtetik gorako haur** batekin indar fisikoa erabili da, eta **lesioren bat edo eraso fisikoaren markaren bat** eragin dio horrek ezinbestekoa ez den gorputz atal batean.
- **Desgaitasunik edo premia berezirik ez daukan sei eta hamabi urte arteko haur** batekin indar fisikoa erabili da, eta **lesioren bat edo eraso fisikoaren markaren bat** eragin dio horrek ezinbesteko gorputz atal batean: aurpegian, buruan (erauzitako ile sortak barne), sudurrean, genitaletan, bularrean edo abdomenean.

3. Larritasun ertaina

- **Indar fisikoa behin baino gehiagotan edo ohikotasunez** erabili da, baina **ez dio markarik edo lesiorik eragin,** edo baliteke **azaleko lesioak**[21] edo **azkar-azkar desagertu diren gorriuneak** eragin izana (adibidez, eskua irekita zaplaztekoa ematea). Larritasun-maila handiagoetan adierazitako haurrak salbuesten dira.
- **Hamahiru urte edo gehiago dituen nerabe** batekin indar fisikoa erabili da, eta **lesio edo markaren bat** eragin dio horrek, kalte fisiko edo lesio larria edo esanguratsua izan gabe.

4. Gabeziak

- **Haur edo nerabe batekin indar fisikoa** erabili da, **modu puntualean**, baina **ez dio lesiorik edo markarik eragin, edo azkar-azkar desagertu den gorriunea baino ez dio eragin.** Haurrak edo nerabeak ez du lesio fisikorik nahiz **min fisiko esanguratsu** edo luzerik pairatu, eta **ez dago lesio fisiko bat pairatzeko arriskurik**. Haurrak ez dauka ez azaleko lesiorik, ez kalte fisiko esanguratsu edo larririk, eta ez da aurreikusten etorkizunean izango duenik ere, baina harekin izandako **portaera ezegokia** izan da.

[20] ***Lesioa edo eraso fisikoaren marka***: Gorputzeko edozein asaldura morfologiko edo funtzional, ikusi edo egiazta daitekeena, haren tamaina edo sakontasuna gorabehera, denbora batez irauten badu eta gorriune iragankor soila ez bada.

[21] ***Azaleko lesioa***: Ez du bizitza arriskuan jartzen, ezta gorputzaren funtziorik edo egiturarik mugatzen ere; ez du ondorio fisikorik uzten; ez du tratamendu medikorik behar, edo oso gutxi behar du; susperraldia azkarra da, baita tratamendu medikorik gabe ere.

5. Egokia / Ez dago

- HNari ez diote inoiz eraso fisikorik egin.

B. DROGAK, ALKOHOLA EDO FARMAKOAK EMATEA

⇒ HNaren heriotza eragitera bideratutako edozein portaera, emaitza edozein izanik ere, larritasun oso handikotzat joko da.

⇒ Eskala honetan aztertzen diren egoeretan, HNari drogak, alkohola edo farmakoak eman dizkiote, molestatu ez dezan, lo egon dadin edo antzekoetarako.

⇒ Medikuaren agindu nahiz gomendiorik gabe, haurrei edo nerabeei drogak, alkohola edo farmako potentzialki arriskutsuak ematea edo atal honetan adierazten ez diren helburuekin horiek erabiltzen uztea "*Galbideratzea*" eskalan jasotzen da.

⇒ Bestetik, substantzia mota horiek haur edo nerabearen eskueran uztea, ikuskapenik gabe eta haren osasuna arriskuan jarriz, "*Segurtasun-premiekiko zabarkeria – Etxebizitzaren segurtasun fisikoa eta arriskuen prebentzioa*" eskalan kalifikatuko da.

1. Oso larritasun handia

- HNari drogak, alkohola edo farmakoak ematea, **haren heriotza eragiteko** asmoz, **edo erituzko ekintzetan** ematea.
- **Sei urtetik beherako edo desgaitasunen bat edo premia bereziak dauzkan urte gehiagoko haurrak edo nerabeak** medikuaren agindu nahiz gomendiorik gabe farmako potentzialki arriskutsuak, drogak edo alkohola kontsumitu izanaren sintomak dauzka; gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek eman dizkiote, molestatu ez dezan, lo egon dadin edo antzekoetarako.

2. Larritasun handia

- **Desgaitasunik edo premia berezirik ez daukan sei urtetik gorako NHak** medikuaren agindu nahiz gomendiorik gabe farmako potentzialki arriskutsuak, drogak edo alkohola kontsumitu izanaren sintomak dauzka; gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek eman dizkiote, molestatu ez dezan, lo egon dadin edo antzekoetarako.

3. Egokia / Ez dago

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez diote HNari inoiz eman drogarik, alkoholik edo farmakorik (arriskutsua izan daitekeenik eta medikuak agindu edo gomendatu ez duenik), molestatu ez dezan, lo egon dadin edo antzekoetarako.

ZIRRIDUN

C. JANARIA ETA URA NAHITA KENTZEA

⇒ *Nahita* hitzak esan nahi du jokabidea ez dela ustekabekoa izan, hau da, asmo edo helburu batekin egin dela, hala nola zigortzeko, gaitzespena erakusteko edo HNaren portaera kontrolatzeko.

⇒ HNaren heriotza eragitera bideratutako edozein portaera, emaitza edozein izanik ere, larritasun oso handikotzat joko da.

1. Oso larritasun handia

- **HNaren heriotza eragitera** bideratutako nahitako ekintza.
- Janaria edo ura nahita kentzearen ondorioz, HNak **desnutrizio edo deshidratazio larria** dauka (adibidez, pisu-galera handia, malnutrizioa, deshidratazioa, anemia), eta **arrazoi medikoengatik ospitaleratu** behar izan dute.
- Janaria edo ura nahita kentzearen ondorioz, **osasuna arrisku larrian** jarri zaio zaurgarritasun bereziren bat (adina, gaixotasuna, desgaitasuna edo premia bereziak) daukan HN bati.

2. Larritasun handia

- Janaria edo ura nahita kentzearen ondorioz, HNak **desnutrizioko edo deshidratazioko sintoma fisiko batzuk** ditu. Daukan egoera dela-eta, **arreta medikoa eta errehabilitazioko dieta** behar ditu. **Ez dago arrazoi medikoengatik ospitaleratu beharrik** (baina aldi baterako ospitaleratu daiteke, bere segurtasunerako).
- Janaria edo ura nahita kentzearen ondorioz, **osasuna arriskuan** jarri zaio zaurgarritasun bereziren bat (adina, gaixotasuna, desgaitasuna edo premia bereziak) daukan HN bati, baina **arriskua ez da larria**.
- HNari **maiz** kentzen zaio janari edo ura, nahita. **Desnutrizioko edo deshidratazioko sintoma klinikorik ez badago ere**, **ezta osasunerako arriskurik ere**, HNa **gose edo egarri** izaten da.

3. Larritasun ertaina

- HNari hainbatetan kendu dizkiote janaria edo ura nahita, baina **ez maiz**. **Desnutrizioko edo deshidratazioko sintoma klinikorik ez badago ere**, **ezta osasunerako arriskurik ere**, baliteke HNa **gose edo egarri** izan izana.
- HNari **modu puntualean** kendu diote **ura**, nahita. **Desnutrizioko edo deshidratazioko sintoma klinikorik ez badago ere**, **ezta osasunerako arriskurik ere**, baliteke HNa **egarri** izan izana.

4. Gabeziak

- HNari **modu puntualean** kendu diote janaria, nahita. **Desnutrizioko edo deshidratazioko** sintoma klinikorik egon ez bada ere, **ezta osasunerako arriskurik ere**, baliteke HNa **gose** izan izana. **Inoiz ez diote ura kendu.**

5. Egokia / Ez dago

- HNari ez diote inoiz ura edo janaria nahita kendu. Janari mota jakin batzuen gaineko murrizketak egon daitezke (adibidez, gozokiak, postreak); murrizketa hori diziplina-neurri bat izan daiteke, edo osasuneko, ekonomiako edo beste arlo batzuetako arrazoiengatik izan daiteke.

D. KONFINAMENDUA EDO MURRIZKETA FISIKOA

⇒ Konfinamendua da haurra edo nerabea aldi batez isolatzea; murrizketa fisikoak, berriz, HNaren mugimenduak mugatze aldera, haren gorputzaren gainean prozedura edo gailu mekanikoak ezartzea dakar.

⇒ Eskala honetan, ez dira sartzen medikuak edo epaileak agindutako konfinamenduak edo murrizketa fisikoak.

⇒ Haur edo nerabearen mugimenduak **fisikoki murriztea** beti kalifikatuko da oso larritasun handi gisa, osasunerako arriskutsua izan daiteke-eta. Haurren segurtasunerako edo bide-segurtasunerako elementu erregulatuak ez dira hemen sartzen.

⇒ **Konfinamendu fisikoaren** larritasun-maila honako hauen arabera kalifikatzen da: (1) erabilitako metodoak eta iraupena eta (2) egoera horrek haurrarengan edo nerabearengan eragin duen edo eragin dezakeen kalte fisiko eta/edo emozionala. Era horretako egoerak baloratzeko orduan kontuan hartu beharreko alderdiak: (1) haur edo nerabearen adina eta zaurgarritasun bereziko ezaugarriak (adibidez, neurogarapenaren nahasmenduak edo osasun mentalekoak), (2) egoeraren iraupena eta (3) egoerak HNarengan eragindako inpaktu emozionala.

⇒ Eskala hau ez da aplikatuko, arrisku handiko portaera soziala (hau da, bere edo beste batzuen osasunerako edo segurtasunerako arriskutsuak diren portaerak) duten nerabeekin. Kasu horiek *Gurasoen ezintasuna haur edo nerabearen jokabidea erregulatu eta kontrolatzeko* eskalan kalifikatuko dira, edo baloratzen ari den kasu zehatzera gehiago egokitzen den beste batean.

⇒ Konfinamendu edo murrizketa fisikoarekin batera, haur edo nerabearen ikuskapenik eza edo ikuskapen urria egon daiteke. Hori gertatzen denean, ikuskapenik eza ere kalifikatuko da, *Segurtasun-premiekiko zabarkeria – Gainbegiratzea* eskalaren arabera.

1. Oso larritasun handia

- Behin gutxienez, HNa egun batez edo hainbat egunez konfinatu dute logela batean, edo toki txiki edo ilun batean itxi dute (adibidez, komunean, armairuan), zenbat denbora egon den gorabehera, edo ez diote utzi astebetez edo gehiagoz kalera irteten, edo zentzumenez gabetu dute, edo antsietate, estres edo beldur handia eragin dion egoera batean jarri dute egun batez edo hainbat egunez, edo antzeko egoeretan jarri dute.
- Konfinamenduaren **iraupena txikiagoa** izan da, baina **hainbat aldiz** gertatu da, eta **kalte fisiko edo lesio larria** eragin dio HNari, edo hori pairatzeko arrisku handian jarri du.
- Konfinamenduaren iraupena txikiagoa izan da, baina **sei urtetik beherako haur bati edo, urte gehiago izanik, desgaitasuna edo premia bereziak dituen haur bati ezarri zaio.**
- **Behin gutxienez**, HNaren mugimenduak mugatu dituzte, **atxikita, lotuta, kateak jarrita**... Haurren segurtasunerako edo bide-segurtasunerako elementu erregulatuak ez dira hemen sartzen.

2. Larritasun handia

- Konfinamenduaren **iraupena txikiagoa** izan da oso larritasun handikoan baino, baina **hainbat aldiz** gertatu da, eta **kalte fisiko edo lesio esanguratsua edo kalte psikologiko larria** eragin dio HNari, edo horiek pairatzeko arrisku handian jarri du.

3. Larritasun ertaina

- Konfinamenduaren **iraupena txikiagoa** izan da oso larritasun handikoan baino, baina **hainbat aldiz** gertatu da, eta **kalte fisiko edo lesio esanguratsua** edo **kalte psikologiko esanguratsua** eragin dio HNari, edo horiek pairatzeko arrisku handian jarri du.

4. Gabeziak

- HNa **sarritan** konfinatzen dute etxean (adibidez, logelatik irteten ez uztea bere adinari edo ezaugarriei dagokienez arrazoizkoa den denbora batez, edo egun osoan, aste barruko arratsalde batzuetan edo asteburu osoan ez uztea lagunekin jolastera edo haiekin egotera irteten), baina **inoiz ez diote mugikortasuna murriztu, lotuta edo helduta. HNa ez da inoiz jarri kalte edo lesio fisiko bat izateko arriskuan, eta ez da baloratu kalte psikologiko esanguratsurik dagoenik, ezta kalte hori gertatzeko arriskurik** dagoenik ere.

5. Egokia / Ez dago

- HNa **noiz edo noiz** konfinatzen dute etxean (adibidez, logelatik irteten ez uztea bere adinari edo ezaugarriei dagokienez arrazoizkoa den denbora batez eta egun osoan, aste barruko arratsalde batzuetan edo asteburu osoan ez uztea lagunekin jolastera edo haiekin egotera irteten), baina **inoiz ez diote mugikortasuna murriztu, lotuta edo helduta**. Ez da inoiz jarri bere osasunerako arrisku-egoeran.
- HNarekin ez da inoiz konfinamendua edo murrizketa fisikoa erabiltzen.

BOTEREAREN BIDEZKO MUNCHAÜSEN-EN SINDROMEA (BESTE BATI EZARRITAKO NAHASMENDU FAKTIZIOA) ETA ERAGINDAKO TRATU TXAR MEDIKOAK

⇒ Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **beste bati ezarritako nahasmendu faktizioaren** diagnostiko mediko-psikiatrikoa edukitzeak, baldin eta nahasmendu horren jomuga haurra edo nerabea bada, beti sorrarazten du kalte larriko arriskua HNaren osotasun fisiko eta psikologikorako; hortaz, oso larritasun handiko egoeratzat joko da beti (APSAC, 2017; MSD, 2024).

⇒ **Eragindako tratu txar medikoak** portaera-patroi errepikatu bat dira, eta, horrelakoetan, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek osasun-langileak engainatzen edo presionatzen dituzte, HNari behar ez duen arreta medikoa eman diezaioten, edota arrazoi nahikorik izan gabe eramaten dute HNa behin eta berriro medikuarengana, espezialistengana edo larrialdietara, eta, ondorioz, behar ez dituen esku-hartze medikoak egiten dizkiote HNari, edo alferrikako tratamendu medikoak ematen dizkiote; gainera, baliteke horren ondorioz prestakuntza-, gizarte- edo aisialdi-jardueretara hainbatetan joaterik ez edukitzea. Ez dago beste bati ezarritako nahasmendu faktizioaren diagnostikorik.

⇒ "Boterearen bidezko Munchaüsen-en sindromean (beste bati ezarritako nahasmendu faktizioa)", *sintomak eragiten zaizkio HNari, edo sintomak faltsutzen dira*; eragindako tratu txar medikoetan, berriz, ez da halakorik gertatzen.

⇒ Inpaktu fisikoaz gainera, beti baloratuko da egoera horiek zer-nolako inpaktua duten HNaren segurtasun-pertzepzioan, osasunari eta biziraupenari dagokienez, "*Tratu txar emozionalak – Etorkizun hurbilari dagokionez aurreikusteko ezintasuna, ezegonkortasuna edota segurtasunik eza transmititzea*" eskalaren bidez.

⇒ "Boterearen bidezko Munchaüsen-en sindromeak (beste bati ezarritako nahasmendu faktizioa)" nahiz "eragindako tratu txar medikoek", oro har, haurra edo nerabea eskolara hainbatetan ez joatea edo familiako, gizarteko edo aisialdiko jardueretan parte ez hartzea eragiten dute. Kasuaren deskribapen-txostenean, inguruabarrok jasota geratuko dira.

1. Oso larritasun handia

- Guraso, tutore edo zaintzaile batek edo biek **beste bati ezarritako nahasmendu faktizioaren diagnostiko mediko-psikiatrikoa** dute (DSM-5-TR), eta nahasmendu horren xedea HNa da.

2. Larritasun handia

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **eragindako tratu txar medikoak**. **Esku-hartze batzuk mingarriak edo potentzialki kaltegarriak** izan dira HNarentzat. Egoeraren ondorioz, baliteke **HNa eskolara hainbatetan ez joatea edo familiako, gizarteko edo aisialdiko jardueretan parte ez hartzea**. Ez dago beste bati ezarritako nahasmendu faktizioaren diagnostikorik, DSM-5-TR eskuliburuaren arabera.

3. Larritasun ertaina

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **eragindako tratu txar medikoak**. **Medikuen esku-hartze bat bera ere ez da mingarria edo potentzialki kaltegarria** izan HNarentzat. Egoeraren ondorioz, baliteke **HNa eskolara hainbatetan ez joatea edo familiako, gizarteko edo aisialdiko jardueretan parte ez hartzea**. Ez dago beste bati ezarritako nahasmendu faktizioaren diagnostikorik, DSM-5-TR eskuliburuaren arabera.

4. Egokia / Ez dago

- Ez dago HNari ezarritako nahasmendu faktizioaren diagnostiko mediko-psikiatrikorik, ezta nahasmendu hori badela edo eragindako tratu txar medikoak badirela pentsarazten duen adierazlerik ere.

ZABARKERIA

Haurrak edo nerabeak kaltea jasan du arlo fisiko, emozional, sozial, kognitibo edo afektibo-sexualean, edo kalte hori pairatzeko arriskuan dago, gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak ez direlako gai[22] haren premietara egokitutako arreta emateko, baina horretarako baliabideak dauzkate, edo lor ditzakete, edo arreta emateko behar diren zerbitzuetara irits daitezke.

A. PREMIA FISIKOEKIKO ZABARKERIA

⇒ **Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haur edo nerabe baten zaintza-premia fisikoak artatzeko moduak babesgabetasuna ekarriko du, baldin eta kalte esanguratsua edo larria eragin badiote edo eragin ahal badiote. Eskala eta larritasun-maila jakin batzuetan, mediku-irizpena beharko da. Irizpen hori bereziki garrantzitsua izango da, gutxiengoen elikadura-ohiturak, medikuntza alternatiboak edo antzekoak biltzen dituzten egoerak baloratzen direnean.**

ELIKADURA (janaria eta edaria)

⇒ Larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko, nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).

⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) haur edo nerabearen elikadura-premien arretan ikusitako gabezien larritasuna eta (2) gabezia horiek osasunean edo garapen fisikoan duten inpaktua.

1. Oso larritasun handia

- Haurra edo nerabea **desnutrizio edo deshidratazio larriko** egoeran dago (pisu gehiegi galdu du, anemia dauka, eta abar), eta horregatik **ospitaleratu** egin behar da.
- Haurrak edo nerabeak **intoxikazio** bat izan du (sukarra, gorakoak eta abar), gizakien kontsumorako ez diren edo hondatuta zeuden elikagaiak jateko eman zaizkiolako edo jaten utzi zaiolako, eta horregatik **ospitaleratu** egin behar da. Etxean era horretako elikagaiak ematea edo edukitzea **ohiturazkoa edo sarria** da familian.
- Medikuaren balorazioaren arabera, haurrak edo nerabeak obesitatea du, nagusiki **elikagai gehiegi eta elikagai desegokiak** ematen dizkiotelako, eta egoera horrek beste osasun-arazo larri batzuk eragin dizkio haurrari edo nerabeari, eta arazo horiengatik **ospitaleratu** behar izan dute .
- **Haurtxo** bati edoskialdiak emateari utzi zaio, edo diluitutako esnea ematen zaio ohituraz, eta **desnutrizioko edo deshidratazioko sintomak** ditu —baita errehabilitazioko dieta bakarrik behar badu eta ospitaleratu behar ez badu ere—.

2. Larritasun handia

- Haurrak edo nerabeak **desnutrizioko, deshidratazioko edo intoxikazioko sintoma kliniko** batzuk ditu, edo **gehiegizko pisua** dauka, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek emandako elikadura desegokiaren ondorioz. **Mediku-arreta eta/edo errehabilitazioko dieta behar** du, baina ez du horregatik ospitaleratzerik behar. Medikuaren balorazioaren arabera, inguruabar horiek **osasunerako arrisku larria** dakarte —baina ez bizitzarako arriskua—, zuzentzen ez badira.
- Haurrak edo nerabeak **gehiegizko pisua** dauka, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek emandako elikadura desegokiaren ondorioz. Egoerak mugitzeko zailtasun handiak eragiten dizkio, eta, ondorioz, **ez dauka berdinekiko harremanik, edo ez dago gizarteratuta, edo harreman- eta integrazio- mailak txikiak dira.**
- **Haurtxoari** bularra ematen zaio, edo beste elikadura mota bat du, eta, **medikuaren balorazioaren** arabera, **esne edo nutrizio-osagarriak** behar ditu, baina **ez dizkiote ematen**.

- **Larritasun ertaina**
- Haur edo nerabearen **elikadura ez da nahikoa kantitatearen aldetik, edo desegokia da nutrizio-ekarpenei dagokienez**, baina **ez** dauka horren ondoriozko **gaixotasunik**, **ezta kalte handirik ere bere osasunean, garaieran eta pisuan edota garapen fisikoan**. Ohiturazko kontua ez bada ere, sarritan, behar beste elikatzeko moduko otordu bat ere ez zaio ematen egunean. **Dieta zuzentzeko beharra** oso argia da, eta **medikuak gomendio esplizitu** bat eman du horri dagokionez. Adibideak: haurrari (ez haurtxoari) edo nerabeari ez dizkiote

[22]Nahita, jakintzarik ez edukitzeagatik, haur edo nerabearen egoera gaizki baloratzeagatik, motibatuta ez egoteagatik edo antzeko inguruabarrengatik gerta daiteke.

otordu batzuk ematen; etxean janari gutxi dago, eta haurrak edo nerabeak agian janaria lapurtu edo eskatu du kanpoan; agian, haren adinerako egokiak ez diren elikagaiak ematen zaizkio; elikagarriei dagokienez egokiak ez diren produktu gehiegi du haren elikadurak.

- Haurrak edo nerabeak **gehiegizko pisua** dauka, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek emandako elikadura desegokiaren ondorioz. Egoerak mugitzeko arazoak eragiten dizkio, eta, ondorioz, **kalte esanguratsua sortu da bere gizarte-integrazioan**.

3. Gabeziak

- **Otorduak irregularrak izan daitezke, eta, askotan, prestatu gabe egoten dira**, baina, normalean, **behar adina elikatzen duen otordu bat** ematen zaio egunean. Noizean behin, otordu batzuk egin gabe uzten dira.
- Elikadura **nahikoa**, baina **pixka bat desorekatua nutrizioaren ikuspegitik**.
- Sarritan, haurrak edo nerabeak janaria bere kabuz hartzen du, baina **batzuetan elikaduraren aldetik desegokia den janaria baino ez dago, edo ez dago janari nahikorik**.

Inguruabar horietako bat edo gehiago gertatzen diren arren, ez dute haur edo nerabearen **osasun-egoeran eta -adierazleetan ondorio negatibo** handirik eragin, medikuak esandakoaren arabera. **Dieta edo elikatzeko ohiturak aldatzea komeni da**.

4. Egokia / Ez dago

- Haurrak edo nerabeak elikadura egokia jasotzen du, kopuruz nahikoa, erregularra eta adinerako egokia; normalean, oinarrizko elikadura-premiak betetzen ditu.

ZIRRIBORRA

OSASUN FISIKOAREN ZAINTZA (osasuna eta atsedena)

⇒ Larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko, nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).

⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) haur edo nerabearen osasun-, higiene- eta atseden-premiekiko arretan ikusitako gabezien larritasuna (haurdunaldiko zaintzak barne) eta (2) gabezia horiek osasunean eta errendimenduan eta inguruko pertsonen osasunean duten edo izan dezaketen inpaktua.

⇒ Alabaina, HNak uko egiten badio mediku-tratamendua jaso edo betetzeari eta gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak egoera maneiatu edo konpontzeko gai ez badira, egoera horren ondoriozko arazoa ez da eskala honetan kalifikatuko, "*Gurasoen ezintasuna haur edo nerabearen jokabidea erregulatu eta kontrolatzeko*" eskalan baizik..

1. Oso larritasun handia

- Haurra edo nerabea ez dute lesio, zauri, gaixotasun —sortzetikoa izan zein ez— edo ezintasun batengatik mediku-tratamenduan jarri, beranduegi jarri dute, edo, tratamenduan jarri den arren (bai guraso, tutore edo zaintzaileen ekimenez, bai profesional kualifikatuen jarraibideei jarraituta), ez dute agindutako mediku-tratamendua onartzen edo behar bezala betetzen. **Behar bezala tratatu gabe uzten bada, arazoa arrisku bihur daiteke haur edo nerabearen bizitzarako, larritasun handiko kalte iraunkor bat eragingo dio, edo inguruan dauden pertsonen osasunerako mehatxu larria izan daiteke**.
- **Haurrak edo nerabeak arazo fisikoen aurrekariak edo horretarako arriskua** dauka, baina ez dute arauzko kontroletara eramaten; beraz, **pediatrak edo medikuak ez dio jarraipenik egiten**. Egoera horrek **arriskuan jartzen dio bizitza, narriadura larri eta iraunkorra izateko arriskuan jartzen du, edo benetako arriskua dakarkie inguruko pertsonei**.
- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ez dituzte oinarrizko higiene- eta osasun-arauak errespetatzen** (adibidez, biberoia, platerak, mahai-tresnak, edalontziak eta abar desinfektatzea, toxikoak izan daitezkeen gaiekin erabiliak izan ondoren, edo kutsatutako elementuak baztertzea, hala nola xiringak), eta hori **mehatxu larria** da haur edo nerabearen **bizitzarako edo osasunerako**.
- Nerabeak sexu-jokabide eta -praktika arriskutsuak egiten ditu, eta **sexu-transmisiozko infekzioak** izan ditu aurretik, baina gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak ez dira saiatzen prebentzio-neurriak har ditzan.
- Haurrak edo nerabeak, bere ekimenez edo beste pertsona batzuen nahiz sare sozialen eraginez, **bizitza arrisku handian jartzen dioten edo narriadura larri eta iraunkorra eragin diezaioketen praktikak egiten ditu elikaduraren edo zaintza fisikoaren arloan**, baina gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak, **horren jakitun izan arren, ez dira egoera zuzentzen saiatzen, ez diete osasun-langileen jarraibideei jarraitzen, edo ez dute ondo egiten**.
- Familia-etxebizitzan bizi den pertsona batek gaixotasun kutsakor larri bat dauka, edo, larria ez izanda ere, haurrarengan edo nerabearengan ondorio larriak izan ditzake, hain zuzen ere haurrak edo nerabeak zaurgarritasun-baldintza bereziak dituelako. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **neurri zorrotzak hartu beharko lituzkete kutsatzea saihesteko, baina ez dute egiten**. Egoera hori **mehatxu larria** da haur edo nerabearen **bizitzarako edo osasunerako**.
- **Oro har**, haur edo nerabearen gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez dituzte HNaren eguneroko bizitza eta etxebizitzaren baldintza fisikoak antolatzen, haurrak edo nerabeak bere adinari dagozkion atseden- eta lo-beharrak ase ahal izateko moduan. Egoera horrek bizitza mehatxatzen duten **osasun-arazo larriak, loaren nahasmendu larriak** edo **narriadura iraunkor larria eragin dizkio, eta berehalako tratamendu espezializatua eman behar zaio, eta/edo ospitaleratu egin behar da, arazo horiei aurre egiteko**.

2. Larritasun handia

- Haurrak edo nerabeak gaixotasun edo ezintasun bat dauka —sortzetikoa izan zein ez—, eta gaixotasun horrek larriki oztopatzen du haren funtzionamendu normala. Ez da medikuaren zaintzarik nahiz azterketarik eskatu; eskatu dira, baina beranduegi, edo, eskatu diren arren (bai beren ekimenez, bai profesional kualifikatuen jarraibideei jarraituta), agindutako tratamendua ez da behar bezala betetzen. Tratamenduarekin, arazoa zuzendu ahal izango litzateke, edo kontrolatu, behintzat. Hala ere, **tratamendu egokirik gabe, gaixotasunak edo ezintasunak okerrera egingo du (baina ez du** haur edo nerabearen **bizitza mehatxatzen**). Honako egoera hauek hartzen dira barnean: haur edo nerabe batek denboraldi batez **sintoma fisiko larri batzuk izan ditu (adibidez, min handia edo gaixotasun kutsakor larri baten aztarnak, bizitza mehatxatu gabe)**, baina ez dute medikuarengana eraman, beranduegi eraman dute, edo, eraman duten arren, ez dituzte medikuaren jarraibideak bete.
- **Haurrak edo nerabeak arazo fisikoen aurrekariak edo horretarako arriskua** dauka, baina ez dute arauzko kontroletara eramaten, eta, beraz, **pediatrak edo medikuak ez dio jarraipenik egiten**. Egoera horrek, nahiz eta bizitza arriskuan jarri ez, narriadura larri eta iraunkorra izateko arriskuan jarri ez edo inguruko pertsonei benetako arriskurik ekarri ez, **saihestu ahal izan den gaixotasun edo min fisiko bat garatzeko arriskuan jartzen du**.
- Haurrak edo nerabeak, bere ekimenez edo beste pertsona batzuen nahiz sare sozialen eraginez, **praktika jakin batzuk egiten ditu elikaduraren edo zaintza fisikoaren arloan,** zeinek, nahiz eta **bizitza arrisku handian jarri ez edo narriadura larri eta iraunkorrik eragin ez**, **osasunean kalte esanguratsua pairatzeko arriskuan** jartzen baitute; hala ere, gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak, **horren jakitun izan arren, ez dira egoera zuzentzen saiatzen, ez diete osasun-langileen jarraibideei jarraitzen, edo ez dute ondo egiten**.
- Nerabeak sexu-jokabide eta -praktika arriskutsuak egiten ditu, baina gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak ez dira saiatzen prebentzio-neurriak har ditzan, eta, beraz, **sexu-transmisiozko infekzioak hartzeko arriskua handia** da.

- **Normalean edo sarritan**, haur edo nerabearen gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez dituzte HNaren eguneroko bizitza eta etxebizitzaren baldintza fisikoak antolatzen, haurrak edo nerabeak bere adinari dagozkion atseden- eta lo-beharrak ase ahal izateko moduan. Egoera horrek **osasun-arazo esanguratsuak edo loaren nahasmenduak** eragin dizkio, eta horiek konpondu egin behar dira, baina horretarako ez da berehalako tratamendu espezializaturik edo ospitaleratzerik behar, eta/edo haurra edo nerabea **gaixotasun larri bat pairatzeko arriskuan** jartzen da.

3. Larritasun ertaina

- **Arazo fisikoen edo neurogarapenaren atzerapenaren aurrekaririk eta adierazlerik ez daukan lau urtetik beherako haur bat** ez dute ohiko mediku-kontroletara eramaten, eta, beraz, **pediatrak ez dio jarraipenik egiten**.
- Haurrak edo nerabeak ez du mediku-zaintzarik jaso normalean tratamendua beharko lukeen lesio, zauri edo gaixotasun batengatik, edo beranduegi eraman dute medikuarengana, edo, medikuarengana eraman duten arren (bai guraso, tutore edo zaintzaileen ekimenez, bai profesional kualifikatuen jarraibideei jarraituta), tratamendua ez da behar bezala betetzen. **Haur edo nerabearen egoera, ziur asko, bere kabuz hobetuko da, baita mediku-zaintzarik gabe ere. Hala ere, tratamenduak konplikazioak izateko arriskua murriztuko luke, mina arinduko luke, sendatzea azkartuko luke, edo kutsatzeko arriskua murriztuko luke.**
- HNak ez dauka ase gabeko tratamendu-premia medikorik. Hala ere, **hobetu egin beharko lirateke prebentzioko osasun-zaintzak** (adibidez, hortzen zaintza eta parasitoen prebentzioa edo tratamendua). Horren ondorioz, lesio edo kalte hasiberriak dauzka osasunean (esaterako, hortzoiak handituta, txantxarrak, hazka egiteagatiko zauriak), larriagotu ez daitezen tratatu beharrekoak.
- HNa ingurune toxikoetan egoten da askotan, **tabakoaren, zigarro elektronikoen edo marihuanaren ke-kontzentrazio handikoetan**.
- Haurrak edo nerabeak, bere ekimenez edo beste pertsona batzuen nahiz sare sozialen eraginez, **praktika jakin batzuk egiten ditu elikaduraren edo zaintza fisikoaren arloan**, zeinek, nahiz eta **osasunean kalte esanguratsu bat pairatzeko arriskuan jarri ez**, **epe ertain edo luzean konplikazioak eragin baititzakete edo goranzko intentsitate-patroia baitute**; hala ere, gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak, **horren jakitun izan arren, ez dira egoera zuzentzen saiatzen, ez diete osasun-langileen jarraibideei jarraitzen, edo ez dute ondo egiten**.
- Familiaren etxebizitzan bizi den norbaitek gaixotasun kutsakorren bat daukanean, ohikoa da gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ez hartzea kutsatzeko probabilitatea murriztu edo saihestuko duen higiene- eta osasun-neurririk**. Haurra edo nerabea **gaixo egon da zenbaitetan** arrazoi horrengatik, eta atsedena edo tratamendu medikoa behar izan du, baina ez ospitaleratzea. Egoera hori **ez da mehatxu larria** izan haur edo nerabearen **bizitzarako edo osasunerako**.
- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ezarritako ohiturek edo ordutegiek ez dute modurik ematen haurrak edo nerabeak bere adinaren eta beharren arabera behar duen **atsedena hartzeko edo lo nahikoa egiteko**. Horren ondorioz, haurra edo nerabea **ageriki nekatuta** dago, eta **portaera-nahasmenduak** ditu (adibidez, suminkortasuna, pasibotasuna eta kontzentratzeko zailtasunak). Haurra edo nerabea eskola-adinean badago, egoerak **errendimendu akademikoan eragin diola** ikusten da.

4. Gabeziak

- **Arazo fisikoen edo neurogarapenaren atzerapenaren aurrekaririk eta adierazlerik ez daukan lau urteko edo gehiagoko haur edo nerabe bat** ez dute ohiko mediku-kontroletara eramaten; beraz, **pediatrak ez dio jarraipenik egiten**.
- Haurrak edo nerabeak ez dauka ase gabeko tratamendu-premia medikorik. Hala ere, **hobetu egin beharko lirateke prebentziozko osasun-zaintzak** (adibidez: hortzen zaintza eta parasitoen prebentzioa edo tratamendua). Ez da aurreikusten egoerak osasun-arazo esanguratsurik eragingo dionik. Haurra edo nerabea tratamendu medikoan dagoenean, jarraibideak behar bezala betetzen dira.
- Arrazoitu gabeko aldi batzuetan, haur edo nerabearen gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez dituzte HNaren eguneroko bizitza eta etxebizitzaren baldintza fisikoak antolatzen, haurrak edo nerabeak bere adinari dagozkion atseden- eta lo-beharrak ase ahal izateko moduan. Horrek ez du inolako ondorio negatiborik izan haur edo nerabearen osasunean, baina, aldi horietan, **ikusi da nekatuta zegoela, logura zela eta arreta jartzeko eta kontzentratzeko arazoak zituela.**

5. Egokia / Ez dago

- Haurrak edo nerabeak ez dauka tratamendu medikoa behar dezakeen zauri, gaixotasun edo ezintasunik. Gaixotasun baten sintomak agertzen direnean, berehala eramaten dute medikuarengana, eta medikuaren jarraibideak behar bezala betetzen dituzte. Bere adinerako egokiak diren prebentziozko osasun-zaintzak jasotzen ditu.
- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek beharrezkoak diren prebentzio-neurriak hartzen dituzte familia-etxebizitzan bizi den norbaitek gaixotasun kutsakor bat duenean, kutsatzeko arriskua ahalik gehien murrizteko.

Oharra: Txertoa jartzea ez da derrigorrezkoa; gomendio bat besterik ez da. Halere, HNa zaurgarritasun bereziko egoeran badago eta, medikuaren ustez, txertoa ez jartzea bizitzarako edo osasunerako mehatxua bada, aztergai den HNaren egoerara gehien hurbiltzen den larritasun-maila kalifikatuko da.

JANTZIAK

⇒ Larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko, nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).

⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) haurrak edo nerabeak behar adina jantzi —egoera onean, eta eguraldirako egokiak— izatearen inguruko premiekiko arretan ikusitako gabezien larritasuna eta (2) gabezia horiek osasunean eta eguneroko jardueretako parte-hartzean duten edo izan dezaketen eragina.

1. Oso larritasun handia

- Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak ez dira arduratzen haur edo nerabearen arropa eta oinetakoak egokiak izateaz haren tamainarako eta/edo eguraldirako, ezta kontserbazio-egoera onean egoteaz ere; horrek **kalte fisiko, gaixotasun edo lesio larria eragin dio, eta berehalako arreta medikoa eta/edo ospitaleratzea behar izan du**.

2. Larritasun handia

- Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak ez dira arduratzen haur edo nerabearen arropa eta oinetakoak egokiak izateaz haren tamainarako eta/edo eguraldirako, ezta kontserbazio-egoera onean egoteaz ere; horrek **kalte fisiko, gaixotasun edo lesio larria edukitzeko arriskuan jarri du**, edo **tratamendu medikoa behar duen gaixotasun arrunt bat pairatu du zenbait aldiz.**

3. Larritasun ertaina

- Haurrari edo nerabeari **oinarrizko eta funtsezko jantzi asko falta** zaizkio. Hain arropa gutxi dago, edo hain arropa egoki gutxi, non **batzuetan ezin baititu jarduera normal eta beharrezkoak egin** (adibidez, kalera atera, eskolara joan edo aisialdi- nahiz kirol-jardueretan parte hartu). Batzuetan, **arropa ez da nahikoa edo egokia eguralditik babesteko,** eta ondoez fisiko esanguratsua edo gaixotasun arrunt bat pairatzeko arriskuan jartzen du horrek. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez diote arropa egokia ematen haurrari edo nerabeari, ezta horretarako baliabideak dituztenean ere.
- HNak **bere berdinen arbuioa jasaten du, edo gizarteratzeko zailtasunak dauzka**, erabiltzen duen arroparen gabeziak —urritasuna edo egoera— direla-eta, eta gurasoek ez dute ezer egiten egoera zuzentzeko.

4. Gabeziak

- Haurrari edo nerabeari **funtsezko jantzi bat edo bi falta** zaizkio, edo, jantzi horietako batzuk hain **egoera txarrean** daude, non ez lituzkeen jarri beharko. Eskura dituen jantziak egokituta moldatzen da (adibidez, berokia jarri ordez, beste jertse bat gehiago jarrita).
- Gerta liteke haurra edo nerabea **modu desegokian jantzita** joatea jarduera normal eta beharrezko batzuetara (adibidez, eskolara), **baina ondo parte hartu ahal izatea**.

Nolanahi ere, **arropak eguralditik babesten du haurra edo nerabea**, eta **jantziek ez dute eraginik izan berdinekiko harremanetan edo gizarte-integrazioan; halaber, ez du ematen eragingo dutenik ere.**

5. Egokia / Ez dago

- Haurrak edo nerabeak funtsezko arropa dauka, baina baliteke aldatzeko arropa gutxi edukitzea edo urtarorako jantzi egoki batzuk ez izatea. Gerta liteke jantziak oso higatuta egotea eta askotan pasaratuak egotea, baina urratuta, hautsita eta zikin egon gabe. Baliteke jantzi batzuk ez egokitzea ondo gorputzera (adibidez, mauken luzera gaizki edukitzea, botoiak itxi ezin izatea).
- Haurrak edo nerabeak funtsezko jantzi guztiak ditu. Arropa egokia da ordurako, tokirako eta eguraldirako. Urtarorako arropa egokia dauka (gabardina, eskularruak, jantzi arinak). Arropa behar beste aldiz alda dezake txukun eta garbi joateko. Agian, arropa ez da berria, baina egoera onean dago, eta ondo dauka.

HIGIENE PERTSONALA

⇒ Larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko, nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).

⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) haurrak edo nerabeak higiene pertsonalaren eta jantzien arloan dituen premiekiko arretan ikusitako gabezien larritasuna, (2) egoera horrek osasunean duen edo izan dezakeen eragin-maila eta (3) berdinekin eta beste pertsona batzuekin dituen harremanetan horrek duen edo izan dezakeen eragin-maila.

⇒ Tipologia honetan ez dago larritasun oso handiko kalifikaziorik.

1. Larritasun handia

- **Higiene falta** oso nabaria da (adibidez, haurra edo nerabea ez da dutxatu edo bainatu zenbait astean; ahoaren edota hortzen osasunari ez zaio arretarik eman, oso modu larrian; haurtxoari ez zaizkio pixoihalak behar beste aldiz aldatzen, ohituraz edo sarritan, eta barruko arropa oso zikin egoten da). Horren ondorioz, haurrak edo nerabeak **tratamendu medikoa behar duen kalte fisiko, gaixotasun edo lesio larri bat dauka, edo horretarako arriskuan dago.** Baliteke **beste pertsona batzuk** haren higienearen inguruan **kexatu** izana (adibidez, ikastetxea). HNa nagusiagoa denean, ikaskideek ez dute harekin jolasten, eta ez dute harengandik gertu egon nahi; horren ondorioz, **gaitzespen sozial handia** jasaten du, eta **berdinekiko harremanetan edo gizarte-integrazioan gabezia edo murrizketa larriak ditu.**

2. Larritasun ertaina

- **Higiene falta oso nabaria** da (adibidez, haurra edo nerabea ez da dutxatu edo bainatu hainbat astean; gorputzean edo ahoan kiratsa dario; hortzak lertzoz estalita, horixka edo orbanekin dauzka; arropa zikin darama, ziurrenik kendu ezin diren orbainekin; barruko arropa zikin dago), edo, **ohikotasunez edo sarritan**, HNa ez da erregulartasunez garbitzen, dutxatzen edo bainatzen, ezta behar duenean ere; ilea nabarmenki zikin dauka; baliteke gorputzean edo ahoan kiratsa izatea; arropa nahiko zikin darama, eta hainbat egunez ez da arropaz aldatzen; hala ere, ez dauka horren ondoriozko kalte fisiko, gaixotasun edo lesio esanguratsu edo larririk, ezta horrelakorik pairatzeko arriskurik ere. Baliteke **beste pertsona batzuk** haren higienearen inguruan kexatu izana (adibidez, ikastetxea). Egoerak **kalte esanguratsua eragin du HNaren gizarte-integrazioan eta berdinekiko harremanetan (arbuioa), edo kaltea eragingo duela aurreikusten da.**

3. Gabeziak

- **Ohituraz edo modu puntualean**, haurra edo nerabea ez da erregularki garbitzen, bainatzen edo dutxatzen, ezta behar duenean ere, eta ilea nabariki zikin dauka; gorputzeko usaina izan dezake, edo, agian, hats gaiztoa dauka; arropa nahiko zikin darama, eta ez du zenbait egunean aldatzen. Halere, horrek ez dio inolako kalte fisiko, gaixotasun edo lesiorik eragin, eta ez dago hori gertatzeko arriskurik; halaber, ez du arbuiorik eragiten, eta ez zaizkio berdinekiko harremanak nahiz gizarte-integrazioa murriztu edo ezereztu.

4. Egokia / Ez dago

- Haurra edo nerabea egunero edo bi edo hiru egunean behin garbitzen, bainatzen edo dutxatzen da. Ilea orraztuta eta garbi dauka. Arropa erregularki aldatzen du, nahiz eta itxuraz zikin ez egon. Barruko arropa garbia janzten du egunero, eta behar duen aldiro aldatzen du.

ETXEBIZITZAREN HIGIENE-BALDINTZAK

⇒ Larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko, nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).

⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) etxebizitzaren higiene-baldintzetan ikusitako gabezien larritasuna eta (2) gabezia horiek haur edo nerabearen osasunean, gizarte-integrazioan eta berdinekiko nahiz beste batzuekiko harremanetan duten edo izan dezaketen inpaktua.

⇒ Halaber, kontuan hartzen da gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek egoera zuzentzeko duten prestasuna.

1. Oso larritasun handia

- Etxe zikin-zikina; **higiene falta larriko zenbait baldintza**[23] biltzen dira, eta **arrisku handia** dakarte haur edo nerabearen **osasunerako**. Baliteke haur edo nerabeetako bat gaixo jarri izana arrazoi horrengatik (adibidez, hesteen nahasmendua, intoxikazioa) eta tratamendu medikoa behar izatea.

2. Larritasun handia

- **Higiene falta larriko baldintza batzuk** daude, baina **ez dakarte arrisku larririk** haur edo nerabearen **osasunerako**. Haur edo nerabe bat bera ere ez da gaixo jarri, eta ez du tratamendu medikorik behar izan horregatik.
- **"Larritasun ertainekotzat" jotako inguruabarrak** daude, eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ez diete erantzun udaleko gizarte-zerbitzuek egoera zuzentzeko emandako jarraibideei.**

3. Larritasun ertaina

- **Zikinkeria handia** dago etxebizitzan, baina **ez, oro har, deskonposizio-egoeran dagoen hondakin organikorik, ezta tratatu gabeko izurriterik ere.** Adibideak: alfonbra, moketa eta baldosak zikin daude, alfonbrak usaina dauka; hautsa eta zikinkeria dago alde guztietan eta izkinetan metatuta; etxeak hezetasun- eta ustel-usaina dauka; bainugelak zikin-usain handia dauka; izkina edo gela batzuk zaborrak edo trasteak pilatzeko erabiltzen dira; platerak denak zikin daudenean soilik garbitzen dira; **janari galkorra dago hozkailutik kanpo, eta batzuetan usteldu dago**; egunez intsektuak ageri dira zoruan; paretek, ateek eta bainugelako instalazioek zikinkeria- eta koipe-orbanak dauzkate; ohe-jantziak zikin egonda ere erabiltzen dira (baina pixa- edo kaka-hondarrik edo hondakin organikorik gabe). Baliteke **zabor pixka bat pilatuta** egotea, behar den maiztasunarekin ateratzen ez delako, baina **poltsetan** sartuta dago. Hori **ohiko egoera** da, baina **haur edo nerabe bat bera ere ez da gaixo jarri, edo ez du tratamendu medikorik behar izan horregatik**.
- Agian, egoerak **zaildu egiten dio HNari berdinekin harremanak izatea edo gizarteratzea.**

4. Gabeziak

- Etxea **ez dago txukun, eta hautsez beteta** dago; baliteke gauzak etxe osoan zehar sakabanatuta egotea, eta begien bistako zikinkeria-arrastoak egotea ateetan, leihoetan, zoruan eta abarretan, baina **ez dago zabor-pilaketarik**, eta **produktu galkorrak hozkailuan gordetzen dira**. Egoera hori **noizean behinekoa edo ohikoa** izan daiteke, baina **haurrak edo nerabeak ez dira gaixo jarri, edo ez dute tratamendu medikorik behar izan arrazoi horrengatik, eta egoera horrek ez du arriskurik eragin haien osasunerako**.

5. Egokia / Ez dago

- Etxea normalean garbi eta ordenatuta dago; alfonbrari, moketei eta zoruari erratza maiz pasatzen zaie, eta beharrezkoa denean garbitzen dira (hala ere, ileak, hariak eta paper-puskak izan ditzakete); hautsa erregularki kentzen da (altzarien gainean hauts-geruza mehe bat baino ez dago); usain atseginak edo neutroak daude; etxea ordenatuta dago (baina egunero erabiltzen diren objektu desordenatuak egon daitezke, edo eseki gabeko berokiak); zaborra ontzi egoki batean biltzen da; platerak garbitu edo, gutxienez, harraskan uzten dira otordu bakoitzaren ondoren; elikagaiak modu egokian gordetzen dira; arropa zuria garbi dago, hondakin organikorik nahiz zomorrorik gabe.

[23] ***Higiene falta larria***: Higiene falta larriak, **funtsean, barnean hartzen du etxebizitzan deskonposizio-egoeran dauden elementu edo hondakin organikoak metatzea**; oro har, intsektuen, parasitoen eta/edo karraskarien presentzia dakarte. Era berean, barruan hartzen dira higiene faltaren ondorioz haur eta nerabeengan lesio larriak eragin ditzaketen edo gaixotasunak transmiti ditzaketen intsektuen, parasitoen edo bestelako animalien **kontrolik gabeko izurriteak**. ***Higiene falta larriko baldintzen adibide batzuk:*** Moketa, alfonbrak, paretak, ateak, zoruak, bainugelak eta etxeko hornidura (platerak, oheko arropa eta abar) janari-hondakin, zabor edo hondakin inkrustatu askorekin; zikinkeria- edo koipe-geruza lodia nonahi eta izkinetan pilatua; parasitoak edo intsektuak; altzariak edo koltxoiak pixez busti-bustiak; kaka zoruan; botatzen ez den janari usteldua; zaborra gainezka edo pilatua etxeko hainbat tokitan; usain jasanezinak (pixa, kaka, hondakinak); gizakien edo animalien hondakinak.

ETXEBIZITZAREN EGONKORTASUNA

⇒ Larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko, nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).

⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) haurrak edo nerabeak etxebizitza bat izatea eta (2) etxebizitzaren ezegonkortasunak zenbateraino zailtzen dion berdinekin edo familia-nukleokoak ez diren helduekin harreman egonkorrak sortu eta mantentzea.

⇒ Eskala honetan, ez dago larritasun handiko mailarik, ezta gabezien mailarik ere.

⇒ Egoera babesgabetasuntzat jotzeko, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek portaera zabarra (pasibotasuna, gelditasuna, arduragabetasuna) eduki behar dute etxebizitza egonkor bat eskuratu edo edukitzeko.

⇒ Beste babesgabetasun motarik dagoen aztertuko da beti.

⇒ Haurren eta nerabeen arretari eta zaintzari dagokienez zailtasun materialak soilik dituzten familien kasuan, baldin eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek portaera zabar edo desegokirik ez badute, eta, zehazki, etxebizitzarik ez duten, etxebizitza berehala galduko duten edo bizigarritasuneko gutxieneko baldintzetan dagoen etxebizitzarik ez duten familien kasuan, eskudun administrazio publikoek dagokion jarduketak egingo dituzte familia horiek aldi baterako bizitokia eskuratu dezaten sustatzeko —dela laguntza-sare propioaren bitartez, dela administrazio publikoen beraien baliabideen bitartez—, familia-unitateari eusteko aukera emanez, eta behar diren laguntzak kudeatuko dituzte, familiak etxebizitza egonkor bat eskuratu ahal izateko, haur eta nerabeen ongizatea bermatuko duten baldintzetan, bat etorrita Haur eta Nerabeen Legearen 125. artikuluan ezarritakoarekin, zeina baita bizitegi-bazterketako arriskuan edo egoeran dauden adingabeentzako arretari buruzkoa.
Horrelakoetan, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailari egokituko zaio jardutea. Sail horren baliabideek familiaren eta haur edo nerabearen bizitegi-arazoei garaiz edo behar moduan erantzun ezin dietenean, udaleko gizarte-zerbitzuei egokituko zaie eskura dauzkaten udal-baliabideak kudeatzea. Salbuespeneko kasuetan, hau da, aurreko jarduketek modurik ematen ez dutenean haurrak edo nerabeak gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen dituen bizitoki bat edukitzeko eta haur edo nerabe hori kalte larria jasateko arriskuan dagoenean, lurraldeko gizarte-zerbitzuek haren borondatezko zaintza hartu ahalko dute, kalte hori saihestera bideratutako aldi baterako neurri gisa. Neurri honen iraupena mugatua izango da, eta familiaren arazo materialak konpontzeko beharrezkoa den denborara murriztuko da. Horretarako, lurraldeko eta udaleko gizarte-zerbitzuek koordinatuta egingo dute lan, beren baliabide propioekin eta familiaren laguntza-sare naturaletik lor daitezkeen baliabideekin, eta administrazio publikoaren beste sektore eskudun batzuen mendeko baliabideekin ere. Udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuen esku-hartzea denbora baterako izango da beti, subsidiarioa, bat etorrita Haur eta Nerabeen Legeak "zailtasun sozialetara" lotutako arrisku-egoerei buruz 177.3 eta 177.4 artikuluetan ezarritakoarekin.
Aurreko kasuetan, Adingabeen Babes Juridikoari buruzko Legearen 18.2 artikuluan eta Haur eta Nerabeen Legearen 188.1 artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio, esaten baitute gurasoen, tutoreen edo zaintzaileen pobrezia-egoera ezingo dela kontuan hartu babesgabezia-egoera baloratzeko.

⇒ Lurraldeko gizarte-zerbitzuek esku hartu beharko dute, tartean dena adingabea izanik haurdun badago, bizitokirik gabe eta bazterketa-arriskuan edo -egoeran, ama nahiz kontzebitua babesteko; esparru horretan, familia- edo egoitza-harrerako konponbide baterako irispidea izan beharko du, emantzipatuta egon ala ez (Haur eta Nerabeen Legearen 125.6 artikulua).

1. Oso larritasun handia

- Familiak **ez du etxebizitzarik; galdu egin du, edo galtzeko zorian dago**, etxegabetu egin dituztelako edo errenta ordaindu ez dutelako, eta ez dauka nora joanik, edo eskuratu dezakeen lekuak ez ditu gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **uko egin diete administrazio publikoek eskainitako laguntza ekonomikoei edo etxebizitzei, edo gaizki erabili dituzte.**

2. Larritasun ertaina

- Familia **etengabe aldatzen da etxez eta ingurunez, planifikatu gabe eta bat-batean, errenta ordaintzeko zailtasunak dauzkatelako.** Baliteke gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **uko egin izana administrazio publikoek eskainitako laguntza ekonomikoei edo etxebizitzei, edo horiek gaizki erabili izana.** Egoera horrek **galarazi egiten dio HNari berdinekin edo familia-nukleokoak ez diren helduekin harremanak sortu edo mantentzea**. HNak **etengabe landu behar izaten ditu galera- eta egokitze-prozesuak**. Etxez eta ingurunez aldatzen diren bakoitzean, HNak ez daki zenbat iraungo duten hor.

3. Gabeziak

⇒ Familia **maiz aldatu da etxez eta ingurunez**, baina gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak arduratuta daude **aldaketa horiek HNaren loturei, harremanei eta errutinei ahalik eta gutxien eragin diezaieten**. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ez diete uko egin administrazio publikoek eskainitako laguntza ekonomikoei edo etxebizitzei, eta ez dituzte gaizki erabili.**

4. Egokia / Ez dago

- Familiak etxebizitza egonkorra dauka, alokairuan nahiz jabetzan. Baliteke etxez aldatu izana, baina horrek ez die kalte egin HNaren lotura egonkorrei eta harreman sozialei.

ETXEBIZITZAREN BIZIGARRITASUN-BALDINTZAK

⇒ Larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko, nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).

⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) haurrak edo nerabeak gutxieneko toki- eta bizigarritasun-baldintzak dituen etxebizitza izatea eta (2) gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak zer mailatan jabetzen diren horren garrantziaz eta zer neurritan adierazten duten portaera arduratsua alderdi horretan.

⇒ Narriatuta edo arriskutsu dauden etxebizitzen egoerak "*Segurtasun-premiekiko arduragabekeria – Etxebizitzaren segurtasun fisikoa eta arriskuen prebentzioa*" eskalan jasotzen dira.

⇒ Tipologia honetan, ez dago larritasun oso handiko mailarik.

1. Larritasun handia

- Familia kanpin-denda, furgoneta, auto, karabana, eraikin ezegonkor edo antzeko leku batean bizi da, gutxieneko ekipamendu eta zerbitzurik gabe urari, berokuntzari, argindarrari, sukaldeko ekipamenduari, tokiari eta/edo higiene pertsonalerako elementuei (WC) dagokienez. Baliteke etxebizitza okupatua izatea edo beste familia edo pertsona batzuekin partekatua, eta pertsona horiek ezezagunak izan daitezke. Baliteke familiak intimitate-momentuetarako eta interakzio lasaiak izateko tokirik ez izatea. Haurrak edo nerabeak ez dauka toki propiorik gutxieneko intimitatea izateko, ez eta eskolako lanak egiteko ere. **Familia era horretako baldintzetan bizi ohi da, eta uko egin diete administrazio publikoek eskainitako laguntza ekonomikoei edo etxebizitzei, edo gaizki erabili dituzte. Baliteke kokalekua edo etxebizitza maiz aldatzea, baina antzeko baldintzetan beti.**

2. Larritasun ertaina

- *LARRITASUN HANDIAREN BERDINA,* eta **HNaren gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek onartu egin dute administrazio publikoek eskainitako laguntza, egoera hobean dagoen bizileku bat edukitzeko.**

3. Gabeziak

- Etxebizitzak **oinarrizko ekipamendua** dauka —eta baliteke familiaren tamainarako txikia izatea, beste familia edo pertsona batzuekin partekatzea edo gabezia arinak edukitzea—, baina **baldintza egokiak biltzen ditu HNak intimitatea edukitzeko —behar duenean— edo etxerako lanak egiteko.**

4. Egokia / Ez dago

- Familiak etxebizitza dauka; bere premietarako toki eta oinarrizko ekipamendu nahikoak dauzka, eta funtzionamendu-baldintza onetan dago. Haurrak edo nerabeak behar adinako intimitatea dauka, baita eskolako lanak egiteko tokia/ekipamendua ere.

ZIRRIBORRA

B. SEGURTASUN-PREMIEKIKO ZABARKERIA

ETXEBIZITZAREN SEGURTASUN FISIKOA ETA ARRISKUEN PREBENTZIOA

⇒ Larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko, nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).

⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) etxebizitzan segurtasun-gabeziak egotea, (2) guraso, tutore edo zaintzaileen jokabide zuhurtziagabeen maila edo maiztasuna, (3) gabezia horiek haur edo nerabearen osotasun fisikorako dakarten mehatxu-maila eta (4) gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak horren garrantziaz zer neurritan jabetzen diren eta portaera arduratsua erakusten duten horri dagokionez.

1. Oso larritasun handia

- Familia bizi den **etxebizitza narriadura-egoeran** dago, edo **erortzeko arriskua** dakarten baldintzetan. Baldintza horiek **arrisku argia dakarte** haur edo nerabearen **segurtasunerako**, baina **familiak ez du etxea uzten, arrisku hori dagoela jakinarazi zaion arren.**
- **Zalantzarik gabe arriskutsuak diren baldintza bat edo batzuk** daude etxean aspalditik. **Arrisku nabarmena dago haur edo nerabearen bizitzarako**, eta etxean bizi diren pertsona helduek **ez dute adierazten horretaz jabetzen direnik, ez dituzte hori konpontzeko neurriak hartu, eta ez dute behar adinako arretaz jokatzen**. Baliteke familiako haur edo nerabe batek horregatik kalte edo lesio fisikoren bat jasan izana eta medikuaren arreta behar izana.
- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **jokabide ausartegiak izan dituzte haur edo nerabearekin** (adibidez, ausarkeriaz gidatzea edo erabat mozkortuta edo drogen eraginpean haurtxo bat eramatea), eta **haien bizitza arriskuan jarri dute** jokabide horien ondorioz, ageriki. **Ez dira egoera horretaz jabetzen**, eta, beraz, uste da **egoera hori berriz gertatzeko probabilitatea oso altua** dela. Baliteke familiako haur edo nerabe batek horregatik kalte edo lesio fisikoren bat jasan izana eta medikuaren arreta behar izana.

2. Larritasun handia

- **Baldintza arriskutsu bat edo batzuk** daude aspalditik etxean. Haurra edo nerabea **kalte handia** jasateko **arriskuan** dago, eta, **bizitza arriskuan jartzeko probabilitatea txikia bada ere, istripu larri bat gerta liteke.** Etxean bizi diren pertsona helduek **ez dute adierazten haurrak edo nerabeak duen arriskuaz jabetzen direnik, ez dituzte hori konpontzeko neurriak hartu, eta ez dute behar adinako arretaz jokatzen**. Baliteke familiako haur edo nerabe batek kalte edo lesio fisikoren bat jasan izana eta medikuaren arreta behar izana horregatik.
- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek jokabide ausartegiak izan dituzte sarritan haur edo nerabearekin, eta kalte handia pairatzeko moduko arriskua eragin diote. **Egoera hori berriz ere gertatzeko probabilitatea oso altua** dela uste da, eta, **haur edo nerabearen bizitza arriskuan jartzeko probabilitatea txikia bada ere, istripu larri bat gerta liteke.** Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak **ez dira egoeraz jabetzen**. Baliteke familiako haur edo nerabe batek horregatik kalte edo lesio fisikoren bat jasan izana eta medikuaren arreta behar izana.

3. Larritasun ertaina

- **Baldintza arriskutsu bat edo batzuk** daude aspalditik etxean. Zenbait **momentutan,** helduek **ez dute behar bezala gainbegiratzen** haurra edo nerabea, eta, horren ondorioz, haurrak edo nerabeak **kalte larria pairatzeko arriskua dauka; bizitza arriskuan jartzeko probabilitatea txikia bada ere, istripu larri bat gerta liteke.** Familiako haurrek nahiz nerabeek ez dute kalte edo lesio fisikorik pairatu horren ondorioz.
- **Zenbaitetan**, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **jokabide ausartegiak izan dituzte haur edo nerabearekin**, eta **kalte handia** pairatzeko moduko **arriskua** eragin diote. **Egoera hori berriz ere gertatzeko probabilitatea dagoela** uste da, eta, **haur edo nerabearen bizitza arriskuan jartzeko probabilitatea txikia bada ere, istripu larri bat gerta liteke.** Familiako haurrek nahiz nerabeek ez dute kalte edo lesio fisikorik pairatu horren ondorioz.
- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **haurrari edo nerabeari buruzko informazioa argitaratzen dute Interneten edo sare sozialetan, sarbidea mugatu gabe; argitalpen horietan, adingabea erabat identifikatzen da** (izen osoa, jaioteguna, ikastetxea, helbidea edo errutinak).

4. Gabeziak

- Etxean **baldintza arriskutsu bat edo bi** daude. Etxebizitzan bizi diren helduek **ondo gainbegiratzen** dute, baina haurrarengan edo nerabearengan **kalte larria eragin dezakeen etxeko istripu bat izateko arriskua** dago. Familiako haurrek eta nerabeek ez dute kalte edo lesio fisikorik pairatu horren ondorioz.

5. Egokia / Ez dago

- Etxean ez dago baldintza arriskutsu nabarmenik.
- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez dute jokabide ausartegirik izan haur edo nerabearekin.

Baldintza arriskutsuen adibide batzuk: Gas-ihesa izan da berogailuetan edo sukaldean; sutea gertatu da duela gutxi gela batean edo eraikinean; erradiadoreetatik ur beroa edo lurruna ateratzen da; gai arriskutsuak (adibidez: drogak, alkohola edo farmakoak, produktu kimikoak, sendagaiak) edo objektu arriskutsuak (armak, aiztoak, guraizeak) daude apalategi baxuetan edo giltzaz itxi gabeko armairuetan, harraskaren azpian edo begien bistan gordeta; ez dago babesik leihoetan, eta irekita daude; leihoek hautsita dute kristala, edo ez dute kristalik; eskailerek ez dute babesik.

GAINBEGIRATZEA

⇒ "Abandonuaren" eta "gainbegiratze-zabarkeriaren" arteko aldea honako honetan oinarritzen da: gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haur edo nerabeaz arduratzera itzultzeko asmorik duten ala ez (asmoa esplizitua izan daiteke, edo ikusteko modukoa). "Abandonua" gertatzen den kasuetan, ez dago itzultzeko asmorik, epe laburrera behintzat.

⇒ Larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko, nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da). Haur edo nerabearen oraingo egoerara gehien egokitzen den larritasun-maila kalifikatuko da.

⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) haur edo nerabearen gainbegiratze-gabezien presentzia eta maiztasuna, familia-etxebizitzaren barruan nahiz kanpoan, eta (2) gabezia horiek zer mailatako mehatxua dakarten haur edo nerabearen osotasun fisikorako. **Garrantzitsua da haur edo nerabearen ezaugarri partikularrak kontuan hartzea (adina, adimen-gaitasuna eta abar) gainbegiratze-premiak kontuan hartzerakoan**.

⇒ Hemen barruan sartzen da, baita ere, haurra edo nerabea gainbegiratzen ote den sare sozialetara eta web-orrietara sartzen denean.

TAULA ORIENTAGARRIA ***Gainbegiratze-premiak baloratzeko irizpideak***

Haur edo nerabearen babes, segurtasun eta ongizatearen gaineko erantzukizun nagusia guraso, tutore edo zaintzaileena da, hura bertatik bertara gainbegiratzeko egon ala ez egon gorabehera.
Adina ez da haur edo nerabearen gainbegiratze-premiak baloratzeko orduan kontuan hartu beharreko faktore bakarra. Esaterako, haren heldutasun-maila ere kontuan hartu behar da, baita arazo emozionalak edo muga fisiko nahiz intelektualak dituen ere. Hurrengo taulan jasotzen diren irizpide orientagarriak, beraz, autonomian eta garapen-mailan eragina duten mugen presentziaren eta larritasunaren arabera egokitu beharko dira.

Haur edo nerabearen adina	*Etxean bakarrik egoten da egunean bi orduz edo gutxiagoz*	*Etxean bakarrik egoten da egunean bi eta lau ordu artean*	*Etxean bakarrik egoten da gauez*	*Heldurik gabe egoten da etxetik kanpo*	*Bakarrik egoten da autoan denbora mugatu batez (10 minutuz gehienez)*	*Beste haur edo nerabe batzuk zaindu ditzake*
0-4 urte	EZ	EZ	EZ	EZ	EZ	EZ
5-6 urte	EZ	EZ	EZ	BAI, jolas-eremuan edo lorategian pertsona heldu bat gertu duela (haurra ikusteko moduan edo harekin hitz egiteko edo hari entzuteko aukera ematen duen distantzian)	EZ, salbu eta heldu baten begien bistan badago, aulkira lotuta, eta autoak giltzak kenduta eta esku-balazta jarrita baditu. Inola ere ez, muturreko hotza edo beroa egiten badu.	EZ
7-8 urte	EZ	EZ	EZ	BAI, pertsona heldu bat gertu duela	BAI, hotz edo bero handia egiten duenean izan ezik; autoak giltzak kenduta eta esku-balazta jarrita dituela	EZ
9-11 urte	BAI, heldu batekin harremanetan azkar jartzeko aukerarekin (esaterako, auzokide bat, telefonoa)	EZ	EZ	BAI, pertsona heldu bat gertu duela (eremu –auzo– txiki eta seguruetan, haurra bakarrik atera daiteke erosketa txikiak egitera, lagunekin egotera eta joan-etorri laburrak egitera, baldin eta garraio publikoan egiten ez badira)	BAI	EZ

12-14 urte	BAI	BAI	EZ	BAI, pertsona heldu bat gertu duela	BAI	BAI, jarraibide argiekin
15-17 urte	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI

"BAI" adierazten den kasu guztietan, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek egoera zehatza baloratu behar dute, eta jazo daitekeen edozein gertakari edo ustekabe prebenitzeko neurriak hartu behar dituzte. Kontuz ibili behar da 15-17 urteko nerabeak heldu arduratsurik gabe gauez bakarrik uzteko orduan.

ZIRRIBORROA

1. Oso larritasun handia

- **Ohituraz**, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez dute ***sei urtetik beherako haurra*** **etengabe gainbegiratzen —edo ez dute bermatzen beste pertsona egoki batek egingo duenik—**. Etxe barruan edo kanpoan, gutxi gainbegiratzen dute. Gainbegirada egokirik gabe egon daiteke oso eremu arriskutsuan (adibidez, auto batek harrapatzeko, leiho batetik erortzeko edo erretzeko probabilitate handiko arriskuan) edo elementu arriskutsuak dauden segurtasunik gabeko eremu batean (adibidez, puskatutako kristalak, produktu kimikoak, gailu elektrikoak, substantzia toxikoak edo sendagaiak gertu dauden eremuetan).
- **Ohituraz edo noizean behin**, **gainbegiratu gabe** utzi da ***sei urtetik beherako haur bat*** **denbora-tarte luzeegian** (ikusi aurreko orrialdeko taula) edo **arduratsua ez den pertsona baten zaintzapean** (adibidez, hamabi urtetik beherako beste haur batekin, argi eta garbi arduratsua ez den nerabe batekin, horretarako gaitasuna ez duen pertsona heldu batekin), eta, egoera hori izanik ere, gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak ez daude edo baliteke ez egotea haurrari oinarrizko premiak sortzen zaizkion unean (adibidez, elikagaiak edo ura hartzeko beharra, istripu bat eragozteko beharra, larrialdi batean laguntza eskatzeko beharra, komunera joateko beharra).
- **Ekintza arriskutsu edo suntsikor larriak egin dituen haur edo nerabe bat** (adibidez, ideia suizidak edukitzea, suteak eragitea) behar bezala gainbegiratu gabe utzi da.
- **Aldez aurretik** beste haur edo nerabe batzuekiko **indarkeria ezarri duen edo sexu-abusuak egin dituen pertsona baten ardurapean** utzi da haur edo nerabe bat, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek inguruabar **horren berri izanda**.
- **Behin baino gehiagotan**, haurra edo nerabea bere **bizitza arriskuan jartzen duen egoera batean** utzi da, edo ez dira ezarri arrisku larrietatik benetan aldentzeko prebentzio-neurri egokiak (adibidez, hamabi urtetik beherako haurra su-armak edo elementu benetan arriskutsuak eskura dituela; hiru urtetik beherako haurra zaindu gabeko igerileku batetik gertu; haurtxoa bainuontzian zaintzarik gabe).
- ***Hamabi urteko edo hortik beherako*** haur batek etxetik **ihes egin du**. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez dakite non dagoen, edo ez dakite ziur, eta **ez dute ezer egin eta ez dute ezer egitea pentsatu ondo dagoela ziurtatzeko.**
- Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak **ez dira saiatzen haurra edo nerabea gainbegiratzen, edo baimendu egiten diote** haren **adinerako baimenduta ez dauden sare arriskutsuetara aske sartzea**, **ohituraz haietara sartzen delako ebidentziak edo susmo sendoak** egon arren: Dark weba (erregulatu gabeko gune bat da, non legez kanpoko jarduerak eta eduki oso kaltegarriak gailentzen baitira), sexu-edukia duten helduentzako webguneak, kontaktu eta hitzorduetarako sareak eta edukia neurtzen ez duten sare sozialak, txat anonimoak, lineako apustuak, jokabide autolesiboak, legez kanpokoak, arriskutsuak edo bortitzak sustatzen dituzten sareak edo antzekoak.

Baliteke haurrak edo nerabeak kalte fisikoren bat pairatu izana edo **beste pertsona batek eraso egin izana, egoera horietako baten ondorioz. Hori gertatzeko edo estres-egoera nabarmen baten eraginpean egoteko arrisku argia dago.**.

2. Larritasun handia

- **Ohituraz**, **gainbegiratu gabe** uzten da ***sei urtetik hamabi urtera bitarteko haur bat*** **denbora-tarte luzeegian** (ikusi aurreko orrialdeko taula) **edo arduratsua ez den pertsona baten zaintzapean** (adibidez, adin txikiko beste haur batekin, argi eta garbi arduratsua ez den nerabe batekin, horretarako gaitasuna ez duen pertsona heldu batekin). Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek gutxi gainbegiratzen dute etxean eta/edo etxetik kanpo. Gainbegiratze egokirik gabe egon daiteke oso eremu arriskutsuan (adibidez, auto batek harrapatzeko, leiho batetik erortzeko edo erretzeko probabilitate handiko arriskuan) edo elementu arriskutsuak dauden segurtasunik gabeko eremu batean (adibidez, puskatutako kristalak, produktu kimikoak edo gailu elektrikoak gertu dauden eremuetan). Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek, askotan, ez dute jakiten non dagoen edo zer egiten duen egunean zehar, baina gauez etxean dagoela ziurtatzen dute, edo badakite non dagoen. Haur koskortuek ez dakite gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak gauez non dauden edo noiz itzuliko diren , baina larrialdi batean laguntza eskatzeko gai dira. Baliteke haurra edo nerabea leku ezezagunetan ibiltzea. Oro har, bere segurtasunaren gaineko ardura handiegia ematen zaio. **Baliteke haurrak kalte fisikoren bat pairatu izana edo beste pertsona batek eraso egin izana, egoera horien ondorioz. Hori gertatzeko edo estres-egoera nabarmen baten eraginpean egoteko arrisku argia dago.**
- ***Nerabeak (13 urte edo gehiago)*:** Askotan, nerabeak etxetik kanpo igarotzen du gau osoa, **gurasoek , tutoreek edo zaintzaileek non dagoen edo noiz itzuliko den jakin gabe. Normalean, ez dakite zertan ari den, eta ez dute ezer egiten jakiteko**. Hala etxean nola etxetik kanpo egiten duenaren gaineko interes gutxi adierazten dute, edo batere ez, baldin eta arazorik sortzen ez badiete. Esan dezakete ezin dutela kontrolatu, edo nerabearen independentzia defendatu ("bere kabuz ikasi behar du mundua nolakoa den"). Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez diote beren buruari galdetzen nerabeak etxetik kanpo eskuratzen dituen objektuei edo diruari buruz, edo pertsona heldu ezezagun edo desegokiekin edo egokitzapen-arazo larriak dituzten beste nerabeekin maiz egoteari buruz. **EDO**

  Nerabeak etxetik **ihes egin du**. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez dakite non dagoen, edo ez dakite ziur, eta **ez dute ezer egin eta ez dute ezer egitea pentsatu ondo dagoela ziurtatzeko.**

3. Larritasun ertaina

- ***Sei urtetik beherako haurrak:*** Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **zailtasunak dituzte haurra etxean eta/edo etxetik kanpo gainbegiratzeko**. **Nahiko ohikoa da haurraz behar adina ez arduratzea eta zer egiten ari den ez jakitea**, ikuseremutik galduta, baina jakin badakite non dagoen. Baliteke haurra egin behar ez dituen gauzak egiten egotea. Hala ere, ez du lesio edo kalte fisiko larririk pairatu horren ondorioz, eta gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak **zentzuzko denboran irits daitezke harengana, larrialdi bat gertatzen bada.**
- ***Sei urtetik hamabi urtera bitarteko haurrak:*** Haurra kalean jolasten da etxe ondoan. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **agian badakite non dagoen, baina ez dute behar beste aldiz egiaztatzen**. Neurri handi batean, beste pertsona batzuen esku dago haurra behatua egotea edo ez. Gerta liteke haurra jolasten ari den lekura azkar iritsi ezin izatea, horren beharra sortuz gero. **Batzuetan, gaitasuna ez duen pertsona baten zaintzapean uzten da haurra** (adibidez, beste haur txiki batekin, zaintzeko gaitasuna ez duen pertsona heldu batekin). Hala ere, haurrak ez du inoiz lesiorik pairatu horren ondorioz.
- ***Nerabeak (13 urte edo gehiago):*** Nerabeak jarduera desegokietan parte hartzen du, sarritan, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek jakin gabe; **sarritan, ez dakite non dagoen**. **Batzuetan, ez dute behar adinako ahalegina egiten nerabea noraino irits daitekeen jakiteko, edo ez dituzte beharrezko zigorrak jartzen arauak hausten direnean**. **Egoerari buruzko kezka adierazten dute**. Zailtasunak dituzte nerabearen errespetua lortzeko, baina ez dute guztiz galdu. Sarritan gerta daiteke gauean bakarrik uztea etxean.
- Haurra edo nerabea **ez da nahikoa gainbegiratzen bere adinerako baimenduta ez dauden sare arriskutsuetara** sartzen denean, **ebidentzia edo susmo sendoak daudenean pentsatzeko zenbait aldiz egin duela hori:** Dark weba (erregulatu gabeko gune bat da, non legez kanpoko jarduerak eta eduki oso kaltegarriak gailentzen baitira), sexu-edukia duten webguneak, kontaktu eta hitzorduetarako sareak eta edukia neurtzen ez duten sare sozialak, txat anonimoak, lineako apustuak, jokabide autolesiboak, legez kanpokoak, arriskutsuak edo bortitzak sustatzen dituzten sareak edo antzekoak.

4. Gabeziak

- ***Sei urtetik beherako haurrak:*** **Ez da ohikoa**, baina, batzuetan, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **zailtasunak dituzte haurra etxean eta/edo etxetik kanpo gainbegiratzeko**. Momentu batzuetan ez daude haurrari begira, eta ez dakite zer egiten ari den, ikuseremutik kanpo izanik, baina badakite non dagoen. Baliteke haurra egin behar ez dituen gauzak egiten egotea. Hala ere, ez du lesio edo kalte fisiko larririk pairatu horren ondorioz, eta gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak **zentzuzko denboran irits daitezke harengana, larrialdi bat gertatzen bada.**
- ***Sei urtetik hamabi urtera bitarteko haurrak:*** Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **zailtasunak dituzte haurra etxean gainbegiratzeko**. Normalean, ez dira haurraren gainean egoten, eta ez dute beti jakiten zer egiten ari den, baina beti dakite non dagoen. Sarritan, egin behar ez dituen gauzak egiten egoten da haurra. Batzuetan, jolas bortitzetan parte hartzen du. Hala ere, ez du lesio edo kalte fisikorik pairatu horren ondorioz, eta gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak **zentzuzko denboran irits daitezke harengana, larrialdi bat gertatzen bada. Etxetik kanpo, haurraren jarduerak gainbegiratzeaz arduratzen dira**.
- ***Nerabeak (13 urte edo gehiago)***: Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **arauak jartzen dizkiote** nerabeari, eta, oro har, **betearazi egiten dituzte.** Nerabeak, ordea, batzuetan konbentzitu egiten ditu **haien iritziaren kontrako jarduera jakin batzuk baimentzeko edo onartzeko** (adibidez, etxera beranduegi iristea, behar adina ezagutzen ez diren lekuetara joatea edo nerabeaz arduratuko den inor ez dagoen lekuetara joatea).
- **Ez da nahikoa gainbegiratzen zer web-orri edo saretara sartzen den** haurra edo nerabea, edo **adinerako baimenduta ez dauden web-orrietara sartzen uzten diote normalean**, **web-orri arriskutsuak kontsultatzen dituela pentsatzeko ebidentziarik edo susmo sendorik egon gabe. Edo ez dute Interneterako eta sareetarako sarbidean eta erabileran hezten eta laguntzen.**

5. Egokia / Ez dago

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ondo gainbegiratzen dituzte, une egokian, haurrak edo nerabeak etxean edo etxetik kanpo egiten dituen jarduerak, baita sare sozialak ere. Badakite non dagoen eta zer egiten duen, norekin dagoen eta noiz itzuliko den. Muga zehatzak eta egokiak jartzen dira haren jardueretan. Ez daudenean, pertsona heldu arduratsu baten zaintzapean uzten dute haurra edo nerabea, edo pertsona heldu baten zaintza behar ez izateko behar adina heldua den nerabe bat da.

BESTE PERTSONA BATZUEK EZARRITAKO INDARKERIAREKIKO BABESA

Egoera hau aplikatuko da, bakar-bakarrik, haur edo nerabearen aurka indarkeria (fisikoa, psikologikoa edo sexuala) ezarri duen pertsona (adin nagusikoa edo adingabea) guraso, tutore edo zaintzaileez bestelakoa bada eta bere ekimenez egin badu, haiek bultzatu gabe. Nerabezaroko bikote-harremanetan ezarritako indarkeria eta lineako indarkeria ere sartzen dira.

⇒ Eskala honetan, beste pertsona batzuek HNaren aurka ezarritako indarkeria-egoerak biltzen dira (Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Osorik Babesteko Lege Organikoaren 1.2 artikuluan indarkeriari ematen zaion definizioaren arabera), zeinetan kalte esanguratsua edo larria eragin baitzaio edo eragin ahal izan baitzaio HNari. Indarkeriaren definizioan, jazarpena ere sartzen da. Indarkeriaren larritasuna zehazteko, tresnaren askotariko eskaletan deskribatutako irizpideak hartuko ditugu erreferentziatzat.

⇒ Larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko, nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da). Ebaluatzen den haur edo nerabearen oraingo egoerara gehien egokitzen den larritasun-maila kalifikatuko da.

⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haurrari edo nerabeari gertatzen zitzaiona jakitea, (2) hori gertatzen ari zela adierazten zuten seinaleak hautemateko gai izatea eta (3) egoerari erantzuteko modua egokia[24] izatea.

⇒ Arreta berezia jarriko zaie sexu-indarkeriako egoerei, eta, horien barruan, bizikidetza-unitatearen parte diren hurbilekoek edo familia zabalekoek eragindakoei; azken kasu horretan, aztertu beharko dira bai egoera sortu eta mantentzeko orduan inplikatu diren familia- eta harreman-dinamikak, bai egoerak haur edo nerabearengan izandako eragina, egoera horiek bereziki larriak izaten direlako.

⇒ Tipologia honetan, ez dago gabezien kalifikaziorik.

1. Oso larritasun handia

- Haurrak edo nerabeak **beste pertsona batek eragindako indarkeria —aurrez aurrekoa nahiz digitala— pairatu du, eta horrek kalte larria eragin dio edozein garapen-arlotan, edo horretarako arriskuan jarri du**.. Gurasoek, tutoreen edo zaintzaileek horren berri zuten arren, **jokabide pasiboa** izan zuten, haur edo nerabea **babestu gabe**, edo gertakarien berri ez zutelako itxurak egin zituzten. **Ez zuten neurririk ezarri egoera hori bukarazteko edo gertakariak berriz ez gertatzeko**. Baliteke haurra edo nerabea bizitzen ari den indarkeria ukatzea eta arrisku-egoera ez aitortzea. Baliteke errua haurrari edo nerabeari egoztea. Ez zuten salatu, eta ez zuten berehalako laguntza bilatu.

2. Larritasun handia

- Haurrak edo nerabeak **beste pertsona batek eragindako indarkeria —aurrez aurrekoa nahiz digitala— pairatu du, eta horrek kalte larria eragin dio edozein garapen-arlotan, edo horretarako arriskuan jarri du**.. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ez zuten sen ona izan egoera hori prebenitzeko** (adibidez, hirugarren pertsona horrek murrizketarik eta mugarik gabe zuen aukera haur edo nerabearengandik gertu egoteko), eta **ez zituzten hauteman indarkeria gertatzeko arriskua zegoela adierazten zuten seinaleak** —seinale horiek begi-bistakoak ziren, aburu profesionalaren ustez—. Ez zuten gertatzen zenaren berri izan. Ebidentzien arabera, gertatutakoaren berri izatean egoera **geldiarazten saiatu ziren**, baina ez zuten lortu. **Ez zituzten azkar ezarri behar adina neurri, eta ez zuten mugatu** indarkeriaren erantzuleak haur edo nerabearekin kontaktua izateko aukera. Kezka erakutsi dute, baina **ez dute behar adinako jokabide aktiboa edo efikaza hartu indarkeria berriz ez gertatzeko, begien bistan utzita hori egiteko gaitasun txikia duela.**

3. Larritasun ertaina

- Haurrak edo nerabeak **beste pertsona batek eragindako indarkeria —aurrez aurrekoa nahiz digitala— pairatu du, eta horrek kalte esanguratsua eragin dio edozein garapen-arlotan, edo horretarako arriskuan jarri du**. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ez zuten sen ona izan egoera hori prebenitzeko** (adibidez, hirugarren pertsona horrek murrizketarik eta mugarik gabe zuen aukera haur edo nerabearengandik gertu egoteko), eta **ez zituzten hauteman indarkeria gertatzeko arriskua zegoela adierazten zuten seinaleak** —seinale horiek begi-bistakoak ziren, aburu profesionalaren ustez—. Ez zuten gertatzen zenaren berri izan. **Azkar eta zentzuz jardun zuten** gertakariaren aurka (adibidez, erantzulea salatuta edo laguntza eskatuta), eta **gizarte-zerbitzuek eskainitako laguntza onartu dute**.

4. Egokia / Ez dago

- Haurrak edo nerabeak beste pertsona batek eragindako indarkeria —aurrez aurrekoa nahiz digitala— pairatu du, eta horrek kalte esanguratsua edo larria eragin dio edozein garapen-arlotan, edo horretarako arriskuan jarri du, nahiz eta gurasoek zentzuz jokatu. Ez zirudien indarkeria gertatuko zela adierazten zuen aldez aurreko adierazlerik zegoenik, eta/edo zentzuzko neurriak hartu zituzten haurra edo nerabea edozein tratu txarretik babesteko. Gertatutakoaren berri izan ondoren, indarkeriaren erantzuleen eta haur edo nerabearen arteko kontaktua behar bezala murriztu dute, edo kontrolatzen saiatu dira. Beharrezkoa izan denean, haurrari edo nerabeari laguntza profesional egokia ematen saiatu dira.

[24]Eskala honetan, bakar-bakarrik baloratuko da ea guraso, tutore edo zaintzaileen erantzuna egokia den haur edo nerabea babesteko, erantzun horren efikazia dena delakoa izanda ere.

C. PREMIA KOGNITIBOEKIKO ZABARKERIA

ESTIMULAZIOA

⇒ Era honetako premiekiko zabarkeriaren larritasuna honako hauen arabera ezartzen da: (1) haur edo nerabearen guraso, tutore edo zaintzaileen portaera zabarraren intentsitatea eta maiztasuna, (2) haur edo nerabearen adina eta (3) haur edo nerabearengan sumatzen diren ondorioen larritasuna.

⇒ Guraso, tutore edo zaintzaileen portaera zabarraren larritasuna ertaina bada (ikusi kategoria honen lehengo epigrafea) baina horren ondorioz haurrak edo nerabeak kalte psikiko larria pairatzen badu, larritasun handiko kalifikazioa emango zaio egoerari. Estimulazio faltaren ondoriozko kaltea, arlo kognitiboan ez ezik, arlo fisikoan eta sozialean ere ager daiteke.

⇒ Eskala honen barruan sartzen dira hauek: haurrari edo nerabeari gailu elektronikoak (mugikorra, tableta) ohikotasunez ematea, bakarka erabil ditzan entretenitzeko, distraitzeko eta estimulatzeko, zaintza-, estimulazio- edo gainbegiratze-eginkizunetatik libratu eta eginkizunon ardura gailu horiei emateko helburuz.

1. Oso larritasun handia

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ez diote ematen, eskolatik kanpo, gaitasun kognitiboak garatzeko edo haren estimulazio- eta ikaskuntza-beharrei erantzuteko esperientzia aberasgarri, hezitzaile, ludiko, aisialdiko edo kulturalik**. Haurrak edo nerabeak **eboluzio-lorpen normalak lortzeko egiten dituen ahaleginak oztopatzen dituzte**, edo **interes oso txikia adierazten dute** (adibidez, haurra ia denbora guztian sehaskan edukitzea, hizkuntzaren edo gaitasun fisiko edo intelektualen garapena ez sustatzea, adinerako egokiak diren jolas- edo ikasketa-tresnak ez ematea, jolasteko edo aisiarako beharra duela ez aitortzea, haren galderei ez erantzutea, estimulu berriak ez eskaintzea). **Normalean, nahiago dute haurra edo nerabea bakarrik entretenitzea**, jostailuekin, jokoekin, telebistarekin, **gailu elektronikoekin** edo antzekoekin. **Komunikazioa monosilabikoa da, edo oso mugatua edo zuzentzailea** (akatsak nabarmentzea), eraikitzailea izan beharrean (arrazoitzea eta bide egokia erakustea). **ETA**
  Egoera hori **etengabe, modu bizian eta argi ikusteko moduan** gertatzen da, guraso-figuren eta haur edo nerabearen arteko **harremanen ezaugarri nagusi** bihurtuta. **ETA**
  Familia-ingurunean **ez dago bestelako figurarik** estimulazio-behar horiei arreta egokia emateko eta **gabezia horiek konpentsatzeko**. **ETA**
  ***Sei urtetik gorako haurrak eta nerabeak*:** Haurrak edo nerabeak **kalte larria** du, eta arrazoizko datuak daude pentsatzeko kalte hori guraso, tutore edo zaintzaileen **jokabide zabarraren ondorio** dela. Larritasunaren baloraziorako ez da kontuan hartzen ea gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haur edo nerabearentzako arreta psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzen duten edo arreta hori jasotzea onartzen duten.
  Sei urtetik beherako haurrak: Larritasun oso handiko kalifikazioa emango zaio egoera horri, **haurrak kaltearen sintomak edo garapenaren atzerapen larriko sintomak izan edo ez.**

2. Larritasun handia

- **"Oso larritasun handia" kategorian deskribatutako inguruabarrak gertatzen dira *sei urtetik gorako haur batengan edo nerabe batengan***, baina, haurrak edo nerabeak **kaltearen sintomak dituen arren, ez dira larriak.** Hala ere, sintoma horiek **ez dute hobera egiten; aitzitik, larritasun handia** hartzen doaz, eta zentzuzko datuak daude pentsatzeko guraso, tutore edo zaintzaileen **jokabide zabarraren ondorio** direla. Larritasunaren baloraziorako ez da kontuan hartzen ea gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haur edo nerabearentzako arreta psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzen duten edo arreta hori jasotzea onartzen duten. **EDO**
- **"Larritasun ertaina" kategorian deskribatutako inguruabarrak gertatzen dira, guraso, tutore edo zaintzaileen portaerari eta familia-ingurunean gabezia horiek konpentsatzen dituzten bestelako figurak ez egoteari dagokionez** (ikusi lehenengo bi epigrafeak). Egoera muturrekoa ez bada ere, haurrak edo nerabeak **kalte larria** du, eta arrazoizko datuak daude pentsatzeko kalte hori guraso, tutore edo zaintzaileen **jokabide zabarraren ondorio** dela. Larritasunaren baloraziorako ez da kontuan hartzen ea gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haur edo nerabearentzako arreta psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzen duten edo arreta hori jasotzea onartzen duten.

3. Larritasun ertaina

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ez diote behar besteko sendotasunez ematen, eskolatik kanpo, gaitasun kognitiboak garatzeko edo haren estimulazio- eta ikaskuntza-beharrei erantzuteko esperientzia aberasgarri, hezitzaile, ludiko, aisialdiko edo kulturalik**. **Ekimen gutxi adierazten dute haurrak edo nerabeak eboluzio-lorpen normalak izan ditzan,** baina haren **ekimen propioak onartzen** dituzte. Normalean, nahiago dute haurrak edo nerabeak bakarrik ikastea edo entretenitzea, jostailuekin, jokoekin, telebistarekin edo **gailu elektronikoekin**. Telebistako edozein programa ikusten uzten diote, nahiz eta ahoz gaitzetsi. Garrantzi txikia ematen diete jolasari edo jarduera ludikoei; **oso gutxitan jolasten edo parte hartzen dute jarduera horietan haurrarekin edo nerabearekin, baina horiek egiten uzten diote**. Bat-batekotasuna mugatu egiten dute nolabait. Haien gutxieneko gidarekin garatzen uzten diote. **Komunikazioa mugatua da**, eta, oro har, guraso, tutore edo zaintzaileen gogo-aldartearen araberakoa izaten da. Ez dago arreta sendo eta nahikorik haur edo nerabearen estimulazio- eta ikaskuntza-beharretarako. **ETA**
  Egoera hau oso ohikoa da, **baina interakzio egokiko uneekin txandakatzen da**. **ETA**
  Familia-ingurunean **ez dago bestelako figurarik** behar horiei arreta egokia emateko eta **gabezia horiek konpentsatzeko**. **ETA**
- Haurra edo nerabea **garapenean kalte edo atzerapen esanguratsu bat pairatzeko arriskuan** dago, eta zentzuzko datuak daude pentsatzeko arrisku hori guraso, tutore edo zaintzaileen **jokabide zabarraren ondorio** dela.

4. Gabeziak

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ez diete arreta nahikoa ematen haur edo nerabearen premia kognitibo batzuei. Batzuetan, denbora dutenean izaten dute harremana haur edo nerabearekin, beren premiak lehenesten dituztelako**. **Gizartean onartuta dauden jokabideak** dira, eta, haur edo nerabearen garapenean kalte- edo atzerapen-sintomarik eragin ez badute ere, haren **garapen optimorako gabezia kaltegarriak** dakartzate.

5. Egokia / Ez dago

- Noiz edo noiz estimulazio-arloko zabarkeriatzat jotako jokabide batzuk izaten badituzte ere, intentsitate baxukoak dira, eta noizbehinkakoak. Ikaskuntza- eta estimulazio-premiak ezagutzea, kontuan hartzea eta premia horiei zuzeneko arreta egoki eta aktiboa ematea dira guraso-figuren eta haur edo nerabearen arteko interakzioaren ezaugarriak.

ZIRRIBORRA

PRESTAKUNTZA- ETA HEZKUNTZA-PREMIAK

⇒ Eskala hau nahitaezko eskolatze-adinean bakarrik aplikatzen da (6-16 urte).
⇒ Larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko, nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).
⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) guraso, tutore edo zaintzaileen arreta-maila eta gainbegiratze-maila haur edo nerabearen prestakuntza-premiei dagokienez eta (2) haurrak edo nerabeak arlo horretan izan ditzakeen arazoekiko eta ikastetxearen eskakizun eta orientabideekiko erantzuna.
⇒ Indarreko legediaren arabera, oinarrizko irakaskuntza (Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta oinarrizko prestakuntza-zikloak) nahitaezkoa eta doakoa da. Irakaskuntza horrek helburu du haurrak eta nerabeak prestatzea nahiz sozializatzea, eta modu orekatuan integratzen ditu dimentsio guztiak (Hezkuntzaren Lege Organikoaren (2/2006, maiatzaren 3koa) 4. artikulua. Hezkuntzarako irispidea haur eta nerabeen eskubidea da (Haur eta Nerabeen Legea).
⇒ Hezkuntzaren Lege Organikoak (2/2006, maiatzaren 3koa), abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatu ondoren (LOMLOE), Lanbide Heziketako eta helduen hezkuntzako edukiez eta antolaketaz mintzatzean soilik aipatzen du urrutiko hezkuntza edo hezkuntza erdipresentziala; hortaz, oinarrizko hezkuntza ezin da urrutitik edo formatu erdipresentzialean eman.
⇒ EAEn, absentismotzat jotzen da eskola-orduen % 20tik gora galtzea edo Hezkuntza Sailak (EAE) homologatu ez dituen ikastetxeetan matrikulatzea.
⇒ Absentismorako kausa justifikatuen artean, kontuan hartu behar dira HNaren osasun mentalarekin zerikusia daukaten inguruabarrak; horrelakoetan, osasun- edo hezkuntza-zerbitzuen irizpen psikologiko edo psikiatriko batek berariaz aholkatu behar du hura ikastetxera ez joatea.
⇒ Derrigorrezko irakaskuntzaren etapan eskolagabetze-egoera edo eskola-absentismoko egoera bat detektatu ondoren, Hezkuntza Administrazioak egoera horren kausak zehazteko neurriak hartuko ditu, eta, horien arabera, beharrezkotzat jotzen diren neurriak hartuko ditu (hezkuntza-arlokoak, familiari laguntzekoak, eskola-ingurunean esku hartzekoak, haurrari edo nerabeari laguntza psikologikoa ematekoak). Hezkuntza Administrazioak, erakundearteko eta sektorearteko elkarlanaren eta koordinazioaren esparruan, udaleko gizarte-zerbitzuen parte-hartzea eduki ahal izango du kasu bakoitzean hartu diren neurrien jarraipena egin eta neurriok zaintzeko (Haur eta Nerabeen Legearen 119. artikulua).
⇒ Haur eta Nerabeen Legearen 188.4 artikuluaren arabera, honako hau babesgabeziaren adierazlea da: "*eskolatzerik eza edo behin eta berriro ikastetxera huts egitea, behar bezala justifikatu gabe, eta etengabeko permisibitatea edo eskola-absentismoa bultzatzea derrigorrezko eskolatze-etapetan zehar*".
⇒ Tipologia honetan, ez dago larritasun oso handiko kalifikaziorik.

1. Larritasun handia

- Haurrak edo nerabeak nahitaez eskolatzeko adina dauka **(6-16 urte)**; **ez dago inskribatuta Hezkuntza Sailak homologatutako ikastetxe batean ere, eta ez da aurreikusten egingo duenik[25].**
- Haurrak edo nerabeak **falten % 100 bete ditu azkenengo hiru hilabeteetan**, nahiz eta matrikulatuta egon, **edo azkenengo sei hilabeteetan ez da ikastetxera joan hainbat aste osotan, edo joan dena baino gehiagotan egin du huts eskolara**. Egoera hori **justifikaziorik gabe** gertatzen da, eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **baimendu, ezkutatu edo erraztu** egiten dute.
- Haurrak edo nerabeak **16 urteak bete aurretik utzi du derrigorrezko eskolatzea, guraso, tutore edo zaintzaileen baimenarekin edo estalketarekin**.
- Haurrak edo nerabeak **zailtasun larriak ditu eskola-testuinguruan** (esaterako, % 50etik gorako absentismoa batez beste azkenengo sei hilabeteetan, arau-hausteengatiko arazo larriak, eskola-atzerapen larria, erasoak edo mehatxuak ikaskideei), eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ez diete erantzuten ikastetxearen eskaerei, ETA erabateko arduragabetasuna erakusten dute haur edo nerabearen arazoekiko eta hark eskola-ingurunean duen bilakaerarekiko, edo funts gutxikoak dira erabat** (hor sartzen da, eskola-atzerapen larria duten haur edo nerabeen kasuan, **etxerako lanetan** inolako laguntzarik ez ematea eta lanok ez gainbegiratzea, baldin eta aurretik aipatutako inguruabarren batekin batera gertatzen bada). Baliteke zentroari egoztea haur edo nerabearen arazoak.
- Absentismo-maila txikiagoa izan daiteke, baina, **kasuaren inguruabar bereziak** direla-eta (adibidez, HNak premia bereziak edukitzea edo zaurgarritasun bereziko egoeran egotea), **egoerak maila emozional, akademiko, kognitibo edo sozialean kalte larria** eragin diola edo eragiten ari zaiola balioesten da.

[25] Hezkuntza Sailak egoeraren berri ez badauka, gizarte-zerbitzuek hari eta Fiskaltzari jakinaraziko diete.

2. Larritasun ertaina

- Haurrak edo nerabeak batez beste % 50etik gorako absentismoa izan du azkenengo hiru hilabeteetan, eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ez diete erantzuten ikastetxearen eskaerei**, **ETA erabateko arduragabetasuna erakusten dute haur edo nerabearen arazoekiko eta hark eskola-ingurunean duen bilakaerarekiko**, edo **funts gutxikoak dira erabat**.
- Haurra edo nerabea **modu irregularrean joaten da eskolara**; azkenengo sei hilabeteetan, batez beste, ez da eskolara joan eskola-egunen % 20-50 artean, edo eguneko ordu edo irakasgai jakin batzuetan faltatzen da, etengabe, astean bi aldiz gutxienez. Egoera hori **justifikaziorik gabe** gertatzen da, eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **baimendu, ezkutatu edo erraztu** egiten dute. Horrek eragin negatiboa izan du haur edo nerabearen eskola-errendimenduan. Ikastetxeak kexa batzuk helarazi dizkie gurasoei, tutoreei edo zaintzaileei, baina **ez du inolako emaitzarik** lortu.
- Haurrak edo nerabeak **zailtasun nabarmenak ditu eskola-testuinguruan** (adibidez, asistentzia irregularra, arauak betetzeko arazoak, irakasleekiko eta ikaskideekiko errespetu falta, eskola-atzerapena, kontzentrazio- eta arreta-arazoak), eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez diete behar bezala erantzuten ikastetxeko eskaerei (barruan sartuta **etxerako lanekin** laguntzeko eta lanok gainbegiratzeko eskaera). **Kezka adieraz dezakete, baina ez dituzte neurri egokiak eta sendoak hartzen**.
- HNa **hainbat aldiz aldatu da ikastetxez** (familia-etxebizitza aldatu zein ez), eta horrek eragin kaltegarri eta **handia** izan du haren **portaeran, integrazioan eta eskola-errendimenduan.** Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **kezka adieraz dezakete, baina ez dituzte neurri egokiak eta sendoak hartzen**. Baliteke matrikulatuta dagoen zentroari eskola-aldaketaren berri ez ematea, ezta udalerriz, autonomia-erkidegoz edo herrialdez aldatu badira ere.
- **16 urtetik gorako** nerabe bat, nahitaezko eskolatzea **aprobetxamendurik gabe edo aprobetxamendu gutxirekin** amaitu ondoren, ez dago lan baterako prestatuta, eta ez du ikasten jarraitu nahi; **ez dauka prestakuntza- edo lan-jarduerarik, eta ez du eduki nahi**, eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ez dute horri buruzko kezkarik adierazten**, **ez dira saiatzen prestakuntza- edo lan-jarduera batean inplika dadin sustatzen, eta ez daukate horretarako asmorik**.

3. Gabeziak

- Zenbaitetan, haurra edo nerabea **ez da eskolara joan, arrazoirik eman gabe**, baina **ez du ematen horrek eskola-errendimenduan eta -integrazioan eragin dionik**. Inola ere ez du gainditu eskola-orduen % 20ko absentzia, justifikatu gabe. Zenbaitetan, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez dituzte absentzia horiek ondo justifikatu. **Ikastetxea egoera** gurasoekin, tutoreekin edo zaintzaileekin **jorratzen saiatu da**, baina ez du aldaketarik lortu. Ikastetxeak ez du bestelako neurririk hartzea erabaki.
- Haurra edo nerabea **portaerako, egokitzapeneko edo errendimenduko zailtasunen aztarnak erakusten hasi da ikastetxean, edo puntualtasun-arazoak izaten ditu**, eta, eskolako arduradunen balorazioaren arabera, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ikastetxearekin harreman estuagoa izanda jardun beharko lukete arazo horiei aurre egiteko. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ez diete behar adinako garrantzia ematen zailtasun horiei**. Hemen barruan sartzen da haurrari edo nerabeari eskolako lanak egiten laguntzeko edo lanok gainbegiratzeko premiari behar den garrantzia ez ematea.

4. Egokia / Ez dago

- Haurra edo nerabea erregulartasunez joaten da eskolara, eta, noiz edo noiz huts egin badu, justifikatuta izan da.
- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek komunikazio erregularra dute eskolako arduradunekin, interesa erakusten dute, eta haur edo nerabearen bilakaeran laguntzen dute. Arazoak izan direnean (agian larriak izan dira), ikastetxearekin lankidetza estuan aritu dira arazoei aurre egiteko, eta beren erantzuna egokia eta sendoa izan da.

D. PREMIA EMOZIONALEKIKO ZABARKERIA

Barruan hartzen ditu honako hauek: haur edo nerabearen interakzio-, lotura- eta afektu-premiak nahiz gida- eta orientazio-premiak ez artatzea edo premia horiei erantzun nahikoa ez ematea eta haur edo nerabearen arazo emozional larrietarako edo premia berezietarako arreta psikologiko zein psikiatrikoa emateari uko egitea edo hori ematen atzeratzea

- ⇒ **Ebaluatzen den haur edo nerabearen oraingo egoerara gehien egokitzen den larritasun-maila kalifikatuko da.**
- ⇒ **Egoerak haur edo nerabearengan utzitako ondorioen larritasuna.**
- ⇒ **Bereziki zaila da zabarkeria eta tratu txar emozionaleko egoerak identifikatu, egiaztatu eta baloratzea. Horretarako, baliagarri gerta daiteke Haur eta nerabeen oinarrizko premien taxonomia dokumentua irakurtzea (dagokion eranskinean jasotzen da).**

ZIRRIBORRA

INTERAKZIOA, LOTURA ETA AFEKTUA

⇒ Garapen psikologikoa osasuntsua izan dadin, ezinbestekoa da erreferentziazko figura heldu eta egonkorrekin interakzio-premiak eta atxikimenduzko eta afektuzko lotura-premiak asebetetzea, oinarrizkoak baitira. Horretarako, erreferentziazko helduek eskuragarri egon, segurtasuna eman eta gai izan behar dute HNaren seinaleei eta premiei sentikortasunez (hau da, koherentziaz eta egoki) eta sendotasunez (hau da, egonkor eta aurreikusteko moduan) erantzuteko, ondoeza edo beldurra sentitzen duenean edo gaixorik dagoenean kontsolamendua, afektua eta babesa ematearekin batera.

⇒ Tipologia honetan, haur edo nerabearen premia emozionalei egoki erantzuteko zailtasun iraunkorrek ezaugarritzen dute guraso-jokabidea. Zailtasunak honela ager daitezke, besteak beste: interakziorik ez edo gutxi, bidelaguntza emozionalik edo eskuragarritasun afektiborik ez edo gutxi eta haur edo nerabearen egoerarekin eta eboluzio-unearekin bat datorren komunikazio emozionalik ez edo gutxi. Baliteke gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak ez jabetzea haien harreman moldeak eragin negatiboa duela haur edo nerabearen ongizate emozionalean eta egoerarekin bat ez datozen erantzun saihesgarri, desegoki edo hutsalak ematea. Tipologia honen barruan, haur eta nerabeen interakzio-, lotura- eta afektu-premiei arretarik ematen ez dieten edo premia horiek aitortzen ez dituzten gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak ez ezik, premia horiei arreta eman nahi badiete ere erantzun nahiko edo egokirik ematen ez dutenak ere sartzen dira.

⇒ Alderdiok baloratzeko orduan, garrantzitsua da kontuan hartzea pertsonek maitasuna, hurbiltasuna edo estimua adierazteko moduak asko aldatzen direla kulturaz kultura, adierazpide hori kontaktu fisikoaren bidezkoa, hitzen bidezkoa, keinu sinbolikoen bidezkoa zein gizarte-praktika jakin batzuen bidezkoa izanik. Beraz, kultura batean ohikotzat eta egokitzat jotzen diren portaerak beste modu batean hauteman daitezke beste kultura batean. Desberdintasun horiek ez dakarte inplikazio afektiboa handiagoa edo txikiagoa izatea: besterik gabe, familia-loturak eraiki eta adierazteko modu desberdinak dira, kulturalki ezarriak.

⇒ Era honetako premiekiko zabarkeriaren larritasuna honako hauen arabera ezartzen da: (1) haur edo nerabearen guraso, tutore edo zaintzaileen portaera zabarraren intentsitatea eta maiztasuna, (2) haur edo nerabearen adina eta (3) haur edo nerabearengan sumatzen diren ondorioen larritasuna.

⇒ Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek HNaren interakzio-, lotura- eta afektu-eskaerei ematen dieten erantzuna hutsala edo aurreikusi ezina denean, "*Tratu txar emozionalak*" eskalan kalifikatuko da.

1. Oso larritasun handia

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **entzungor egiten diote haurrari edo nerabeari, eta haien portaerak ez die erantzuten HNak elkarreraginean aritzeko egiten dituen ahaleginei, seinaleei eta premiei** (haur edo nerabearekiko afekturik, zaintzarik eta maitasunik ez adieraztea); halaber, **harekiko interakzioetan, ez dute inolako emoziorik** islatzen edo transmititzen, edo emozio hori eskasa da[26]. **Haur edo nerabearen premia emozionalekiko arreta edo harekiko interakzio egokiko uneak ez dira nahikoak haren premietarako, halakorik ez dagoelako, noizbehinkakoak direlako edo urriak direlako**. Haurrak edo nerabeak guraso, tutore edo zaintzaileen arreta lortzeko egiten dituen ahaleginek liskarra eragin dezakete. **Inoiz edo oso gutxitan daude eskura** haurrari edo nerabeari laguntzeko, behar duenean edo gida edo orientabideak eskatzen dituenean. Haurrak edo nerabeak helduekin hitz egiteko edo haiek bere jardueretan sarrarazteko egiten dituen ahaleginen aurrean jaramonik ez egiteko edo interesik ez adierazteko joera dute. **ETA**
  Egoera hori **etengabe, modu bizian eta argi ikusteko moduan** gertatzen da, guraso-figuren eta haur edo nerabearen arteko **harremanen ezaugarri nagusi** bihurtuta. **ETA**
  Familia-ingurunean ez dago bestelako figurarik, interakzio- eta afektu-premiei arreta egokia ematen dienik eta **gabezia horiek konpentsatzen** dituenik. **ETA**
  Sei urtetik gorako haurrak eta nerabeak: Haurrak edo nerabeak **kalte larria** du (besteak beste, atxikimenduaren eta lotura afektiboaren nahasmenduak), eta arrazoizko datuak daude pentsatzeko kalte hori guraso, tutore edo zaintzaileen **jokabide zabarraren ondorio** dela. Larritasunaren baloraziorako ez da kontuan hartzen ea gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haur edo nerabearentzako arreta psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzen duten edo arreta hori jasotzea onartzen duten.
  Sei urtetik beherako haurrak: Larritasun oso handiko kalifikazioa emango zaio egoera horri, **haurrak kaltearen sintomak edo garapenaren atzerapen larriko sintomak izan edo ez.**

2. Larritasun handia

[26]Honako hauek sartzen dira:

- Haurra edo nerabea alde batera uztea edo harekin ez inplikatzea oro har, ezin dutelako edo motibaziorik ez duelako.
- Interakzioa behar beharrezkoa denean soilik egitea.
- Haurrarekiko edo nerabearekiko inolako afektu, zaintza eta maitasuneko adierazpenik ez egitea edo adierazpenok oso mugatuak izatea.

- **"Oso larritasun handia" kategorian deskribatutako inguruabarrak gertatzen dira *sei urtetik gorako haur batengan edo nerabe batengan***, baina, haurrak edo nerabeak **kaltearen sintomak dituen arren** (besteak beste, atxikimenduaren eta lotura afektiboaren nahasmenduak), ez **dira larriak**. Hala ere, sintoma horiek **ez dute hobera egiten; aitzitik, larritasun handia** hartzen doaz, eta zentzuzko datuak daude pentsatzeko guraso, tutore edo zaintzaileen **jokabide zabarraren ondorio** direla. Larritasunaren baloraziorako ez da kontuan hartzen ea gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haur edo nerabearentzako arreta psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzen duten edo arreta hori jasotzea onartzen duten. **EDO**
- **"Larritasun ertaina" kategorian deskribatutako inguruabarrak gertatzen dira, guraso, tutore edo zaintzaileen portaerari eta familia-ingurunean gabezia horiek konpentsatzen dituzten bestelako figurak ez egoteari dagokionez** (ikusi lehenengo bi epigrafeak). Egoera muturrekoa ez bada ere, haurrak edo nerabeak **kalte larria** du (besteak beste, atxikimenduaren eta lotura afektiboaren nahasmenduak), eta arrazoizko datuak daude pentsatzeko kalte hori guraso, tutore edo zaintzaileen **jokabide zabarraren ondorio** dela. Larritasunaren baloraziorako ez da kontuan hartzen ea gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haur edo nerabearentzako arreta psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzen duten edo arreta hori jasotzea onartzen duten.

3. Larritasun ertaina

- **Sarritan**, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ez diete jaramon egiten haur edo nerabearen interakzio-premiei eta -ahaleginei** (haurrarekiko edo nerabearekiko afektu-, zaintza- eta maitasun-adierazpenik ez egitea), eta, harekiko interakzioetan, ez dute **inolako emoziorik** islatzen, edo emozio hori **eskasa** da. Era berean, **ohikoa** da **eskura ez egotea** haurrari edo nerabeari laguntzeko, behar duenean edo gida edo orientabideak eskatzen dituenean. Hala ere, egoera hori **interakzio egokiko aldi edo uneekin txandakatzen da**. **ETA**
  Familia-ingurunean ez dago bestelako figurarik haur edo nerabearen premia emozionalei arreta egokia emateko eta **gabezia horiek konpentsatzeko**. **ETA**
  Haurra edo nerabea **kalte larria pairatzeko arriskuan** dago (besteak beste, atxikimenduaren eta lotura afektiboaren nahasmenduak), eta arrazoizko datuak daude pentsatzeko kalte hori guraso, tutore edo zaintzaileen **jokabide zabarraren ondorio** dela. Haurrak edo nerabeak jokabide gatazkatsu ez-larriak adieraz ditzake; jokabide horiek arreta lortzeko estrategiak izan daitezke.

ZIRIBORRA

ARAZO EMOZIONALEI ETA ARAZOOTARA LOTUTAKO JOKABIDE-ASALDUREI ETA PREMIA BEREZIEI ARRETA ESPEZIFIKOA EMATEA

⇒ Era horretako premiekiko zabarkeriaren larritasuna honako hauen arabera ezartzen da: (1) gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek arretarik eza argia erakustea haurrak edo nerabeak arazo emozionalak eta arazootara lotutako jokabide-asaldurak edo diagnostikatutako premia bereziak edukitzeagatik jaso beharko lukeen tratamendu psikologiko edo psikiatrikoarekiko edo arreta espezializatuarekiko eta (2) arazo horien larritasuna.

⇒ Barruan sartzen dira adikzioak —haien artean, bideojokoekiko adikzioak (CIE-11)— eta mugikorraren, sare sozialen, bideojokoen edo Interneten erabilera arazotsua.

⇒ Tipologia honetan, "premia berezitzat" jotzen dira diagnostikatutako adimen- edo zentzumen-desgaitasunak eta garapenaren nahasmenduak. Desgaitasun fisikoak —premia berezien kontzeptuaren barruan ere sartzen dira— dauzkan HNari ematen zaion arreta "*Premia fisikoekiko zabarkeria – Osasun fisikoaren zaintza*" eskalan kalifikatuko da.

1. Oso larritasun handia

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek uko egiten diote profesional espezialistek **arazo emozionalengatik eta arazootara lotutako jokabide-asaldurengatik nahiz muturreko larritasuneko premia berezi diagnostikatuengatik** preskribatutako tratamendu psikologiko edo psikiatrikoa zein arreta espezializatua bilatzeari, edo bilaketatik urruntzen dira, edo izugarri atzeratzen dira, baina **arazook arriskuan jartzen dute HNaren bizitza** (adibidez, depresio larria, suizidio-saiakera, elikaduraren nahasmendua), **eta presazko tratamendua behar dute ezinbestean**. **EDO** ez dituzte betetzen haurrari edo nerabeari tratamendua ematen dioten profesionalen jarraibideak, edo nabarmenki arduragabe jokatzen dute. Haur edo nerabearen arazoen jatorria familian jasotako tratua izan daiteke, edo ez.

2. Larritasun handia

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek uko egiten diote profesional espezialistek **arazo emozionalengatik eta arazootara lotutako jokabide-asaldurengatik nahiz premia berezi diagnostikatuengatik** preskribatutako tratamendu psikologiko edo psikiatrikoa zein arreta espezializatua bilatzeari, edo bilaketatik urruntzen dira, edo izugarri atzeratzen dira, eta, **arazook HNaren bizitza arriskuan jartzen ez badute ere, tratamendua behar dute ezinbestean, kalte larri bat zuzendu edo saihesteko**. **EDO** ez dituzte betetzen haurrari edo nerabeari tratamendua ematen dioten profesionalen jarraibideak, edo nabarmenki arduragabe jokatzen dute. Haur edo nerabearen arazoen jatorria familian jasotako tratua izan daiteke, edo ez.

3. Larritasun ertaina

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek uko egiten diote profesional espezialistek **arazo emozionalengatik eta arazootara lotutako jokabide-asaldurengatik nahiz premia berezi diagnostikatuengatik** preskribatutako tratamendu psikologiko edo psikiatrikoa zein arreta espezializatua bilatzeari, edo bilaketatik urruntzen dira, edo izugarri atzeratzen dira, eta, **arazook HNaren bizitza arriskuan jartzen ez badute ere, tratamendua behar dute ezinbestean, kalte esanguratsu bat zuzendu edo saihesteko**. **EDO** ez dituzte betetzen haurrari edo nerabeari tratamendua ematen dioten profesionalen jarraibideak, edo nabarmenki arduragabe jokatzen dute. Haur edo nerabearen arazoen jatorria familian jasotako tratua izan daiteke, edo ez.

ARAUAK, MUGAK, ERRUTINAK ETA BALIO POSITIBOEN TRANSMISIOA[27] -

⇒ Era honetako premiekiko zabarkeriaren larritasuna honako hauen arabera ezartzen da: (1) guraso, tutore edo zaintzaileen arreta ezaren maila haur edo nerabearen premia horiei dagokienez eta (2) portaera-arazoak eta egokitzapen pertsonal, familiar eta/edo sozialeko arazoak haurrarengan edo nerabearengan, edo arazo horiek etorkizun hurbilean agertzeko arriskua.

⇒ Eskala honetan, kontuan hartuko da arauak, mugak eta errutinak zer neurritan egokitzen diren haur edo nerabe bakoitzak bere inguruabar zehatzen arabera dituen premietara (adibidez, adina, premia bereziak, autonomia-maila).

⇒ Eskala hau lotuta dagoenean "*Gurasoen ezintasuna haur edo nerabearen jokabidea erregulatu eta kontrolatzeko eskalan deskribatutako egoeretara*" eskalan deskribatutako egoeretara (hau da, gurasoak ez direnean gai portaera-arazo handiak dauzkaten haur edo nerabeak orientatzeko edo haien jokabideari mugak jartzeko eginkizuna betetzeko), bi eskalak kalifikatuko dira.

⇒ Arau eta muga egoki, arrazoitu eta sendoak ezartzeak, besteak beste, helburu du haur eta nerabeei laguntzea haien portaera eta emozioak erregulatzen eta autorregulazioa ikasten. Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak eginkizun horretatik urruntzen direnean, baliteke gailu elektronikoak (mugikorra, tableta) erabiltzea haur eta nerabeen jokabidea kudeatzeko eta emozioak erregulatzeko ordezko erreminta gisa, eta egoera hori lotuta dago, ohikoa denean, arlo horietan ondorio negatibo esanguratsuak izatearekin.

1. Oso larritasun handia

- Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak **ez dira batere sartzen** mugak jartzeko eta/edo haur edo nerabearen jokabidea behar bezala orientatzeko zereginean. **Ez dago HNaren premia zehatzetara egokitutako** muga, arau edo errutinarik, **modu iraunkorrean. Ez da transmititzen portaera-araurik eta balio positiborik. ETA**
- Haurrak edo nerabeak portaerako eta egokitzapen pertsonal, familiar eta/edo sozialeko arazo larriak ditu, eta egoera horren ondorio dira, edo egoera horrek areagotzen ditu.

2. Larritasun handia

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **oso gutxitan** jartzen dituzte mugak eta arauak, eta/edo oso gutxitan orientatzen dute haurra edo nerabea behar bezala, edo arauak, mugak edo errutinak **nabarmenki desegokiak eta kaltegarriak** dira haur edo nerabearen premia zehatzetarako, **murriztaileegiak edo malguegiak** direlako eta, gainera, batzuetan **funtsik gabe** ezartzen direlako. **Ez da transmititzen portaera-araurik eta balio positiborik. ETA**
- Haurrak edo nerabeak portaerako eta egokitzapen pertsonal, familiar eta/edo sozialeko arazo larriak ditu, eta egoera horren ondorio dira, edo egoera horrek areagotzen ditu.

3. Larritasun ertaina

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **oso gutxitan** jartzen dituzte mugak eta arauak, eta/edo oso gutxitan orientatzen dute haurra edo nerabea behar bezala, edo arauak, mugak edo errutinak **nabarmenki desegokiak** dira **askotan** haur edo nerabearen premia zehatzetarako, **murriztaileegiak edo malguegiak** direlako eta, gainera, batzuetan **funtsik gabe** ezartzen direlako. **ETA**
- Haurrak edo nerabeak **portaerako edo egokitzapen** pertsonal, familiar eta/edo sozialeko **arazoak** ditu, eta, balorazioaren arabera, egoera horren ondorioz larriagotu daitezke, edo uste da **arazo horiek etorkizun hurbilean agertzeko probabilitate handia** dagoela.

Gabeziak daudela edo portaera egokia dela adierazten duten egoerak (premia emozionaletarako deskribapen generikoa)

[27] *Balio positiboen transmisiotzat* jotzen da gai hauekiko errespetuzko jokabideak sustatzea: giza duintasuna, aniztasuna eta giza eskubideak, askatasuna, justizia eta berdintasuna, elkartasuna eta lankidetza, gatazken ebazpen baketsua, zaintzen eta komunitateko bizitzaren gaineko erantzukizuna, zintzotasuna eta zuzentasuna, parte-hartze demokratikoa, tolerantzia, enpatia eta ingurumenaren jasangarritasuna eta zaintza (LOMLOE eta balio zibiko eta etikoetan oinarritutako hezkuntzari buruzko curriculuma).

4. Gabeziak

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ez diete arreta nahikoa ematen haur edo nerabearen premia emozional batzuei** (afektua, komunikazioa, gida eta orientazioa, mugak jokabideari, portaera-arauen eta balio positiboen transmisioa). **Batzuetan, denbora dutenean izaten dituzte harremanak haur edo nerabearekin, baina lehentasun handiagoa ematen diete beren beharrei,** haur edo nerabearen beharrei baino. **Gizartean onartutako jokabideak** hartzen ditu barruan (adibidez, egunerokoan haur edo nerabearekin interakzio mugatua izatea, haren zaintza beste batzuei uztea gehiegitan), eta, jokabideok haurrari edo nerabeari kaltearen sintomarik edo garapenaren atzerapenaren sintomarik eragin ez badiote ere, **gabezia kaltegarriak ekar ditzakete haren garapen egokirako**.

5. Egokia / Ez dago

- Noiz edo noiz, elementu negatiboak egon daitezke guraso, tutore edo zaintzaileen eta haur edo adingabearen arteko harremanean, eta premia emozionalekiko zabarkeria gisa kalifikatutako jokabide batzuk ager daitezke, baina intentsitate baxukoak dira, eta noizean behingo kontua dira. Premia emozionalak ezagutzea, kontuan hartzea eta premia horiei zuzeneko arreta egoki eta aktiboa ematea dira guraso-figuren eta haur edo nerabearen arteko interakzioaren ezaugarriak.

ZIRRIBORRA

SEXU-INDARKERIA

Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek edozein motatako kontaktu eta interakzio sexualetan inplikatzen dute haurra edo nerabea, haiek beraiek, haurra edo nerabea edo beste pertsona batzuk sexualki kitzikatzeko erabiliz

⇒ **Tipologia honetan, bakar-bakarrik sartzen dira gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek zuzenean edo beste pertsona batzuek haien baimenarekin edo haien ekimenez ezarritako sexu-indarkeriako kasuak.**

⇒ **Sexu-indarkeria beste pertsona batzuen ekimenez ezarri denean, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek inguruabarren berri izandakoan nola erantzun duten baloratuko da. Erantzun babeslerik eman ez badute, "*Segurtasun-premiekiko zabarkeria – Beste pertsona batzuek ezarritako indarkeriarekiko babesa*" tipologia baloratu eta kalifikatuko da, baldin badago. Arreta berezia jarriko zaie familia barruko sexu-indarkeriako egoerei, eta, horien barruan, bizikidetza-unitatearen parte diren senideek edo hurbilekoek eragindakoei; hala, aztertu beharko dira bai egoera sortu eta mantentzeko orduan inplikatu diren familia- eta harreman-dinamikak, bai egoerak haur edo nerabearengan izandako eragina, kasu hauetan bereziki larriak izaten direlako.**

⇒ **HNaren sexu-joera edo genero-identitatea nahiz adinerako eta kondiziorako arruntak diren sexu-jokabideak edo -adierazpenak gaitzesteak haren garapen afektibo-sexuala kaltetu ahal badu, "*Tratu txar emozionalak*" eskalan kalifikatuko da.**

⇒ **Tipologia honetan, ez dago larritasun ertaineko mailarik.**

⇒ **Larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko, nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da)[28].**

1. **Oso larritasun handia**
   - **Sexu-eraso sadikoa, errituzkoa edo indarkeria fisikoduna.** Sexu-eraso sadikoa edo errituzkoa[29] egitea eta/edo sexu-jardueran indarkeria fisikoa erabiltzea.
   - **Sexu-erasoa kontaktu fisikoarekin —sarketarekin—.** Sexu-erasoa sarketarekin —uzkitik edo baginatik— edo aho-kontaktu fisikoarekin —zakilarekin, aluarekin edo uzkiarekin—. Sarketa-ahaleginak barruan sartzen dira.
   - **Sexu-erasoa kontaktu fisikoarekin —sarketarik gabe—.** Sexu-erasoa kontaktu fisikoarekin —adibidez, bularra edo genitalak ukitzea, HNa helduaren aurrean biluzaraztea, HNa helduaren sexu-zonaldeak ukitu edo estimulatzera behartzea, heldua eta HNa aldi berean masturbatzea —sarketarik gabe—.
   - **HNa sexu-esplotaziorako erabiltzea.** Baimendu edo sustatu egiten da HNak diruaren, sarien edo bestelako ondasunen truke beste pertsona batzuekin sexu-harremanak edukitzea edo sexu-izaerako jarduerak egitea, edo horretara behartzen da.
   - **HNa pornografia-jardueretarako erabiltzea, HNaren material intimoa edo irudi sexualizatuak eskuratzea eta irudiok hedatzea.**
   - **Sexu-esanahi argia daukaten organoak moztea edo horietan kalte fisikoak eragitea edo kalte egiteko asmoa edukitzea.** Barruan sartzen da klitoria, ezpain txiki nahiz handiak edo bularrak moztea, bularren gainean gauzekin presio egitea, hazi ez daitezen, edo antzekoak egitea.

[29] Sexu-indarkeria zeremonien edo errituzko ekitaldien testuinguruan gerta daiteke. Esanahi erlijioso, magiko edo naturaz gaindikoa duten ekintza antolatuak izaten dira, errepikakorrak eta ankerrak, eta, askotan, hainbat pertsonak gauzatzen dute indarkeria. Egoera horiek arreta handiz baloratu beharko dira, oso arriskutsuak izan daitezkeelako, eta, halaber, tratu txar fisikoak edo psikologikoak dauden ere aztertu beharko da.

2. Larritasun handia

- Helduaren **exhibizionismoa** —adibidez, genitalak erakustea, masturbatzea— , sexu-gozamena lortzeko edo HNa sexualki kitzikatzen saiatzeko. Baliteke HNari parte hartzeko presio egin izana baina hark parte hartu ez izana.
- **Sexu-estimulu edo sexu-jarduera esplizituen eraginpean jartzea, HNaren zuzeneko parte-hartzerik gabe.** HNari komentario sexualki probokatzaileak egin zaizkio, sexu-gaiei buruz hitz egin zaio helburu hezitzailerik gabe, pornografia-materialak erakutsi zaizkio, edo ez da babestu sexu-jardueren eraginpean jartzetik. Ez da bestelako sexu-hurbilketarik izan.
- **HNa jazarri egin da sexu-jardueretan inplika dadin, edo horretarako presio zaio, edo jarduerok proposatu zaizkio, baina ez da gertatu.**
- **Bestelako sexu-jarduerak.**
- **Gero eta maizago agertzea helburu sexualeko sexu-jokabide zalantzagarriak**, zeinak mehatxutzat edo desegokitzat hartzen baitituzte haurrek edo nerabeek (adibidez, helduen zuhurtziarik eza sexu-harremanak dituztenean, haur koskortuekin edo nerabeekin bainatzen edo dutxatzen diren helduak, modu independentean egiteko aukera eta lekua izanik).
- **16 urtetik beherako HNaren ezkon-hitza ematea**, nahiz eta hark onetsi.
- Susmatzen da edo jakina da neskato baten edo neska nerabe baten gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **haren genitalak mutilatzeko asmoa** dutela (Espainian zein atzerrian). **Garrantzitsua**: Gizarte-zerbitzuek emakumeen genitalen mutilazioari buruz legean adierazten dena eta horren ondorioak **jakinarazi ondoren** ere, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek beren **asmoari eusten badiote**, kasuaren larritasuna **"oso handia"** izatera aldatuko da.

3. Gabeziak

- **Haur edo nerabearen intimitate-premiekiko** errespetu falta dakarten jokabideak (adibidez, sexu-gaietan desinhibizio gehiegi, haur koskortuekin edo nerabeekin bainatzen diren edo ohea partekatzen duten helduak, modu independentean egiteko aukera izanik, sexu-portaera desegokiak), baina **asmo sexualik gabe** eta haurrak edo nerabeak mehatxu gisa edo desegoki ikusi gabe.

4. Egokia / Ez dago

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek heziketa afektibo-sexual egokia ematen diote haurrari edo nerabeari, eta arlo horretan ondo garatzeko bidea jartzen dute (ikusi Haur eta nerabeen oinarrizko premien taxonomia, dagokion eranskinean).

ZIRRIBORRA

TRATU TXAR PSIKOLOGIKOAK

Haurrak edo nerabeak kalte larria pairatu du arlo emozional, sozial, kognitibo edo afektibo-sexualean, edo pairatzeko arriskuan dago, guraso, tutore edo zaintzaileen ekintzen ondorioz. Zenbait kasutan —ikusi "Beste indarkeria mota batzuekiko esposizioa familian" tipologia—, bizikidetza-unitatea osatzen duten beste pertsona batzuen ekintzak ere sartzen dira.

A. TRATU TXAR EMOZIONALAK

⇒ Haur edo nerabearen oraingo egoerara gehien egokitzen den larritasun-maila kalifikatuko da.

⇒ Normalean, tipologia hau dagoela zehazteko, ez da gertakari isolatu bakar bat oinarritzat hartzen —eduki traumatiko handiko gertakaria edo egoera ez bada—: guraso, tutore edo zaintzaileen jokabide negatiboen edo interakzio suntsikorren joera errepikakorra edo etengabea behar da, horrek eragiten baitu haurrarengan edo nerabearengan kalte larria edo halako kaltea pairatzeko arriskua.

⇒ Bereziki zaila da zabarkeria eta tratu txar emozionaleko egoerak identifikatu, egiaztatu eta baloratzea. Horretarako, baliagarri gerta daiteke Haur eta nerabeen oinarrizko premien taxonomia dokumentua irakurtzea (dagokion eranskinean jasotzen da).

⇒ Tratu txar emozionalak (zehazki, HNa eraso fisikoen bidez ikaratzea edo mehatxatzea dakarten egoerak) zeremonien edo erituzko ekitaldien testuinguruan gerta daiteke. Esanahi erlijioso, magiko edo naturaz gaindikoa duten ekintza antolatuak izaten dira, errepikakorrak eta ankerrak, eta, askotan, hainbat pertsonak ezartzen dute indarkeria. Egoera horiek arreta handiz baloratu beharko dira, oso arriskutsuak izan daitezkeelako, eta, halaber, tratu txar fisikoak edo sexu-indarkeria dauden ere aztertu beharko da.

JOKABIDE MOTAK	**Baztertzea** Hitzezko edo hitzik gabeko ekintzak, haurra edo nerabea baztertzen edo apaltzen dutenak. Honako hauek jasotzen ditu: • Arbuiatzea, iraintzea, apaltzea eta bestelako tratu etsai edo baztertzaileak, fisikoak ez direnak. • Haur edo nerabearentzat umiliagarriak diren egoerak argitaratzea Interneten edo sare sozialetan. • Haurra edo nerabea lotsaraztea eta/edo barregarri uztea emozio normalak adierazteagatik, hala nola afektua, mina edo tristura. • Beti haur edo nerabe jakin bat hautatzea kritikatu eta zigortzeko, etxeko zeregin gehienak egiteko edo sari gutxiago emateko. • Jendaurrean iraintzea. • Haurrari edo nerabeari egoztea familiako kide baten suizidioaren, heriotzaren, arazo fisiko edo mental larrien, bikote barruko indarkeriaren edo antzekoen errua.
	Ikaratzea Haurra edo nerabea mehatxatzea muturreko zigor batekin, zigor handi batekin, zigor lauso baina maltzur batekin edo abandonatzearekin, haur edo nerabearengan beldur handia eragiteko asmoz. Edo haurra edo nerabea edo maite dituen pertsonak, animaliak edo eduki sinbolikodun objektuak egoera arriskutsuetan edo beldur handia ematen dioten egoeretan jartzea edo jartzearekin mehatxatzea. Honako hauek jasotzen ditu: • Eraso fisiko baten etorkizunera begirako agertoki errepikakorrak eraikitzea, haurrari beldur handia eragiten diotenak. • Aurreikusi ezin diren egoeretan, egoera kaotikoetan edo beldur handia eragiten dioten egoeretan jartzea edo jartzearekin mehatxatzea[30]. • Haur edo nerabearengan espektatiba zorrotzak edo ez-errealistak ezartzea, espektatiba horiek lortzen ez badira zerbait galtzeko, kaltetzeko edo arriskuan jartzeko mehatxuarekin. • Haur edo nerabearen edo hark maite dituen pertsonen, animalien edo eduki sinbolikodun objektuen aurkako indarkeria-mehatxuak edo -ekintzak egitea. • Haur edo nerabearen aurkako eraso fisiko bat alferrik luzatzea, beldurrarazteko asmoz.

[30] Haurra edo nerabea eraso fisikoa egitearekin mehatxatzen denean, "*Eraso fisikoa egiteko mehatxuak*" eskalan kalifikatuko da.

Isolatzea

Etxean edo etxetik kanpo berdinekin edo beste pertsona heldu batzuekin interakzio- eta komunikazio-beharrak asetzeko aukerak ukatzea haurrari edo nerabeari, esplizituki eta zuzenean edo inplizituki. Honako hauek jasotzen ditu:

- Muga zentzugabeak jartzea bere ingurunean mugitzeko askatasunari.
- Muga edo murrizketa zentzugabeak jartzea komunitatean berdinekiko edo beste pertsona heldu batzuekiko harremanetan.

Autonomia murriztea

Haurra edo nerabea hertsatzea edo bere adinari dagokion autonomia- eta partaidetza-maila lor dezan eragoztea, eboluzioaren aldetik desegokiak diren jokabideak sustatu edo baimenduta. Honako hauek jasotzen ditu:

- Haur edo nerabearen gainean gehiegi inplikatzea, haren gauzetan gehiegi sartzea edo hura gehiegi menderatzea, bere sentimenduak, iritziak edo desioak adierazteko aukera ez emanez edo harentzako "mikromundu" bat sortuz. Harreman sinbiotiko edo fusionalak hemen sartzen dira; hau da, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek mendekotasun handiko harreman mota bat sustatzen dute haur edo nerabearengan, eta, horren ondorioz, haurrak edo nerabeak etengabe behar ditu gurasoak hurbil, eta haien baliozkotzea jaso; autonomia pertsonalerako zailtasunak dauzka, eta norberarena denaren eta bestearena denaren arteko mugak lausoak dira (emozioak, erantzukizunak, eremu pertsonalak): horrek zaildu egin dio autonomia psikologikoa garatzea eta identitate bereizia eraikitzea.
- Haurra edo nerabea infantilizatzea.
- Haurra edo nerabea erabiltzea helduen bete gabeko desioak gauzatzeko.

Gehiegi eskatzea

- **Lorpen gehiegi eskatzea:** Haurrari edo nerabeari gehiegizko presioa eragitea, lortu beharreko lorpenei (akademikoak, fisikoak, jokabidekoak, kirolekoak, hartu beharreko erantzukizunak eta abar), egin beharreko jarduerei edo bere gain hartu beharreko erantzukizunei dagokienez, hain zuzen ere lorpen edo ardura horiek argi eta garbi haur edo nerabearen aukeren eta gaitasunen gainetik daudenean —haren adina eta ezaugarriak kontuan hartuta— edo, lor ditzakeen arren, estres gehiegi eta/edo murrizketa larriak eragiten dizkionean dagokion eboluzio-fasearen berezko beste behar edo jarduera batzuei dagokienez. HNaren nahiak eta interesak ez dira kontuan hartzen. Zigorra ezar dakioke haurrari edo nerabeari, edo guraso, tutore edo zaintzaileen afektua kendu, espektatibak ez betetzeagatik.
- **Etxeko zereginetan gehiegi eskatzea**: Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ohikotasunez esleitzen diote haurrari edo nerabeari etxeko zereginak egiteko edo beste haur batzuk, gaixorik dauden pertsonak edo desgaitasuna duten pertsonak zaintzeko ardura. Horren ondorioz, ez da eskolara joaten, eta/edo ia ez dauka astirik jolas-, hezkuntza- eta atseden-jardueretan aritzeko. Baliteke zeregin horiek eskola-ordutegitik kanpo edo jaiegunetan esleitzea eta, ondorioz, denbora librea eta berdinekin harremanak izateko denbora mugatzea edo erabat murriztea. Baliteke eskakizun-mailak oso estres handia eragitea haurrari edo nerabeari.

Guraso bihurtzea:

- Haurrari edo nerabeari guraso-rola esleitzea. Horrelakoetan, rolak trukatzen dira, eta HNari gehiegi eskatzen zaio emozioen arloan[31], haren autonomia murrizten da, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek autoritate-rola betetzeari uzten diote, eta gurasoen eta seme-alaben azpisistemen arteko mugak lausotzen dira (adibidez, seme-alabak gurasoen lagun minak dira, etxeko sostengatzaileak, edo gurasoak seme-alaben "adiskideak" dira). Haurrari edo nerabeari heldu baten rola esleitzen zaio, eta hark bere gain hartzen du; ondorioz, bere beharrak eta eboluzio-zereginak sakrifikatzen ditu, guraso, tutore edo zaintzaileen emozio- eta laguntza-premiak asetzeko.

Etorkizun hurbilari edo erreferentziazko figurei dagokionez aurreikusteko ezintasuna, ezegonkortasuna edota segurtasunik eza transmititzea

- Jokabidearen edo ahozko mezuen bitartez, segurtasun falta handia transmititzen zaio haurrari edo nerabeari haren etorkizun hurbileko alderdiei buruz (adibidez, haren erreferentziazko figura helduen egonkortasuna, familiaren batasuna; egitezko zaintzan dauden haur edo nerabeen kasuan, berriz, zaintzaileengandik urrunduko dituztelako mehatxuak jasotzen dituzte guraso-figurengandik). Segurtasun falta arrazoitua edo funtsik gabea izan daiteke.
- HNa hainbat aldiz elkartu eta bereizi da erreferentziazko figura berarengandik edo hainbat figurarengandik, azalpenik eman gabe.

Jokabidea funsgabea edo aurreikusi ezina izatea[32]

- Guraso-jokabidea oso funsgabea eta aurreikusi ezina da, oso azkar aldatzen baita zaintzatik eta afektutik indarkeriara edo gaitzustera. HNak ez daki zer espero dezakeen; ez da gai guraso, tutore edo zaintzaileen erantzuna eta portaera zein izango diren aurreikusteko, ezta bere eskaerak eta premiak aseko diren jakiteko ere. Baliteke HNak atxikimendu desantolatua edo beste nahasmendu bat garatu izana egoera horri erantzuteko.

Pribatutasuna urratzea

- Interneten eta sare sozialetan haur edo nerabearen datu pertsonal sentikorrak hedatzea, inolako bereizketarik egin gabe, informazio medikoa, psikologikoa edo eskolakoa barne hartuta.

[31] Egoera horretan etxeko zeregin gehiegi egitea eskatzen bazaio, inguruabar hori beste leku batean islatuko da (ikusi aurreko kategoria).

[32] Patroi honek ekitezko nahiz omisiozko jokabideak biltzen baditu ere, eskala honetan soilik kalifikatuko da. Aldi berean ez da zabarkeria gisa kalifikatuko.

HNaren sexu-joera edo genero-identitatea gaitzestea[33] • Jokabidearen edo ahozko mezu esplizitu edo inplizituen bidez, bere sexu-joera, genero-identitatea edo sexu-ezaugarriak, edo bere adin eta kondiziorako ohikoak diren sexu-adierazpenak onargarriak ez direla adierazten zaio HNari, eta horrek modu esanguratsu edo larrian kaltetzen du bere garapen afektibo-sexuala. Hemen barruan sartzen da HNaren sexu-joera edo genero-identitatea aldatzera bideratutako higuin, konbertsio edo kontrabaldintzapen metodoak, programak eta terapiak eginaraztea.

⇒ **Tratu txar emozionalen larritasuna honako hauen arabera ezartzen da: (1) haur edo nerabearen guraso, tutore edo zaintzaileen portaera zabarraren intentsitatea eta maiztasuna, (2) haur edo nerabearen adina eta (3) haur edo nerabearengan sumatzen diren ondorioen larritasuna.**

LARRITASUNA	1. **Oso larritasun handia** • Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **eduki traumatiko handiko tratu txar emozionalen muturreko ekintza bat** egin dute HNaren aurrean (adibidez, suizidatzen saiatzea, haurrak edo nerabeak maite duen animalia bat torturatzea edo hiltzea, zigortzeko). Haurrak edo nerabeak **beldur eta antsietate sakona** pairatu ditu, eta **trauma osteko estresaren nahasmenduaren sintomak** izan ditzake. • Tratu txar emozionaleko jokabideak **etengabe, intentsitate handiz eta argi ikusteko moduan** gertatzen dira, gutxienez guraso-figuretako baten eta haur edo nerabearen arteko **harremanaren ezaugarri nagusi** bihurtuta. **Ez dago** haur edo nerabearen premia emozional eta sexu-afektiboekiko arretarik edo harekiko interakzio egokiko unerik, edo **noizbehinkakoak** dira. **ETA** Familia-ingurunean **ez dago bestelako figurarik** premia horiei arreta egokia emateko eta **gabezia horiek konpentsatzeko**. **ETA** ***Sei urtetik gorako haurrak eta nerabeak*:** Haurrak edo nerabeak **kalte larria** dauka arlo emozional edo afektibo-sexualean, eta, ondorioz, **bere osotasuna arriskuan** dago; gainera, arrazoizko datuak daude pentsatzeko kalte hori guraso, tutore edo zaintzaileen **ekintzen ondorio** dela. Larritasunaren baloraziorako ez da kontuan hartzen ea gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haur edo nerabearentzako arreta psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzen duten edo arreta hori jasotzea onartzen duten. ***Sei urtetik beherako haurrak:*** Larritasun oso handiko kalifikazioa emango zaio egoera horri, **haurrak kaltearen sintomak edo garapenaren atzerapen larriko sintomak izan edo ez.** • Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek HNa behartzen dute helduek egin beharko lituzketen **etxeko zeregin izugarri gogorrak egitera, haren adin eta/edo egoerarako lanaldi luzeegietan**. Baliteke haurra edo nerabea gaixo egonik behartu izana eta, esperotakoa bete ez badu, zigortu izana. Horren ondorioz, **ez da eskolara joaten**, eta ia ez dauka **astirik jolas-, hezkuntza- eta atseden-jardueretan** aritzeko.

[33] **4/2023 Legea, otsailaren 28koa, transexualen berdintasun erreal eta eragingarrirako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko dena, 17. artikulua**: *"Konbertsio-terapien debekua. Debekatuta dago pertsonen sexu-joera edo -identitatea nahiz genero-adierazpena aldatzera bideratutako higuin, konbertsio edo kontrabaldintzapen metodoak, programak eta terapiak egitea, baita interesdunaren edo haren legezko ordezkariaren baimena dagoenean ere".*

Haur eta Nerabeen Legearen 177.2 artikulua: "*Honako hauek joko dira arrisku-adierazletzat, gurasoei edo, hala badagokio, tutoreei edo tutoretza-, zaintza- edo harrera-ahalmenak dituzten pertsonei esleitutako babes-eginbeharrak nola bete diren aztertzeko adierazleak baloratu eta haztatu ondoren: "i) Gurasoek, edo, hala badagokio, tutoretza-, zaintza- edo harrera-eginkizunak betetzen dituzten pertsonek, pertsona adingabeekiko egiten dituzten bereizkeria-jokabideak, barne hartuta pertsona adingabearen adinagatik, desgaitasunagatik, sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik gertatzen direnak, haien ongizaterako eta osasun mental nahiz fisikorako kalteak badakartzate, edo eragin badezakete familia-egoitzan konfinatzeko aukerak areagotzea, hezkuntzarako irispiderik ez izatea, aisialdirako aukera urriak izatea, arterako eta kultura-bizitzarako irispiderik ez izatea edo, oro har, beren eskubideak berdintasunez egikaritzea eragoztea"* eta*"j) Gurasoek, edo, hala badagokio, tutoretza-, zaintza- edo harrera-eginkizunak betetzen dituzten pertsonek, errespetatu nahi ez izatea pertsona adingabearen sexu-orientazioa, genero-identitatea edo sexu-ezaugarriak, garapen pertsonalaren oinarrizko osagai gisa".*

4/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa, 26.1 artikulua: "*Sexu- edo genero-identitatea ez onartzeak eragindako indarkeria familia-indarkeria gisa aitortuko da, eta laguntzeko eta babesteko neurriak hartuko dira familia-esparruan edozein kideren sexu- edo genero-identitateagatik gauzatzen den edozein indarkeria motaren aurka. Guraso-ahala edo tutoretza esleituta duten pertsonek adingabearen sexu- edo genero-identitatea errespetatzeari uko egitea arrisku-egoeratzat hartuko da, eta gizarte-zerbitzuen esku-hartzea ezarriko da, Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legean aurreikusitako ondorioetarako, salbu eta, inguruabarrak direla-eta, indarkeria edo tratu txar psikiko gisa kalifikatzen bada; kasu horretan, astungarri gisa agertuko da".*

Haurrari edo nerabeari gorroto- eta arbuio-sentimenduak eta jarrera eta jokabide bortitzak sustatzen bazaizkio, edo beste pertsona batzuk mendean hartzekoak, haien sexuan, sexu-joeran, genero-identitatean edo sexu-ezaugarrietan oinarrituta, "*Galbideratzea*" eskalan kalifikatuko da.

	2. Larritasun handia • **"Oso larritasun handia" atalean *sei urtetik gorako haur eta nerabeentzat* deskribatutako inguruabarrak** daude, eta haurrak edo nerabeak **kalte larria** dauka arlo emozional edo afektibo-sexualean, baina bere **osotasuna ez dago arriskuan**; halaber, arrazoizko datuak daude pentsatzeko kalte hori guraso, tutore edo zaintzaileen **ekintzen ondorio** dela. Larritasunaren baloraziorako ez da kontuan hartzen ea gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haur edo nerabearentzako arreta psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzen duten edo arreta hori jasotzea onartzen duten. **EDO** • **"Larritasun ertaina" kategorian deskribatutako inguruabarrak gertatzen dira, guraso, tutore edo zaintzaileen portaerari eta familia-ingurunean gabezia horiek konpentsatzen dituzten bestelako figurak ez egoteari dagokionez**. Egoera muturrekoa ez bada ere, haurrak edo nerabeak **kalte larria du arlo emozional eta/edo afektibo-sexualean**, eta arrazoizko datuak daude pentsatzeko kalte hori guraso, tutore edo zaintzaileen **ekintzen ondorio** dela. Larritasunaren baloraziorako ez da kontuan hartzen ea gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haur edo nerabearentzako arreta psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzen duten edo arreta hori jasotzea onartzen duten. • HNaren sexu-joera edo genero-identitatea aldatzera bideratutako **higuin, konbertsio edo kontrabaldintzapen metodoak, programak eta terapiak** eginarazi zaizkio[34]. • Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ohikotasunez esleitzen dizkiote etxeko zereginak HNari**. Horren ondorioz, **ez da eskolara joaten**, eta ia ez dauka **astirik jolas-, hezkuntza- eta atseden-jardueretan** aritzeko. Baliteke zeregin horiek eskola-ordutegitik kanpo edo jaiegunetan eginaraztea eta, ondorioz, **denbora librea eta berdinkideekin harremanak izateko denbora mugatzea edo erabat murriztea**. • Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **prestakuntza akademikoa uztera** behartu dute ***16 eta 18 urte arteko nerabe bat***, etxeko zereginez arduratu dadin, nahiz eta nerabeak **errendimendu ona eduki eta ikasten jarraitu nahi** izan.
	3. Larritasun ertaina • Tratu txar emozionaleko jokabideak **behin eta berriz** gertatzen dira, baina **interakzio egokiko aldi edo uneekin** txandakatzen dira. **ETA** Familia-ingurunean **ez dago bestelako figurarik** haur edo nerabearen premia emozionalei arreta egokia emateko eta **gabezia horiek konpentsatzeko**. **ETA** Haurrak edo nerabeak **kalte esanguratsua** dauka, edo **izateko arriskuan** dago, eta arrazoizko datuak daude pentsatzeko kalte hori guraso, tutore edo zaintzaileen **ekintzen ondorio** dela. Haurrak edo nerabeak jokabide gatazkatsuak izan ditzake, baina ez dira larriak. Egoera zuzentzen ez bada, jokabide horiek larriagotu egin daitezke. • Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **etxeko zereginak esleitzen dizkiote ohikotasunez eskola-ordutegitik kanpo edo jaiegunetan**, eta lanok **gehiegi mugatzen dituzte — baina ez erabat— haren denbora librea, berdinekin harremanak izateko denbora eta/edo eskolako lanak egiteko denbora.**
	4. Gabeziak • Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **behin eta berriro** izaten dituzte tratu txar emozionalen jokabideak, baina **haur edo nerabearekiko interakzioa ona den aldiekin txandatzen dira.** Hala ere, familia-ingurunean badaude **haur edo nerabearen behar emozionalei arreta egokia ematen dieten eta gabezia horiek konpentsatzen dituzten beste figura batzuk.** Haurrak edo nerabeak **ez dauka kalte esanguratsuaren sintomarik, eta ez du ematen izango dituenik.** • **Noizean behin**, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **etxeko zereginak esleitzen dizkiote** HNari, eta **eskolako lanak egiteko denbora mugatu** dio horrek.
	5. Egokia / Ez dago • Guraso, tutore edo zaintzaileekiko harremanean noizean behin elementu afektibo negatiboak egon daitezkeen arren eta tratu txar emozional gisa kalifika daitezkeen jokabide batzuk egon daitezkeen arren, intentsitate gutxikoak dira, eta noizbehinkakoak. Premia emozional eta sozialak ezagutzea, kontuan hartzea eta premia horiei zuzeneko arreta egoki eta aktiboa ematea dira guraso-figuren eta haur edo nerabearen arteko interakzioaren ezaugarriak. • Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek sustatu egiten dute, eta bidea jartzen, HNak jarduera akademikoa edo prestakuntzakoa buka dezan. Etxeko zereginak esleitzen dizkiote, edo bere eboluzio-mailari dagokion moduan familian laguntzeko eskatzen diote, betiere bermatuta zeregin horiek eskolako jarduerak oztopatzen ez dituztela eta denbora librea eta berdinekin harremanak izateko aukerak dituztela. • Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haur edo nerabearen sexualitatea aitortzen eta onartzen dute, eta sexu-heziketa egokia ematen diote, besteak beste arriskuetatik babesteko.

B. GENERO-INDARKERIAREKIKO ESPOSIZIOA

⇒ Egoera hauetan, Balora tresnaren lehenengo atalean ezarritakoaren arabera jokatuko da.
⇒ Ebaluatzen den haur edo nerabearen oraingo egoerara gehien egokitzen den larritasun-maila kalifikatuko da.

34

⇒ Tipologia honen larritasuna honako hauen arabera zehazten da: (1) haurra edo nerabea zenbateraino dagoen genero-indarkeriaren eraginpean, (2) indarkeriaren intentsitatea eta maiztasuna eta (3) egoera horiek haurrari edo nerabeari eragin dioten edo eragin diezaioketen kaltearen larritasuna. ⇒ Eskala honetan, "aitaren figurak" ez dio erreferentzia egiten aita biologikoari edo adopziozkoari soilik, barruan hartzen dituelako ezkontzaren antzeko afektibitate-harremanen bidez -—nahiz eta elkarrekin bizi ez— amaren ondoan edo HNaren tutoretza edo zaintza bere gain daukan emakumearen ondoan dauden edo egon diren gizonak ere.
1. Oso larritasun handia • Aitaren figurak ama edo HNaren tutoretza edo zaintza bere gain daukan emakumea **hil edo erail du, edo horretan saiatu da**. • HNak **gutxienez eraso fisiko oso larri bat edo hilketa- nahiz erailketa-saiakera bat ikusi du, edo argi eta garbi hauteman** (erasoak eragindako lesioen ondorioz, emakumea ospitaleratu behar izan dute; gizonak arma hilgarriekin mehatxatu du emakumea, edo antzekoak), aitaren figurak amaren kontra edo HNaren tutoretza edo zaintza bere gain daukan emakumearen kontra egindakoa. • Aitaren figurak **indarkeria fisiko oso larriko erasoak** egin dizkio amari edo HNaren tutoretza edo zaintza bere gain daukan emakumeari (erasoak eragindako lesioen ondorioz, emakumea ospitaleratu behar izan dute; gizonak arma hilgarriekin mehatxatu du emakumea, edo antzekoak), eta, nahiz eta haur edo nerabea **ez den egoera horien lekuko izan eta ez dituen argi eta garbi sumatu**, uste da arrisku handia dagoela egoera horiek berriro gertatzeko eta haur edo nerabearen **bizitza edo osotasun fisikoa arrisku handian** jartzeko. • Aitaren figurak **indarkeria fisikoa** erabili du amaren edo HNaren tutoretza edo zaintza bere gain daukan emakumearen aurka, **baita hitzezko indarkeria-gertakari errepikatu, esplizitu eta gogorrak** eragin ere. **NHa** gertakari horietan **inplikatu da edo inplikatu dute**, **eta**, horren ondorioz, **kalte fisiko bat pairatu du —edozein larritasun-mailatan—, edo pairatzeko arriskuan dago**.
2. Larritasun handia • Aitaren figurak **indarkeria fisikoa** erabili du amaren edo HNaren tutoretza edo zaintza bere gain daukan emakumearen aurka, **eta/edo hitzezko indarkeria-gertakari edota mehatxu errepikatu, esplizitu eta gogorrak** egin ditu. HNak gertakari hori **ikusi du, edo argi eta garbi hauteman du, eta, egoera horren ondorioz, kalte larri bat pairatu du (ez fisikoa; fisikoa izanez gero, oso larritasun handikotzat joko da), edo pairatzeko arriskuan dago.** • Haurrak ikusi edo entzun egin du aitaren figurak nola egin dion mehatxu amari edo tutoretza edo zaintza bere gain daukan emakumeari, **HNa kaltetzearekin edo behin betiko urruntzearekin**[35].

3. Larritasun ertaina
• **"Larritasun handiko"** egoera bera da, baina HNak:
  ○ Ez du inolako kalte fisikorik pairatu egoera horren ondorioz, eta ez da kalterik pairatzeko arriskuan egon, eta
  ○ Egoera horrekin lotutako **kalte psikologiko esanguratsuaren** sintomak izan ditzake, edo egoera bideratu ezean etorkizun hurbilean **sintomak izateko probabilitate handia** dagoela balioesten da.
• Aitaren figurak **hitzezko indarkeria-gertakariak (ez mehatxuak)** eragiten ditu sarritan amaren edo HNaren tutoretza edo zaintza bere gain daukan emakumearen aurka, baina **indarkeria fisikorik ez**. HNak gertakari horietako batzuk ikusi ditu, edo argi eta garbi sumatu ditu. Egoera horri loturiko **kalte esanguratsuaren sintomak** ditu, eta, nahiz eta **larriak izan ez**, egoera zuzentzen ez bada **larritasun handiagoko sintomak** ager daitezke. Hala ere, guraso-figurek **interakzio egokiko uneak** dauzkate HNarekin.

4. Egokia / Ez dago • Ez dago genero-indarkeriarik. Hitzezko indarkeria-gertakariren bat egon ahal izan bada ere, isolatua eta intentsitate baxukoa izan da, eta HNa ez da horren lekukoa izan.

[35] Horrelakoetan, "*Tratu txar emozionalak – Ikaratzea*" eskala dagoen baloratuko da, eta, hala badagokio, kalifikatu.

C. BESTE INDARKERIA MOTA BATZUEKIKO ESPOSIZIOA FAMILIAN

⇒ Kasu honetan soilik joko da tipologia mota hau dagoela: guraso-figuretako inor neurriak hartzeko gai ez denean, ez egoera hori desagerrarazi edo kontrolatzeko, ez haurra edo nerabea indarkeriako egoera horretatik urrunduz babesteko.

⇒ Ebaluatzen den haur edo nerabearen oraingo egoerara gehien egokitzen den larritasun-maila kalifikatuko da.

⇒ Tipologia honen larritasun-maila zehazteko honako hauek hartuko dira kontuan: (1) bizikidetza-unitateko kideen artean gertatzen den indarkeria fisikoaren edo hitzezko indarkeriaren intentsitatea eta maiztasuna eta (2) egoera horiek haur edo nerabearengan sorrarazi duten edo sorrarazi dezaketen kalte fisiko eta psikikoaren larritasun-maila.

1. Oso larritasun handia

- Bizikidetza-unitateko kide batek beste kide bat **hil edo erail** du, edo horretan saiatu da.
- HNak **gutxienez eraso fisiko oso larri bat edo hilketa- nahiz erailketa-saiakera bat ikusi du, edo argi eta garbi hauteman** (erasoak eragindako lesioen ondorioz, norbait ospitaleratu behar izan dute; batak arma hilgarriekin mehatxatu du bestea, edo antzekoak), bizikidetza-unitateko kideen artean.
- Bizikidetza-unitateko kideen artean **indarkeria fisiko oso larriko erasoak** egon dira (erasoak eragindako lesioen ondorioz, norbait ospitaleratu behar izan dute; batak arma hilgarriekin mehatxatu du bestea, edo antzekoak), eta, nahiz eta haur edo nerabea **ez den egoera horien lekuko izan eta ez dituen argi eta garbi sumatu**, uste da arrisku handia dagoela egoera horiek berriro gertatzeko eta **haur edo nerabearen bizitza edo osotasun fisikoa arrisku handian** jartzeko.

2. Larritasun handia

- Bizikidetza-unitateko kideen artean **indarkeria fisikoko egoerak eta hitzezko indarkeria-egoerak** (esplizituak eta intentsitate handikoak) gertatu dira behin eta berriz. Haurra edo nerabea **gertakari horien lekukoa izan da, edo argi eta garbi hauteman ditu, ETA**:
  - **Kalte fisiko esanguratsu edo larri** bat pairatu du, edo horretarako arriskuan egon da, argi eta garbi, **eta/edo**
  - **Kalte psikologiko larriaren** sintomak ditu, eta arrazoizko datuak daude pentsatzeko sintomak egoera horren ondorio direla.
- Bizikidetza-unitateko kide batek **HNa kaltetu edo desagerraraztearekin egin die mehatxu guraso-figurei**.

3. Larritasun ertaina

- **"Larritasun handiko"** egoera bera da, baina HNak:
  - Ez du **kalte fisiko** larririk pairatu egoera horren ondorioz, eta
  - Egoera horrekin lotutako **kalte psikologiko esanguratsuaren** sintomak izan ditzake, edo egoera bideratu ezean etorkizun hurbilean **sintomak izateko probabilitate handia** dagoela balioesten da.
- Bizikidetza-unitateko kideen artean **hitzezko indarkeria-gertakariak** gertatu dira maiz, baina **ez da indarkeria fisikorik** egon. HNak gertakari horietako batzuk ikusi ditu, edo argi eta garbi sumatu ditu. Egoera horri loturiko **kaltearen sintomak** ditu, eta, nahiz eta **larriak izan ez**, egoera zuzentzen ez bada **larritasun handiagoko sintomak** ager daitezke. Hala ere, bizikidetza-unitateko kideek **interakzio egokiko uneak** dauzkate HNarekin.

4. Gabeziak

- Bizikidetza-unitateko kideen artean **hitzezko indarkeria-gertakariak** gertatu dira, baina **ez da indarkeria fisikorik** egon. Haur edo nerabea gertakari horien lekuko izan da, baina gertakarian inplikaturiko pertsonak **ahalegindu dira egoera horiek haur edo nerabearen aurrean gerta ez daitezen**. Bizikidetza-unitateko kideek, **orokorrean, interakzio egokia** izaten dute haur edo nerabearekin. HNak **ez dauka egoera horri lotutako kaltearen sintomarik**, eta ez da uste edukiko dituenik ere; halere, baliteke hitzezko indarkeria-gertakarien aurrean ondoeza sentitzea.

5. Egokia / Ez dago

- Bizikidetza-unitateko kideek hitzezko indarkeria zein indarkeria fisikoa erabili gabe konpontzen dituzte beren gatazkak. Hitzezko indarkeria-gertakari bakanak izan daitezkeen arren, haurra edo nerabea ez da horien lekuko.

D. INPLIKAZIOA, GURASOEN ARTEKO EDO BESTE SENIDE GARRANTZITSU BATZUEKIKO GATAZKETAN

⇒ **Definizioa: Gatazka-maila handiko familia-harremanei edo -hausturei** aplikatzen zaie, eta, egoera horietan, gurasoetako batek edo biek, jokabideen eta jarreren bidez, modu aktiboan inplikatzen dute haurra edo nerabea beste gurasoarekin edo senide esanguratsuekin daukan gatazkan. Hainbat modutan gerta daiteke hori: haurra edo nerabea erabiliz —kontzienteki edo inkontzienteki— beste gurasoarengandik edo senide esanguratsu horrengandik zerbait lortzeko edo hura kaltetzeko asmoz; haurrak edo nerabeak beste gurasoarekin edo senide esanguratsuarekin daukan harremana ahulduz edo eragotziz; kontzienteki nahiz inkontzienteki haur edo nerabearen aliantza bilatuz edo eskatuz liskarrean; haurra edo nerabea erabiliz —modu instrumental edo emozionalean— guraso-figura baten premiak asetzeko, edo familia-sistemaren orekaren gaineko erantzukizuna HNari emanez; haurra edo nerabea gatazkatik ateratzeko ezer ez eginez, hura bere ekimenez inplikatu denean; haurra edo nerabea erabiliz beste guraso-figuraren edo senide esanguratsuaren jarduerei buruzko informazioa eskuratzeko; haurra edo nerabea erabiliz guraso-figuretako baten sekretuak eta konfidentziak gordetzeko, betiere gai horiek zerikusia daukatenean beste guraso-figurarekiko edo senide esanguratsuarekiko harremanean sentitzen dituen ondoezarekin eta atsekabearekin, harremanaren hausturarekin eta horretarako arrazoiekin, legezko informazioarekin edo, are, bizipen intimoekin, eta abar[36]. Horren ondorioz, haurrak edo nerabeak kalte emozional larria pairatzen du, edo pairatzeko arriskuan dago, edo asko mugatu zaio bi guraso-figurekin edo senide esanguratsuekin harreman egoki eta ona sortu edo edukitzeko gaitasuna.

Oro har, kasu hauek bereziki zailak izaten dira baloratzeko.

⇒ Banantzeari, dibortzioari, zaintzari, jagoletzari edo bisiten erregimenari buruzko prozedura judiziala dagoenean, instantzia judizialek izango dute eskumena egokitzen diren legezko neurriak hartu edo aldatzeko. Dena dela, prozedura judiziala egoteak ez du baztertzen gizarte-zerbitzuek ardura izatea baloratzeko ea haurrak edo nerabeak kalterik daukan edo kaltea pairatzeko arriskuan dagoen, ezta babesteko eta laguntza psikosoziala emateko esku-hartzeak aktibatzeko ere, kalte esanguratsuaren edo larriaren adierazleak daudenean.

⇒ Banantze- edo dibortzio-testuinguru oso gatazkatsuetan, baliteke haurrek eta nerabeek **arbuio handia adieraztea guraso-figura batekiko edo, are, harengandik urruntzea**. Horrek hainbat kausa izan ditzake:

- **Aztertu beharreko lehenengo hipotesia** da arbuiatutako guraso-figuraren portaerak eragin duela berekiko arbuioa, iragandako harreman zail eta ez oso maitekor baten edo, adibidez, haur edo nerabearen kontrako edo familiako beste kide batzuen kontrako indarkeria-gertakariak izan zituen harreman baten jarraitutasun gisa.
- Baliteke, baita ere, haurrak edo nerabeak afinitate handiagoa agertzea guraso-figura batekiko. Afinitate horrek zerikusia izan dezake, esaterako, generoagatik edo adinagatik, ezaugarri fisiko edo psikologikoengatik, gurasotasun moldeagatik, atxikimendu-loturagatik edo interes komunengatik hurbilago sentitzearekin edo beste guraso-figura familia-bizitzan luzaroan egon ez izanarekin.
- Arbuioa sor daiteke, era berean, haurrak edo nerabeak presioa jasaten badu —egoerak berak edo tartean diren bi helduetako batek eraginda— guraso-figura baten alde edo familia-unitateko fakzio edo bando baten alde egiteko (leialtasun-gatazka edo familia-haustura). Horrela, haurrak edo nerabeak segurtasuna eta nolabaiteko bakea lortzen ditu, baita gatazka bukaraztea ere. Arbuiatutako guraso-figura jo dezake familia-hausturaren erantzuletzat, baita guraso-figura "ahularen" —hots, bere ustez babestu behar duenaren— sufrimenduaren erantzuletzat ere.
- Beste batzuetan, haurra edo nerabea harreman fusional batean harrapatuta egon daiteke guraso-figuretako batekin, non muga psikologikoak ez baitira argiak; horrelakoetan, HNak babesten eta asebetetzen ditu guraso-figura horren emozio- eta mendekotasun-premiak, eta baliteke rolak trukatzea.
- Amaitzeko, guraso, tutore edo zaintzaile batek edo biek jokabide-, estrategia- edo ekintza-patroi errepikakor eta bizia izan dezakete, haurrak edo nerabeak beste guraso, tutore edo zaintzailearekin edo senide esanguratsuekin daukan harremana hondatzera bideratua (instrumentalizazioa). Horrek kalte larria eragin diezaioke haurrari edo nerabeari, eta, batzuetan, baliteke haurrak edo nerabeak arrazoirik gabeko arbuio bizi eta iraunkorra sentitzea, horren ondorioz, guraso-figura batekiko edo, are, familia zabalarekiko. Egoera mota horiek, nahiz eta ohikoak izan ez, izan badira, eta ez dagozkio sexu jakin bati.

⇒ Adierazi moduan, banantze- edo dibortzio-testuinguru oso gatazkatsuetan, kausa askok eragin dezakete haur edo nerabe batek arbuio bizia sentitzea guraso-figura batekiko, eta aztertu egin beharko dira. Batzuetan, banantzeari edo dibortzioari erantzuteko modu iragankor bat izaten da. Alabaina, denboran luzatzen bada, egoera konplexu bat irudikatzen du, eta, beraz, egoera aztertu eta baloratzeko, nahitaezkoa da familiako kide guztiak ebaluatzea —guraso-figurak eta haurrak eta nerabeak—. Oro har, egoera ez du

[36]Eskala hau, batik bat, bizikidetza-nukleoan bizi diren senide esanguratsuei aplikatzen bazaie ere, haurrarekin edo nerabearekin bizi ez diren senideei ere aplika dakieke, baldin eta haur edo nerabearekin afektu-lotura estua duten figura esanguratsuak badira.

pertsona bakar batek eragiten, eta familiako harreman-dinamika disfuntzionaletan izaten du jatorria; askotan, gainera, dinamika horiek baziren banandu edo dibortziatu aurretik ere.

⇒ **Genero-indarkeriako** kasuetan, balorazioan oso kontuan hartuko dira kasuaren inguruabarrak, eskala hau aplika daitekeen ala ez zehazteko. Kasu horietan, aurretik beti aztertuko da ea "Genero-indarkeriako egoerekiko esposizioa" tipologia eta/edo indarkeria bikarioa dagoen.

⇒ Ebaluatzen den haur edo nerabearen oraingo egoerara gehien egokitzen den larritasun-maila kalifikatuko da.

⇒ Tipologia honen larritasuna zehazteko, faktore hauek hartzen dira kontuan: (1) guraso-figuren portaeraren intentsitatea eta (2) zer-nolako eragina duen portaera horrek haurrarengan edo nerabearengan eta guraso-figurekiko / senide esanguratsuekiko harremanaren kalitatean.

1. Oso larritasun handia

- Guraso-figura batek edo biek **etengabe edo oso modu bizian inplikatzen dute HNa familiako gatazkan**. Horren ondorioz, **kalte larriaren** sintomak dauzka, edo **asaldura larriak garatu ditu guraso-figura batekiko edo biekiko edota bizikidetza-nukleoko senide esanguratsu batekiko harremanean edo loturan (arrazoitu gabeko arbuioa barne)**, eta arrazoizko datuak daude pentsatzeko arazook egoera horren ondorio direla.

2. Larritasun handia

- **"Oso larritasun handia" kategoriako egoera berbera**, baina haur edo nerabeak daukan **kaltearen sintomak ez dira larriak**; halere, **hobetu beharrean**, **okerrera egiten ari dira**, eta arrazoizko datuak daude pentsatzeko arazook egoera horren ondorio direla. Egoera hori dela-eta, **zailtasun handiak daude harreman edo atxikimendu-lotura positiboak ezartzeko edo mantentzeko** haur edo nerabearen eta guraso-figuren edo bizikidetza-nukleoko senide esanguratsuren baten artean.

3. Larritasun ertaina

- **"Oso larritasun handia" kategoriako egoera berbera,** baina haurrak ez du **kalte larriaren sintomarik, ezta asaldurarik ere** guraso-figurekiko edo bizikidetza-nukleoko senide esanguratsu batekiko **harremanean edo atxikimendu-loturan**. **Kalte esanguratsuaren sintomak izan ditzake**; halakorik ez badago, balioesten da egoera bideratu ezean **etorkizun hurbilean sintoma horiek izateko probabilitate handia** dagoela.
- Guraso-figura batek edo biek **askotan inplikatzen dute HNa familiaren gatazkan**. Ez dauka **kalte larriaren sintomarik, ezta asaldurarik ere** guraso-figurekiko edo bizikidetza-nukleoko senide esanguratsu batekiko harremanean edo atxikimendu-loturan. **Kalte esanguratsuaren sintomak izan ditzake**; halakorik ez badago, balioesten da egoera bideratu ezean **etorkizun hurbilean sintoma horiek izateko probabilitate handia** dagoela (kalte potentziala).

4. Gabeziak

- **Noiz edo noiz**, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek HNa inplikatu edo erabili dute familiaren gatazkan, baina ez da hori haien arteko harremanaren ezaugarri nagusia, eta inplikazio edo erabilera hori ez da oso bizia izan. Oro har, harreman egokia dute HNarekin. Batzuetan, HNa leialtasun-gatazkan egon daiteke, baina ez dauka kaltearen sintomarik, eta gai da bi guraso-figurekiko eta senide esanguratsuekiko harremanari eusteko.

5. Egokia / Ez dago

- Gatazka egon daitekeen arren, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez dute HNa hor inplikatzen edo erabiltzen, haien liskarretatik urrun uzten dute-eta. HNari ez zaio zaildu bi gurasoekin eta senide esanguratsuekin harreman egonkor eta positiboa izateko modua.

E. ERASO FISIKOA EGITEKO MEHATXUAK

⇒ Ebaluatzen den haur edo nerabearen oraingo egoerara gehien egokitzen den larritasun-maila kalifikatuko da.

⇒ Tipologia honen larritasuna honako hauen arabera zehazten da: (1) haurrari edo nerabeari mehatxatutako kaltearen larritasuna, (2) mehatxuek haur edo nerabearengan sortzen duten beldurra eta (3) mehatxuak gauzatzeko arriskua.

1. Oso larritasun handia

- **Kalte fisiko oso larria egiteko mehatxu zuzena, baina benetan kalterik egin gabe:** Haurra edo nerabea, **gutxienez behin, egoera oso arriskutsuan** jarri da (adibidez, leiho baten ertzean, irakiten dagoen uraren gainean), **kalte benetan larria egitearekin mehatxatuz**. Edo hiltzearekin mehatxatu zaio, horretarako agian armak erabiliz (labanak, eskopetak eta abar). Aldez aurretik pentsatuta egin dira mehatxuak, edo gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek kontrola erabat galdu duten egoera batean. Ez da kalte nahiz lesio fisikorik eragin, baina egoera horrek **beldur handia** sortu du haur edo nerabearengan. Mehatxu horiek errepikatu edo gauzatu daitezkeela baloratzen da.

2. Larritasun handia

- **Kalte fisiko larria egiteko hitzezko mehatxu zuzena, baina benetan kalterik egin gabe: Zenbait aldiz**, tratu txarrak eman edo kalte egiteko **hitzezko mehatxu zuzenak eta espezifikoak** egin zaizkio haurrari edo nerabeari. Mehatxuek barnean hartzen dituzte, gauzatuko balira, **kalte fisiko handia** eragingo luketen ekintzak (adibidez: tratu txar fisiko larriekin mehatxatzea, ura edo janaria denbora-tarte luzeegian kentzearekin mehatxatzea). Aldez aurretik pentsatuta egin dira mehatxuak, edo gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek kontrola erabat galdu duten egoera batean. Ez da kalte nahiz lesio fisikorik eragin, baina egoera horrek **beldur handia** sortu du haur edo nerabearengan. Mehatxuak aurrera eramateko ahaleginik egin ez den arren, **gauzatu daitezkeela** balioetsi da.

3. Larritasun ertaina

- **Hitzezko mehatxu inplizitua:** Haurrari edo nerabeari **ez zaizkio tratu txarren edo kaltearen mehatxu zuzen eta espezifikoak egin**, baina gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek adierazten dute **harengatik gainezka egiten ari direla**, hari **kalte egiteko edo istripuren bat eragiteko beldurra dutela** eta abar (esaterako, estres handiaren eraginpean dauden helduak edo oso haur txikien nahiz premia bereziak dauzkaten haurren hazte-lanengatik gainezka egiten ari direnak). Zeharkako mehatxu horiek pentsarazten dute haurra edo nerabea **kalte fisiko esanguratsua pairatzeko edo zabarkeria pairatzeko arriskuan** dagoela. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek laguntza eska dezakete, edo ez, mehatxuak gauzatu ez daitezen.

4. Gabeziak

- **Hitzezko mehatxu inplizitua egin da, baina ez da baloratzen gauzatzeko arriskua dagoenik:** Haurrari edo nerabeari **ez zaizkio tratu txarren edo kaltearen mehatxu zuzen eta espezifikoak egin**, edo **noizbait** egin zaizkio, baina gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **harengatik gainezka egin dutela** sentitzen dute, edo haurrari edo nerabeari **kalte egiteko, istripu bat eragiteko eta bestelako beldurrak dituzte.** Mehatxu horiek haien frustrazioaren adierazpenak direla balioetsi da, eta **ez dago ageriko arrazoirik gauzatuko direla pentsatzeko**.

5. Egokia / Ez dago

- Haurrari edo nerabeari ez zaizkio tratu txarren edo kaltearen hitzezko mehatxuak edo mehatxu fisikoak egin Gorputz-zigor arinen mehatxuak (ikusi definizioa tratu txar fisikoen tipologian) ez dira "kalte fisikoa egiteko mehatxutzat" hartu behar.

ABANDONUA

⇒ **Honako egoera hauek biltzen ditu:**

- **Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek bakarrik utzi dute, nahita, itzultzeko asmorik gabe.**
- **Hirugarren pertsonekin adostu dute haur edo nerabearen zaintza beren gain hartzea, baina, adostutako denbora igaro ondoren, ez dira itzuli haren zaintzaz arduratzeko, eta hirugarren pertsona horiek jada ezin dute haren zaintza denbora gehiagoz hartu.**
- **Sarritan, beste pertsona batzuen ardurapean uzten dute haurra edo nerabea (harentzat ezezagunak direnak edo gutxi ezagutzen dituenak), haren arreta bermatzeko plan egonkorrik edo erantzukizuna aldi baterako beste batengan uzteko aurreikuspenik izan gabe[37].**
- **Egoitza batetik irten ondoren, uko egin diote haur edo nerabearen arreta beren gain hartzeari.**

⇒ **"Abandonuaren" eta "gainbegiratze-zabarkeriaren" arteko aldea honako honetan oinarritzen da: gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haur edo nerabeaz arduratzera itzultzeko asmorik duten ala ez (asmoa esplizitua izan daiteke, edo ikusteko modukoa). "Abandonua" gertatzen den kasuetan, ez dago itzultzeko asmorik, epe laburrera behintzat.**

⇒ **Larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko, nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).**

⇒ **Tipologia honen larritasuna honako hauen arabera ezartzen da: (1) gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek zenbat denboraz eta zenbateko maiztasunez uzten duten haurra edo nerabea zaintzeko ardura hirugarren pertsonen eskuetan, (2) hori zer egoeratan egiten den (noren esku uzten den, eta haurra edo nerabea horretarako prestatzen den), eta (3) gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek asmorik duten haur edo nerabearen zaintza berriz ere beren gain hartzeko.**

1. Oso larritasun handia

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek kalean, ospitalean edo beste nonbaiten utzi dute haurra edo nerabea, eta **desagertu egin dira**.
- Egiaztatu egin da gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haurra edo nerabea bakarrik utzi dutela eta **ez daukatela itzultzeko asmorik, ezta haurrari edo nerabeari etxera itzultzen uzteko asmorik ere.**
- Haurra edo nerabea etxe batetik bestera bizi da. Bada urtebete edo gehiago gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak haur edo nerabearekin batera bizi ez direla, eta ez dirudi egoera aldi baterakoa denik. Ez daukate harremanik haur edo nerabearekin, edo harremana hutsala da. Haur edo nerabearen zaintza **hirugarren pertsonen esku uzten dute erabat**. Ez dago haren etorkizunari buruzko plan argirik.
- Haurra edo nerabea **egoitza batean utzi dute**. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek uko egin diote haren zaintza beren gain hartzeari.
- HNa beste batzuekin utzi dute (senideekin edo ezagunekin, bizikideekin, ospitalean eta abar), haiekin aurretik adostu gabe, eta, adostu badute, ez dute itzulerarako planik zehaztu, edo ez dute HNa zaintzeko jarraibiderik eman, edo aurretik adostutako denbora gainditu dute. HNaren bizitzatik erabat desagertu ez badira ere, **aldizka agertzen dira, denbora laburrerako** (baliteke telefonoz soilik izatea, edo batez ere telefonoz izatea); ez dituzte zaintza-eginbeharrak betetzen, eta, nolanahi ere, ez dituzte HNaren premiak asebetetzen, haren adina eta premia zehatzak kontuan hartuta.

2. Larritasun handia

Ustekabeko aldaketa asko egoten dira haur edo nerabearen zaintza beren gain hartzen duten pertsona helduen inguruan, eta horrek inpaktu emozional negatibo larria eragin dio haurrari edo nerabeari:

- **Azken urtean, hiru aldiz baino gehiagotan** aldatu dira haren zaintzaz arduratzen diren pertsona helduak. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **pertsona desegokien** zaintzapean edo, arreta egokia eman dioten arren, **ezagutzen ez dituen edo oso gutxi ezagutzen dituen pertsonen** zaintzapean utzi dute **denbora-tarte luzeetan, bat-batean**.
- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **bat-batean** utzi dute HNa, horretarako prestatu gabe. **Azken urtean**, haurra edo nerabea **hiru familia-nukleotan bizi izan da gutxienez, familiakoak nahiz hurbilekoak ez diren pertsonen** zaintzapean. Halere, gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak **beti itzuli dira haren zaintzaz arduratzeko**. Haurra edo nerabea ez dute behin betiko abandonatu.

[37] Haur edo nerabearen eguneroko zaintza pertsona desegokien edo nahikoa arduratsuak ez diren pertsonen esku uztea *"Segurtasun-premiekiko zabarkeria – Gainbegiratzea"* tipologian jaso eta kalifikatzen da.

Egoera horrek **estres eta asaldura emozional gogor eta biziak, atxikimenduaren edo lotura afektiboaren nahasmenduak edo beste kalte larri erreal edo potentzial bat eragin dizkio HNari**.

3. Larritasun ertaina

Ustekabeko aldaketa asko egoten dira haur edo nerabearen zaintzaz arduratzen diren pertsona helduen inguruan:

- Aurreko atalean deskribatutako egoerak gertatzen dira. Haurrak edo nerabeak ez dauka kalte larriaren sintomarik. **Kalte esanguratsuaren sintomak, estresa, asaldura emozionala edo atxikimenduaren zein lotura afektiboaren nahasmenduak izan ditzake**, baina, hala ere, balioesten da **arazo handiak garatzeko arrisku handiko egoeran** dagoela.

4. Gabeziak

***Zortzi urtetik beherako haurren kasuan*, ustekabeko aldaketa batzuk izaten dira haren zaintza beren gain hartzen duten pertsona helduengan**:

- **Azken urtean, bi aldiz gutxienez eta hilabetetik gorako denboraldi batean, egunerokoan zaintzen ez duen eta familiakoa nahiz gertukoa ez den pertsona batek** zaindu behar izan du zortzi urtetik beherako haur bat, baina gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ez dute bat-batean abandonatu**. Bertan ez daudenean, **harremanetan** daude haurrarekin. **Beti itzuli dira** haren zaintzaz berriro ere arduratzeko, **edo epe laburrean egingo dutela espero da**.

5. Egokia / Ez dago

- Aurreko atalean deskribatutako inguruabarrak gertatzen dira, baina zortzi urtetik gorako haurra edo nerabea da.
- Egiaztatu egin da guraso-figurek zaintza egonkorra eman diotela haurrari edo nerabeari.
- Guraso-figuretako bat ez da familia-etxebizitzan modu egonkorrean egon, edo kanpoan dago denboraldi luze batean (lan-arrazoiengatik, zentroren batean barneratua egoteagatik eta abar). Baliteke guraso-figurak legez bananduta egotea, eta, beraz, zaintza ez duen gurasoak bisitak soilik egiten dizkio haurrari edo nerabeari. Egoera horrek egokitzapenak eragin ditu familiako kideen bizitzan.

ZIRRIBORRA

GURASOEN EZINTASUNA HAUR EDO NERABEAREN JOKABIDEA ERREGULATU ETA KONTROLATZEKO

- ⇒ **Tipologia honen larritasuna honako hauen arabera ezartzen da: (1) haurrak edo nerabeak egokitzapen pertsonal, familiar, sozial edo eskola-egokitzapeneko arloan kanporatutako edo barneratutako arazoen presentzia eta larritasuna eta (2) guraso, tutore edo zaintzaileen gaitasuna arazo horiek kontrolatu eta konpontzeko.**
- ⇒ **Haurrak edo nerabeak askotariko arazoak izan ditzake; askotan, hauek izaten dira: (1) osasun mentaleko arazoak (besteak beste, elikadura-nahasmenduak eta jokabide suizidak), (2) desgaitasunekin edo neurogarapenaren nahasmenduekin zerikusia daukaten jokabide-nahasmenduak eta (3) adikzioak (adibidez, alkohola, legez kanpoko drogak, jokoa) edo mugikorraren, sare sozialen, bideojokoen edo Interneten erabilera arazotsua.**
- ⇒ **Haur edo nerabearen egungo egoerara gehien egokitzen den larritasun-maila kalifikatuko da.**
- ⇒ **Egoera mota horiek babesgabetasuna eragiten dute, gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak ez direlako gai haur edo nerabearen gida- eta orientazio-premiak asebetetzeko eta haren jokabidea kontrolatzeko, edo ezin dutelako, nahiz eta egin nahi izan eta horretan saiatu. Batzuetan, une horretara arte bete dituzte eginkizunok, baita HNaren premiak asebete ere. Inguruabar horietan, garrantzitsua da gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez dezatela erru-egoztetzat jo gizarte-zerbitzuek onartzea HNa babesgabetasun-egoeran dagoela.**
  Beste kasu batzuetan, HNaren arazoek aurretiko zabarkeria-egoera batean izaten dute jatorria (zabarkeria arauetan, mugetan, errutinetan eta balio positiboen transmisioan —ikusi dagokion eskala—), edo beste babesgabetasun mota batzuetan, edo baliteke oraingo zabarkeriarekin lotuta egotea. Hala bada, kasuaren txostenean adieraziko da.
- ⇒ **Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek jokabide arazotsuak dauzkan haur edo nerabe baten jokabidea kontrolatzeko duten gaitasuna, haien borondatearen edo guraso-gaitasunen mende egoteaz gain, haur edo nerabeak dauzkan arazoen ezaugarrien eta intentsitatearen araberakoa da. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haur eta nerabeen jokabidea kontrolatu *nahi* duten arren eta guraso-gaitasun egokiak dituzten arren, haurrek edo nerabeek arazo larriak kanporatzen edo barneratzen badituzte eta haien jokabidea kontrolatzea ezinezkoa bada (ikusi deskribapena larritasun oso handiko eta larritasun handiko kategorietan), larritasun handiko edo oso handiko kategorian kalifikatuko dira egoera horiek.**
- ⇒ **Zerbitzu soziosanitarioen inplikazioa ezinbestekoa da kasu horietan, batik bat haurrak edo nerabeak nahasmendu psikopatologikoak edo adikzio larriak baditu (dela diagnostikatuta, dela horren susmoa egonda). Hori bezain garrantzitsua da gainerako zerbitzu komunitarioak ere inplikatzea; batez ere, egoera detektatzeko eta goiz esku hartzeko.**

1. Oso larritasun handia

- ***Arazoak familian:*** **Haur edo nerabearen jokabidea oso gatazkatsua** da etxean. Guraso-figuren eta HNaren artean **gatazka larria** dago; familiako harremanak oso gatazkatsuak dira; familiako kideen artean **eraso fisikoa egiteko mehatxuak** egon dira, eta, are, baliteke mehatxuok gauzatu izana ere, eta guraso-figuren eta HNaren artean **hitzezko eraso etengabeak daude, intentsitate handikoak**. **EDO** HNak **arazo barneratuak, premia bereziak edo neurogarapenaren nahasmendu diagnostikatuak dauzka, oso larritasun handikoak, eta, beraz, bizitza arriskuan jar diezaiokete** (adibidez, depresio larria edukitzea, suizidatzen saiatzea, etxean luzaroan giltzapetzea edo bizitza arriskuan jartzen duen beste arazo emozional edo premia berezi bat edukitzea), edo ezintasun edo kalte larri iraunkorra sortzeko arriskua dakarkiote. Arazook **ezinbestean tratatu behar dira, presaz, baina HNak uko egiten dio tratamendua jaso edo betetzeari. ETA**
  Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ezin dute egoera kontrolatu**; gainezka egin dute. Baliteke haurra edo nerabea baztertzea eta arazo guztien errua hari egoztea. Baliteke haurrak edo nerabeak edozein motatako esku-hartzeei uko egitea eta etxetik irten nahi izatea. **Bizikidetza bideraezina edo jasanezina da. Une honetan behintzat, ez dago aukerarik esku-hartze bat garatzeko eta haurra edo nerabea etxean mantentzeko, gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak horren aurka daudelako edo laguntzeko prest ez daudelako.**
  Arazoak familiatik kanpo: Haur edo nerabearen jokabidea **oso gatazkatsua eta desegokia** da maila pertsonal eta sozialean eta eskola-mailan. Honako hauek egon daitezke: delituzko jokabideak, beste haur, nerabe edo pertsona helduen aurkako erasoak, eskola-absentismoa, legez kanpoko drogen edo alkoholaren gehiegizko kontsumoa, jokoarekiko adikzioa, mugikorraren, sare sozialen, bideojokoen eta Interneten erabilera arazotsua eta/edo sexu-portaera arriskutsuak. **ETA**

Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak **ez dira beren erantzukizunez arduratzen** haur edo nerabearen portaera erregulatu edo kontrolatzeari dagokionez, edo horretarako **erabateko ezgaitasuna** adierazten dute; baliteke haur edo nerabearen arazoen garrantzia txikiagotzea edo kanpoko arrazoiei egoztea. **Ez gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek, ez haurrak edo nerabeak ez dute kanpoko laguntza bilatzen edo onartzen, edo, laguntza hori baliatu badute, ez da inolako emaitzarik lortu**.

- Agian, HNa etxetik **ihes eginda egon da luzaroan**, egoera horiekin lotuta.

2. Larritasun handia

- ***Arazoak familian:***
  OSO LARRITASUN HANDIARI BURUZKO LEHENGO EPIGRAFEAN ADIERAZITAKOA **ETA**
  Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ezin dute egoera kontrolatu**; gainezka egin dute. Bizikidetza oso zaila da. Hala ere, bai haiek, bai haurrak edo nerabeak **laguntza profesionala onartu dute beren zailtasunak konpontzeko eta haurra edo nerabea familia-etxebizitzatik irtetea saihesteko.**
- ***Arazoak familiatik kanpo:***
  OSO LARRITASUN HANDIARI BURUZKO LEHENGO EPIGRAFEAN ADIERAZITAKOA ***ETA***
  Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ezin dute egoera kontrolatu**; gainezka egin dute. Hala ere, bai haiek, bai haurrak edo nerabeak **laguntza profesionala onartu dute beren zailtasunak konpontzeko eta haurra edo nerabea familia-etxebizitzatik irtetea saihesteko.**
- Agian, HNa etxetik **ihes eginda egon da luzaroan**, egoera horiekin lotuta.

3. Larritasun ertaina

- ***Arazoak familian:*** **Haur edo nerabearen jokabidea oso gatazkatsua** da etxean. **Gatazka larria** dago guraso-figuren eta haur edo nerabearen artean. Familia-harremanak oso gatazkatsuak dira; **eztabaidak eta hitzezko erasoak sarriak** dira, baina **ez da eraso fisiko larririk** izan. Baliteke familiako kideen artean **eraso-mehatxuren bat** gertatu izana. **EDO** *HNak* **arazo emozional barneratu esanguratsuak, premia bereziak edo neurogarapenaren nahasmendu diagnostikatuak dauzka**, eta, bizitza arriskuan jartzen ez badiote ere, edo ezintasun zein kalte iraunkor bat sorrarazteko arriskurik ez badakarkiote ere, **bere adinak edo familia-bizitzak berezkoak dituen jardueretan parte hartzea zailtzen diote, bere osotasuna, segurtasuna eta ongizatea arriskuan jar ditzakete, eta sintomak larriagotzen ari dira**; hortaz, kontrola eta jorraketa espezifikoak behar dituzte, baina **HNak uko egiten dio horri, ETA**
  Baliteke familia zenbaitetan arazoak konpontzen ahalegindu izana. **Bizikidetza zaila** da, baina guraso-figuren eta HNaren arteko **harremanean** badira **alderdi positiboak** ere. **Gatazka eta arazoak larriagotzeko arriskua** dago.
- ***Arazoak familiatik kanpo:*** Haurrak edo nerabeak egokitzapen pertsonal eta sozialeko eta/edo eskola-egokitzapeneko **arazo nabarmenak** ditu. Honako hauek gerta daitezke: portaera-zailtasunak eta eskola-absentismoa, arauak betetzeari uko egite orokorra, delituzko jokabide txikiak, drogen eta/edo alkoholaren kontsumo hasiberria, harremanak ingurune marjinaletako edo delitu-inguruneetako pertsonekin; mugikorraren, sare sozialen, bideojokoen eta Interneten erabilera arazotsu hasiberria eta abar. Hala ere, **zenbait arlotan, funtzionamendu egokia** du. Guraso, tutore eta zaintzaileen eta HNaren artean **lotura afektibo positiboa** dago. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ezin dute haur edo nerabearen portaera erregulatu, ezta haren arazoak kontrolatu** ere. Haur edo nerabearen **arazoak larriagotzeko arriskua** dago.
- Agian, etxetik **ihes egin** du noizbait, egoera horiekin lotuta.

4. Gabeziak

- ***Arazoak familian:*** **Gatazka batzuk** daude guraso-figuren eta haur edo nerabearen artean, baina, **oro har, haien arteko harremana ona** da. Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak **arazo horiek maneiatzen saiatzen dira**, baina, **batzuetan, ez dituzte estrategia egokiak erabiltzen, edo ez dakite nola egin**. Arazoak konpontzen ahalegindu izan dira, baina agian ez dute arrakastarik izan. Haurra edo nerabea familia-jarduera batzuetatik baztertu dezakete aldi baterako, edo pribilegio batzuk kendu diezazkiokete. **Hitzezko indarkeria-gertakariak** gerta daitezke familiako kideen artean, baina **indarkeria fisikorik ez**. **Gatazka larriagotzeko arriskua** dago.
- ***Arazoak familiatik kanpo:*** Haurrak edo nerabeak egokitzapen pertsonal eta sozialeko eta/edo eskola-egokitzapeneko **arazo batzuk ditu, adinerako oso ohikoak edo sarriak direnak**. Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak arazo horiei aurre egiten saiatzen dira, baina, **batzuetan, erabiltzen dituzten kontrol- edo diziplina-estrategiak ez dira egokiak**. **Hitzezko indarkeria-gertakariak** gerta daitezke familiako kideen artean, baina **indarkeria fisikorik ez**. Haur edo nerabearen **arazoak larriagotzeko arriskua** dago.

5. Egokia / Ez dago

- Haurrak edo nerabeak egokitzapeneko arazoak edo aurka egiteko jokabideak ditu etxe barruan eta kanpoan, bere eboluzio-fasean tipikoak edo ohikoak direnak. Horrek eztabaidak edo gatazkak eragin ditzake familian, baina egoera hori ez da familia-harremanen ezaugarri nagusia. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek estrategia egokiak erabiltzen dituzte haur edo nerabearen jokabide desegokiak kontrolatu eta kudeatzeko. Oro har, zentzuzko akordioak egitea lortzen dute. Gatazketan, ez dago indarkeria fisikorik; hitzezko indarkeria egon daiteke, baina noizbehinkakoa da, eta, gero, gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak eta haurra edo nerabea gai dira horri buruz hitz egiteko eta gatazka konpontzeko. Harreman afektibo positiboa dago haien artean. Oro har, haurra edo nerabea gai da bere jokabidea erregulatzeko, eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ezarritako arauak errespetatzen ditu, nahiz eta hasiera batean arauon aurka agertu.

JAIO AURREKO TRATU TXARRAK ETA JAIO AURREKO ARRISKUA

Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haurdunaldian nahita edo zabarkeriaz izandako portaera hauen ondorioz, jaioberriak gaixotasun edo anomalia fisiko, mental edo sentsorial larriak dauzka edo edukitzeko arriskuan dago

⇒ **Haurdunaldian detektatutako zailtasun- edo zaurgarritasun-egoerak arrisku-egoerak dira, eta haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko sistemak lehentasunezkotzat jo behar ditu. Osakidetza – Euskal osasun zerbitzuak ere eginkizun garrantzitsua jokatzen du (Haur eta Nerabeen Legearen 105.3 eta 105.4 artikuluak). Egoera horiei jarraipen estua egin behar zaie, eta beharrezko prebentzio-jarduketak abiatu behar dira, haurtxoa haurdunaldian nahiz jaio ondoren babestea ziurtatzeko. Familien zailtasunak askotarikoak eta ugariak izan daitezke, hala nola adikzioak edo kontzebituarentzat kaltegarriak diren osasun- edo portaera-ohiturak ("*Jaio aurreko arriskua*" eragiten dute), edo arazo orokorragoak, pertsonalak, erlazionalak, sozialak, ekonomikoak eta abar, zeinek, balioesten denez, nabarmen eragotzi edo mugatu baitezakete gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haurraren jaio osteko premiei ondo erantzuteko duten gaitasuna (egoera horiek Haurdunaldian detektatutako babesgabetasunarekiko zaurgarritasun[38] gisa kalifikatuko dira).**

⇒ **"Jaio aurreko tratu txarrak" eta "Jaio aurreko arriskua" bereizi behar dira. Lehenengoa haurra jaio ondoren zehazten da, eta "Jaio aurreko arriskua" haurdunaldian aplikatzen da. Urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 17.9 artikuluak eta Haur eta Nerabeen Legearen 176.3 artikuluak arreta berezia jartzen diete jaio aurreko arrisku-egoerei, eta honela definitzen dituzte: "*lege honen ondoreetarako, jaio aurreko arriskutzat joko da emakume haurdunak bere gorputza ez zaintzea edo ahalmen adiktiboa duten substantzia gehiegi kontsumitzea, bai eta emakumeak berak edo hirugarren batek, amak baimenduta, jaioberriaren garapen normala kaltetu dezaketen edo harengan gaixotasun edo anomalia fisiko, mental edo zentzumenezkoak eragin ditzaketen edo haren garapen egokia arriskuan jar dezakeen ekintzaren bat gauzatzea*".**

⇒ **Haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko zerbitzuek lurralde historiko bakoitzean zehaztu beharko dute zer jarduketari jarraituko zaion jaio aurreko tratu txarren egoeretan eta jaio aurreko arrisku-egoeretan; bereziki, azken egoera horietan, jaio ondoren haurraren tutoretza hartzea aurreikusten denean.**

⇒ **Jaio aurreko tratu txarrak beti kalifikatuko dira larritasun handiko edo oso handiko egoera gisa, haurtxoak oso zaurgarriak direlako. Haurra jaio ondoren zehaztuko da egoera hori ote den, eta mediku-balorazio batek lotu egin beharko ditu gurasoek haurdunaldian izandako portaera eta haurraren gaixotasun edo anomalia fisiko, mental edo zentzumenezkoak. Hemendik kanpo geratzen dira abstinentzia-sindromearekin jaiotzen diren haurtxoak, amak metadona-tratamendua hartzen ari badira, medikuaren zaintzapean, drogarik hartu gabe.**

⇒ **Haurdunaldia legez ezarritako epeetatik kanpo borondatez eteten bada, zigor-arloan jorratuko da egoera. "Jaio aurreko tratu txartzat" joko da, eta irizpide hauen arabera zehaztuko da haren larritasun-maila:**

---

[38] **Haurdunaldian detektatutako babesgabetasunarekiko zaurgarritasunak** erreferentzia egiten die egoera hauetakoren batean (edo antzekoetan) dauden emakume haurdunei —eta bikotekide posibleei—:

- Familiaren laguntza, laguntza ekonomikoa edo soziala edo lanik ez duten edo lanean laguntzarik jasotzen ez duten nerabeak edo gazteak
- Babes-neurriren bat daukaten edo eduki duten seme-alabak dauzkatenak
- Gizarte-bazterketarako arriskuan daudenak edo ingurunean laguntzarik ez dutenak
- Haurdunaldia bera eta haurra lehenbiziko hilabeteetan ondo zaintzearekin bateraezinak diren bizi moldeak dauzkatenak
- Adikzio-arazoak —"Jaio aurreko arrisku" gisa kalifikatutako egoerak kenduta—, gaixotasun mentaleko arazoak edo adimen-desgaitasuna dauzkatenak edo eduki dituztenak
- Genero-indarkeriaren biktimak

Kasu horietan**, esku-hartze goiztiarra egin behar da, prebentzio-programa espezifikoen bidez; aukeran, haurra jaio baino lehen, eta egokia litzateke lehen aldiz guraso izan behar direnekin egitea, etorkizunean arrisku- edo babesgabezia-egoerarik ez izateko**. Oro har, kasu horietan, udaleko gizarte-zerbitzuei dagokie esku hartzea, eta horretan jarraitu beharko dute umea jaio ondoren ere, haurrak familian arreta egokia jasotzen duela bermatzeko.

⇒

A. JAIO AURREKO TRATU TXARRAK

1. Oso larritasun handia

- **Jaiotzean, haurrak alkohol-sindrome fetala, abstinentzia-sindromea edo kalte neurologikoak dauzka, edo droga-testak egitean emaitza positiboa izan da,** amak haurdunaldian droga, alkohol edo bestelako substantzia gehiegi kontsumitzeagatik[39].
- **Jaiotzean, haurrak gaixotasun edo anomalia fisiko, mental edo zentzumenezko larriak dauzka**. Gaixotasun edo anomalia horiek mehatxua dira haurraren bizitzarako; ezintasun edo narriadura iraunkor eta larria eragin diote, edo ezintasun edo narriadura hori pairatzeko arriskuan jarri dute. **Badago gaixotasun eta anomalia horiek aitak edo amak haurdunaldian izandako portaerarekin lotzen dituen balorazio medikoa.**

2. Larritasun handia

- **Medikuaren balorazioak edo jakinarazpenak** dio haurdunaldian **zabarkeriaz jokatu dela zaintza mediko edo sanitario batzuetan** (adibidez, giro kaltegarrietan egotea edo alkohola, marihuana edo bestelako substantziak kontsumitzea) eta **horrek eragin duela** haurtxoa **goizegi edo pisu gutxirekin** jaiotzea, **neurogarapenaren nahasmenduak izateko arriskua eragiteaz batera**. Haurdunak ez zuen portaera aldatu, profesionalek zentzu horretan jarraibideak eman arren.
- Haurdunaldia legez ezarritako **epeetatik kanpo borondatez eteten saiatu** da.

B. JAIO AURREKO ARRISKUA[40]

1. Oso larritasun handia

- Medikuaren balorazioak edo jakinarazpenak dio haurdunak droga, alkohol edo farmako gehiegi hartzea edo zaintza mediko zein sanitarioak inondik inora ez egitea **lesio larriak eragiten ari zaiola fetuari** eta haurdunak **ez duela portaera aldatu**, **profesional sanitarioek** zentzu horretan **jarraibideak eman arren**.
- Medikuaren balorazioak edo jakinarazpenak dio haurdunak droga, alkohol edo farmako gehiegi hartzeak edo zaintza mediko zein sanitarioak inondik inora ez egiteak **gaixotasunak edo anomalia fisiko, mental edo sentsorial larriak izateko arriskua eragiten diotela haurtxoari, argi eta garbi**, eta haurdunak **ez duela portaera aldatu**, **profesional sanitarioek** zentzu horretan **jarraibideak eman arren**.

2. Larritasun handia

- Haurdunaldi arriskutsuetan[41] **jarraipen ginekologikorik ez egiteak, jarraipena nahikoa ez izateak edo jarraipena aldizkakoa izateak gaixotasunak edo anomalia fisiko, mental edo sentsorialak edukitzeko arriskuan jarri dute kontzebitua**.

3. Larritasun ertaina

- Emakume haurdunak bere gorputza ez zaintzea edo ahalmen adiktiboa duten substantzia gehiegi kontsumitzea, bai eta emakumeak berak edo hirugarren batek, amak baimenduta, **jaioberriaren garapen normala kaltetu dezakeen edo harengan gaixotasun edo anomalia fisiko, mental edo zentzumenezkoak eragin ditzakeen edo haren garapen egokia arriskuan jar dezakeen ekintzaren bat gauzatzea** ere.
- Arriskutsua ez den haurdunaldian **jarraipen ginekologikorik ez egitea, jarraipena nahikoa ez izatea edo jarraipena aldizkakoa izatea**.

[39]Batzuetan, sindromea edo kalteak egun batzuen buruan agertzen dira.

[40]Jaio aurreko arrisku-egoera **larri edo oso larrietan**, lurralde historiko bakoitzean hala erabakitzen bada, udaleko gizarte-zerbitzuek kasuaren jarraipena egin ahalko dute harik eta haurtxoa jaiotzen den arte, eta, beren eskumenen barruan, egoera zuzentzeko behar diren jarduketak burutu, jaio ondoren kasua lurraldeko gizarte-zerbitzuek hartu arte. Egoera berezi batzuetan, beharrezkoa bada, lurraldeko gizarte-zerbitzuek kontzebituaren babesgabezia-egoera deklaratu ahalko dute (Haur eta Nerabeen Legearen 193.4 artikulua).

[41] Ikusi, adibidez: https://espanol.nichd.nih.gov/salud/temas/pregnancy/informacion/riesgo

BESTE TIPOLOGIA BATZUK

A. ETXETIK BIDALTZEA EDO ETXERA SARTZEN EZ UZTEA

⇒ Ebaluatzen den haur edo nerabearen oraingo egoerara gehien egokitzen den larritasun-maila kalifikatuko da.

⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa, funtsean, honako hauen arabera ezartzen da: (1) haurrak edo nerabeak zer adin eta gaitasun dituen, (2) gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek zein neurritan ziurtatu duten haurrak edo nerabeak joateko leku seguru bat izatea eta (3) nolako arriskua eragin duen egoera horrek haur edo nerabearen egoera fisiko eta/edo emozionalean.

1. Oso larritasun handia

- ***Hamabi urte edo gutxiagoko haur bati —edo helduago bati, baina muga fisiko edo intelektual nabarmenak ditu—*** **behin gutxienez** ukatu zaio etxera sartzea, edo etxetik bidali dute **nora joan izan gabe**, edo haurrak ezezagun bati eskatu behar izan dio laguntza, edo, agian, eguraldi txarrarekin egon behar izan du kalean zenbait orduz. Etxera sartzea ukatu edo etxetik bidali izanaren ondorioz, haurrak edo nerabeak istripu edo gaixotasun bat pairatu du agian, edo ezbehar larri bat (adibidez, eraso fisiko edo sexuala jasan du, edo lapurreta egin diote), edo hori gertatzeko arriskuan egon da argi eta garbi. Egoera horrek **tentsio edo ezinegon emozional larria** eragin dio.

2. Larritasun handia

- **Zenbait aldiz**, etxera sartzea ukatu zaio ***nerabe bati*** (13 urte edo hortik gora), edo etxetik bidali dute, **nora joan izan gabe**. Baliteke etxetik ihes egin izana eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek berriro hartzeari uko egin izana. Egoera horren ondorioz, haurrak edo nerabeak, agian, arreta medikoa behar izan duen istripu edo gaixotasun bat pairatu du; eraso fisiko edo sexual baten biktima izan da, edo delituzko ekintzetan nahasi da. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ez zuten jakin ondo baloratzen zer arrisku** sorrarazten ari ziren.

3. Larritasun ertaina

- **Behin**, etxera sartzea ukatu zaio ***nerabe bati*** (13 urte edo hortik gora), edo etxetik bidali dute, **nora joan izan gabe**. Baliteke etxetik ihes egin izana eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek berriro hartzeari uko egin izana. Baliteke poliziara edo gizarte-zerbitzuetara jo izana laguntza eske. Egoera horren ondorioz, haurrak edo nerabeak, agian, arreta medikoa behar izan duen istripu edo gaixotasun bat pairatu du; eraso fisiko edo sexual baten biktima izan da, edo delituzko ekintzetan nahasi da. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ez zuten jakin ondo baloratzen zer arrisku** sorrarazten ari ziren.

4. Gabeziak

- **Behin gutxienez**, etxera sartzea ukatu zaio ***nerabe bati*** (13 urte edo hortik gora), edo etxetik bidali dute, nora joan izan gabe. Baliteke etxetik ihes egin izana eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek berriro hartzeari uko egin izana. Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **bazekiten bazeukala nora joan** (senide, lagun edo bizilagun baten etxea) eta nerabea hara joateko gai zela. Gaua etxetik kanpo igaro badu, **leku seguru batean egon da**.

5. Egokia / Ez dago

- Haurrari edo nerabeari ez zaio inoiz ukatu etxera sartzea, eta ez dute inoiz etxetik bidali. Hori ez da inoiz erabiltzen diziplina-estrategia edo zigor-estrategia gisa.

B. GALBIDERATZEA

⇒ Larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko, nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).

⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa, funtsean, honako hauen arabera ezartzen da: (1) zer-nolako larritasuna duen guraso, tutore edo zaintzaileen jokabide antisozialak, (2) zein neurritan onartzen edo sustatzen duten haurra edo nerabea jokabide horien mende jartzea edo horietan parte hartzea eta (3) zer inpaktu izan duen edo izan dezakeen egoera horrek haur edo nerabearen gizarte-egokitzapenean.

1. Oso larritasun handia

- **Delinkuentziara induzitzea:** Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **jokabide antisozial edo desbideratuaren ereduak sustatu, indartu edo onartzen dituzte** (bereziki, bortizkeriaren, delituzko jokabideen, sexualitatearen eta drogen arloan), haur edo nerabearen garapen eta integrazio sozial normalak eragozten dituztenak. **Horren ondorioz**, haurrak edo nerabeak **gizarte-egokitzapeneko arazo larriak** ditu, edo era horretako **arazoak garatzeko arrisku larriko egoera argian** dago. Hemen barruan hartzen da, baita ere, haurra edo nerabea **delituzko ekintzak gauzatzeko erabiltzea** (adibidez, drogak garraiatzea, ebasketak egitea), haren adina eta portaeran ikus dakizkiokeen ondorioak dena delakoak izanda ere.
- **Guraso-eredu antisozial larriak:**
  - Haurra edo nerabea bizi den etxean **bizitza-eredu desegokia** dago bere garapen normalerako, **delituzko jokabide larriekin** (bereziki, beste pertsona batzuengan kalteak eragiten dituztenak), droga-trafikoarekin eta oso droga suntsitzaileen kontsumoarekin lotutako eredu antisozialak izateagatik. ***Era horretako egoera bat dagoela zehaztu ahal izateko:***
    a) lehen adierazitako egoeretako batek gutxienez behin eta berriz eta/edo etengabe agertu behar du, haur edo nerabearen zaintzan erantzukizunak dauzkaten pertsona heldu guztiak hartuta,
    b) egoera horren presentzia argi eta garbi ikusi behar da,
    c) haurrak edo nerabeak eguneroko interakzioan argi eta garbi ikusteko modukoa izan behar du eredu desegoki horrek, eta
    d) haurrak edo nerabeak ereduarekiko zaurgarritasun-baldintza nahikoak bildu behar ditu: behar adinako gaitasun kognitiboa eta arrazoimen morala garapen bidean.
  - Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek onartu, aktiboki sustatu eta erraztu egiten dute haurrak edo nerabeak bere adinerako gehiegizko alkohol kopuruak behin eta berriz kontsumitzea edo drogak zein bestelako gai toxikoak hartzea, familia-etxebizitzan zein kanpoan. Onespen edo tolerantzia hori dagoela joko da jokabide horiek arintzeko behar diren ahaleginak egin ez badira; esaterako, aholkularitza eskatzea edo tratamenduan behar adinako lankidetza ez erakustea, jokabideen berri izan denean.

  Horren ondorioz, haurrak edo nerabeak **gizarte-egokitzapeneko arazo larriak** ditu, edo era horretako **arazoak garatzeko arrisku larriko egoera argian** dago.
- **Gorrotoa, indarkeria edo beste pertsona batzuk mendean hartzeko jokabideak dakartzaten beste egoera batzuk:** Beren portaera eta/edo jarreren bitartez, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek honako hauek sustatzen dituzte haur edo nerabearengan: beste pertsona batzuekiko gorroto- eta mespretxu-sentimenduak, indarkeriazko jarrera eta jokabideak eta beste pertsona batzuk mendean hartzeko jokabideak, haien sexua, erlijioa, jatorria, sexu-joera, ezaugarri fisikoak edo antzeko arrazoiak direla-eta. ***Era horretako egoera bat dagoela zehaztu ahal izateko:***
  a) egoera horrek behin eta berriz gertatu behar du,
  b) haurrak edo nerabeak argi eta garbi ikusteko modukoa izan behar du, eta
  c) haurrak edo nerabeak ereduarekiko zaurgarritasun-baldintza nahikoak bildu behar ditu: behar adinako gaitasun kognitiboa eta arrazoimen morala garapen bidean.

  Horren ondorioz, haurrak edo nerabeak **oso portaera gatazkatsuk eta desegokiak ditu: indarkeria, gorrotoa edo beste batzuk mendean hartzeko jokabideak**, familiaren etxean edo etxetik kanpo. Ez dago aukerarik familian esku-hartze zuzentzaile bat garatzeko, haurra edo nerabea eta/edo gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak aurka daudelako edo lankidetzarako prest ez daudelako.

2. Larritasun handia

- **Guraso-eredu asozialak:** Haurra edo nerabea bizi den etxean **bizitza-eredu desegokia** dago bere garapen normalerako, **delitu arinen inguruko jokabideekin** (adibidez, indarkeriarik gabeko ebasketak) lotutako jokabide antisozialak edukitzeagatik. ***Era horretako egoera bat dagoela zehaztu ahal izateko***:
  a) lehen adierazitako egoeretako batek gutxienez behin eta berriz eta/edo etengabe agertu behar du, haur edo nerabearen zaintzan erantzukizunak dauzkaten pertsona heldu guztiak hartuta,
  b) egoera horren presentzia argi eta garbi ikusi behar da,
  c) haurrak edo nerabeak eguneroko interakzioan argi eta garbi ikusteko modukoa izan behar du eredu desegoki horrek, eta
  d) haurrak edo nerabeak ereduarekiko zaurgarritasun-baldintza nahikoak bildu behar ditu: behar adinako gaitasun kognitiboa eta arrazoimen morala garapen bidean.

  Horren ondorioz, haurrak edo nerabeak **gizarte-egokitzapeneko arazoak** ditu, edo era horretako **arazoak garatzeko arrisku larriko egoera argian** dago.

- **Gorrotoa, indarkeria edo beste pertsona batzuk mendean hartzeko jokabideak dakartzaten beste egoera batzuk:** *OSO LARRITASUN HANDIARI BURUZKO EPIGRAFE BERBERA*, baina haurrak edo nerabeak eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek laguntza profesionala onartzen dute haien arazoak konpontzeko.

3. Larritasun ertaina

- **Guraso-eredu desegokiak:**
  - Haur edo nerabearekin bizi diren eta haren zaintza-erantzukizunak dituzten **pertsona helduetako bat edo batzuk** eredu desegokia dira haur edo nerabearentzat, **jokabide antisozial edo desbideratuak (larritasun-maila handiagokoak edo txikiagokoak)** dituztelako, edo haur edo nerabearengan sustatzen dituztelako gorroto- eta mespretxu-sentimenduak, indarkeriazko jarrera eta jokabideak eta beste pertsona batzuk mendean hartzeko jokabideak, haien sexua, erlijioa, jatorria, sexu-joera, ezaugarri fisikoak edo antzeko arrazoiak direla-eta. Hala ere, haurrak edo nerabeak **ez du egoera hori modu argian sumatzen** eguneroko interakzioan, **eta/edo**, orain arte, baditu **eredu positiboak** diren erreferentziazko figura helduak familia-ingurunean, itxura batean behintzat eredu heldu desegokien ondorio negatibo potentziala **indargabetzen** dutenak. Haurra edo nerabea **gizarte-egokitzapeneko arazoak izaten hasi da, edo, horrelako arazorik ez badu ere,** etorkizunean gara ditzake.
  - Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **jarrera laxoa** dute haur edo nerabearen aurrean alkoholaren kontsumo erregularra edo, noizbehinka, gehiegizko kontsumoa egiteko edo **gizartean gaitasun suntsitzaile "txikiagoko" drogatzat hartzen diren drogak hartzeko**, baina **ez diote gai horiek eskuratzeko aukera** errazten haurrari edo nerabeari .

4. Gabeziak

- Haur edo nerabearekin bizi ohi diren eta haren gaineko zaintza-erantzukizunak dauzkaten **pertsona helduetako baten batek delitu txikiko jokabideak** izan ditu (adibidez, indarkeriarik gabeko ebasketak), **noizbehinka gehiegizko alkohol- eta/edo droga-kontsumoak** egin ditu, edo **beste pertsona batzuen aurkako gorroto-, mespretxu-, indarkeria- edo menderatze-adierazpenak** egin ditu, **haien sexua, erlijioa, jatorria, sexu-joera, ezaugarri fisikoak edo antzeko arrazoiak** direla-eta, eta, haurrak edo nerabeak horien berri izan badezake ere, baditu **eredu positibo** gisa jarduten duten erreferentziazko figura helduak familia-ingurunean.

5. Egokia / Ez dago

- Haurrarekin edo nerabearekin bizi diren eta haren zaintzako erantzukizunak dituzten pertsona helduek ez daukate delituzko jokabiderik edo jokabide desbideraturik, eta behar bezala kontrolatzen dituzte haurrak edo nerabeak izan ditzakeen era horretako jokabide hasiberriak. Gizartean ondo moldatzeko eta portaera egokia izateko eredu egokiak dira.

ZIRRIBORRA

C. ESKEKOTASUNA

⇒ Leku publiko zein pribatuetan dirua edo baliabide materialak eskuratzea da eskekotasuna. Kalean, establezimendu publikoetan edo etxebizitza pribatuetan dirua eskatuz egin daiteke. Alabaina, barruan hartzen ditu, baita ere, "ezkutuko eskekotasuneko" egoerak, non gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haurra edo nerabea bidaltzen baitute elikagaiak edo objektuak erostera edo zerbitzu jakin batzuk eskuratzera, horretarako nahikoa ez dela badakiten diru kopurua emanez, edo balio gutxiko objektuak emanez (adibidez, paperezko mukizapiak, zuhaitz-adarrak, postalak), erosleari borondatea eskatuz sal ditzaten.

⇒ Inola ere ezin da onartu adingabeekin eskean aritzea, ezta haiek eskekotasunerako erabiltzea ere, eta Zigor Kodearen 232. artikuluan jasotzen den delitua da.

⇒ Oro har, egoera horiek larritasun ertaintzat joko dira, maiztasuna edozein dela ere. Lehenik eta behin, UGZek hartuko dute esku, eta egoera lehengoratzeko egokitzen diren jarduketak burutuko dituzte (informazioa, orientazioa, balorazioa eta beharrezko baliabideak martxan jartzea). UGZek esku hartu ondoren egoera zuzentzen ez bada, kasua larritasun handikotzat jo, eta UGZetara deribatuko da.

⇒ Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek HNari mehatxu egiten badiote, hertsatu egiten badute, eraso fisikoak egiten badizkiote, pertsonen trafikoan sartzen badute edo substantziak ematen badizkiote eskean aritu dadin, egokitzen den eskalan edo eskaletan kalifikatuko da egoera.

1. Larritasun handia

- Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak haur edo nerabearekin aritu dira eskean, edo horretara bidali dute. Agian, behin baino gehiagotan gertatu da. UGZek egoera konpontzeko behar ziren esku-hartzeak egin dituzte, baina ez dute egoera zuzentzea lortu.

2. Larritasun ertaina

- Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak haur edo nerabearekin aritu dira eskean, edo horretara bidali dute. Agian, behin baino gehiagotan gertatu da.

3. Egokia / Ez dago

- Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak ez dira inoiz haur edo nerabearekin aritu eskean, eta ez dute inoiz horretara bidali.

ZIRRIBORRO

D. LAN-ESPLOTAZIOA

Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek etengabe agintzen dizkiete honako ezaugarri hauek dauzkaten lanak (etxeko antolamenduarekin lotutako zereginak ez dira barnean hartzen): (a) ohiko lanen mugak gainditzen dituztenak, (b) pertsona helduek egin beharko lituzketenak, (c) argi eta garbi haur edo nerabearen gizarte- eta/edo eskola-arloko jarduerak eta premiak oztopatzen dituztenak eta (d) funtsean, guraso, tutore edo zaintzaileentzako edo familia-egiturarako etekin ekonomikoa edo antzeko etekina lortzeko helburuarekin esleitzen zaizkionak.

⇒ Larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko, nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).

⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa, funtsean, honako hauen arabera ezartzen da: (1) gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek mehatxuak edo hertsapenak egin dituzten ala ez, haurrak edo nerabeak etekin ekonomikoak edo gauzazko etekinak ekarriko dizkien jarduera bat egin dezan, (2) haurrak edo nerabeak zein maiztasunekin egin behar duen lana eta lanaren iraupena, eta (3) egoera horrek zer inpaktu duen haur edo nerabearen prestakuntza-jardueretan, jarduera ludikoetan eta jarduera sozialetan edo haren atseden-beharretan.

1. Oso larritasun handia

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek HNa **behartzen dute helduek egin beharko lituzketen lan izugarri gogorrak egitera, haren adin eta/edo egoerarako lanaldi luzeegietan**. Baliteke haurra edo nerabea behartu izana gaixo egonik lan egitera, eta zigortzea, espero den errendimendua ez badu. Arrazoi horrengatik **ez da eskolara joaten, edo eskola-orduen % 50etik gorako eskola-absentismoa dauka**, eta ia ez dauka **astirik jolas-, hezkuntza- eta atseden-jardueretan** aritzeko.

2. Larritasun handia

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ezkutuko ekonomiako lanak egozten dizkiote haurrari edo nerabeari ohikotasunez**. Arrazoi horrengatik **ez da eskolara joaten, edo eskola-orduen % 20tik gorako eskola-absentismoa dauka**, eta ia ez dauka **astirik jolas-, hezkuntza- eta atseden-jardueretan** aritzeko. Baliteke zeregin horiek eskola-ordutegitik kanpo edo jaiegunetan eginaraztea eta, ondorioz, **denbora librea eta berdinkideekin harremanak izateko denbora mugatzea edo erabat murriztea**.
- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **prestakuntza akademikoa uztera** behartu dute ***16 eta 18 urte arteko nerabe bat***, lanean has dadin, nahiz eta nerabeak **errendimendu ona eduki eta ikasten jarraitu nahi** izan. Lanaren bitartez lortzen duen diru guztiaren edo zati baten jabe egiten dira, **familiaren sostengurako ezinbestekoa ez den arren edo pertsona helduen lanarekin ordezkatu daitekeen arren**.

3. Larritasun ertaina

- **Behin eta berriz**, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek beraiekin eramaten dute eskolatutako haurra edo nerabea denboraldi jakin batzuetan (adibidez, produktu naturalen bilketa-aldian), **lan-jardueraren batean lagundu diezaien**. Hori eskola-aldietan gertatzen da, eta, horren ondorioz, haurrak edo nerabeak **eskolara joateari uzten dio, eta zailtasun nabarmenak ditu eskola-egokitzapenean eta/edo -errendimenduan**.
- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **ezkutuko ekonomiako lanak esleitzen dizkiote eskola-ordutegitik kanpo edo jaiegunetan, ohikotasunez,** eta, beraz, **gehiegi mugatzen dituzte —baina ez erabat— haren denbora librea eta berdinekin harremanak izateko denbora**.

4. Gabeziak

- **Urtean behin**, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek beraiekin eramaten dute eskolatutako haurra edo nerabea **denboraldi jakin batean** (adibidez, produktu naturalen bilketa-aldian), **lan-jardueran lagundu diezaien**, **hiru astez gehienez ere**. Eskola-aldian gertatzen da hori, eta, horren ondorioz, haurrak edo nerabeak **ikastetxera joateari uzten dio**. Agian laguntza bereziak behar izan ditu atzerapen akademikoa lehengoratzeko.

5. Egokia / Ez dago

- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek sustatu egiten dute, eta bidea jartzen, HNak jarduera akademikoa edo prestakuntzakoa buka dezan. Bere eboluzio-mailari dagokion neurrian eskatzen diote familian laguntzeko, betiere zeregin horiek eskolako jarduerak oztopatzen ez dituztela eta denbora librea eta berdinekin harremanak izateko aukerak dituela bermatuta.

BABESGABEZIAREKIKO ZAURGARRITASUN LARRIA ERAGITEN DUTEN BESTELAKO EGOERAK

⇒ **"Babesgabeziarekiko zaurgarritasun larri" gisa jasotzen diren egoeretan, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek zenbait ezaugarri edo mugaketa dauzkate pentsarazten dutenak haur edo nerabearen bizitza edo oinarrizko osotasuna arrisku larrian egon daitekeela eta familia-ingurunean ez dagoela kontrol-elementurik, gabezia horiek ordezkatu edo konpentsatzeaz gainera, haurrari edo nerabeari gutxieneko arreta egokia bermatuko dienik.**

⇒ **Egoera horiek arrisku larria edo babesgabezia eragiten dute, kasuaren inguruabar zehatzen arabera, behar bezala arrazoituta, eta LGZei egokituko zaie horiek artatzea.**

⇒ **Egoera horien existentzia kalifikatzeko, nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).**

⇒ **Babesgabetasuna dagoela susmatzen den aldiro aztertu beharko da inguruabar horiek dauden, babesgabetasun motaren bat identifikatuta ere eta haren larritasun-maila dena delakoa izanda ere.**

⇒ **Haurdun dauden emakumeekin, arreta berezia jarriko zaio babesgabetasunaren detekzioari.**

⇒ **Aurreko eskaletan jasotako babesgabetasun mota bat bera ere identifikatu ez arren, atal honetan adierazitako inguruabarretako bat baldin badago, kasua larritasun handiko kategorian kalifikatuko da automatikoki. LGZek erabakiko dute arrisku larria ala babesgabezia den.**

A. GURASOEK, TUTOREEK EDO ZAINTZAILEEK ERAGINDAKO INDARKERIAREN EDO BABESGABETASUN LARRIAREN AURREKARIAK	• Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **sexu-indarkeria** ezarri diete beste haur edo nerabe batzuei, eta **ez dute tratamendu arrakastatsurik egin, berriro egingo ez dutela bermatzeko**. • Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **babesgabetasuneko edo indarkeriako ekintza larriak** egin zituzten **iraganean** haur edo nerabe horren edo beste haur edo nerabe batzuen aurka, eta **egoera hura eragin edo inguratu zuten inguruabarrak ez dira aldatu** (adibidez, ez dute tratamendurik jaso, alkoholismoko, droga-abusuko edo nahaste mentaleko arazo larriak dituzte oraindik, edo oso nortasun disfuntzionalak dituzte). • Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak **genero-indarkeriako egoeretan edo familiako beste pertsona heldu batzuekiko indarkeria-egoeretan** egon dira iraganean; egoera horiek **kalte larria eragin dute haur edo nerabearengan**, eta pertsona horrek **era horretako harreman bat ezarri du berriz ere**, iraganean indarkeria eragin zuten **arazoak konpondu gabe** (adibidez, genero-indarkeriako arazoak dituen eta zailtasunak konpondu gabe berriz ere elkartzen den bikotea, alkoholismo-arazo larrien iraunkortasuna). **Emakume haurdunak eta haien bikotekideak** "guraso, tutore edo zaintzaile" gisa sartzen dira hemen.

B. GURASOEN, TUTOREEN EDO ZAINTZAILEEN ZAILTASUN PERTSONAL LARRIAK	• Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **nahasmendu psikopatologiko bat dute, eta, ondorioz, errealitatearekiko kontaktua galdua dute; judizioko eta erabakiak hartzeko gaitasunak nabarmen murriztuta dauzkate, eta ez dira gai bizitza autonomoa garatzeko**. Nahasmendua kronikoa edo hasiberria izan daiteke, eta etengabe edo denboraldi jakin batzuetan ager daiteke. Baliteke pertsona horrek medikazioa hartzea, baina medikazioak edo berori hartzeko baldintzek ez dute bermatzen **kontrol-galera larriak** izango ez direnik. Honako hauek gertatu ahal izan dira: suizidio-saiakerak edo -adierazpenak, eldarnioak, haur edo nerabearekiko muturreko gaitzespenak edo kontrola galdu eta haurrari kalte handia egiteko beldurra. • Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **adimen-desgaitasuna** daukate (**ertaina, larria edo sakona**), eta **bizitza autonomoa garatzea galarazten** die horrek. Horietako inork ez dauka autonomoa izateko behar adina adimen-gaitasun. • Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek **alkoholaren eta/edo legez kanpoko drogen kontsumo-arazo larri edo kronikoa** daukate. Denbora gehiena drogen eta/edo alkoholaren eraginpean igarotzen dute. **Ez dute tratamendurik jasotzen**. Baliteke tratamenduan egotea, baina tratamenduaz arduratzen diren profesionalek ez dute bermatzen **epe laburrean berriz eroriko ez direnik** edo kontsumorik ez dagoenik. Baliteke aurretik tratamenduak egin izana, baina ez dute arrakastarik izan. • Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak **adingabeak** dira, **eta** ez dute **laguntzarik** beren ingurunean, **eta heldugabetasun edo ezegonkortasun** handia dute, **eta**, bestetik, ez dira gai seme-alaben premiak beraien premien **gainetik jartzeko**, **eta** ez dute epe ertainerako edo epe luzerako **etorkizuna planifikatzeko** gaitasunik. **Emakume haurdunak eta haien bikotekideak** "guraso, tutore edo zaintzaile" gisa sartzen dira hemen.

ZIRIBORRA

ZIRRIBORROA

Eranskinak

ZIRRIBORROA

Laburpen-orria

HOJA RESUMEN BALORA 3.0

NOMBRE Y APELLIDOS NNA:
FECHA NACIMIENTO:
Nº EXPTE.:

SERVICIO:
PROFESIONAL:
FECHA:

	Sin información	Adecuado / No presente	Sospecha	Déficits	Gravedad moderada	Gravedad elevada	Gravedad muy elevada
1. MALTRATO FÍSICO							
Agresión física	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
Administración de drogas, alcohol o fármacos	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
Privación deliberada de comida y agua	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
Confinamiento o restricción física	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
Síndrome Munchaüsen y Maltrato médico inducido	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
2. NEGLIGENCIA							
Negligencia hacia necesidades físicas							
o Alimentación	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
o Cuidado de la salud física	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
o Vestido	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
o Higiene personal	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
o Condiciones higiénicas vivienda	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
o Estabilidad de la vivienda	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
o Condiciones de habitabilidad de la vivienda	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
Negligencia hacia necesidades de seguridad							
o Seguridad física vivienda y prevención riesgos	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
o Supervisión	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
o Protección ante violencia de otras personas	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
Negligencia hacia necesidades cognitivas							
o Estimulación	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
o Necesidades formativas y educativas	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
Negligencia hacia necesidades emocionales							
o Interacción, vínculo y afecto	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
o Atención problemas emocionales y nec. especiales	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
o Normas, límites, rutinas, transmisión valores	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐

	Sin información	Adecuado / No presente	Sospecha	Déficits	Gravedad moderada	Gravedad elevada	Gravedad muy elevada
3. VIOLENCIA SEXUAL							
Violencia sexual	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
4. MALTRATO PSICOLÓGICO							
Maltrato emocional	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
Exposición a violencia de género	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
Exposición otras tipologías de violencia en la familia	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
Implicación conflictos figuras parentales u otros	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
Amenazas de agresión física	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
5. ABANDONO							
Abandono	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
6. INCAPACIDAD PARENTAL DE REGULACIÓN Y CONTROL DE LA CONDUCTA DEL NNA							
Incapacidad regulación y control conducta NNA	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
7. MALTRATO PRENATAL Y RIESGO PRENATAL							
Maltrato prenatal	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
Riesgo prenatal	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
8. OTRAS TIPOLOGÍAS							
Expulsión o negación de la entrada al domicilio	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
Corrupción	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
Mendicidad	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
Explotación laboral	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐

En caso de haber utilizado abreviaturas, describir

1 VALORACIÓN GLOBAL GRAVEDAD DESPROTECCIÓN	Cuidado adecuado / No desprotección ☐	Déficits ☐	Gravedad moderada ☐	Gravedad elevada ☐	Gravedad muy elevada ☐

OTRAS SITUACIONES QUE CONSTITUYEN GRAVE VULNERABILIDAD AL DESAMPARO	SIN INFORM.	NO	SOSPECHA	SÍ
Antecedentes de desprotección grave perpetrada por las personas progenitoras, tutoras o guardadoras	☐	☐	☐	☐
Graves dificultades personales en las personas progenitoras, tutoras o guardadoras	☐	☐	☐	☐
CIRCUNSTANCIAS RELEVANTES	**SIN INFORM.**	**NO**	**SOSPECHA**	**SÍ**
Violencia vicaria	☐	☐	☐	☐
Violencia sexual intrafamiliar (perpetrada por personas diferentes a las personas progenitoras, tutoras o guardadoras)	☐	☐	☐	☐

HOJA RESUMEN BALORA 3.0

2 OTRA INFORMACIÓN RELEVANTE

CARACTERÍSTICAS DE ESPECIAL VULNERABILIDAD DEL NIÑO, NIÑA O ADOLESCENTE	☐ Corta edad. Especificar ☐ No visible en la comunidad ☐ Discapacidad o necesidades especiales. Especificar ☐ Experiencias previas de desprotección o victimización. Especificar ☐ Otros. Especificar
SITUACIONES DE (1) DESPROTECCIÓN MODERADA CERCANA A GRAVE, (2) GRAVEDAD ELEVADA, Y (3) GRAVEDAD MUY ELEVADA *(cumplimentar únicamente en esos casos)*	• Elementos en el entorno del NNA que hacen altamente probable que de forma inmediata o en breve plazo la desprotección se repita con la misma o mayor gravedad, suponiendo: o un peligro claro para la salud o seguridad básicas del NNA ☐ **Sí** ☐ **No** ☐ **Sin información** o provocándole o colocándole en riesgo de sufrir un daño grave ☐ **Sí** ☐ **No** ☐ **Sin información** • Elementos de protección en el entorno del NNA y la familia que, de forma natural, puedan contrarrestar dicho peligro ☐ **Sí** ☐ **No** ☐ **Sin información** • Grado de colaboración de las personas progenitoras, tutoras o guardadoras en los procesos de valoración y/o intervención de los Servicios Sociales ☐ **Idóneo** ☐ **Suficiente** ☐ **Insuficiente** ☐ **Nulo** • ¿Se ha procedido a la declaración de riesgo? ☐ **Sí** ☐ **No** • Pronóstico de modificación a corto o medio plazo de las circunstancias familiares asociadas a la aparición o mantenimiento de la desprotección ☐ **Positivo** ☐ **Difícil** ☐ **Negativo** • Evolución prevista en la situación del NNA si se mantiene en su entorno familiar en las condiciones existentes ☐ **Positivo** ☐ **Negativo** ☐ **Sin información** • En situaciones en que se valore un posible desamparo: o los beneficios de la medida de separación en el NNA son superiores a sus riesgos o posibles efectos negativos, o estos últimos pueden ser contrarrestados ☐ **Sí** ☐ **No** o en el caso de adolescentes, ¿acepta o se prevé que puede aceptar la medida? ☐ **Sí** ☐ **No** ☐ **Sin información**
OTROS ELEMENTOS A TENER EN CUENTA PARA LA VALORACIÓN DEL NIVEL DE RIESGO O DESAMPARO *(cumplimentar cuando se considere relevante)*	

3 VALORACIÓN NIVEL DE RIESGO O DESAMPARO	Buen trato ☐	Vulnerabilidad a desprotección ☐	Riesgo leve ☐	Riesgo moderado ☐	Riesgo grave ☐	Desamparo ☐	Otra medida de protección ☐

4 PROPUESTA	**Servicio responsable de la atención al niño, niña y adolescente y la familia, derivación (en su caso), medida legal de protección (en su caso), otras actuaciones**

HOJA RESUMEN BALORA 3.0

OTRA INFORMACIÓN QUE SE QUIERA HACER CONSTAR

Instrucciones para cumplimentar la Hoja-Resumen: Se cumplimentará una Hoja-Resumen para cada niño, niña o adolescente. Se cumplimentarán tantas Hojas-Resumen como NNA sean valorados en una familia. / *Sin información* = No se ha explorado o no se ha recabado información sobre esa área. La información disponible no permite descartar que pudiera existir algún problema, por lo que se aconseja valoración específica posterior. / *Buen trato* = Se ha constatado que no hay ningún problema en esa área, o, no habiéndose realizado una valoración de esa área concreta, la información disponible permite descartar con suficiente seguridad que pudiera existir algún problema, no considerándose necesaria valoración específica. / *Sospecha* = Hay indicios que hacen sospechar que pudiera haber algún problema en esa área, pero no se ha podido confirmar. Se aconseja valoración específica. / Además de que pueda recogerse en el informe descriptivo, en la Hoja-Resumen se podrá también identificar con una abreviatura la persona progenitora, tutora o guardadora responsable de la desprotección (P=padre, M=madre, etc.). / En NNA que alternan convivencia en distintos núcleos familiares (p.ej., NNA en custodia compartida), podrá cumplimentarse una Hoja-Resumen por cada persona progenitora, aunque la valoración final deberá recoger una valoración global de la situación del NNA.

Glosarioa

PREBENTZIO-PROGRAMA UNIBERTSALA (LEHEN MAILAKO PREBENTZIOA): Biztanleria osoari zuzendutako jarduketa hauek helburu dute babesgabetasun-egoera berriak ager daitezen saihestea. Prebentzio unibertsaleko jarduketak:

- proaktiboak dira, ez erreaktiboak, eta prebenitu beharreko arazoa gertatu baino lehen egiten dira, ez pertsonengan eragina izan ondoren,
- arazoa eragiten duten edo arazoa biztanlerian zabaltzen duten inguruabarretan, egoeretan edo prozesuetan oinarritzen dute ekintza, arazoa (arrisku- edo zaurgarritasun-faktoreak) agertzea edo zabaltzea eragozten saiatzeko eta babes-faktoreak indartzeko, eta
- biztanleria osoari zuzentzen zaizkie, baita arazoaren eraginpean ez dauden pertsonei edo taldeei ere.

PREBENTZIO SELEKTIBO ETA ADIERAZIKO PROGRAMAK (BIGARREN MAILAKO PREBENTZIOA): Lurraldeko gizarte-zerbitzuek garatzen dituzte. Babesgabetasunarekiko zaurgarritasun-egoeran edo arrisku arineko egoeran dauden familientzako ekintzak antolatzen dituzte. Haien helburu nagusia da eragoztea arrisku ertaineko, arrisku larriko edo babesgabeziako egoerak sortzea.

- Horretarako, familia babesgabetasun-egoera bat sortzeko arriskuan jartzen duten faktoreak desagerrarazi, murriztu, kontrolatu edo indargabetzen saiatzen dira, eta
- babes-faktoreak indartzen dituzte, eta
- familiaren barruko heziketa-, zaintza-, tratu- edo harreman-ohitura desegokiak zuzentzen dituzte.

Esku-hartzea zenbait testuingurutan gauza daiteke (familia-etxebizitzan, komunitate-ingurunean, bulegoan eta abar), kasu bakoitzaren beharren arabera, baina, beti, zerbitzu komunitarioekin lankidetza estuan arituta eta izaera normalizatuarekin.

FAMILIA BABESTEKO PROGRAMAK: Udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuek garatzen dituzte. Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartze psikosoziala egiten dute arrisku ertain edo larriko egoeran dauden haurrak edo nerabeak dituzten familiekin, azken horiek familia-etxebizitzan bizitzen jarraitzen dutenean. Helburu nagusiak honako hauek dira:

- haur edo nerabearen oinarrizko premien estaldura bermatzea bere familia- eta gizarte-ingurunean,
- babesgabetasun-egoerarekin amaitzea eta berriz agertzea saihesteko behar diren baldintzak ezartzea,
- familia-unitatea mantentzea,
- gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak guraso-rola ondo bete dezaten gaitu edo osatzea, eta
- babesgabetasunak haur edo nerabearengan izan dituen ondorioak konpontzea.

Esku-hartzea testuinguru batean baino gehiagotan egin daiteke (familia-etxebizitzan, komunitate-ingurunean, bulegoan eta abar), kasu bakoitzaren beharren arabera.

FAMILIA BERRELKARTZEKO PROGRAMAK: Lurraldeko gizarte-zerbitzuek garatzen dituzte. Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartze psikosoziala egiten dute legezko babes-neurri bat ezartzea behar izan duten eta arrisku larriko edo babesgabeziako egoeran dauden haurren edo nerabeen familietan. Helburu nagusiak honako hauek dira:

- haurra edo nerabea familiara itzul dadin lortzea ahal den denbora laburrenean, haren oinarrizko premiak asebeteko direla bermatuta,
- babesgabetasuna berriz agertzea eragozteko behar diren baldintzak ezartzea,
- guraso-figurak gaitzea edo haien osagarri izatea babes-eginbeharrak behar bezala bete ditzaten, eta
- babesgabetasunak haur edo nerabearengan izan dituen ondorioak konpontzea.

Esku-hartzea testuinguru batean baino gehiagotan egin daiteke (familia-etxebizitzan, komunitate-ingurunean, bulegoan eta abar), kasu bakoitzaren beharren arabera.

BALORAZIOA: Oro har, informazio multzo baten inguruan iritzia emateko ekintza eta ondorioa.

EBALUAZIOA: Haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko zerbitzuen esku-hartzearen fase bat da. Fase honetan, familia baten aurretiko historiari eta gaur egungo egoerari buruzko informazioa biltzen da, familiaren zailtasunen eta babesgabetasun-egoeraren kausak identifikatzeko eta esku hartzeko plana diseinatzeko.

Haur eta nerabeen oinarrizko premien taxonomia eta premia horiek ebaluatzeko adierazleak

HAUR ETA NERABEEN OINARRIZKO PREMIEN TAXONOMIA[42]				
PREMIA FISIKOAK	**SEGURTASUNA**	**PREMIA EMOZIONALAK**	**PREMIA SOZIALAK**	**PREMIA KOGNITIBOAK**
✓ **Elikadura** ✓ **Tenperatura** ✓ **Higienea** ✓ **Osasuna** ✓ **Loa** ✓ **Jarduera fisikoa: ariketa egitea eta jolastea**	✓ **Haur edo nerabearen osotasun fisikoa arriskuan jartzen duten inguruneko baldintzetatik babestea** ✓ **Kalte egiten dioten edo egin diezaioketen heldu eta adingabeengandik babestea** ✓ **Haurrak edo nerabeak bere buruari egin diezaiokeen kaltetik babestea**	✓ **Segurtasun emozionala:** o **Harreman seguruak, egonkorrak eta afektiboak izatea pertsona heldu esanguratsuekin** o **Haur edo nerabearen premiekiko sentikortasuna eta ardura** o **Kontaktu fisiko egokia** o **Afektua eta errefortzu positiboa jasotzea** o **Senideekiko eta beste pertsona heldu esanguratsu batzuekiko harreman jarraituak** ✓ **Pixkanakako parte-hartzea eta autonomia** ✓ **Garapen psikosexualeko prozesua errespetatzea** ✓ **Irudizko arriskuetatik babestea** ✓ **Ondoez emozionaleko arazoak edo sintomak konpontzeko laguntza izatea**	✓ **Jokabide-mugak eta -orientabideak izatea** ✓ **Emozioak kontrolatzen ikastea, bai eta gizartean parte hartzeko eta beste pertsona batzuekin harreman egokiak ezartzeko jokabide egokiak ikastea ere** ✓ **Gizarte-harremanen sarea** ✓ **Interakzio ludikoa**	✓ **Estimulazio sentsoriala: Esplorazio- eta ikaskuntza-esperientziak izatea** ✓ **Ezagutzak eta abileziak lortzea antolatutako prestakuntza-prozesu baten bitartez (eskola edo homologatutako beste bat)** ✓ **Esplorazio fisikoa eta soziala** ✓ **Errealitate fisikoa eta soziala ulertzea**

[42] Oinarria: López, F. (1995). *Necesidades de la infancia y protección infantil I. Fundamentación teórica, clasificación y criterios educativos de las necesidades infantiles*. Madril: Gizarte Gaien Ministerioa, *eta Guías de actuación en situaciones de desprotección infantil en la Comunidad de Cantabria y el Ayuntamiento de Madrid.*

HAUR ETA NERABEEN OINARRIZKO PREMIAK: EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

PREMIA FISIKOAK		
Premiak	***Asebetetzearen adierazleak***	***Gabezien adierazleak***
Elikadura	○ Amaren elikadura egokia haurdunaldian eta edoskitzaroan. ○ Elikadura nahikoa, askotarikoa, denboran sekuentziatua, adinari egokitua.	○ Fetua kaltetzen duten gaiak hartzea. Desnutrizioa edo gehiegizko elikadura, osasunean arazo nabarmenak eraginez. ○ Adinerako egokia ez den elikadura.
Tenperatura	○ Etxebizitzako baldintza eta arropa egokiak.	○ Hotza etxebizitzan; hezetasuna; oinetakoak ez izatea, arropa ez izatea.
Higienea	○ Gorputzaren, etxebizitzaren, elikagaien, arropen eta ingurunearen higienea.	○ Zikinkeria; ingurunearen kutsadura; germen kutsakorrak; parasitoak eta karraskariak.
Osasuna	○ Adinari eta osasun-egoerari egokitutako osasun-azterketak; txertaketak.	○ Osasun-kontrolik eza; sintomak eragitea; txertorik ez jartzea.
Loa	○ Toki babestua eta isila, nahikoa adinaren arabera, eta siestak, haurra txikia bada.	○ Segurtasunik eza; zarata-kutsadura; etenaldiak sarritan; denbora gutxiegi; egunez atseden hartzeko lekurik eta denborarik gabe.
Jarduera fisikoa: ariketa egitea eta jolastea	○ Mugimendu-askatasuna tokian; toki bat jostailuekin eta beste haur eta nerabe batzuekin; kontaktua elementu naturalekin (ura, lurra, landareak, animaliak eta abar); ibilaldiak, irteerak, txangoak eta abar.	○ Gorputza ez mugitzea; tokirik ez; objekturik ez; jostailurik ez; jarduerarik ez; mugimendu gutxi.

SEGURTASUNA		
Premiak	***Asebetetzearen adierazleak***	***Gabezien adierazleak***
○ **Haur edo nerabearen osotasun fisikoa arriskuan jartzen duten inguruneko baldintzetatik babestea.** ○ **Kalte egiten dioten edo egin diezaioketen heldu eta adingabeengandik babestea.** ○ **Haurrak edo nerabeak bere buruari egin diezaiokeen kaltetik babestea.**	○ Etxea segurtasun-baldintzak izateko egoki antolatzea (entxufeak, garbigarriak, tresnak eta erremintak, eskailerak eta abar). ○ Gainbegiratzea: Haur edo nerabearen harremanak eta dagoen lekua ezagutu eta kontrolatzea. ○ Orientabideak eta gida: Haurrari edo nerabeari oinarrizko segurtasun-arauak irakastea. ○ Eskura egotea: Lagundu eta babesteko zuzeneko esku-hartzea, beste pertsona batzuek haurrari edo nerabeari kalte egiten diotenean, kalte egin diezaioketenean edo hark bere buruari kalte egin diezaiokeenean.	○ Etxeko istripuak. Haurrak istripuak edo erasoak pairatzen ditu, ez dutelako gainbegiratzen. ○ Haurra edo nerabea etengabe inplikatzen da helduek txikiagotzen edo arretarik gabe uzten dituzten arrisku-jokabideetan edo harremanetan. ○ Haurrak edo nerabeak beste pertsona batzuen erasoak pairatzen ditu behin eta berriz. ○ Haurrak edo nerabeak jokabide autosuntsigarri larriak edo suizidio-ideiak erakusten dituenean, arreta espezializatua eskuratzea atzeratzea edo hari uko egitea.

PREMIA EMOZIONALAK		
Premiak	***Asebetetzearen adierazleak***	***Gabezien adierazleak***
Segurtasun emozionala: o **Harreman seguruak, egonkorrak eta afektiboak izatea pertsona heldu esanguratsuekin** o **Haur edo nerabearen premiekiko sentikortasuna eta ardura** o **Kontaktu fisiko egokia** o **Afektua eta errefortzu positiboa jasotzea** o **Senideekiko eta beste pertsona heldu esanguratsu batzuekiko harreman jarraituak**	○ Baldintzarik gabeko atxikimendua (onarpena, prestasuna, eskaerekiko erantzun egokia eta gaitasuna); kontaktu goxoa (ukimenekoa, ikusmenekoa, hitzezkoa eta abar); afektu-adierazpen fisikoak eta hitzezkoak; haur edo nerabearen lorpenen eta alderdi positiboen errefortzua eta balioespena; kontrolatzeko gaitasuna; gatazkak moral induktiboaren bidez konpontzea (azalpenak, adinari egokitutako eskakizunak, koherentzia eskakizunetan, berrikusteko aukera haurra edo nerabea erabakiaz kexatzen denean); interakzio ludikoa guraso-figurekin eta beste senide batzuekin.	○ Baztertzea; ez egotea; guraso-figurek denbora ez izatea; eskuragarri ez egotea; afektu-adierazpen fisikoak eta hitzezkoak ez izatea; haurra edo nerabea baliogabetzea, lorpenen gaineko errefortzurik ez egitea, hitzez erasotzea, mezu negatiboak nagusitzea; ez hautematea; ez interpretatzea; ez erantzutea; kontingentziarik gabe erantzutea; inkoherentzia erantzunean; haurra edo nerabea kontrolatzeko gaitasunik ez izatea; arriskuen aurrean babesteko gaitasunik ez izatea; autoritarismoz jokatzea; guraso-figuren bizitza-tonu tristea edo goibela izatea. ○ Hausturak haur edo nerabearen harreman esanguratsuetan; maitasuna hausteko edo kentzeko mehatxuak.
Pixkanakako parte-hartzea eta autonomia	○ Haurrak edo nerabeak parte hartzea, bai eragiten dioten gauzen kudeaketan, bai familian, eskolan eta gizartean bere alde eta gainerako pertsonen alde egin ditzakeen gauzen kudeaketan.	○ Haurrari edo nerabeari ez entzutea; kontuan ez hartzea; mendekotasuna.
Garapen psikosexualeko prozesua errespetatzea	○ Galderei erantzutea; jolasak eta autoestimulazio sexuala onartzea; sexu-indarkeriatik babestea.	○ Ez entzutea; ez erantzutea; iruzur egitea; haurtzaroan edo nerabezaroan sexu-adierazpenak zigortzea; sexu-indarkeria.
Irudizko arriskuetatik babestea	○ Haur edo nerabearen beldurrak entzutea, ulertzea eta erantzutea (abandonuari beldurra, anai-arreben arteko lehia, heriotzari beldurra); beldurra adierazteko aukera ematea; beldurrak sustatzen dituzten hitzak eta jokabideak saihestea (hitzezko indarkeria edo indarkeria fisikoa, eztabaida desegokiak, hitzezko mehatxuak, kontrola galtzea, inkoherentzia jokabidean).	○ Ez entzutea; ez erantzutea; ez lasaitzea; emozionalki inhibitzea; hitzezko indarkeria erabiltzea; indarkeria fisikoa izatea ingurunean; mehatxuak egitea; kontrola galtzea; inkoherentziaz jokatzea harremanean.
Ondoez emozionaleko arazoak edo sintomak konpontzeko laguntza izatea	○ Ondoez emozionaleko arazoak edo sintomak identifikatzea edo atzematea haurrarengan edo nerabearengan; sintomen garrantziaren balorazio egokia egitea; arazook konpontzeko arreta espezifikoa ematea; arreta espezializatua eskuratzea familiako esku-hartzea nahikoa ez denean.	○ Haur edo nerabearen ondoez emozionaleko arazoak edo sintomak ez ikustea; horien garrantzia minimizatzea; arreta espezializatua eskuratzea atzeratzea edo hari uko egitea, haurrak edo nerabeak ondoez psikologikoko sintoma nabarmenak dituenean.

PREMIA SOZIALAK		
Premiak	***Asebetetzearen adierazleak***	***Gabezien adierazleak***
Jokabide-mugak eta -orientabideak izatea	○ Mugak ezartzea haur edo nerabearen jokabide desegokiei; diziplina sendoz jokatzea, irakaskuntza gisa ulertuta eta enpatiaz eta afektuz transmitituta; diziplina induktiboa erabiltzea; haur edo nerabearen jarduerak gainbegiratzea.	○ Mugak ez ezartzea haur edo nerabearen jokabidearen gainean; inplikazio edo artatze eskasez jokatzea; botere-adierazpenean edo afektua kentzean oinarritutako diziplina-estrategiak erabiltzea; diziplina modu inkoherentean erabiltzea, suminkorra edo leherkaria izatea edo zurruna edo tinkoa.
Emozioak kontrolatzen ikastea, bai eta gizartean parte hartzeko eta beste pertsona batzuekin harreman egokiak ezartzeko jokabide egokiak ikastea ere	○ Balio moralak irakastea; bulkadak kontrolatzen irakastea; desberdintasun indibidualekiko errespetua irakastea; enpatia-gaitasuna garatzea.	○ Portaera-eredu bortitzen eraginpean jartzea; gurasoen edo pertsona helduen eredu asozialen, abusuzko ereduen edo eredu oso desegokien eraginpean jartzea; jokabide asozialak indartzea edo onartzea; haur edo nerabearen bulkada eta jokabide bortitzak ez kontrolatzea edo indartzea.
Gizarte-harremanen sarea	○ Berdinekiko adiskidetasun- eta laguntasun-harremanak eratzea (berdinekiko kontaktuak eta interakzioa sustatzea familia-ingurunean eta eskolan; kontaktuetarako denbora hartzea eta abar); harremanei jarraipena ematea; seme-alabak dituzten beste familia batzuekin batera jarduerak egitea; beste haur edo nerabe batzuek parte hartzen duten taldeetan sartzea.	○ Gizartetik bakartzea; lagunengandik denbora luzez banantzea; lagunekin ezin kontaktu izatea; lagunak debekatzea; arriskuko konpainiak izatea.
Interakzio ludikoa	○ Interakzio ludikoa berdinekin eta familiakoak ez diren pertsonekin.	○ Inguruan parekorik ez izatea; familiatik kanpoko pertsonekin interakziorik ez izatea; jostailuak edo objektu ludikoak ez edukitzea; jostailu desegokiak edukitzea.
PREMIA KOGNITIBOAK		
Premiak	***Asebetetzearen adierazleak***	***Gabezien adierazleak***
Estimulazio sentsoriala: Esplorazio- eta ikaskuntza-esperientziak izatea	○ Zentzumenak estimulatzea; estimuluak dituen ingurunea (ikusmenekoak, ukimenekoak, entzumenekoak eta abar); estimuluen kantitatea, aniztasuna eta kontingentzia; interakzio ludikoa familian; hizkuntza-estimulazioa.	○ Zentzumenak lantzeko aukerak kentzea; zentzumen-aukera urriak izatea; estimuluen monotonia; erantzuna kontingentea ez izatea; hizkuntza-estimulaziorik ez egotea.
Ezagutzak eta abileziak lortzea antolatutako prestakuntza-prozesu baten bitartez (eskola edo homologatutako beste bat)	○ Prestakuntza egituratua ematea modu egonkorrean, eskolaren bitartez edo behar bezala homologatutako beste eredu baten bitartez.	○ Prestakuntza egituratu egonkorrik ez ematea, dela eskolaren bitartez, dela behar bezala homologatutako beste eredu baten bitartez.
Esplorazio fisikoa eta soziala	○ Kontaktua objektu, jostailu, elementu natural eta pertsona asko dituen ingurune fisiko eta sozialarekin; ingurune fisiko eta sozialak esploratzea; “haur txikienei segurtasun-oinarria” ematea, haiekin esperientziak partekatzea.	○ Ingurune pobrea; laguntzarik ez ematea esplorazioan; pertsona helduekin eta berdinekin esperientziarik ez partekatzea.

Errealitate fisikoa eta soziala ulertzea	○ Galderak entzutea eta haiei erantzun kontingenteak ematea; egia esatea; haurrak edo nerabeak bizitzaren, sufrimenduaren, gozamenaren eta heriotzaren ezagutzan partaide egitea; bizitzaren, harremanen eta loturen ikuspegi positiboa transmititzea; gizartearen eta egokitzapenaren aldeko jarrerak, balioak eta arauak transmititzea; desadostasunekiko eta desberdintasunekiko (sexua, arraza, minusbaliotasunak eta abar) tolerantzia.	○ Ez entzutea; ez erantzutea; une desegokian erantzutea; gezurra esatea; errealitatea ezkutatzea; bizitzaren, harremanen eta loturen gaineko ikuspegi pesimista izatea; gizartearen aurkako balioak transmititzea; dogmatismoz edo arrazakeriaz jokatzea.

HAUR ETA NERABEEN OINARRIZKO PREMIAK:
EBALUAZIO-ADIERAZLEAK, ADIN-TALDEEN ARABERA[43]

0-2 urte
3-4 urte
5-9 urte
10-14 urte
15-18 urte

[43]Hemendik hartua: *Framework for the assessment of children in need and their families* (2000). Department of Health, UK Government.
Testuan, "*guraso-figura*" erabiltzen da gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak adierazteko.

PREMIEN EBALUAZIO-ADIERAZLEAK – 0-2 URTE

Premia fisikoak	***Segurtasuna***	***Premia emozionalak***	***Premia sozialak***	***Premia kognitiboak***
✓ Osasun ona du oro har; ohiko gaixotasunak ✓ Pisua eta tamaina esperotako neurrian ✓ Dieta egokia eta elikagarria ematen diote haurrari ✓ Bainu erregularrak ✓ Eguraldiari egokitutako arropa darama ✓ Arropa normalean garbi (pixa-, kaka- edo janari-hondarrik gabe) ✓ Etxea garbi dago, baita haurraren ohea ere ✓ Ohiko pediatria-kontroletara joaten da ✓ Txertoak jartzen zaizkio; hori egin ezean, azalpen egokia dago ✓ Lo-ordutegi erregularra ✓ Guraso-figurak arduratu egiten dira haurrak behar adina lo egin dezan eta isiltasuna egon dadin ✓ Ordutegi egonkorrak eta egokiak (otorduak, loa, bainua)	✓ Haurrak izan dituen lesioei arreta egokia eman zaie ✓ Haurrak edo nerabeak dituen lesio edo marka fisikoek azalpen onargarria dute ✓ Guraso-figurek neurriak ezartzen dituzte istripuak prebenitzeko ✓ Beste pertsona batzuen indarkeriatik babesten dute haurra ✓ Jolasteko erabiltzen dituen jostailuak edo objektuak seguruak dira ✓ Guraso-figurek ziurtatzen dute haurra leku seguruetan jolasten dela, etxetik kanpo dagoenean ✓ Haurra beti pertsona arduratsu eta gaitu baten zaintzapean dago, etxetik kanpo dagoenean ✓ Guraso-figurek haurraren eta haren anai-arreben arteko harremana gainbegiratzen dute. ✓ Oro har, anai-arrebek ondo tratatzen dute haurra. ✓ Haurra zaintzen duten pertsona helduak ezagunak izaten dira beti, eta haien kopurua mugatua da. ✓ Beharrezkoa denean, haurra pertsona arduratsu eta gaituen zaintzapean uzteaz arduratzen dira guraso-figurak ✓ Guraso-figurek pertsona ezagunen eta ezezagunen artean bereizten irakasten diote haurrari ✓ Istripuen ondoriozko lesio gehiegi ✓ Haurrak eraso edo zigor fisikoak jasotzen ditu	✓ Haurrak harreman egonkorra dauka pertsona heldu batekin gutxienez ✓ Oro har pertsona heldu berberek zaintzen dute haurra ✓ Esna dagoenean, normalean guraso-figuretako baten zaintzapean dago haurra ✓ Guraso-figurek haurra kontsolatzen dute gaixo dagoenean, haserre dagoenean edo min hartu duenean ✓ Komunikatzeko eta hitz egiteko egiten dituen ahaleginei erantzuten diete ✓ Ondo pasatzen dute haurrarekin komunikatzen ✓ Haurraren aurrerapenak eta lorpenak indartzen dituzte, eta haiekiko onespena adierazten dute ✓ Errutina batzuk daude haurraren egunerokotasunean ✓ Guraso-figuren arteko desadostasunak indarkeriarik gabe konpontzen dira ✓ Kontaktu fisiko positiboa dago guraso-figuren eta haurraren artean Pertsona helduek ondo pasatzen dute hori egiten. ✓ Guraso-figurek haurrarekin duten jokabidea eta ematen dituzten erantzunak aurreikusteko modukoak eta koherenteak dira ✓ Bat-bateko afektu-adierazpenak egiten dizkiote sarritan haurrari ✓ Haurra den bezalakoa izanda baloratzen da ✓ Guraso-figurek haurrarekin harro daudela adierazten dute ✓ Familiako kide gisa onartzen dute haurra ✓ Familiako ospakizunetako partaide egiten dute ✓ Guraso-figurek lotura positibo eta sendoa garatzeko behar adina denbora igarotzen dute haurrarekin ✓ Modu sentikorrean erantzuten diote haurrari ✓ Familian afektuzko harremanak ezartzea indartzen dute ✓ Haurrak askotan ikusten ditu ondoez emozionaleko sintomak guraso-figurengan ✓ Haurrak kritikak edo areriotasuneko adierazpenak pairatzen ditu askotan	✓ Haurrak aukera asko ditu beste pertsona batzuekin jolasteko eta komunikatzeko ✓ Beste pertsona heldu batzuekin eta beste haur batzuekin harremanak izatea sustatzen dute ✓ Beste haur batzuekin jolastera animatzen dute ✓ Sarritan bisitatzen ditu lagunak eta senideak ✓ Guraso-figurek laguntza edo aholkularitza bilatzen dute, haurraren jokabidea kontrolatzeko zailtasunak badituzte ✓ Guraso-figurek metodo egokiak erabiltzen dituzte haurraren jokabidea kudeatzeko (errefortzu positiboa ematea, negoziatzea, ereduak ezartzea, sariak ematea, entretenitzea, konbentzitzea, jokabide desegokiak desagerraraztea eta abar). ✓ Muga eta arau argiak daude familian portaera egokiari dagokionez ✓ Muga eta arau horiek sendoak dira, eta guraso-figurek errespetatu egiten dituzte ✓ Haurrak laguntza jasotzen du bere sentimendu negatiboak kontrolatzen eta modu egokian adierazten ikasteko ✓ Beste haur batzuekin eta beste pertsona heldu batzuekin harremanak izateko modua irakasten diote ✓ Beste pertsona batzuk eta horien jabetzak errespetatzen irakasten diote haurrari ✓ Txandak errespetatzen irakasten diote ✓ Negoziatzera animatzen dute ✓ Guraso-figurek beste pertsona batzuekin harremanak izateko modua eredu egokia da haurrarentzat ✓ Haurrari irakasten diote ez duela izan behar portaera bortitzik edo krudelik	✓ Haurra estimulatzen dute ingurunea esploratzeko eta aktiboa izateko ✓ Ikas dezan animatzen dute haurra ✓ Gauzak bere kabuz egin ditzan animatzen dute ✓ Erabakiak hartzeko aukera ematen diote alternatiba errazak eskainiz ✓ Independentea izateko egiten dituen ahaleginak errespetatzen dituzte ✓ Jolastera animatzen dute ✓ Nolabaiteko askatasuna dauka bere ingurunea esploratzeko ✓ Bere inguruneari buruzko jakin-mina adierazten du (pertsonak, jostailuak eta abar) ✓ Bere adinerako jostailu egokiak ditu ✓ Bere adinerako espero daitekeen moduan jolasten da ✓ Haurraren jostailuak/liburuak arretaz tratatzen dira ✓ Etxetik kanpo paseatzera eramaten dute ✓ Haurra bere adinerako espero daitekeen moduan adierazten eta hitz egiten ikasten ari da ✓ Soinuei eta ahotsei behar bezala erantzuten die ✓ Bi urterekin jada aginduei erantzuten die ✓ Guraso-figurek haurrarekin hitz egiten, abesten eta jolas egiten dute ✓ Guraso-figurek liburuak irakurtzen/begiztatzen dituzte edo telebista ikusten dute haurrarekin

PREMIEN EBALUAZIO-ADIERAZLEAK – 3-4 URTE

Premia fisikoak	*Segurtasuna*	*Premia emozionalak*	*Premia sozialak*	*Premia kognitiboak*
✓ Osasun ona du oro har; ohiko gaixotasunak ✓ Pisua eta tamaina esperotako neurrian ✓ Haurrak dieta egokia eta elikagarria dauka ✓ Bainu erregularrak ✓ Eguraldiari egokitutako arropa darama ✓ Arropa normalean garbi (pixa-, kaka- edo janari-hondarrik gabe) ✓ Etxea garbi dago, baita haurraren ohea ere ✓ Ohiko pediatria-kontroletara joatea ✓ Txertoak jartzen zaizkio; hori egin ezean, azalpen egokia dago ✓ Behin baino gehiagotan hartzen du gaixotasun bera, baina azalpen medikoa du ✓ Lo-ordutegi erregularra ✓ Erregularki garbitzen ditu hortzak ✓ Guraso-figurak arduratu egiten dira haurrak behar adina lo egin dezan eta isiltasuna egon dadin ✓ Haurrak ordutegi egonkorrak eta egokiak ditu (otorduak, loa, bainua)	✓ Haurrak izan dituen lesioei arreta egokia eman diete ✓ Haurrak edo nerabeak dituen lesio edo marka fisikoek azalpen onargarria dute ✓ Guraso-figurek neurriak ezartzen dituzte istripuak prebenitzeko ✓ Beste pertsona batzuen indarkeriatik babesten dute haurra ✓ Jolasteko erabiltzen dituen jostailuak edo objektuak seguruak dira ✓ Etxean leku segururen bat dago haurra jolastu ahal izateko ✓ Guraso-figurek ziurtatzen dute haurra leku seguruetan jolasten dela, etxetik kanpo dagoenean ✓ Haurra beti pertsona arduratsu eta gaitu baten zaintzapean dago, etxetik kanpo dagoenean ✓ Guraso-figurek haurraren eta haren anai-arreben arteko harremana gainbegiratzen dute ✓ Oro har, anai-arrebek ondo tratatzen dute haurra ✓ Haurra zaintzen duten pertsona helduak pertsona ezagunak dira beti, eta bakanak izaten dira ✓ Beharrezkoa denean, haurra pertsona arduratsuen eta gaituen zaintzapean uzteaz arduratzen dira guraso-figurak ✓ Guraso-figurek pertsona ezagunen eta ezezagunen artean bereizten irakasten diote haurrari ✓ Bere burua babesteko gaitasunak irakasten dizkiote ✓ Haurra eskolara joaten bada, beti dago hura jasoko duen norbait. ✓ Haurra eskolara eraman eta jasotzen duten pertsonak gutxi dira, ezagunak dira eta horretarako gaitasuna dute --- ✓ Istripuen ondoriozko lesio gehiegi ✓ Haurrak eraso edo zigor fisikoak jasotzen ditu	✓ Haurrak harreman egonkorra dauka pertsona heldu batekin gutxienez ✓ Oro har pertsona heldu berberek zaintzen dute haurra, ✓ Esna dagoenean, normalean guraso-figuretako baten zaintzapean dago haurra ✓ Guraso-figurek haurra kontsolatzen dute gaixo dagoenean, haserre dagoenean edo min hartu duenean ✓ Haurraren aurrerapenak eta lorpenak indartzen dituzte, eta haiekiko onespena adierazten dute ✓ Oro har, modu positiboan erantzuten diete haren solasaldiei ✓ Adorea ematen diote gauza berriak egiten saiatzen denean ✓ Laguntza ematen diote gauza berriak egiten saiatzerakoan porrot egiten duenean ✓ Errutina batzuk daude haurraren egunerokotasunean ✓ Guraso-figuren arteko desadostasunak indarkeriarik gabe konpontzen dira ✓ Kontaktu fisiko positiboa dago guraso-figuren eta haurraren artean Guraso-figurek ondo pasatzen dute hori egiten ✓ Bat-bateko afektu-adierazpenak egiten dizkiote sarritan haurrari ✓ Haurra den bezalakoa izanda baloratzen da ✓ Guraso-figurek haurrarekin harro daudela adierazten dute ✓ Familiako kide gisa onartzen dute haurra ✓ Familiako ospakizunetako partaide egiten dute ✓ Guraso-figurek lotura positibo eta sendoa garatzeko behar adina denbora igarotzen dute haurrarekin ✓ Familian afektuzko harremanak ezartzea indartzen dute ✓ Haurra bere beldurrei eta kezkei buruz hitz egitera bultzatzen dute ✓ Haurrak etxean jasotzen dituen erantzunak sendoak eta aurreikusteko modukoak dira --- ✓ Haurrak askotan ikusten ditu ondoez emozionaleko sintomak guraso-figurengan ✓ Haurrak kritikak edo areriotasuneko adierazpenak pairatzen ditu askotan ✓ Guraso-figurek haurraren laguntza bilatzen dute arazoak dituztenean	✓ Haurrak beste pertsona heldu eta adingabe batzuekin harremana izatea sustatzen da ✓ Sarritan bisitatzen ditu lagunak eta senideak ✓ Beste haur batzuekin partekatzera eta jolastera animatzen dute ✓ Guraso-figurek laguntza edo aholkularitza bilatzen dute, haurraren jokabidea kontrolatzeko zailtasunak badituzte ✓ Guraso-figurek metodo egokiak erabiltzen dituzte haurrari behar bezala portatzen irakasteko (errefortzu positiboa ematea, negoziatzea, ereduak ezartzea, sariak ematea, entretenitzea, konbentzitzea, jokabide desegokiak desagerraraztea eta abar). ✓ Muga eta arau argiak daude familian portaera egokiari dagokionez ✓ Muga eta arau horiek sendoak dira, eta bi guraso-figurek errespetatzen dituzte ✓ Beste pertsona batzuk eta horien jabetzak errespetatzen irakasten diote haurrari ✓ Txandak errespetatzen irakasten diote ✓ Negoziatzera animatzen dute ✓ Bere emozioak kontrolatzen irakasten diote ✓ Guraso-figurek beste pertsona batzuekin harremanak izateko modua eredu egokia da haurrarentzat ✓ Haurrari irakasten diote ez duela izan behar portaera bortitzik edo krudelik ✓ Eskolara garaiz iritsi ohi da ✓ Helduen jokabide xelebreak edo beldurra eragin diezaioketen jokabideak ikustea saihesteko ahalegina egiten da ✓ Leku publikoetan portaera egokia izatea sustatzen eta irakasten diote guraso-figurek haurrari	✓ Haurra estimulatzen dute ingurunea esploratzeko eta aktiboa izateko ✓ Ikas dezan animatzen dute haurra ✓ Gauzak bere kabuz egitera animatzen dute ✓ Elkarrizketetan hitz egitera eta parte hartzera animatzen dute ✓ Erabakiak hartzeko aukera ematen diote alternatiba errazak eskainiz ✓ Bere adinerako jostailu egokiak eta askotarikoak ditu ✓ Haurraren jostailuak/liburuak arretaz tratatzen dira ✓ Etxetik kanpo paseatzera eramaten dute ✓ Guraso-figurek normalean liburuak irakurtzen dizkiote, ipuinak kontatzen dizkiote, haurrarekin jolasten dira edo telebista ikusten dute harekin ✓ Haurrak etxetik kanpoko leku berriak esploratzen ditu, gainbegiratuta --- ✓ Haurra eskolatuta badago, erregularki joaten da eskolara ✓ Eskolatuta badago, guraso-figurak tutoretzetara eta irakasleekin hartutako hitzorduetara joaten dira

PREMIEN EBALUAZIO-ADIERAZLEAK – 5-9 URTE

Premia fisikoak	*Segurtasuna*	*Premia emozionalak*	*Premia sozialak*	*Premia kognitiboak*
✓ Osasun ona du oro har; ohiko gaixotasunak ✓ Pisua eta tamaina esperotako neurrian ✓ Haurrak dieta egokia eta elikagarria dauka ✓ Bainu erregularrak ✓ Eguraldiari egokitutako arropa darama ✓ Arropa normalean garbi (pixa-, kaka- edo janari-hondarrik gabe) ✓ Etxea garbi dago, baita haurraren ohea ere ✓ Guraso-figurek ziurtatzen dute haurraren higiene pertsonala egokia dela ✓ Ohiko pediatria-kontroletara joatea ✓ Txertoak jartzen zaizkio; hori egin ezean, azalpen egokia dago ✓ Behin baino gehiagotan hartzen du gaixotasun bera, baina azalpen medikoa du ✓ Hortzen zaintza eta arreta erregularra eta egokia ✓ Guraso-figurak arduratu egiten dira haurrak behar adina lo egin dezan eta isiltasuna egon dadin ✓ Haurrak ordutegi egonkorrak eta egokiak ditu (otorduak, loa, bainua)	✓ Haurrak izan dituen lesioei arreta egokia eman diete ✓ Haurrak edo nerabeak dituen lesio edo marka fisikoek azalpen onargarria dute ✓ Beste pertsona batzuen indarkeriatik babesten dute haurra ✓ Guraso-figurek haurra jazarpenetik babesteko jardun dute ✓ Etxean leku seguruak daude haurra jolastu ahal izateko ✓ Guraso-figurek beti dakite haurra non dagoen ✓ Arreta egokia jasotzen du, bere nortasuna eta garapen-maila kontuan hartuta ✓ Guraso-figurek haurraren eta haren anai-arreben arteko harremana gainbegiratzen dute ✓ Oro har, anai-arrebek ondo tratatzen dute haurra ✓ Haurra pertsona heldu arduratsuek artatzen dute, edo guraso-figurek seguruak direla ziurtatu duten lekuetan jolasten da ✓ Haurra pertsona heldu batek lagunduta joaten da eskolara beharrezkoa den guztietan ✓ Haurrak ezagutzen dituen pertsona heldu arduratsuak daude eskolara eramateko eta jasotzeko ✓ Zaintzen duten senide eta pertsona helduen kopurua mugatua da ✓ Guraso-figurek pertsona ezezagunekin nola jokatu behar den irakatsi diote haurrari ✓ Guraso-figurek egokiro ziurtatzen dute haurra artatuta dagoela edo laguntza duela arriskutsuak izan daitezkeen lekuetan ✓ Etxea zaintzeko erantzukizuna argi eta garbi esleitua duen pertsona heldu bat dago gutxienez ✓ Etxerako nahiz etxetik kanporako babes- eta segurtasun-neurriak irakatsi zaizkio haurrari ✓ Ohikoa da haurra bakarrik uztea ~~✓ Gauean bakarrik uzten dute~~ ✓ Eraso edo zigor fisikoak jasotzen ditu	✓ Haurrak harreman egonkorra dauka pertsona heldu batekin gutxienez ✓ Oro har pertsona heldu berberek artatzen dute ✓ Guraso-figurek haurra kontsolatzen dute gaixo dagoenean, haserre dagoenean, beldurra duenean edo min hartu duenean ✓ Norberak bere buruarekiko konfiantza hartzea indartzen dute ✓ Bat-bateko afektu-adierazpenak egiten dizkiote sarritan haurrari ✓ Baldintzarik gabe maite dute ✓ Den bezalakoa izanda onartzen dute ✓ Guraso-figurek haurrarekin harro daudela adierazten dute ✓ Familiako kide gisa onartua dago ✓ Familiako ospakizunetako partaide egiten dute ✓ Guraso-figurek lotura positibo eta sendoa garatzeko behar adina denbora igarotzen dute haurrarekin ✓ Familian afektuzko harremanak ezartzea indartzen dute ✓ Haurraren ahaleginak eta lorpenak indartzen dituzte ✓ Laguntza ematen diote beste haur batzuen isekak edo erasoak pairatzen dituenean ✓ Bere beldurrei eta kezkei buruz hitz egitera animatzen dute ✓ Haurrak etxean jasotzen dituen erantzunak sendoak eta aurreikusteko modukoak dira ✓ Guraso-figurek interesa adierazten dute haurrak eskolan egiten duenari buruz ✓ Lorpen akademikoak indartzen dituzte, eta haiekiko onespena adierazten dute ✓ Familiako desadostasunak indarkeriarik gabe konpontzen dira ✓ Haurraren eguneroko bizitzak errutinak ditu, eta ordenatua eta egonkorra da ✓ Independentea izateko egiten dituen ahaleginak errespetatzen dira ✓ Autonomia-maila handiagoa lor dezan sustatzen da ✓ Guraso-figurek sustatu egiten dute haurrak norberaren zaintzako erantzukizunak hartzea, bere adinari edo garapen-mailari dagokion neurrian, eta horretarako adorea ematen diote, baina beti begiratzen edo egiaztatzen dute haurra seguru dagoela ✓ Pertsona helduek dute familia zaintzeko erantzukizun nagusia ✓ Haurrak ez du ikusten helduen arteko sexu-harremanik, eta ez da tartean suertatzen ✓ Haurrak ez du ikusten helduen arteko egoera bortitzik, eta ez da tartean suertatzen	✓ Haurrak beste pertsona heldu eta adingabe batzuekin harremana izatea sustatzen da ✓ Beste haur batzuekin partekatzera eta jolastera animatzen dute ✓ Bere lagunekin egoten da eskola-ordutegitik kanpo ✓ Lagunak etxera gonbidatzen ditu ✓ Guraso-figurek sustatu egiten dute haurrak bere lagunak etxera gonbida ditzan ✓ Eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan parte hartzera bultzatzen dute ✓ Guraso-figurek laguntza edo aholkularitza bilatzen dute, haurraren jokabidea kontrolatzeko zailtasunak badituzte ✓ Metodo egokiak erabiltzen dituzte haurraren portaera kudeatzeko (errefortzu positiboa ematea, negoziatzea, ereduak ezartzea, sariak ematea, entretenitzea, konbentzitzea, jokabide desegokiak desagerraraztea eta abar) ✓ Muga eta arau argiak daude familian portaera egokiari dagokionez ✓ Muga eta arau horiek sendoak dira, eta bi guraso-figurek errespetatzen dituzte ✓ Haurrari bere emozioak kontrolatzen laguntzen diote ✓ Negoziatzera animatzen dute ✓ Guraso-figurek beste pertsona batzuekin harremanak izateko modua eredu egokia da haurrarentzat ✓ Beste pertsonekin eta desberdintasunarekin errespetuz eta tolerantziaz jokatzen irakasten diote haurrari ✓ Jokamolde onak izaten eta beste pertsonekiko errespetua adierazten irakasten zaio ✓ Guraso-figurek bizilagunekin eta autoritate-figurekin duten harremana egokia da oro har ✓ Haurrari irakasten diote ez duela izan behar portaera bortitzik edo krudelik ✓ Guraso-figurek eskolako arauak babesten dituzte ✓ Leku publikoetan portaera egokia izatea sustatzen dute, eta hori irakasten diote haurrari ✓ Familiak sentitzen du onartuta dagoela bere ~~komunitatean~~ ✓ Familiako kideak gizartearen aurkako jardueretan aritzen dira	✓ Haurra aktiboa izatera bultzatzen dute ✓ Ohikoa da haurrak etxetik kanpo jolastea ✓ Bere adinerako jostailu eta ikasketa-material egokiak eta askotarikoak ditu ✓ Haren jostailuak, liburuak eta eskola-materiala arretaz tratatzen dira ✓ Guraso-figurek normalean liburuak irakurtzen dizkiote, ipuinak kontatzen dizkiote, haurrarekin jolasten dira edo telebista ikusten dute harekin ✓ Haurra erregularki joaten da eskolara ✓ Guraso-figurek etxeko lanak egiten dituela begiratzen dute, eta laguntza ematen diote ✓ Tutoretzetara eta irakasleekin hartutako hitzorduetara joaten dira ✓ Modu egonkorrean indartzen dute haurraren ikaskuntza ✓ Haurra eskolara erregularki joan dadin laguntzen dute ✓ Eskolara garaiz iristen dela ziurtatzen dute

		✓ Helduen jokabide xelebreak edo beldurra eragin diezaioketen jokabideak ikustea saihesteko ahalegina egiten da --- ✓ Haurrak askotan ikusten ditu ondoez emozionaleko sintomak guraso-figurengan ✓ Kritikak edo areriotasuneko adierazpenak pairatzen ditu sarritan ✓ Oso presio handia egiten diote emaitza akademiko onak izan ditzan ✓ Guraso-figurek haurraren babesa bilatzen dute arazoak dituztenean ✓ Ohikoa da haurrak anai-arreba adingabeak zaindu behar izatea ✓ Haurrak guraso-figurak zaindu behar ditu		

PREMIEN EBALUAZIO-ADIERAZLEAK – 10-14 URTE

Premia fisikoak	*Segurtasuna*	*Premia emozionalak*	*Premia sozialak*	*Premia kognitiboak*
✓ Osasun ona du oro har; ohiko gaixotasunak ✓ Haur edo nerabearen gaixotasunek mediku-arreta egokia jasotzen dute ✓ Haurrak edo nerabeak dieta osasungarria jasotzen du ✓ Arropa normalean garbi dago ✓ Higiene pertsonal egokia du ✓ Behin baino gehiagotan hartzen du gaixotasun bera, baina azalpen medikoa du ✓ Guraso-figurek etxeko higiene-baldintzak egokiak direla ziurtatzen dute ✓ Guraso-figurek osasun-ohitura egokiak irakasten dizkiote haurrari edo nerabeari (elikadura, ariketa, droga-kontsumoa edo alkohol-kontsumoa) ✓ Guraso-figurek ariketa fisikoa egitera bultzatzen dute haurra edo nerabea ✓ Guraso-figurek bere osasunaren gaineko erantzukizunak hartzera bultzatzen dute haurra edo nerabea ✓ Haur edo nerabearen ondoez fisikoko sintomekiko edo lesioekiko sentsibilitatea dute ✓ Haurrak edo nerabeak aho-hortzetako osasunerako arreta egokia jasotzen duela ziurtatzen dute ✓ Haur edo nerabearen eguneroko zaintzaren gaineko erantzukizun nagusia bere gain hartzen duen pertsona heldu bat dago gutxienez	✓ Haurrak edo nerabeak izan dituen lesioen gaineko arreta egokia da ✓ Haurrak edo nerabeak dituen lesio edo marka fisikoek azalpen onargarria dute ✓ Beste pertsona batzuen indarkeriatik babesten dute haurra ✓ Haurrak edo nerabeak jazarpena pairatu badu, guraso-figurek hura babesteko ekimena hartu dute ✓ Guraso-figurek beti dakite haurra edo nerabea non dagoen ✓ Haurrak edo nerabeak artatze egokia jasotzen du, bere nortasuna eta garapen-maila kontuan hartuta ✓ Guraso-figurek haur edo nerabearen eta haren anai-arreben arteko harremana gainbegiratzen dute ✓ Haurra edo nerabea zaintzen duten senideen eta pertsona helduen kopurua mugatua da ✓ Guraso-figurek pertsona ezezagunekin nola jokatu behar den irakatsi diote haurrari edo nerabeari ✓ Guraso-figurek ziurtatzen dute haurra edo nerabea artatuta dagoela edo laguntza duela arriskutsuak izan daitezkeen lekuetan ✓ Etxerako nahiz etxetik kanporako babes- eta segurtasun-neurriak irakatsi zaizkio haurrari edo nerabeari ✓ Guraso-figurak etxetik eskolarako eta eskolatik etxerako bidea segurua dela ziurtatzen saiatzen dira --- ✓ Sarritan, haurra edo nerabea bakarrik uzten dute gauean ✓ Haurrak edo nerabeak eraso edo zigor fisikoak jasotzen ditu	✓ Oro har pertsona heldu berberek zaintzen dute haurra edo nerabea ✓ Guraso-figurek haurra edo nerabea kontsolatzen dute haserre dagoenean edo beldurra duenean ✓ Haurrari edo nerabeari ziurtatzen diote beti lagunduko diotela ✓ Norberak bere buruarekiko konfiantza hartzea indartzen dute ✓ Bat-bateko afektu-adierazpenak egiten dizkiote sarritan ✓ Haurraz edo nerabeaz harro daudela adierazten dute ✓ Familiako kide gisa onartzen dute haurra edo nerabea ✓ Familiako ospakizunetako partaide egiten dute ✓ Guraso-figurek lotura positibo eta sendoa garatzeko behar adina denbora igarotzen dute haurrarekin edo nerabearekin ✓ Familian afektuzko harremanak ezartzea indartzen dute ✓ Haur edo nerabearen ahaleginak eta lorpenak indartzen dituzte ✓ Bere beldurrei eta kezkei buruz hitz egitera animatzen dute ✓ Haurrak edo nerabeak etxean jasotzen dituen erantzunak sendoak eta aurreikusteko modukoak dira ✓ Interesa adierazten dute haurrak edo nerabeak eskolan egiten duenari buruz ✓ Lorpen akademikoak indartzen dituzte eta haiekiko onespena adierazten dute ✓ Familiako desadostasunak indarkeriarik gabe konpontzen dira ✓ Haur edo nerabearen eguneroko bizitza ordenatua eta egonkorra da ✓ Independentea izateko egiten dituen ahaleginak errespetatzen dira ✓ Autonomia-maila handiagoa lor dezan sustatzen da ✓ Guraso-figurek sustatu egiten dute haurrak edo nerabeak norberaren zaintzako erantzukizunak hartzea, bere adinari edo garapen-mailari dagokion neurrian, eta horretarako adorea ematen diote, baina beti begiratzen dute seguru dagoela ✓ Norberaren zaintzaren arloan lortzen dituen gaitasunengatik (janaria prestatzea, erosketak egitea eta abar) adorea ematen zaio haurrari edo nerabeari ✓ Pertsona helduek dute familia zaintzeko erantzukizun nagusia	✓ Beste haur edo nerabe batzuekin partekatzera eta jolastera animatzen dute ✓ Haurra edo nerabea bere lagunekin egoten da eskola-ordutegitik kanpo ✓ Lagunak etxera gonbidatzen ditu ✓ Guraso-figurek sustatu egiten dute haurrak edo nerabeak lagunak etxera gonbida ditzan ✓ Haur edo nerabearen adiskidetasun-harreman positiboak indartzen dituzte ✓ Eragin negatiboa izan dezaketen pertsona helduekin edo adingabeekin harremana izatea saihesteko ahalegina egiten dute ✓ Guraso-figurek metodo egokiak erabiltzen dituzte haur edo nerabearen lankidetza lortzeko eta hark portaera egokia izateko ✓ Muga eta arau argiak daude familian portaera egokiari dagokionez ✓ Muga eta arau horiek sendoak dira, eta bi guraso-figurek errespetatzen dituzte ✓ Haurra edo nerabea negoziatzera animatzen dute ✓ Guraso-figurek beste pertsona batzuekin harremanak izateko modua eredu egokia da haurrarentzat edo nerabearentzat ✓ Beste pertsonekiko errespetua eta tolerantzia irakasten dizkiote haurrari edo nerabeari ✓ Legea errespetatzen irakasten diote ✓ Jokamolde onak izaten eta beste pertsonekiko errespetua adierazten irakasten diote ✓ Etxeko zereginetan laguntzera bultzatzen dute ✓ Guraso-figurek bizilagunekin eta autoritate-figurekin duten harremana egokia da oro har ✓ Haurrari edo nerabeari irakasten diote ez duela izan behar portaera bortitzik edo krudelik ✓ Eskolako arauak babesten dituzte ✓ Haurrak edo nerabeak leku publikoetan portaera egokia izatea irakasten eta sustatzen dute ✓ Familiak sentitzen du onartuta dagoela bere komunitatean ✓ Guraso-figurek babestu egiten dute haurrak edo nerabeak sexu-hezkuntza jasotzea, edo beraiek irakasten diote ✓ Haurrak edo nerabeak mezu argiak jaso ditu sexu-jokabide egokia denari buruz ✓ Guraso-figurek ez dute alkohola kontsumitzen, edo modu oso kontrolatuan egiten dute, haurrarentzako edo nerabearentzako eredu ona izanik ✓ Familiako kideak gizartearen aurkako jardueretan inplikatuta daude	✓ Guraso-figurek normalean liburuak irakurtzen dizkiote haurrari edo nerabeari, ipuinak kontatzen dizkiote, harekin batera jolasten dira, edo telebista ikusten dute elkarrekin ✓ Haurrak edo nerabeak gaitasun berriak hartzea babesten dute ✓ Bere eskola-bilakaera oztopa dezaketen familiako arazoetatik kanpo mantentzen saiatzen dira ✓ Haurrak edo nerabeak behar adina denbora dauka bere zaletasunetan edo interesetan aritzeko --- ✓ Guraso-figurek sustatu egiten dute haurrak edo nerabeak etxeko lanak egitea ✓ Tutoretzetara eta irakasleekin hartutako hitzorduetara joaten dira ✓ Guraso-figurek ahalegina egiten dute haurra edo nerabea eskolara erregularki joaten dela bermatzeko

		✓ Etxea zaintzeko erantzukizuna argi eta garbi esleitua duen pertsona heldu bat dago gutxienez ✓ Guraso-figurek haurrari edo nerabeari laguntzen diote zailtasun akademikoak dituenean ✓ Haur edo nerabearen arropa eta itxura bat datoz hark nahi duenarekin ✓ Erabakiak hartzen eta bere bizitzako alderdi batzuk kontrolatzen uzten zaio ✓ Haurrak edo nerabeak ez du ikusten helduen arteko sexu-harremanik, eta ez da tartean suertatzen ✓ Haurrak edo nerabeak ez du ikusten helduen arteko egoera bortitzik, eta ez da tartean suertatzen ✓ Helduen jokabide xelebreak edo beldurra eragin diezaioketen jokabideak ikustea saihesteko ahalegina egiten da ✓ Guraso-figurek kanpoko laguntza bilatzen dute harremanen arloko arazoak edo haurrarekin edo nerabearekin arazoak dituztenean eta konpondu ezin dituztenean ✓ Haurrak edo nerabeak sarritan ikusten ditu ondoez emozionaleko sintomak guraso-figurengan ✓ Kritikak edo areriotasuneko adierazpenak pairatzen ditu sarritan ✓ Oso presio handia egiten zaio emaitza akademiko onak izan ditzan ✓ Guraso-figurek haur edo nerabearen laguntza bilatzen dute arazoak dituztenean	✓ Guraso-figurek drogak kontsumitzen dituzte	

PREMIEN EBALUAZIO-ADIERAZLEAK – 15-18 URTE

Premia fisikoak	*Segurtasuna*	*Premia emozionalak*	*Premia sozialak*	*Premia kognitiboak*
✓ Nerabearen gaixotasunek mediku-arreta egokia jasotzen dute ✓ Dieta osasungarria jasotzen du ✓ Higiene pertsonal egokia du ✓ Behin baino gehiagotan hartzen du gaixotasun bera, baina azalpen medikoa du ✓ Guraso-figurek etxeko higiene-baldintzak egokiak direla ziurtatzen dute ✓ Guraso-figurek osasun-ohitura egokiak irakasten dizkiote nerabeari (elikadura, ariketa, droga-kontsumoa edo alkohol-kontsumoa) ✓ Babesik gabeko sexu-harremanen arriskuei buruzko informazioa eman diote guraso-figurek nerabeari ✓ Guraso-figurek ariketa fisikoa egitera bultzatzen dute haurra edo nerabea ✓ Bere higienearen gaineko erantzukizunak hartzera bultzatzen dute ✓ Nerabearen ondoez fisikoko sintomekiko edo lesioekiko sentsibilitatea dute guraso-figurek ✓ Ziurtatzen dute nerabeak aho-hortzetako osasunarekiko arreta egokia jasotzen duela ✓ Nerabearen eguneroko zaintzaren gaineko erantzukizun nagusia bere gain hartzen duen pertsona heldu bat dago gutxienez ✓ Guraso-figurek ziurtatu egiten dute nerabeak tatuajeak edo piercingak egiten baditu segurtasun-bermeekin egiten duela	✓ Nerabearen lesioek edo marka fisikoek azalpen onargarria dute ✓ Beste pertsona batzuen indarkeriatik babesten dute nerabea ✓ Nerabeak bullyinga pairatu badu, guraso-figurek babesteko jardun dute ✓ Guraso-figurek nerabea non dagoen jakiteko ahalegina egiten dute beti ✓ Nerabeak artatze egokia jasotzen du, bere nortasuna eta garapen-maila kontuan hartuta ✓ Nerabea denboraldi batean etxetik kanpo egon denean, pertsona heldu arduratsuen begiradapean egon da beti ✓ Nerabeak etxean bizi diren beste haur edo nerabeekin duen harremana ona da oro har ✓ Guraso-figurek nerabearen eta haren anai-arreben arteko harremana gainbegiratzen dute ✓ Arriskutsuak izan daitezkeen lekuetan nerabea artatuta dagoela edo laguntza duela ziurtatzen dute ✓ Etxerako nahiz etxetik kanporako babes- eta segurtasun-neurriak irakatsi dizkiote nerabeari ✓ Guraso-figurak etxetik eskolarako/lanerako eta eskolatik/lanetik etxerako bidea segurua dela ziurtatzen saiatzen dira --- ✓ Nerabeak eraso edo zigor fisikoak jasotzen ditu	✓ Nerabea zaintzen duten pertsona helduei dagokienez, jarraitutasuna dago ✓ Guraso-figurek nerabea kontsolatzen dute haserre dagoenean edo beldurra duenean ✓ Nerabeari ziurtatzen diote beti lagunduko diotela ✓ Norberak bere buruarekiko konfiantza hartzea indartzen dute ✓ Bat-bateko afektu-adierazpenak egiten dizkiote sarritan ✓ Nerabeaz harro daudela adierazten dute ✓ Familiako kide gisa onartzen dute nerabea ✓ Familiako ospakizunetako partaide egiten dute ✓ Guraso-figurek lotura positibo eta sendoa garatzeko behar adina denbora igarotzen dute nerabearekin ✓ Familian afektuzko harremanak ezartzea indartzen dute ✓ Nerabearen ahaleginak eta lorpenak indartzen dituzte ✓ Bere beldurrei eta kezkei buruz hitz egitera animatzen dute ✓ Nerabeak etxean jasotzen dituen erantzunak sendoak eta aurreikusteko modukoak dira ✓ Guraso-figurek interesa adierazten dute nerabeak eskolan/lanean egiten duenari buruz ✓ Ahalegin eta lorpen akademikoak indartzen dituzte, eta haiekiko onespena adierazten dute ✓ Familiako desadostasunak indarkeriarik gabe konpontzen dira ✓ Nerabearen eguneroko bizitza ordenatua eta egonkorra da ✓ Autonomia-maila handiagoa lor dezan sustatzen dute ✓ Guraso-figurek sustatu egiten dute nerabeak bere burua zaintzeko erantzukizunak har ditzan, bere adinari edo garapen-mailari dagokion neurrian, eta horretarako adorea ematen diote, baina beti begiratzen dute nerabea seguru dagoela ✓ Norberaren zaintzaren arloan lortzen dituen gaitasunengatik (janaria prestatzea, erosketak egitea eta abar) adorea ematen diote nerabeari ✓ Pertsona helduek dute familia zaintzeko erantzukizun nagusia ✓ Etxean esleituak dituen erantzukizunak zentzuzkoak dira ✓ Etxea zaintzeko erantzukizuna argi eta garbi esleitua duen pertsona heldu bat dago gutxienez	✓ Partekatzera animatzen dute ✓ Guraso-figurek sustatu egiten dute nerabeak lagunak etxera gonbida ditzan ✓ Lagunekin egotera animatzen dute ✓ Etxetik kanpoko gizarte-jardueretan parte hartzea sustatzen dute ✓ Guraso-figurek nerabearen adiskidetasun-harreman positiboak sustatzen dituzte ✓ Nerabeak eragin negatiboa izan dezaketen pertsona helduekin edo adingabeekin harremana izatea saihesteko ahalegina egiten dute ✓ Guraso-figurek metodo egokiak erabiltzen dituzte nerabearen lankidetza lortzeko eta hark portaera egokia izatea lortzeko ✓ Muga eta arau argiak daude familian portaera egokiari dagokionez ✓ Muga eta arau horiek sendoak dira, eta bi guraso-figurek errespetatzen dituzte ✓ Negoziatzera animatzen dute ✓ Guraso-figurek beste pertsona batzuekin harremanak izateko modua eredu egokia da nerabearentzat ✓ Beste pertsonekiko errespetua eta tolerantzia izaten irakasten diote ✓ Legea errespetatzen irakasten diote ✓ Jokamolde onak izaten eta errespetua izaten irakasten diote ✓ Etxeko zereginetan laguntzera bultzatzen dute ✓ Guraso-figurek bizilagunekin eta autoritate-figurekin duten harremana egokia da oro har ✓ Guraso-figuren jokabidea eredu ona da nerabearentzat ✓ Nerabeari irakasten diote ez duela izan behar portaera bortitzik edo krudelik ✓ Guraso-figurek ahalegina egiten dute nerabea lanera erregularki joaten dela ziurtatzeko ✓ Eskolako arauak babesten dituzte ✓ Nerabeak leku publikoetan portaera egokia izatea irakasten eta sustatzen dute ✓ Familiak sentitzen du onartuta dagoela bere komunitatean ✓ Guraso-figurek babestu egiten dute nerabeak sexu-hezkuntza jasotzea, edo etxean irakasten diote ✓ Nerabeak mezu argiak jaso ditu sexu-jokabide egokia denari buruz ✓ Guraso-figurek ez dute alkohola kontsumitzen, edo modu oso kontrolatuan egiten dute, nerabearentzako eredu ona izanik	✓ Nerabeak gaitasun berriak hartzea babesten dute ✓ Nerabea bere eskola-bilakaera oztopa dezaketen familiako arazoetatik kanpo mantentzen saiatzen dira ✓ Nerabeak behar adina denbora dauka bere zaletasunetan edo interesetan aritzeko --- ✓ Guraso-figurek sustatu egiten dute nerabeak etxeko lanak egitea ✓ Tutoretzetara eta irakasleekin hartutako hitzorduetara joaten dira ✓ Nerabea eskolara erregularki joaten dela ziurtatzeko ahalegina egiten dute

		✓ Guraso-figurek nerabea babesten dute, eta lagundu egiten diote zailtasun akademikoak edo lanekoak dituenean ✓ Bere arropa eta itxura bat datoz berak nahi duenarekin ✓ Guraso-figurek nerabearen sexu-joera errespetatzen dute ✓ Nerabeak ez du ikusten helduen arteko sexu-harremanik, eta ez da tartean suertatzen ✓ Ez du ikusten helduen arteko egoera bortitzik, eta ez da tartean suertatzen ✓ Pertsona helduek kanpoko laguntza bilatzen dute, harremanen arloko arazoak edo nerabearekin arazoak dituztenean eta konpondu ezin dituztenean --- ✓ Nerabeak askotan ikusten ditu ondoez emozionaleko sintomak guraso-figurengan ✓ Kritikak edo areriotasuneko adierazpenak pairatzen ditu sarritan ✓ Oso presio handia egiten diote emaitza akademiko onak izan ditzan edo beti lehenengoa izan dadin ✓ Guraso-figurek nerabearen laguntza bilatzen dute arazoak dituztenean	✓ Nerabeak eskola edo lana utzi badu, beste lan bat bilatzera bultzatzen dute. ✓ Nerabea lanera erregularki joaten dela ziurtatzeko ahalegina egiten dute ✓ Familiako kideak gizartearen aurkako jardueretan inplikatuta daude ✓ Guraso-figurek drogak kontsumitzen dituzte ---	